

The background of the cover is a textured, light yellow surface. In the upper right corner, there is a cluster of dried purple flowers with long, thin stems. Below this cluster, several red petals are scattered across the yellow background. In the top right and bottom left corners, there are small, rectangular decorative elements with a colorful, abstract pattern.

FEMINIZIDIOA **EUSKADIN ETA** **NAFARROAN** 2010-2015

GERTAERAK, TRATAMENDUA
PRENTSAN ETA EPAIEN ANALISIA

FEMINIZIDIOA EUSKADIN ETA NAFARROAN 2010-2015

GERTAERAK, TRATAMENDUA
PRENTSAN ETA EPAIEN ANALISIA

*Lan hau, orrialde hauetan agertzen diren emakume eta neskatilei,
zein emakume izanagatik erailak izan diren guztiei eskaintzen diegu.
Euren izenetako bakoitza eta euren historia guztiak gogoratu ditzagun,
eta memoria hori izan dadila indarkeria matxistarik gabeko
bizitza askea eraikitzeko bide.*

Argitaratua:



www.mugarikgabe.org

 Mugarik Gabe

 @mugarikgabe

BIZKAIA

Mugarik Gabe
Vicente Garamendi Taldea 5, lonja - 48006 Bilbo
94.415.43.07 | bilbao@mugarikgabe.org

GIPUZKOA

Mugarik Gabe
Katalina Elizegi 46, baxua 3. atea - 20009 Donostia
943.445.977 | gipuzkoa@mugarikgabe.org

ARABA

Mugarik Gabe
"Itziar" elkarteen etxea Zalburu enparantza z/g
01003 Vitoria-Gasteiz
945.277.385 | araba@mugarikgabe.org

Txostena eta prentsaren analisis: Graciela Atencio, Loreto de la Carrera eta Nerea Novo

Geofeminicidio-ko datuen analisis: Graciela Atencio eta Charo Marcos

Epaian analisis: María del Mar Daza Bonachela

Grafikoak: Francisco Gatica

ISBN: 978-84-617-8874-3

Lege gordailua: BI-371-2017

Finantziatua:



2016ko abendua

Diseinua: Patirke Belaza

Itzulpena: Komunika

Maketazioa: Binari Comunicación



Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 4.0 Internazionalela (CC BY-NC-ND 4.0)

Dokumentu hau Creative Commons lizentziapean dago. Edukia libreki zabaltzea, kopiatzea eta birbanatzea baimentzen da edozein bitarteko edo formatutan, beti ere, egiletasuna aitortzen bada. Ezin da erabili xede komertzialarekin, nahastu edo eraldatu egiten bada edo materiala oinarri hartuta sortu egiten bada, ezin da eraldatutako materialik hedatu, ezin da lizentziak baimentzen duena legalki burutzea mugatzen duen neurri teknologikorik edo legeko akaberarik erabili.

Lizentzia osatua: http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0/deed.es_ES

AURKIBIDEA

ZERGATIK ERREGISTRATU EMAKUMEEN ERAILKETAK?

1. Geofeminicidio: Zergatik erregistratu gizonak burututako emakumeen erailketa guztiak?	12
2. Metodologia	13
2.1. 1/2004 Lege Organikoaren markoan feminizidioak dokumentatzeko zailtasunak	13
2.2. Espainiar estatuko feminizidioen dokumentazioaren metodologia	13
3. Feminizidioa: kontzeptua, testuingurua eta terminoaren bilakaera	18
3.1. Kontzeptuaren sorrera	18
3.2. Kontzeptuaren bilakaera Latinoamerikan	19
4. Feminizidio motak eta emakumeen erailketa motak	25

FEMINIZIDIOAREN ERRADIOGRAFIA

5. 2010-2015 artean Euskadin eta Nafarroan jazotako feminizidioen erradiografia laburra	30
6. 2010-2015 arteko feminizidioen eta eraildako emakumeen zerrenda	32
7. Kasuen aipamena hurrenkera kronologikoan	34
8. Biztanleria eta testuingurua	44
9. Euskadiko eta Nafarroako kasuen harremana, Espainiar estatukoekin alderatuta	46
9.1. Feminizidioa Espainiar estatuan: lurralde ezberdinetako kasu kopurua	46
9.2. Lurralde ezberdinetako prebalentzia	48
10. Kasu kopurua	50
10.1. Kasu kopurua probintziak eta prebalentziak	50
10.2. Kasu kopurua udalerriak	52
10.3. Urteko kasu kopurua hilabeteka	54
11. Feminizidio motak eta emakumeen beste erailketa batzuk	55
11.1. Euskadiko eta Nafarroako feminizidio motak Espainiar estatukoekin alderatuta	55
11.2. Feminizidio eta emakumeen beste erailketa motak probintziak	56
11.3. Kasuak, feminizidio eta erailketa moten arabera	57
12. Biktimen profil demografikoa: jatorria, adina, lanbidea	59
12.1. Jatorria	59
12.2. Adina	60
12.3. Lanbidea	61
13. Hiltzaileen profil demografikoa: jatorria, adina, lanbidea	62
13.1. Jatorria	62
13.2. Adina	63
13.3. Lanbidea	64

14. Feminizidioa eta erailketa: testuingurua	65
14.1. Gorpua aurkitutako agertokia	65
14.2. Hiltzaileak erabilitako armak	66
14.3. Indarkeria ekintzak	67
14.4. Hiltzaileen arrazoiak eta egoerak	69
14.5. Hiltzailea eta biktimaren arteko harremana	71
14.6. Hiltzailearen suizidioa	73

PRENTSAREN ANALISIA

15. 2010-2015 artean Euskadin eta Nafarroan jazotako feminizidioen eta emakumeen bestelako erailketen prentsa digitaleko albisteen analisia	76
15.1. Albisteez biolentzia matxista desberdintasun estrukturaletik bereizten dute	76
15.2. Txostenaren iturri hemerografiko bezala erabilitako medio digitalak	77
15.3. Biolentzia matxistaren jatorriaren identifikazioa	77
15.4. Zifra ofizialen eta iturri espezializatuen erabilera	78
15.5. Hilketaren justifikazioak	79
15.6. Biktimaren erruduntasuna	80
15.7. Legediaren eta prozesu judizialaren hedapen falta	81
15.8. Estereotipoen erreprodukzioa	82
15.9. Material grafiko eta titular desegokiak	83
15.10. Feminizidio moten arabera, prentsan argitaratutako informazioa	83
15.11. Kasu paradigmakoa: prentsa okertu zuen "shaolin" maisu faltsua	84
15.12. Ondorioak	86
15.13. Grafikoen azalpen zehatzak	87

SENTENTZIEN ANALISIA

16. 2010-2015 artean Euskadin eta Nafarroan jazotako feminizidioen eta emakumeen bestelako erailketen sententzien analisia	106
16.1. Sententzien analisia	106
16.2. Ondorioak	143

ONDORIOAK

17. Ondorioak	159
----------------------	------------

ERANSKINAK

1. eranskina. 2010-2015 arteko Euskadiko eta Nafarroako feminizidioen eta beste erailketen datuen laburpena	160
2. eranskina. 2010-2015 arteko Espainiar estatuko feminizidioak eta beste erailketak: 2010-2015 arteko datuen laburpenen infografiak	166

BIBLIOGRAFIA

Bibliografia	169
--------------	------------

SARRERA

2010ean abiatu zuen Mugarik Gabek hausnarketan, trebakuntzan eta mundu osoko giza eskubideen urraketa larrienetako eta sistematikoenetako bat sozialki eta politikoki abordatzeko prozesua: biolentzia matxistena. Modu honetan arazo honen gainean gure lehentasun estrategikoetako bat jarri genuen; “Enfrentamos todas las violencias machistas. Patriarkaturik gabe, denon jabe” kanpaina martxan ipiniz, denboran luzea den prozesu bat, ekintza ezberdinak garatzeko aterki izatea helburu duena.

Hasiera batean jarduera hausnarketan eta barne trebakuntzan oinarritu zen. Emaiza “Una vida sin violencias machistas: una apuesta de Mugarik Gabe” dokumentua izan zen, posizionamendu politikoa biltzen duena. Txostenak indarkeria matxistak continuum bat bezala ulertzeko beharra errepikatzen du behin eta berriro, hau da, eremu pribatu eta publikoan gauzatzen diren askotariko indarkerien modura, zeinen artean lotura bat existitzen den, eta izaera sistemiko eta estrukturala duten. Indarkeria matxisten inguruko ikuspegi global hau elkarlanean ari garen Latinoamerikako eta Euskal Herriko emakumeen eta feministen kolektiboen estrategiekin eta esperientziekin indartu da. Haiengandik ikasi dugu, eta haiekin ari gara josten indarkeriei kontra egiteko ulertzeko eta borrokatzeko modu berriak. Lehen-dabiziko akordio honetatik jarri ziren martxan sentsibilizatzeko eta hezteko ekintza asko, erakusketak, film emanaldiak, argitalpen ezberdinak, jardunaldiak eta elkarriketak kasu. Landu ziren gako nagusietako batzuk indarkerien kausa estrukturalak izan ziren, haien konplexutasun eta aniztasuna; eta duten izaera globala. Bien bitartean, ordea, ez dugu momentu batean ere ez alboratu hausnarketa eta eztabaida; batetik asanblada gisa, eta, bestetik, Latinoamerikako, Euskal Herriko zein Espainiar estatuko kolektibo feministen, emakumeen eta giza eskubideen eskutik. Beraiek dira, eta izan dira, prozesu guzti honen gakoa. Izan ere, horrek ahalbidetu digu diskurtso eta estrategietan sakontzea. Hala, gure lana intzidentzia politikora bideratzen hasi ginen, jendartearen, agente sozialen (komunikabideak barne) eta instituzioen aurrean. Ahalegin honek intzidentzia politikorako estrategia bat abiatzea du ardatz, baina honek ez luke zentzurik izango mugimendu feministarekin batera aritu ezean. Horrela, emakumeen eskubideen urraketa larri hauen salaketan sakondu nahi dugu, baita arautu gabeko beste hainbat ataletan ere; baina alternatiben sorkuntzan aurrera egitea ere proposatzen dugu.

2013an Emakumeen Eskubideen Tribunalak ospatu genuen, auzitegi sinboliko bat, kolektibo eta mugimendu sozial ezberdinen ahaleginaren emaitza izan zena. Ekintza politiko honek ikusgaitasuna eman zien indarkeria matxistei, giza eskubideen urraketa modura; Euskal Herriko, Espainiar estatuko eta Latinoamerikako emakumeen testigantzen bidez. Era honetan salatu ziren sistema politiko eta judizial patriarkatuak, emakumea behartzeaz gain, biktimago bilakatzen dituztenak. Ondoren, 2015ean, indarkeria matxisten inguruko diagnostikoa osatzeko prozesua gauzatu genuen, lurralde mailako topaketa batzuen bidez, Euskal

Herrian, Herrialde Katalanetan, Madrilgo Komunitatean eta Andaluzian egin zirenak; mugimendu sozialen, feministen, instituzioetako teknikarien, profesionalen, erakunde sozialen eta GKEen parte hartzearekin. Lanaren fruitu gisa, hainbat arazo eta gabezia detektatu ziren prebentzio, arreta eta intzidentzia politikoaren alorretan; baita lege eta justizia eremuetan ere. Hutsune horien artean identifikatu ziren egungo legeriak dituen muga argiak, indarke-riei aurre egin dieten emakumeen memoria eta ordaina bermatzeko beharra kasu.

Feminizidioaren paradigma agertu zen topaketa hauen prozesuaren baitan, Latinoamerikan sakonki garatu baitute, han ditugun bazkideek ere bai; gure testuinguruan apenas ezagutzen genuen arren. Feminicidio.net kolektiboak indarkeria matxisten muturreko formaren lanketak duen potentzialtasuna planteatzen zuen, hots, emakumeen erailketak. Izan ere, ahalmena dute termino politikoetan, mediatikoetan, soziologikoetan eta juridikoetan. Feminizidioa, gainera, gure borroka planetako beste toki batzuetako borroka feministekin konektatzea ahalbidetzen duen kontzeptu bat da. Hala, feminizidioaren fenomenoari begirada lokal batetik heltzeko apustua egin nahi izan genuen, gure diagnostikoan sumatutako hutsune eta gabezien markoa landuz, eta gakoak diren proposamen zein alternatibei heltzeko gure erabaki irmoa mantenduz. Bestalde, lan hau lotuta dago Kooperazio Feminista Globalaren aldeko Aliantzaren inguruan ematen ari garen pausoekin, horren parte baikara; indarkeria matxisten aurkako borroka globala da ere horren helburuetako bat. Aliantza horren parte dira Feminizidioaren eztabaida ekintzen sustapenean eta salaketan esperientzia duten erakundeak, bai Estatu mailakoak eta baita Europa zein Latinoamerikakoak ere.

“Feminizidioak Euskadin eta Nafarroan 2010-2015” Feminicidio.net taldeak egindako lan mamitsu eta handiaren fruitua da. Hilabeteak eman dituzte prentsa digitalaren, sententzien eta datuen artean murgilduta... Era honetan, azken urteetan gure artean emandako emakumeen erailketen inguruko informazio asko eta zabala bildu eta sistematizatu dute, lehen informea idatziz.

Argi dugu askotarikoak direla indarkeria matxistak; emakume guztioi eragiten digutenak gure bizitza guztian zehar. Feminizidioa da biolentzien continuum horien muturreko forma, eta ziurrenik, indarkeriaren adierazpide ikusgarriena. Jakitun gara muturreko biolentzia mota honi hedabideek batzuetan jartzen dioten ikuspegiak, edo instituzioenak, indarkerien ikuspegi globala eta konplexuena galtzera garamatzala. Ez litzaiguke gustatuko perspektibaren galera horretan laguntzea. Alabaina, uste dugu beharrezkoa dela feminizidioen errealtatean etetea, bereziki, muturreko izaera izanik ere, ez dabilatzalako bere prebentziorako neurri egokiak hartzen. Gizonen eskutik emakumeen etengabeko erailketen tanta-jarioa dago; eta badirudi jendarteak eta instituzioek onartu egin dutela, ekidin ezin daitekeen deskalabru naturalak bailiran. Feminizidioaren paradigmak etsipen horretatik ateratzea bilatzen du, eta mahai-gaanean jartzen ditu errealtate hori bere dimentsio eta konplexutasu- nean ulertzeko elementu garrantzitsuak. Soilik ulertzeko modu horretatik izango da posible agente instituzionalen eta inplikaturako eragile sozial guztien aldetik eraginkorrak diren prebentzio neurriak hartzea.

Lan honekin, helburu hauei heldu nahi izan diegu:

- Indarkeria matxisten eta feminizidioaren desagerpena agenda politikoen lehentasunetan kokatzea.
- Feminizidioaren paradigmen analitika 2010 eta 2015 artean Hego Euskal Herrian jasotako emakumeen erailketen inguruan eskura dagoen informazioa areagotzea, pro-

blematikaren anatomia erakusteko: feminizidio motak, biktimen eta hiltzaileen profilak, bien arteko harremana, eta instituzioen zein bere eragilean jardueraren prokurazioa eginenez materia hauei dagokienean: justizia, prebentzio, trataera eta indarkeria matxistaren desagerpena; ikuspegi globaletik lokalera ekarriz.

- Agente sozial eta instituzionalen artean bildutako informazioa sozializatzea; baita jendarteari orokorrean ere; egiazkoak diren datuak izan ditzaten, eta Hego Euskal Herrian 2010 eta 2015 urteen artean jazotako feminizidioen analisi kritiko feminista egin dezaten.
- Dokumentu zorrotz bat egitea kolektibo feminista eta bestelako eragile sozialekin Hego Euskal Herriko feminizidioen inguruan gogoeta espazioak irekitzeko, kontzeptua maila sozial edota mediatikoan erabiltzearen edo ez erabiltzearen egokitasunaren eta tipifikazio penalaren eskaeraren inguruan aritzeko.
- Instituzioek emakumeek indarkeriarik gabeko bizitza edukitzea bermatzea, horretarako beharrezkoa den kontrol sozialean lagunduz; egiaren, justiziaren eta ordainaren eskubi-deak lortzeko.
- Biolentzia matxisten eremuan behar diren aldaketa juridikoetan aurrera egitea, nazioarteko giza eskubideek eskatzen duten alorretan; zehazki, Istanbulen Akordio gisa ezaguna den Emakumeen eta etxeko biolentziaren kontrako Europako Kontseiluko prebentzio eta borroka Akordioan.
- Hedabideek biolentzia matxisten inguruan eskaintzen duten tratamendua eta lana hobetzeko analisi eraginkor baten ekarpena egitea.
- Hego Euskal Herrian eraildako emakumeen memoria historikoaren eraikuntzan laguntzea, guztiak berdintasun plano batean gogoratzeko, memoria kolektibora ekartzeko haien izena eta gertatutakoaren egia, eta haien heriotzetan instituzioen erantzukizuna seinalatzeko.

“Feminizidioak Euskadin eta Nafarroan 2010-2015” lanak analisisien hiru funtsezko bloke ditu. Lehenik eta behin, aztertutako sei urteetan Hego Euskal Herrian jazotako emakumeen hilketa bortitz guztien erregistro eta datu esanguratsuak bildu dira, guztira 33 feminizidio eta lapurreta eragindako erailketak. Modu honetan, informeak aditzera eman nahi du kasu guztiekin erregistro sistematiko eta osoa egiteko beharra, berauen elementu esanguratsu guztiak barne hartuko dituen, soilik era honetan izango delako posible prebentzio politika eraginkorrak implementatu eta diseinatzea. Azterketa honetan indarkeria matxistaren biktima gisa aitortu dira genero arrazoiengatik eraildako emakume eta neskatila guztiak, izan 1/2004 Legearen baitako egoeretan erailak edo ez; biktimen aitortzari dagokionez araudia honek dituen mugak agerian utziz. Izan ere, Emakundek 2015ean “EAEn emakumeen kontrako indarkeriaren inguruko datu estatistikoaren analisi eta interpretazioa” lanean aipatutako zifren arabera, 2010 eta 2015 artean Euskadin 16 emakume izan ziren indarkeria matxistatik erailak; ikerketa honek aldiz, 30 jaso ditu. Eta hau guzti hau, kontuan hartuz Emakumeen Euskal Institutuak bere analisisian Osasun, Zerbitzu Sozial eta Berdintasun Ministerioak baino emakume gehiago zenbatzen dituela.

Bigarrenik, ikerketa honek hautatutako denbora eta geografia laginaren baitan, prentsak 33 feminizidioei emandako trataera aztertu da. Iruditegi kolektiboaren eraikuntzan agente erabakigarriak diren heinean, hedabideek ardura handia dute biolentzia matxisten kontakizun


sozialean, eta beraz, jendarteak horien aurrean hartzen duen posizioan. Azterketa egiteko 361 ale informatibo hartu dira aintzat, estatu, lurralde eta herri mailako 44 hedabide digitaletakoak hain zuzen; gaztelerazkoak eta euskarazkoak. Edukiak 2016an Begira-Emakundek egindako Publizitate eta komunikazio ez sexistarako Autorregulaziozko Kode Deontologikoa erreferentziatzen hartuz aztertu dira. Emaizten arabera, nahiz eta kode, gomendio eta dekalogo ugari existitu; eta profesional zein medio batzuek konpromiso esplizituarekin lan handia egin duten arren; indarkeria matxistaren berri ematean, kasu honetan muturrekoena den adierazpena, duela askotik gaingiduta egon behar zuten arazoak ageri dira.

Hirugarrenik eta azkenik, krimen hauen inguruan emandako sententzia judizialen inguruko analisia egin da, mota honetako ebazpenen Europako lehen ikerketa feminista. Lan honek elementu esanguratsuak eta garrantzia handikoak biltzen ditu feminizidioen aurrean sistema penala nola erantzuten ari den ezagutzera emateko, baita justiziaren jardueraren eta biktimen ordain eskubidearen inguruan eztabaidatzeko ere. Modu berean, sententzietan jasotako informazioak prebentzio politiken eraginkortasun mailari buruzko azterketa egitea ahalbidetzen du: Zergatik erail zituzten emakume hauek? Zer egin beharko luke Estatuak emakume hauen bizitza eskubidearen urraketa saihesteko?

Informe honek kasuak dokumentatzeko erreminta bat izatea nahi du, egia ezagutzera emateko, eraildako emakumeak gogoratzeko eta sistema sozial, politiko eta penalaren hutsuneak salatzeke. Horregatik batez ere lanabes eraginkorra izatea nahi dugu, emakumeen bizitza, memoria eta ordain eskubidea bermatzeko politikak diseinatu eta formulatzeko. Gizarteak ezin du gelditu jarraitu Euskal Herrian eta mundu osoan ematen ari den emakumeen giza eskubideen urraketa sistemiko eta larri honen aurrean. Ikerketa hau pauso bat gehiago da Mugarik Gaberen lanean, gure gogoeten eta proposamenen sorkuntzaren aldeko apustuan, biolentzia matxisten aurrean beste erakunde eta mugimenduekin elkarlanean aritzeko estrategia eta alternatiben eraikuntzan bete pauso bat.

Euskal Herrian, 2016ko abenduan

ZERGATIK ERREGISTRATU EMAKUMEEN ERAILKETAK?



1. GEOFEMINICIDIO: ZERGATIK ERREGISTRATU GIZONEK BURUTUTAKO EMAKUMEEN ERAILKETA GUZTIAK?

Sinestea zaila bada ere, gaur egun, XXI. mendean, ez dago genero arrazoiengatik erailak izan diren emakumeen datu kuantitatiboak eta kualitatiboak dokumentatzen dituen estatistikarik. Hori izan zen, besteak beste, Geofeminicidio online aplikazioa sortzeko motiboetako bat. Bertan erregistratzen dira 2010 urteaz geroztik Estatu espainiarrean gizonek eraildako emakume guztien kasuak (genero arrazoiengatik eta lapurreta, ekonomia indarkeria eta indarkeria komunitarioa bezalako beste motibo batzuk medio).

Zergatik erregistratu gizonek burututako emakumeen erailketa guztiak?

Estatu espainiarreko zifra ofizialek soilik hartzen dituztelako aintzat bikote edo bikote ohien markoan dauden indarkeria matxisten biktimak, Genero Indarkeriaren aurkako Babes Osoko Neurriei buruzko 1/2004 Lege Organikoari jarraiki. Gainera, Estatuak ez ditu erregistratzen bikoteen antzerako harremanak, senar-emazteenak edo izatezko bikoteak existitzen diren kasuak; Geofeminicidioak feminizidio intimo gisa kontabilizatzen dituen bitartean. Biktima eta hiltzailearen arteko harremana iragankorra den edo bikote konbentzional baten erantzunekin bat ez datozen lotura motarekiko zalantzak bistaratu diren feminizidio intimoak burutu dira; nahiz eta agerian utzi denboran zehar harreman afektibo-sexualen bat egon dela.

Feminizidioaren teoriatik, ezinbestekoa da hiltzaileek haien biktimekin zituzten harreman ezberdinak kontabilizatzea, ikusaraztea eta ikertzea. Gizonek emakumeak hiltzen dituzte haien senar, mutil-lagun, maitale, aita, seme, anai, lehengusu, lagun, auzokide, prostituzio bezero, Estatuko segurtasun indarretako kide edo funtzionario izaera zein posiziotik, besteak beste.

Hauxe da indarkeria matxistaren mugen gaineko eztabaida zabaltzen duen galdera: Zenbat kasutan du harremana hiltzeko zergatiak indarkeria matxistarekin? Eta zein kasuetan ez? Feminizidioak bikote markoan gizon batek egindako emakume baten erailketa baino espektro zabalago bat barne hartzen du. Hori oso argi dago hilketa matxista bat dela, ez dago inolako eztabaida ez zalantzarik. Baina, zer gertatzen da emakumeen erailketak gizonek eginak direnean beste harreman mota batzuen baitan?

Feminizidioan bukatzen duten indarkeria ekintzetan ez dira soilik matxismoa, misoginia eta sexualitate sadikoa agertzen, maskulinitatearen eraikuntza sozialak ere eragin handia du besteak baino garrantzia gehiago izateko modu bezala. Feminizidioa ordena sozial baten ondorio da, askotan Estatuak babestua, baita instituzio politikoek, ekonomikoek, kulturalak eta erlijiozkoek ere. Kriminologia tradizionalak kontuan hartzen ditu erailketa edo krimenen gizarte estrukturak, baina ez ditu ikertzen, eta ez dio garrantzirik ematen hiltzaile gehienak gizonezkoak izateari. Feminista akademikoak dira zalantzan jartzen dituztenak kriminologia arloak, emakumeen erailketak eta gizonek baliatutako indarkeria, kasu. Feminizidioaren testuinguruan, garrantzitsua da indarkeria maskulino hori ikusaraztea 1/2004 Legeak jasotzen duen indarkeria matxistaren muga eta marjinetatik harago ere

2. METODOLOGIA

2.1. 1/2004 LEGE ORGANIKOAREN BAITAN FEMINIZIDIOAK DOKUMENTATZEKO ZAILTASUNAK

Estatu Espainiarraren araudiaren baitan feminizidio kontzeptua agertzen ez bada ere, 2004tik existitzen da Genero Indarkeriaren aurkako Babes Osoko Neurrien Legea; hots, 1/2004 Lege Organikoa. Bertan jasotzen da genero indarkeriaren inguruko definizio mugatu eta mugatzailea, afektibitate harremana duten edo izan duten emakumeetara mugatzen baita, oraindik elkarbizitzarik gabekoetara. Nahiz eta lege honek indarkeria matxistaren modu batzuk larritzat jo eta zigortu; besteak beste, mehatxuak, bortxaketak, lesioak edo behin behineko tratatu txarrak; ez da berdina gertatzen homizidio edo erailketekin, nahiz eta lesio maila handiagoa izan. Edozelan ere, genero indarkeriaren definizio mugatuak ondorio zuzenak ditu feminizidio kasuen kontaketa. Beste feminizidio mota batzuk ez aitortu eta dokumentatzeak, gertaera guzti horiek ikusezinak izatea dakar, horien prebentzioa, ikerketa eta zigorra ezartzeko politika publiko eraginkorrak diseinatzea oztopatuz.

Era berean, indarkeria modu ezberdinen kontzeptualizazio eta sailkapen muga zailtasun garrantzitsua dira feminizidioak ikertu eta dokumentatzeko orduan, ondorengo grafikoak islatzen duen bezala (14. or.).

2.2. ESTATU ESPAINIARRREKO FEMINIZIDIOAREN DOKUMENTAZIOAREN METODOLOGIA

Dokumentuen analisia


Atal honetan komeni da argitzea Geofeminizidiodiok egindako txosten eta ikerketa guztietan kasuen dokumentazio metodologia bera erabili dela. Hau da, eremuka eta feminizidio zein emakumeen bestelako erailketen sailkapenaren arabera egin da bilketa etadatuaren sistematizazioa. Feminizidioen estatistiken akatsetakobat da feminizidioen zifra kopuru eza, edo osatu gabeko estatistiken sorkuntza (Estatu espainiarraren kasuan bezala). Ezinbestekoa eta beharrezkoa da edukitzeahomologagarria den dokumentazio metodologia bathe-rialdeen artean, feminizidio eta emakumeen erailketa moten arabera.

Erabilitako iturriak

Estatu espainiarrean jazotako emakumeen erailketa guztiak erregistratzeak bi dokumentazio iturri ezberdin eskura izatea suposatzen du. Batetik, iturri ofizialak daude, bikote edo bikote ohien alorreko feminizidioak kontatzen dituztenak. Bestetik, iturri hemerografikoak daude, nagusiki, egunkari orrien bidez gauzatzen diren homizidio, feminizidio eta bestelako erailketen albiste ia guztiak argitaratzen dituztenak.

Txosten honetako dokumentazio iturriei dagokienez, bi iturri ezberdin erabili dira: 1) Albiste-teen iturri hemerografikoen informazioa; eta 2) Genero Indarkeriaren Gobernuako Ordez-

FEMINIZIDIOAREN DOKUMENTAZIO GLOBALEAN IDENTIFIKATUTAKO ARAZOAK



karitzak eta Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasun Ministerioak emandako informazioa; Botere Judizialaren Etxeko eta Genero Indarkeriaren aurkako Kontseilu Orokorrearekin batera. Euskal Estatistiken Erakundeko errolda eta estatistikak ere kontsultatu dira, baita Nafarroako Estatistiken Institutukoak ere. Horrez gain, Barne-arazoetako Ministerioaren Ge-

nero Indarkeriaren jarraipen osorako Sistemaren informeak baliatu dira (SistemaVioGén), eta Estatistikako Institutu Nazionala (EIN) errolda eta etxeko zein genero indarkeriaren datuak ere bai.

Geofeminicidioko iturri ofizialak ondorengo infografian daude.



Euskadiko eta Nafarroako kasuen bilduma osatzeko txosten honetan erabilitako iturri hermerografikoak 369 artikulutan oinarrituta daude (gaztelarazko 279 eta euskarazko 90), 44 hedabide digitaletatik hautatu dira (ikusitako txosten honetako 15.kapituluko prentsaren analisia).

Datuen analisia

Feminizidio guztiak dira emakumeen erailketak, baina emakumeen hilketa guztiak ez dira feminizidioak. Estatistiken informeak sortzean erabiltzen den adierazle nagusia erailketa da, eta analisiaren paradigma feminizidioa. Feminizidioaren paradigmak aukera ematen digu emakumeen erailketen bestelako elementu eta ezaugarrietan sakontzeko eta iturri ofizialek sortutako txosten estatistikoetan agertzen ez dena ezagutzeko. Geofeminizidiok Latinoamerikan eta Estatu espainiarrean kontuan hartzen ez diren eremuak txertatu ditu. Horien artean daude, emakumeen erailketa eta feminizidioen arteko diskriminazioa, erailketa moten arabera sailkapena eta feminizidio motak, erailketa probokatzen duten arrazoi eta zirkunstantziak, biktimak eta hiltzailearen arteko harremana, biktimak hil aurretik pairatu zituen indarkeria mota ezberdina edo gorpua aurkitua zen tokia.

Estatu espainiarreko feminizidioen datu basea online aplikazio batean oinarritzen da, bertan egiten da kasuen erregistroa.

Geofeminizidiok barne hartzen dituen kasuak dira:

- Gizonezkoek burututako emakume edo neskatilen erailketak eta feminizidioak.
- Emakumeek, patriarkatuaren agente gisa burututako feminizidioak, hiltzaileak krimena gizonezko batekin batera gauzatu duenean edo berariak genero arrazoiengatik hil duenean.
- Emakumeen heriotza biolentoak, batzuetan suizidio gisa kalifikatuak, zeintzuetan informazioaren analisiek ondorioztatzen duten erailketa bat izan daitekeela.
- Emakume transexualen feminizidioak (nahiz eta hauek haien identitatea legalki ez aldatu).

Barne hartzen ez diren kasuak:

- Erailketa edo feminizidioetako biktimak mutilak edo gizonezkoak diren kasuak. Kasu hauen erregistroa osagarria den beste datu base batean egiten da, ez Geofeminizidion.
- Emakumeek eraildako emakumeen kasuak, patriarkatuaren agente gisa aritzen ez badira.


Aplikazioko informazio bilketa prozesua ondorengo datuen eguneraketan datza:

- Biktimaren datuak: eraildako emakume edo neskatilaren datuak txertatzen dira.
- Feminizidioaren/Erailketaren datuak: aipatutako feminizidio edo erailketaren inguruko informazioa erregistratzen da.

- Hiltzailearen/Hiltzaileen datuak: ustezko hiltzaileari (edo aitortutako hiltzaileari) buruzko datuak txertatzen dira.
- Behaketak: kasuen aipamena. Aplikazioak derrigorrezkoa den datu sorta bat du. Eskatutako informazioa eskura ez dagoen kasu horietan "Ez daki" jartzen da.

GEOFEMINICIDIO.COM

ATARIKO ESTRUKTURA



3. FEMINIZIDIOA: KONTZEPTUA, TESTUINGURUA ETA TERMINOAREN EBOLUZIOA

3.1. KONTZEPTUAREN SORBURUA

Kontzeptuaren sorkuntza kontzeptu teoriko gisa da akademia feministaren lan luze eta baliotsuaren emaitza; mundu osoko mugimendu feministek, feminizidioaren biktimen senideek eta Giza Eskubideen ekintzaileek defendatzen duten salaketa prozesu eta fenomenoaren ikusgaitasunarekin elkarlanean egina. 90eko hamarkadan txertatu zuten kontzeptua akademika feminista anglosaxoiek. Nahiz eta Diana Russellek azaldu duen bezala *femicide* duela bi mende baino gehiagotik erabili, literaturan agertu zen lehen aldiz, *A Satirical View of London at the Commencement of the Nineteenth Century*n, izendatzeko¹ “emakume baten aurkako erailketa”. *Oxford English Dictionary*yk, 1989ko edizioan dokumentatzen du *femicide* hitza 1848an sartu zela *Wharton's Law Lexicon* (1848).

Russell 1990etik aurrera hasi zen kontzeptuari buruz bere teoria publikatzen, baina eginak zituen lehen sartu-irtenak 1976rako Emakumeen kontrako Erailketen Nazioarteko Lehen Tribunalean emakumeen aurkako biolentziaren muturreko modu honen ekintzaile gisa, Bruselan (Russell, 1976)². Hura, perspektibarekin ikusita, gertaera historikoa eta berebiziko garrantzizkoa bilakatu zen hamarkada batzuk beranduago kontzeptuak jasango zuen bilakaerarako. Ahalduntze feministaren adierazpen autentikoa izan zen. Auzitegian ez zen epailerik egon, parte hartu zuten emakumeek bete zuten epaileen zeregina; emakumeen kontrako indarkeria definitzeko erabiltzen diren kontzeptu patriarkalak atzera bota zituzten, eta emakumezkoen zapalkuntzaren forma guztiei lotutako erailketa horiek izendatzera ausartu ziren. Elena Laporta Hernándezek dioenez: “...han salatu ziren erailketetako asko ez ziren legedi patriarkaletan hala kontsideratuak. Oinarrizko ideia pertsona zapalduak krimenen definizio horietatik deslotzeko eskubidea dutela zen, zapaltzaileek haien interes propioei bide emateko eginak³ 3”.

Auzia gobernu zein alderdi politikoen interbentziorik gabe bukatu zen eta deitu zituzten zapalkuntza eta indarkeria matxistaren esperientzien testigantzak eskaini eta salaketa jarri zuten munduko hainbat tokiko emakumeak. 40 herrialdetako 2.000 emakume inguru bildu ziren, eta modu autonomoan heldu zioten bidaia eta ospakizunaren gastuei, laguntza instituzionalik gabe. “Askok dirua batzeko arazoak izan zituzten, beste hainbeste izan ziren gazteentzako aterpetxeetan ostatuak (...) Eta Time edo Newsweek bezalako egunkari handiek ekitaldiaren inguruko lerro bakarra ere ez zuten argitaratu, nahiz eta berria emateko erreportari eta argazkilari emakumeak kontratatu”.

1 Diana Russell (2005): “Definición de feminicidio y conceptos relacionados”, *Feminicidio, justicia y derecho-n*, Mexikon, Mexikar Errepublikako Feminizidioei Lotutako Ikerketen Jarraipen eta Ezagupenerako Batzorde Berezia, eta horri lotutako Justizia Prokuradorerako, Mexiko.

2 Diana Russell (1976): *The proceedings of the International Tribunal on Crimes against Women*, Frog in the well, Kalifornia.

3 Elena Laporta Hernández (2015): “Evolución del concepto. Un anglicismo que se desarrolló en América Latina”, Atencio, G. (ed.) *Feminicidio. El asesinato de mujeres por ser mujeres*, FIBGAR, Catarata, Madrd, 65.or.

4 Ibídem, 65 or.

Tribunalaren irekiera ekitaldiak Simone de Beauvoirren hitzak izan zituen (ez zen bertaratu baina babestu egin zuen): “Bruselako topaketa feminista hau da gure esku dagoen etorkizunaren jabe egiteko saiakera”. Idazle eta filosofo frantziarrak jo zuen⁵ “emakumeen deskolonizazio erradikalaren hasieratzat”.

Diana Russell eta Jane Caputik eman zuten ezagutzera *feminicide* kontzeptua *Speaking the Unspeakable* artikuluan, eta jatorriz Ms aldizkarian (1990) argitaratu zen: “Gizonezkoek gorroto, mespretxu, plazer edo emakumeen jabetza zentzuak motibatuta egindako emakumeen erailketa da”. 1992an Diana Russell eta Jill Radfordek definitu zuten “gizonezkoek burututako emakumeen erailketa misogino” gisa. Egileek sailkatzen dituzte emakumeek bizi dituzten indarkeria matxistaren modu ezberdinak, hazten ari den beldur sexual gisa azaleratzen direnak, eta azpimarratzen dute emakumeen heriotzan edo erailketan bukatzen diren ekintza horiek direla feminizidioak:

Feminizidioak islatzen du etengabeko segida duen emakumeen aurkako beldurra, hitzezkoak zein fisikoak diren abusu anitzak dituelarik bere barruan, besteak beste: bortxaketa, tortura, esklabotza soziala (nagusiki prostituzioan), haurrekiko jazarpen sexual intzestu-egilea edo extra-familiarra, jipoi fisiko eta emozionalak, abusu sexuala (telefonoz, kaleetan, bulegoan eta gelan), genitalen mutilazioa (klitoridektomia, zatiketa, infibulazioa), beharrezkoak ez diren ebakuntza ginekologikoak (histerektomiak), heterosexualitate behartua, esterilizazio derrigortua, amatasun bultzatua (kontrazepzio eta abortuaren kriminalizazioagatik), psikokirurgia, zenbait kulturen emakumeei janaria ukatzea, kirurgia plastikoa, eta edertasunaren izenean egindako beste hainbat mutilazio. Beti ere, terrorismo forma horiek heriotzan bukatzen badira, feminizidio bilakatzen dira⁶.

Egileek defendatzen dute biolentzia erabiltzen duten gizonezkoek, nahita egina izan edo ez, euren gailentasun maskulinoa mantentzeko egiten dutela. Kontzeptu politikoa da ikusarazten duena emakume izate hutsagatik emakumeek jasaten duten menpekotasuna, desberdintasuna, bazterketa eta arriskua.

3.2. KONTZEPTUAREN EBOLUZIOA LATINOAMERIKAN

Garrantzia bereziarekin eman da Latinoamerikan feminizidio-femizidio terminoaren bilakaera. Aipatutako lurraldean, azken hiru hamarkadetatik hona, eztabaida akademikoa gertatu da femizidio edo feminizidio itzulpenen erabileraren, definizio teorikoaren ahalmenaren eta feminizidio modu edo errepresentazio anitzen inguruan. Feminizidio kontzeptua, Marcela Lagardek egindako ekarpena aintzat hartuta, lotua dago genero erailketetan Estatuak duen zigorgabetasun eta erantzukizunarekin. Feminizidioan, aldiz, zigorgabetasuna ez da definizioaren osagaia, Ana Carcedoren arabera, bi kontzeptualizazioek eztabaida akademikoaren maila igo zuten, lurraldean beronen aplikazio juridikoa ahalbidetuz. Latinoamerikako 15 herrialdetan tipifikatua da feminizidioa azken hamarkadan: Bolivian, Brasilen, Txilen, Kolonbian, Costa Rican, Ekuadorren, El Salvadorren, Guatemalan, Hondurasen, Mexikon, Nikaraguan, Panaman, Perun, Errepublika Dominikarreen eta

⁵ Bere aurkezpena *The proceedings of the International Tribunal on Crimes against Women* lanaren hitzaurrean jasoa dago, op.cit.

⁶ Jill Radford eta Diana E. H. Russell [edk.] (1992), *Feminicide: The Politics of Woman Killing*, Twayne, New York.

Venezuelan. Bien bitartean, Argentinak, homizidioa larriagotzat jo zuen bere legedian genero arrazoiak tartean egotekotan.

Aurrez esan bezala, bi korrante teoriko azaleratu ziren paraleloki, egiturazko arazo bati aurre egiteko erreferentzia edo analisi markoak bilatzeari helduz. Alde batetik, Mexikon Marcela Lagardek txertatu zuen kontzeptua, 1994an. Diana Russellen ildotik jarraitu zuen, *femicide* feminizidio gisa gazteleratuz, terminoa birfundatuz. Antropologo, akademiko eta ekintzaile mexikarrak 2003tik 2006ra bete zuen Mexikoko Kongresuan Diputatu Federal kargua, eta Mexikar Errepublikako Feminizidioei Lotutako Ikerketen Jarraipen eta Ezagupenerako Batzorde Bereziko presidentea izan zen⁷. Bertan, emakumeen erailketen zifrak ateratzeko sekulako dokumentazio lana egin zen, eta karguan egon zen bitartean Mexikoko parlamentuko agendan lehentasunezko gaia izan zen. Lagardek berak azaldu duenez, femizidiotik feminizidiora igaro zen, gazteleraz feminizidioa homizidioaren ahots homologoa delako, eta emakumeen erailketa bakarrik esan nahi duelako. Hala definitzen du:

Feminizidioa emakumeen aurkako genozidioa da, eta ematen da baldintza historikoek baimentzen dituztenean emakumeen integrazioaren, osasunaren, askatasunen eta bizitzaren aurka atentatzeko praktika sozialak. Feminizidioan denbora eta espazioan elkartu egiten dira biktimetako batzuk heriotza krudelera gidatzen dituen emakumeen kontrako kalteak, ezagun edo ezezagunenak, bortitzak, bortxatzaileak, hiltzaile individual edo kolektiboenak, aldizkakoak edo profesionalenak. Krime guztiak ez dira kontzertatuak edo hiltzaile serialen ondorioak: badira serialak edo individualak; edo, ezagunek eginak: bikoteek, senideek, mutil-lagunek, senarrek, laguntzaileek, familiartekoek, bisitariek, lagunek, lankideek... Alabaina, badira ere ezezagunek edo anonimoek gauzatzen dituztenak, bizimodu biolento eta kriminaletara lotutako delitugile talde mafiosoek, hain zuzen. Dena dela, denek dute komunean hau: emakumeak erabilgarriak direla, ez ezinbestekoak, tratatu txarrak emateko modukoak, "erabili eta botatzekoak". Eta, egia esan, denek bat egiten dute krudelkeria amaigabea, eta, egiaz, emakumeen kontrako gorrotozko krimenak dira⁸.

Lagardek terminoa birdefinitu zuen; bereziki, eztabaida erdigunean jartzen duen elementu berria txertatuta esanahiari: zigorgabetasuna. Zuzenbide Estatuaren haustura da inpunitatea, zigorgabetasunari mesede egiten diona. Lagarderentzat "Feminizidioa Estatuaren⁹ krimena da"; eta dio Estatuak duela erantzukizuna indarkeria matxistaren aurrean emakumeei prebentzioa, tratamendua eta babesa eskaintzeko, emakumeen bizitza eta askatasuna bermatu behar duela. Hiltzaileentzako isun eta zigorraren ezak Estatuak kokatzen du ekintza edo feminizidioaren omisioaren erantzule. Lagarderen arabera, feminizidioa gerra eta bake garaian agertzen da, eta genero desberdintasunak elikatzen ditu, "ez soilik jendartean edo ekonomian", baizik eta "juridikoki, politikoki eta kulturalki" ere. Feminizidioa emakumeen gorputzak objektu bihurtzearekin lotzen du, gizaki bezala dituzten eskubideak galduta. Eta, pobrezia feminizazioarekin harremanetan jartzen du ere bai:

7 Marcela Lagarde [2006]: "Feminicidio: una perspectiva global" liburuko "sarrera", Mexiko, Diana Russell eta Roberta Har-mesek editatua, Mexikar Errepublikako Feminizidioei Lotutako Ikerketen Jarraipen eta Ezagupenerako Batzorde Berezia, eta horri lotutako Justizia Prokuradorerako, Mexikon.

8 Marcela Lagarde [2008]: "Antropología, feminismo y política: violencia feminicida y derechos humanos de las mujeres". Margaret Bullenek eta Carmen Díez Minteguik (Koord.) egindako "Retos teóricos y nuevas prácticas" lana, Ankulegi Antro-pologia Elkartea, Espainia, 216 or.

9 Ibídem, 216 or.

Latinoamerikar gehienentzat egunero hedatzen den pobrezia hor dago, pobrezia ekonomikoan sofistikatu eta sailkatu den indarkeria, elikadura pobrezian, muturreko pobrezian, besteak beste, miseria eguneroko bizitza bilakatuz. Pobreziaren feminizazio ikaragarria dago gure artean. Oraindik ere, gure lurretan gertatu egiten da emakume eta umeak gosez hiltzearen ondoriozko heriotza, sendagarriak diren gaixotasunena; edo haurdunaldi, erditze, abortu zein erditze ondoko konplikazioen arreta ezarena. Ez da inondik inora ere baretzen emakumeei eskubide guztiak ukatu dien biolentzia juridiko politikoa¹⁰.

Marcela Lagardek argi utzi du indarkeria matxistak eta feminizidioak sortzen dutela arazo politikoa dela, eta bere trataera zein konponbidea dela egungo Estatuak gainditu behar duten ikasgaietako bat.

Mexikon feminizidioaren teoria adierazle handietako beste bat Julia Monárrez Fragoso soziologoa da. Jatorriz Juárez Hirikoa da, eta bere bizitzako azken etapa bideratu du ikastera, ikertzera eta kontzeptua teorizatzen. Monárrezek feminizidio lortu du mota ezberdinen inguruko analisi, dokumentazio eta erregistro tresna berriak topatzea. Bere lana gakoa da hazten doan narkotrafikoaren aurrean Juárez Hiriko emakumeen erailketak giltzapetuta dituzten basakeriak argitzeko zein Estatu mexikarraren inpunitatea eta autoritateen erantzun falta salatzen. Juárez Hirian emakume eta neskatilen erailketen erantzun teoriko eta praktikoak lortu ditu feminizidioaren datu baseekin, esanahia era honetan zabalduz:

Feminizidioaren analisiak hainbat arazo aurkez ditzake datuen eskurapenari dagokionez. Eragozpenen artean daude eraildako emakumeen kopuru zehatza eta heriotza mota horiek faboratu dituzten kausa edo motiboak ez ezagutzea; eta estatistiken fidagarritasun eskasa. Hori hala da estatistika nazionalak ez dutelako zehazten arrazoa, biktimak eta erasotzailearen arteko harremana, erail aurretik emakumeek jasandako biolentzia ezberdinak, haien helbidea edo gorpua aurkitu zuten tokia. Egoeraren aurrean, beharrezkoa da metodo alternatiboak bilatzea feminizidioa zehaztasun gehiagorekin ulertzeko.¹¹

Monárrezek zifrak dokumentatu eta erregistratzearen garrantzia nabarmendu du, nahiz eta horiek iturri ez ofizialek jaso, egunkari edo biktimen senideengandik kasu. Frogatu duenez, feminizidioen erregistro eza izebergaren punta da: Estatuak krimenak babestu edo onartu egiten ditu, eta zifra falten kateak jarraitzen du erailketen ikerketa faltarekin, justiziaren prokurazio urriak eta biktimen erreparazio ezak bezala; Latinoamerikako Mexiko, Guatemala, Honduras eta El Salvador moduko herrialdeetan orokorra den zigorgabetasuna baieztatzen duen buruhauste bihurtuz. Bestalde, bere datu baseak emakumeen erailketen eta feminizidioen diskriminatzea ekarri du, hots, Russellek defendatzen duenaren arabera, hauexek: "Biktima baten genero femeninoa pisu gutxikoa da delitugilearentzako. Adibidez, armatuta doan gizonezko batek tiro egin eta supermerkatu bateko jabeak hiltzen baditu bere krimena gauzatzen ari den bitartean, gizonezko eta emakume bat, ez da feminizidioa¹²".

10 Marcela Lagarde (2005): "El feminicidio, delito contra la humanidad", *Feminicidio, justicia y derecho* lana, Mexiko, Mexikar Errepublikako Feminizidioei Lotutako Ikerketen Jarraipen eta Ezagupenerako Batzorde Berezia, Mexiko, 154 or.

11 Julia Monárrez (2010): "Las diversas representaciones del feminicidio y los asesinatos de mujeres en Ciudad Juárez, 1993-2005"; et.al., *Violencia contra las mujeres e inseguridad ciudadana en Ciudad Juárez*, II. Atala; "Violencia infligida contra la pareja y feminicidio", Editoreak "El Colegio de la Frontera Norte y Miguel Ángel Porrúa", Mexiko.

12 Diana Russell (2006): "Definición de feminicidio y conceptos relacionados", Diana Russell eta Roberta Harmes lana, editatzaileak, *Feminicidio: una perspectiva global*, Mexikar Errepublikako Feminizidioei Lotutako Ikerketen Jarraipen eta Ezagupenerako Batzorde Berezia, Mexiko, 79 or.

Julia Monárrezen datu baseak hiru feminizidio mota zehazten ditu: intimoa, aldi berean azpibereizten den haur feminizidioa eta familiakoa. Ondoren, beste bi modu berri eranstean ditu: feminizidio sexual sistemikoa, antolatu eta desantolatua izan daitekeena; eta estigmatizatutako okupazioen feminizidioa (horien artean, prostituzioa).

- **Feminizidio sexual sistemikoa:** bahitu, torturatu eta bortxatutako emakumeen erailketa da. Haien gorpuak, erdi biluzak edo guztiz biluztuak, basamortu guneetan jaurtitzen dituzte, alferrikako lurretan, hustubide tutuetan, zabor ontzietan eta trenbideetan. Hiltzaileek, ekintza krudel horien bidez, genero harreman sozial bidegabeak sendotzen dituzte, sexuaren arabera bestelakotasuna, diferentzia eta desberdintasuna bereiziz. Aldi berean, Estatuak, talde hegemonikoen laguntzaz, nagusitasun patriarkala indartzen du eta biktimen senideak zein emakume guztiak segurtasun falta iraunkor eta bizira lotzen ditu, zigorrik gabeko aldi jarrai eta mugagabe baten bidez, errudunak ez zigortzearen eta biktimekin justizia ez egitearren ondorioz. Antolatu eta antolatugabeen azpikategorietan bereizten da, eta egungo biktimak eta biktima posibleak hartu ditu kontuan.¹³
- **Estigmatizatutako okupazioen feminizidioa:** emakumeak emakume izateagatik dira erailak. Alabaina, badira beste emakume batzuk okupazioagatik edo egiten duten lanak baliorik ez duelako erailtzen dituztenak. Irizpide horren barruan aurkitzen dira taberna edo gauetako zentroetan lan egiten duten horiek. Dantzariak, mahai zerbitzariak edo sexu langileak dira horiek.¹⁴

Korrante teorikoetako beste bat Ertamerikan garatu zen, Costa Ricako Ana Carcedo eta Montserrat Sagot soziologoek eskutik. Carcedo CEFEMENINA Informazio eta Ekintza Feministaren Zentroko fundatzaileetako bat izan zen 1981ean. Costa Ricako San José dute egoitza, eta tratu txarrak jasan dituzten emakumeen arretarako programa egiten aitzindari izan zen. Eredu horretan sortu eta sistematizatu zuen Autolaguntzarako Taldeen metodologia. Bi egileek uztartzen zuten lan akademikoa ekintzailatza politiko feministarekin. Emakume taldeen bidez genero indarkeriaren muturreko kasuak ezagutu eta horietan inplikatzeko eraman zituzten konpontzera gizonezkoek eragindako biolentziak probokatzen dituen triskantzak. 1992an irakurri zuten *Femicide. The Politics of Woman Killing* saiakera, Radford eta Russellk argitaratu berri zutena; eta bertan oinarritu ziren Costa Rican egon diren emakumeen erailketen inguruko ikerketa egiteko:

Jill Radford eta Diana Russell egileek planteatzen duten bezala, emakumeen heriotza horiei feminizidio deitzean, erailketa edo homizidioa moduko termino "neutralak" iluntzen dituen oihala mugitzen da. Feminizidio kontzeptua eraginkorra da biolentziaren izaera sozial eta orokortua adierazten digulako, genero desberdintasunean oinarritua. Era berean indibidualki aplikagarriak diren planteamenduetatik urruntzen gaitu, naturalizat jo edo patologizatuak direnetatik; biktimak erruduntzat jotzeko joera dutenetatik, erasotzaileak "zoro", "kontrola galdutakoak" edo "animali" gisa aurkeztu dituztenak; edo heriotza horiek "pasiozko arazoak" emaitza gisa ikusten dituztenetik. Planteamendu horiek dira, oso hedatuta dauden mitoen produktu, eta ukatzen dute arazoaren benetako dimentsioa ezkutatu eta, emakumeen esperientziak eta gizonezkoen erantzukizuna. Hau da, feminizidio kontzeptua lagungarria da genero indarkeria kontu pertsonal edo pribatua delaren

¹³ Julia Monárrez [2010]: "Tipos de feminicidio", Frontera Norte Eskolako glosarioa (COLEF).

¹⁴ Ibídem

argudioak desartikulatzeko; bere izaera soziala eta politikoa sakonean erakusten du, botere harreman estrukturalen emaitza dela, dominazioarena, eta gizarteko gizon eta emakumeen arteko pribilegioena¹⁵.

Carcedok erabiltzen du anglosaxoiek planteatutako femizidio kontzeptuaren bertsioa, eta mugatzen du gizonen eskutik eraildako emakumeetara zein hilketa biolentoetara. Era berean, tipologia propioa garatu du emakumeen homizidioak eta feminizidioak diskriminatzeko (erailketaren kausa gisa generoa aipatzen ez duten horietan). Carcedok Montserrat Sagotekin elkarlanean osatutako ikerketan eta 1990-1999¹⁶ bitartean Costa Ricako Femizidioen inguruan egindako zifra biketan eskainitako sailkapenak Diana Russellek formulatzen dituen hiru femizidio mota bereizten ditu: intimoa, ez intimoa eta konexio bidezko femizidioa.

Aberasgarria da feminizidio kontzeptuaren interpretazioen aniztasun eta definizioen artean Rita Laura Segato antropologo argentinarren proposamena ere: femi(geno)zidio kategoria sortzea nazioan eta nazioartean erabilia izan daitekeena, genozidiorako nazioarteko araudiak exijitzen dituen baldintzetatik abiatuta. Segato gerra modu berrietan aditua da, gerra ez konbentzionala, informalean, “uniforme, ikur edo estandarteak zein estatu mailako mugakide dituen lurraldeak aintzat hartzen ez dituenetan¹⁷”. Bando, mafia eta indar paraestatalen arteko gerra modalitate berri horiek, Segatorentzat, nazioarteko zuzenbideak aintzat hartuak izan behar dira. Ez lirateke arrazoi sexualen krimenak izango, emakumeen gorputzak tortura eta suntsipen objektu diren erailketak baizik. Hala definitu du bere proposamena:

Honetarako, beharrezkoa da kontuan hartzea naturalki inbertsonalak diren krimen horiek; ezin dira pertsonalizatu pertsona ezagunen arteko harremanen terminoetan, ezta erasotzailearen mugikorretan ere. Oso garrantzitsuak dira erasotzaileen talde murrizteko emakume ugari (edo gizon feminizatuak) biktimatzen dituzten egoerak. Kategoria horretatik kanpo utzi behar da testuinguru interbertsonaleko erailketek haien artean duten harremana, edo erasotzailearen izaerari lotutakoa. Ondorioz, femigenozidio terminoa erreserbatzea izango da ezinbestekoa den bigarren zehaztapena, hemen txertatzen dudana lehendabizikoz, kualitate sistematiko eta inbertsonalengatik egiten diren krimenek helburu dutelako zehatz gisa emakumeak (eta gizon feminizatuak) suntsitzea, eta *ez dutelako emakume izate hutsagatik mobilean ere erasotzaile eta biktimaren arteko harremana pertsonalizatu edo individualizatzeko aukerarik*.

Modu horretan, feminizidio kategoria emakumeak biktima bihurtzen dituzten erailketa misogino guztietara bideratuko genuke, bai mota interbertsonaleko genero harremanen testuinguruan eta baita inbertsonal mailakoan ere; eta “geno” partikula erantsiko genuke feminizidio horien inguruan aritzeko, emakumeengana *genus* gisa zuzentzen diren horiei, hau da, genero gisa, inbertsonaltasun baldintzetan¹⁸.

15 Ana Carcedo eta Montserrat Sagot (2000): “Femicidio en Costa Rica”, 1990-1999, Panamerikako Osasun Erakundea, Emakumeen Osasunaren eta Garapenaren Programa, San José, Costa Rica.

16 Ibídem.

17 Rita Laura Segato (2013): “Feminicidio y femicidio: conceptualización y apropiación”, hemen eskura: <http://seminariode-feminismonuestroamericano.blogspot.com.es/2013/05/feminicidio-y-femicidio.html>

18 Rita Laura Segato (2012): “Femigenocidio y feminicidio: una propuesta de tipificación”, hemen eskura: <http://www.herramienta.com.ar/revista-herramienta-n-49/femigenocidio-y-feminicidio-una-propuesta-de-tipificacion>

Feminizidio hitzak planetaren hegoaldean beste esanahi eta desziframendu batzuk sortu zituen Russell eta Radfordek eman zioten definiziotik aurrera. Latinoamerikako feminismoek ez zuten denborarik behar izan terminoa itzulpen soil batez ezarria izan zenaren ideia faltsua alboratzeko. Aditu eta ekintzaileak diren Rosa-Linda Fregoso eta Cynthia Bejaranok¹⁹ horrela azaltzen dute:

Zuzenagoa da esatea kontzeptua maileguan eskatzeko prozesuan, tokiko egoeretara egokitzean, sortu ditugula feminizidioaren interpretazio berriak. Era horretan, terminoak hausnarketa teorikoen “tokiko historiak” nabarmentzen ditu ikertzaileen, giza eskubideen defendatzaileen eta genero justiziaren eskutik; Latinoamerikako, latinoak eta Estatu Batuetako lekukoen, bizirik atera direnen eta legegileen bidez; beste toki batzuetan landutako ezagutzekin harremandu ahala.

Ondorengo etapa batean kontzeptuak kultura herrikoiairen mugak gainditu zituen, eta komunikabideetan erabiltzen hasi zen terminoa. Hitza sorkuntza artistikoen motorra izan zen eta da, besteak beste, literaturan, pinturan, eskulturan, argazkigintzan, dokumentaletan, fikziozko zineman, telesailetan, komikietan... Horrela, imaginario diskurtsiboak handitu zituzten, eta euren erabilera indartu.

Azken bi hamarkadetan *feminizidioak* eta *femizidioak* astindu zuten planetan gehien hitz egiten den bigarren hizkuntza, eta beronen erabilera sendotu zuten Latinoamerikako kaleetan, etxeetan, liburutegietan, geletan, erredakzioetan, parlamentuetan, epaitegietan, gorputegietan (gaztelera hitz egiten duten 300 milioi lagunetik gora bizi diren tokian) eta sare erraldoian, Interneten, Espainiako Akademia Errealak bere hiztegian jakinduria 2014an zilegitu aurretik.

¹⁹ Rosa-Linda Fregoso eta Cynthia Bejarano (Ed.) [2011]: “*Feminicidio en América Latina*”, UNAM, Mexiko, 50 or.

4. FEMINIZIDIO ETA EMAKUMEEN HILKETA MOTAK

Geofeminicidioan hilketa terminoa erabiltzen da homizidio²⁰ hitza erabili beharrean. Azken hau kriminologia tradizionalak erabiltzen du gizon eta emakumeak aipatzeko, baina bere latineko etimologiari dagokionez, *homicidium*, “*homo* (gizon) eta “*cidium* (hiltzeko²¹ ekintza)” hitzek osatzen dute, baina esanahi horretan emakumeak biktimak direnean eta gizonak erasotzaile (kasu gehienetan) ikusezin bihurtzen dira. Datu baseak gizonaizkoek soilik egindako emakumeen erailketak eta feminizidioak erregistratzen ditu.

Bestetik, autore anglosaxoiek garatutako kontzeptualizazioari jarraiki, kontuan hartu behar da hilketan, feminizidioan ez bezala, biktimaren genero femeninoak ez duela garrantzirik hiltzailearentzat. Adibidez, supermerkatu batean lapurreta egin bitartean armadun gizon batek tiro egin eta gorabehera askorekin emakume bat hiltzen badu, ez du feminizidiorik egiten. Hilketan ez dira genero arrazoiak existitzen. Feminizidioan bai. Feminizidio guztiak hilketak dira, baina erailketa guztiak ez dira feminizidioak.

Beharrezkoa da emakumeen hilketak desberdintzea genero arrazoirik ez dagoen feminizidioetatik eta badaudenetatik. Izan ere, horren arabera da gizonak emakumeen kontra erabiltzen duten biolentziaren irismen ezberdina ulertzeko modua.

Hilketen azterketa ez da zentratu behar emakumeengan bakarrik, hiltzaileengan ere, eta hilketa egiten dutenean erabiltzen duten muturreko indarkeria motak ere ikertu behar dira. Feminizidioaren paradigmak emakumeen erailketen bestelako ezaugarri eta elementuak ezagutzea eta sakontzea ahalbidetzen du, iturri ofizialek egindako txosten estatistikoek barne hartzen ez dituztenak. Horretarako kontuan hartu behar dira hainbat aldagai, besteak beste, emakumeen hilketa eta feminizidioen arteko bereizketa, hilketa eta feminizidio moten arabera klasifikazioa, feminizidioa eragiten duten arrazoiak eta faktoreak, biktima eta erasotzailearen arteko harremana, hil aurretik biktimak sufritu zituen indarkeria mota ezberdinak, eta hilketa gertatu eta hilotza agertu zen tokia.

Funtsezkoa da baita ere existitzen diren feminizidio motak desberdintzea; eta gizarte, historia, politika, ekonomia eta kultura testuinguruaren arabera aldatzen direnak ere. Hori erabakigarria da, feminizidio guztiak ezin direlako modu berean hartu. Horietako bakoitzak sentsibilizazio, ikerketa, zigor eta ordain²² politika desberdinak beharko ditu. Hala ere, kontuan hartu behar da aldi berean feminizidio mota desberdinek egin dezaketela bat kasu berdinean.

Feminizidioa gizon batek emakume bat neska izate hutsagatik edo genero arrazoiengatik hiltzen duenean gertatzen da. Definizio horretan sartzen da genero estereotipo faktorea,

20 Datu basean “homizidio” eta “erailketa” hitzen erabilerak ez du konnotazio juridikorik, politikoa baizik. Helburua ez da marko penalean homizidio eta feminizidioak desberdintzea, baina tipologia hori Espainiako Kode Penalera egokitu nahi izatekotan, emakumeen erailketak datu base honetan definizio homologoa du, homizidioarekin bat datorrena

21 Diana Russell: “Definición de feminicidio y conceptos relacionados”, *Feminicidio, justicia y derecho* alean, Mexikar Errepublikan eta Mexikoko Justizia Prokurazioaren baitan Feminizidioekin Erlazionatutako Ikerketak Ezagutu eta Jarraipena egiteko Batzorde Berezia, 2005, 135-156.or.

22 Motak desberdintzearen garrantziaz, eta horietako bakoitzari dagokion erantzun publikoei buruz aritu da Julia Monárrez: “Las diversas representaciones del feminicidio y los asesinatos de mujeres en Ciudad Juárez: 1993-2005”, op. cit., 354. or ; Julia Monárrez: “Elementos de análisis del feminicidio sexual sistémico en Ciudad Juárez para su viabilidad jurídica”, *Feminicidio, justicia y derecho*, obran, op. cit., 198.or..

baita estereotipoek nola eragiten duten hilketa gauzatzerako orduan erasotzailearen jarreraren ere.

Klasifikazio honek abiapuntutzat ditu aurrez Latinoamerikako adituek egindako sailkapen lanak; feminicidio/femizidio²³ kontzeptua eta kategoria aztertu baitute, hainbat definizio eta mota sortuz. Generoaren osagaia existitzeko beharretik abiatzen da. Jarraian, Geofeminizidioan erabiltzen diren feminizidio eta emakumeen erailketa mota bakoitzaren definizioak ageri dira:

- **Feminizidio intimoa:** Biktimarekin harreman zein lotura afektibo-sexuala edo intimoa zuen -edo izan zuen- gizon batek egindako hilketa: senarra, senar ohia, mutil laguna, mutil lagun ohia edo maitalea. Honen baitan sartzen da ere harreman intimo bat edukitzea ukatzeagatik emakume bat hil duen lagunaren hipotesia.
- **Feminizidio ez intimoa:** Biktimarekin inolako harreman mota afektibo-sexualik eduki gabe gizon batek egindako hilketa. Honen baitan sartzen dira ere sexu eraso bat edo eraso baten ahalegina jasan ondoren hil dituzten emakumeak; hiltzailea ezaguna edo ezezaguna izan daiteke. Tipologia honen baitan txertatzen da ere misoginia edo beste genero arrazoi bat medio auzokidea hil duen gizonaren kasua. Edota, emakume ezezagun bat hiltzen duen feminizidarena, bere misoginia, hau da, emakume guztiekiko gorrotoa, mespretxua eta ukapena; hilketa ekintzan kanalizatzen duena.
- **Haur feminizidioa**²⁴: Gizonaren biktima 16 urtetik beherakoa denean egindako hilketa; neskatiaren adingabetasunaren aurrean heldua izateak ematen dion erantzukizun, konfiantza eta botere harremanaren testuinguru batean.
- **Familiarteko feminizidioa:** Biktima eta hiltzailearen artean senidetasun harreman dagoenean gertatzen da, feminizidio intimoaren barne hartzen dena kanpo utzita. Ahaidetasuna odolekoa, ezkontza bidezkoa edo adopziozkoa izan daiteke.
- **Konexiozko feminizidioa:** Gizon batek genero arrazoiengatik emakume bat hiltzen saiatzen dagoela, leku berean beste emakume bat dagoelako gertatzen da, hots, feminizidioaren biktima nagusiaren krimenaren toki berean egoteagatik. Lagun bat izan daiteke; biktimaren senitarteko bat, ama, alaba edo beste bat; edo feminizidioa gauzatzen den toki berean dagoen beste emakume ezezagun bat.
- **Prostituzio feminizidioa:** gizon batek prostituzio egoeran dagoen emakume bat hiltzen duenean. Tipologia honen baitan sartzen da ere biktimaren prostituzio egoerak pizten dion gorroto eta misoginiak eraginda emakumea hiltzen duen erasotzailearen kasua. Kasu horrek hiltzailearen pentsaeran prostituzioagatik sortzen den estigmatizazio sozialaren karga eta feminizidioaren justifikazioa dakar: “merezia zuen”; “egiten zuenagatik gertatu zaio”; “emakume gaiztoa zen”; “bere bizitzak ez zuen baliorik”²⁵.

23 Ana Carcedok eta Montserrak Sagotek feminizidio intimoak, intimoak ez direnak eta konexiodunak desberdintzen dituzte: Carcedo, A., Sagot, M., Femicidio en Costa Rica, Emakumeen Erakunde Nazionala, Osasunaren Erakunde Panamerikarra, Costa Rica, 2000; Julia Monárrezek feminizidioak sailkatzen ditu: intimoak, konexiodunak, haurrenak, familienak, estigmatizatutako lanbideenak eta sexual-sistemikoak, Julia Monárrez: “Las diversas representaciones del feminicidio y los asesinatos de mujeres en Ciudad Juárez, 1993- 2005”, Monárrez, J., et. al., Violencia contra las mujeres e inseguridad ciudadana en Ciudad Juárez obran, op. cit., 363-380.or

24 Definizio hau Julia Monárrezena da, bere sailkapenetik hartu da. Ibídem, 367-369 or

25 Graciela Atenciok landutako mota (Feminicidio.net-eko zuzendaria), Atencio-n, G.Ed. (2015): *Feminicidio. De la categoría político-jurídica a la Justicia universal*. Madrid: Los libros de la Catarata, 121-137.or.

- **Salerosketa feminizidioa:** Emakumea pertsonen salerosketako biktima izateagatik hil dutenean ematen da, bereziki esplotazio sexuala eta behartutako ezkontzen salerosketa motetan.
- **Trafiko feminizidioa:** Emakumea migratzaileen trafiko ilegalaren baitan erail dutenean. Genero osagaia dagoenean soilik da feminizidioa.
- **Feminizidio transfobikoa:** Biktima emakume transexuala denean, eta hiltzaileak bere nortasun transexualagatik hiltzen duenean, gorrotoagatik edo gaitzespenagatik.
- **Feminizidio lesbofobikoa:** Biktima emakume lesbiana denean, eta hiltzaileak bere orientazio edo identitate sexualagatik hiltzen duenean, gorroto duelako edo gaitzespenagatik.
- **Feminizidio arrazista:** Gizon batek emakume izateagatik ez ezik, bere jatorri etnikoagatik edo fenotipikoengatik egindako hilketak, gorroto dituelako edo gaitzespenagatik.
- **Mutilazio genitalaren ondoriozko feminizidioa:** Neskak edo emakume bati egindako mutilazio genitalaren ondorioz erail dutenean. Tipologia honetan Munduko Osasun Erakundearen (MOS) definizio zabala hartzen da aintzat, emakumeen kanpoko genital guztien edo zati baten erresekzioa eta emakumeen organo genitalen bestelako lesioak barne hartzen dituen, medikuntza arrazoiengatik ez denean.
- **Feminizidio sexual seriala²⁶:** Gizon batek emakume bat hiltzen duenean sexu bultzada sadikoak motibatuta. Hiltzaile berak eragindako feminizidio serie baten testuinguruan gertatzen da, denbora tarte zabal batean, hozte tarte batekin.
- **Lapurretak eragindako erailketa²⁷:** Hilketaren eragilea biktimaren dirua edo balio handiko objektuak lapurtzea da, genero arrazoirik gabe.
- **Konexiozko erailketa:** Gizon batek beste pertsona bat hiltzeko saiakeran emakume bat hiltzen duenean, hau krimenaren toki berean dagoelako; beti ere, genero osagaiarik ez dagoenean.
- **Gazteen indarkeriak eragindako erailketa:** Espazio publiko batean gazte talde edo banden arteko borroken testuinguruan emakume bat erailtzen denean, haien eremuen jabetza mugatu eta aurrera egiteko helburuarekin, armen bidez, eta aurkariak erailez.
- **Indarkeria komunitario/ekonomikoak eragindako erailketa:** Haien artean ezagunak edo ezezagunak diren pertsonen artean egiten den emakume baten erailketa da. Hilketak mota honen egilearen xedea da helburu ekonomikoak edo sozialak lortzea. Hilketak honek hainbat arrazoi izan ditzake, horien artean daude desadostasunak, eztabaidak, errietak, mendekuak eta lapurretak.
- **Narkotrafikoak eragindako erailketak eta krimen antolatuetak:** Narkotrafikoak eta antolatutako krimenak eragindako emakume baten hilketak diru zuriketa, larderia

²⁶ Julia Monárrezek egindako tipologia "feminizidio sexual sistemikoa" erreferentziatzen hartu da, *Ibidem*, 374-376. or.

²⁷ Geofeminizidiotako erailketa moten sailkapena ere Monárrezek egindako sailkapenetik hartu da. *Ibidem*. 381-386. or.


bidezko estortsioa, pertsona zein merkantzien trafikoa eta objektu eta merkantzien lapurreta du oinarri. Horrez gain, drogen produkzio, distribuzio eta kontsumoan ere oinarritzen da. Testuinguru horretan ematen den emakumeen hilketa ondorengo kausen segida da: sareen kide izatea, erakunde hauen barnean desberdintasunak izatea eta narkotrafikoarekin harremana duten ekintzak salatzea.

HILTZAILEEN ETA BIKTIMEN ARTEKO HARREMANETAN OINARRITUTAKO FEMINIZIDIOEN TIPOLOGIA*

Bikoteetako feminizidio intimoak	Familiarteko feminizidioak	Feminizidioen bestelako delitu-egile ezagunak (ez intimoak)	Ezezagunek burututako feminizidioak
Maitale maskulinoak/ Bikote sexualak Senarrak Senar ohiak Maitale maskulino ohiak / Bikote sexual ohiak Bikoteak Bikote ohiak Beste bikote maskulino intimoak	Aitak/Aitaordeak Adopziozko nebak/ nebaordeak/ Erdi- nebak Osabak/Osaba politikoak Aitonak/Aitonaordeak Semeak/Semeordeak Aitaginarrebak Ezkonanaiak Bestelako senide maskulinoak	Familiaren lagun maskulinoak Biktimaren lagun maskulinoak Lagun maskulinoak Autoritatearen ikur maskulinoak: irakasleak, apaizak, langileak, funtzionarioak Ezagun maskulinoak Beste delitu-egile maskulinoak	Ezezagunak Predatzaile sexualak

* E.Russell eta Roberta A.Harmes Editoreak, *Feminicidio: una perspectiva global* (2006), "Definición de feminicidios y conceptos asociados" taulako erreproduktzioa, Mexikoko Unibertsitate Autonomoa, Mexiko D.F.

FEMINIZIDIOAREN ERRADIOGRAFIA



5. 2010-2015 ARTEAN EUSKADIN ETA NAFARROAN JAZOTAKO FEMINIZIDIOEN ERRADIOFRAFIA LABURRA

Euskadin eta Nafarroan 30 feminizidio eta emakumeen hiru erailketa erregistratu ziren 2010etik 2015era, guztira 33 gertakari. Ofizialki 14 kasu hartzen dira feminizidio intimoztat Genero Indarkeriaren aurkako Babes Osoko Neurriei buruzko 1/2004 Lege Organikoaren markoan, txosten honetan dokumentatu diren kasuen % 42. Azken urtean, 2015ean, kasuen urteko batez bestekoan jaitsiera bat egon dela ikusi da, izan ere, hiru feminizidio intimo egon ziren Euskadin, sei urteetan jasotako zifrarik txikiena.

Lurraldeka kasu kopuruak aztertuz gero, Euskadin 30 feminizidio eta erailketa egon ziren, eta Nafarroan hiru. Euskadik eta Nafarroak Espainiar estatuko beste lurralde batzuek baino prebalentzia tasa txikiagoak dituzte. Bost urteko epe-aldia kontuan hartuta, Euskadin milioi bat emakumeko 4,45 emakume erail dituzte urteko, estatu mailako prebalentziaren azpitik dago, 4,78 baita. Euskadiko zein Espainiako prebalentziekin alderatuta, Nafarroako tasa oso txikia da. Hain zuzen, milioi bat emakumeko, 1,55 emakume erail dira. Eta guzti horri, sei urteko epea kontuan hartuta, erantsi behar zaio 2011n kasu bakarra egon zela, eta 2013an bi. Nafarroan, berriz, ez zen kasurik 2010ean, 2012an, 2014an eta 2015ean²⁸.

Biztanleria kopuruari dagokionez, feminizidio eta emakumeen erailketen banaketa oso desorekatua da Euskadiko hiru probintzietan eta Nafarroan. Araba da prebalentzia tasa altuena duen probintzia (6,12), Euskadiko gainontzeko lurraldeen eta Nafarroaren gainetik.

Feminizidio motarik nabarmenenak hauek dira:

- Feminizidio intimoa: 17 kasu (% 52). Horietatik hiru ez dira zifra ofizialen parte.
- Familiarteko feminizidioa: sei kasu (% 18).
- Haur feminizidioa: hiru kasu (% 9), Estatu espainiarrean erregistratutako portzentajea baino handiagoa (% 5).

Eraildako emakumeen profila: Batez besteko adina 44 urtekoa da. Horietatik 25 (% 76) bertakoak ziren, eta 8 (% 24) atzerritarrak. Eraildako emakume atzerritarrak gazteagoak dira, 34 urte dituzte batez beste. Euskadiko emakume atzerritarren presentziari Nafarroakoa gehitzen bazaio, populazioaren % 10 dira; Estatu espainiarrean, aldiz, % 13.

Erailak izan ziren 14 emakumeetatik bostek, genero indarkeria dela-eta salaketa aurkeztua zuten 1/2004 Lege Organikoaren markoan; eta horietatik hiruk babes neurriak ezarriak zituzten.

²⁸ Aipatutako datuak Feminicidio.net web-gunetik, eta feminizidioak zein emakumeen bestelako erailketak dokumentatzeko atari honetako Geofeminic idio tresnatik hartu dira; bertan erregistratu dira 2010 eta 2015an gertatutako kasuak.

Hiltzaileen profila: Batez besteko adina 39 urtekoa da. Horietatik 22 (% 67) bertakoak dira eta 9 (% 27) atzerriarrak. Atzerriko emakumeen hiltzaileak gazteagoak dira, haien batez besteko adina 32 urtekoa da.

Emakume erailen eta hiltzaileen lanbidearen inguruko informazioa ia hutsala da.

Hiltzaileen egoera judizialari dagokionez, informe honetako (2016ko urria) ikerketa juridikoa heldu den puntura arte, 21 kasutan (% 64) eman da epaia. Horietatik 19 hilketetan (% 58) jaso zuten feminizidio eta erailketetan hiltzaileek kartzela zigorra. Zazpi kasutan (% 21) akusatuak prebentziozko espetxeratzean zeuden. Gainontzeko 4 kasuak (% 12) artxibatu egin ziren hiltzaileak bere buruaz beste egin zuelako. Kasu batean ez dago hiltzailearen identifikazioari buruzko informaziorik.

Feminizidio eta erailketetako 14 kasutan (% 42) erabili zituzten arma zuriak hiltzaileek krimena burutzeko. Garrantziari dagokionez, bigarren postuan dago eskuen erabilera, 10 kasutan (% 30). Soilik kasu batean erabili zuen hiltzaileak suzko arma.

Nabarmentzekoa da feminizidioak eta erailketak egin diren tokien artean alde handiarekin gailentzen dela espazio pribatua: 33 kasutatik 22k (% 67) etxebizitza izan dute krimenaren agertoki. Hori bat dator biktima eta erailea elkarrekin bizi diren eremuarekin, nola familiarteko feminizidioetan hala intimoetan.

6. 2010-2015 ARTEKO FEMINIZIDIOEN ETA ERAILDAKO EMAKUMEEN ZERRENTA

EUSKADI

ID	IZENA	ABIZENAK	ADINA	HILKETA DATA	FEMINIZIDIO/ERAILKETA TOKIA			FEMINIZIDIO MOTA	ZIFRA OFIZIALA
					UDALERRIA	PROBINTZIA	AUTONOMIA ERKIDEGOA		
505	María Elena	Cal Troncoso	45	2010/1/18	Tolosa	Gipuzkoa	Euskadi	Feminizidio intimoa	Ez
512	Amelia	Sánchez Blanco	65	2010/2/7	Barakaldo	Bizkaia	Euskadi	Familiarteko feminizidioa	Ez
517	Isabel	Vélez Romero	48	2010/2/22	Lasarte-Oria	Gipuzkoa	Euskadi	Familiarteko feminizidioa	Ez
538	Bonifacia	Ruiz de Arbulo	91	2010/4/6	Agurain	Araba	Euskadi	Familiarteko feminizidioa	Ez
635	Amelia	Amaya Jiménez	36	2010/7/25	Bilbo	Bizkaia	Euskadi	Feminizidio intimoa	Bai
1194	Aicha	Rezmives	1	2010/10/7	Zarautz	Gipuzkoa	Euskadi	Haur feminizidioa	Ez
653	Cristina	Estébanez Barreiro	25	2010/12/6	Barakaldo	Bizkaia	Euskadi	Feminizidio intimoa	Bai
583	Amaia	Azkue Adabalde-treku	39	2011/3/17	Getaria	Gipuzkoa	Euskadi	Lapurretak eragindako hilketa	Ez
691	Jone	Ezezaguna	31	2011/6/16	Durango	Bizkaia	Euskadi	Feminizidio intimoa	Ez
692	Pilar	Alonso	58	2011/6/29	Portugalete	Bizkaia	Euskadi	Familiarteko feminizidioa	Ez
694	Rosario	Román de la Fuente	55	2011/7/3	Hernani	Gipuzkoa	Euskadi	Feminizidio intimoa	Bai
704	Deisy María	Mendoza Cruzatti	36	2011/8/22	Bilbo	Bizkaia	Euskadi	Feminizidio intimoa	Bai
795	Caridad de los Ángeles	Rodríguez Arrieta	39	2012/3/25	Tolosa	Gipuzkoa	Euskadi	Feminizidio intimoa	Bai
903	Mireia	S. M.	42	2012/5/25	Bilbo	Bizkaia	Euskadi	Feminizidio ez intimoa	Ez
945	Rogelia	Chivite Ayensa	93	2012/10/10	Donostia	Gipuzkoa	Euskadi	Lapurretak eragindako hilketa	Ez
959	María Teresa	Egurrola	65	2012/11/27	Asparrena	Araba	Euskadi	Feminizidio intimoa	Bai
1022	Mª Ángeles	M.	53	2013/4/18	Vitoria-Gasteiz	Araba	Euskadi	Feminizidio intimoa	Ez
1025	Amagoia	Elezkano Corchón	26	2013/5/23	Laudio	Araba	Euskadi	Feminizidio intimoa	Bai
1032	Jenny Sofía	Rebollo Tuirán	40	2013/5/25	Bilbo	Bizkaia	Euskadi	Prostituzio feminizidioa	Ez
1033	Maureen Ada	Otuya	29	2013/6/5	Bilbo	Bizkaia	Euskadi	Prostituzio feminizidioa	Ez
1036	María Ángeles	López Marrón	81	2013/6/6	Bilbo	Bizkaia	Euskadi	Lapurretak eragindako hilketa	Ez
1317	Yaiza	D. S.	3	2013/10/3	Barakaldo	Bizkaia	Euskadi	Haur feminizidioa	Ez
1121	Andina Reges	Pereira de Brito	35	2014/3/17	Mungia	Bizkaia	Euskadi	Feminizidio intimoa	Bai
1149	Benigna María	Lago Rodríguez	80	2014/6/8	Barakaldo	Bizkaia	Euskadi	Familiarteko feminizidioa	Ez
1208	Rosa	Ezezaguna	42	2014/10/31	Vitoria-Gasteiz	Araba	Euskadi	Feminizidio intimoa	Bai
1225	Mari Luz	Alejo Rodríguez	54	2014/12/10	Abadiño	Bizkaia	Euskadi	Feminizidio intimoa	Bai

ID	IZENA	ABIZENAK	ADINA	HILKETA DATA	FEMINIZIDIO/ERAILKETA TOKIA			FEMINIZIDIO MOTA	ZIFRA OFIZIALA
					UDALERRIA	PROBINTZIA	AUTONOMIA ERKIDEGOA		
1226	Amelia	Rodríguez Sardón	80	2014/12/10	Abadiño	Bizkaia	Euskadi	Familiarteko feminizidioa	Ez
1253	Maria Ana	Prunar	29	2015/4/2	Vitoria-Gasteiz	Araba	Euskadi	Feminizidio intimoa	Bai
1305	Leire	Rodríguez Montero	34	2015/8/8	Bilbo	Bizkaia	Euskadi	Feminizidio intimoa	Bai
1313	Maria Almudena	Matarranz Velasco	39	2015/10/4	Bilbo	Bizkaia	Euskadi	Feminizidio intimoa	Bai

NAFARROA

ID	NOMBRE	APELLIDOS	EDAD	FECHA ASESINATO	FEMINIZIDIO/ERAILKETA TOKIA			TIPO DE FEMINICIDIO	CIFRA OFICIAL
					MUNICIPIO	PROVINCIA	CCAA		
605	Yanela Mariuxi	Zaruma Cabrera	22	2011/4/4	Beriain	Nafarroa	Nafarroa	Feminizidio intimoa	Bai
987	Maria Montserrat	Marigó Olleta	42	2013/2/1	Antsoain	Nafarroa	Nafarroa	Feminizidio ez intimoa	Ez
1020	Ezezaguna	I.	12	2013/5/1	Kaseda	Nafarroa	Nafarroa	Haur feminizidioa	Ez

7. KASUEN AIPAMEN KRONOLOGIKOA

EUSKADI

2010

01. ID 505 - 2010/08/01. Maria Elena Cal Troncoso, 45 urte. Tolosa (Gipuzkoa). Feminizidio intimoa. Zifra ez ofiziala. Aurkitutako sententzia. Akusatua zuhurtziagabeko hilketagatik hiru urte eta erdiko kartzela zigorrera kondenatua.

Maria Elena Cal Troncoso, 45 urtekoa eta nazionalitatez espainiarra, eta bere bikotea, Jose Maria Hernandez Cordero, 44 urtekoa, Tolosako Montesque auzoko txabola batean bizi ziren Paulo Jorge Simão Pereirarekin, 49 urteko gizon portugesa. 2010eko urtarilaren 17an 16:00 inguruan, hiru pertsonen arteko eztabaida hasi zen. Paulo Jorge Simão Pereirak labana bat hartu eta labankada bat sartu zion Maria Elenari lepoaren ezker aldean, arteria bertebrala ebaki zion eta bihotz-birikien gelditzea eragin. Biktimak eta hiltzaileak ordura arte ezkontza harreman analogoa mantendu zuten.

02. ID 512 - 2010/07/02. Amelia Sánchez Blanco, 65 urte. Barakaldo (Bizkaia). Familiarteko feminizidioa (bere semeak eraila). Zifra ez ofiziala. Aurkitutako sententzia. Akusatua traiziozko hilketagatik 16 urteko kartzela zigorrera kondenatua.

2010eko otsailaren 9ko goizaldean, Manuel C. Sanchezek, 41 urtekoa eta nazionalitatez espainiarra, bere ama hil zuen, Amelia Sanchez Blanco, 65 urtekoa. Hainbat labankada sartu zizkion. Lau egun lehenago, Ameliak bere semea salatu zuen honek aurpegia aerosolez busti ondoren, baina egun batzuk geroago salaketa kendu zuen.

03. ID 517 - 2010/02/22. Isabel Velez Romero, 48 urte. Lasarte-Oria (Gipuzkoa). Familiarteko feminizidioa (bere semeak eraila). Zifra ez ofiziala. Aurkitutako sententzia. Akusatua gehienez 20 urte psikiatriko batean barneratzera kondenatua.

Isabel Velez Romero, 48 urtekoa, bere semeak hil zuen, 23 urtekoa, 2010eko otsailaren 22an Lasarte-Orian. Hiltzaileari eskizofrenia diagnostikatu zioten. Baimendutako irteera batean ospitale psikiatrikotik ihes egin zuen, eta bere ama torturatu zuen hainbat tresnarekin. Ondoren bere ama iletik tiraka atera zuen etxetik, eskaileretatik jaurti zuen, eta azkenik, kalean, gogor kolpatu zion burua. Auzokide batek gertakaria ikusi eta Ertzaintza abisatu zuen, biktima hainbat labankadarekin larriki zauriturik ikusi ondoren. Erizainak heldu zirenerako ezin izan zuten bere bizitza salbatu.

04. ID 538 - 2010/04/06. Bonifacia Ruiz de Arbulu, 91 urte. Agurain (Araba). Familiarteko feminizidioa (bere bilobak eraila). Zifra ez ofiziala. Aurkitutako sententzia. Salbuespenezko anomalia psikikoengatik hilketatik absolbitutako akusatua. 12 urtez zentro psikiatriko batean barneratua.

Tasio Ugarte, 19 urtekoa, nortasun antisozialaren nahasmenduagatik (NAN) tratamendu psikiatrikoa jasotzen ari zen. Bonifacia Ruiz Arbulok, bere amonak, 91 urtekoak, mugikortasun murriztua zuen. Amona eta ilobak ohiko erlazioa mantentzen zuten. 2010eko apirilaren 6ko goizaldean gazteak bere amona hil zuen honen etxean; 24 labankada sartu zizkion.

05. ID 635 - 2010/07/25. Amelia Amaya Jimenez, 36 urte. Bilbo (Bizkaia). Feminizidio intimoa. Zifra ez ofiziala. Aurkitutako sententzia. Akusatua hilketagatik 20 urteko

kartzela zigorrera kondenatua, eta zigorraren hausketagatik 11 hilabeteko kartzela zigorra.

2010eko uztailaren 25eko gauean, Antonio Gutierrez Jimenezek, 41 urtekoak, bere bikote ohia hil zuen kolpez, Amelia Amaya Jimenez, 36 urtekoa, duela urte bat ingurutik bizi ziren pisuan mutilaren amarekin, Maria del Carmenekin eta anai batekin. Hainbat saiheztasun-herur eta besoa apurtu zizkion eta hemorragia abdominala eragin zion. Jipoiak etengabeak ziren. Babes eta urruntze-ordenak ezarriak zituen. Hala ere, hiltzaileak azken urruntze-ordena hautsia zuen, duela bi hilabetekoa, eta bikotea berriro batera bizitzera itzulia zen. Autopsiak heriotza biolentzia izan zela zehaztu eta gero, Ertzainak biktimaren bikotea atxilotu zuen, baita bere ama eta haren anai-arrebetako bat ere, gertaturikoa ikusi eta susmagarria babesten saiatu zirelakoan.

06. ID 1194 - 2010/10/07. Aicha Rezmives, urte bat. Zarautz (Gipuzkoa). Haur feminizidioa. Zifra ez ofiziala. Aurkitutako sententzia. Akusatua hilketagatik eta mehatxuengatik 21 urteko kartzela zigorrera kondenatua.

2010eko urriaren 7an, Mohamed Chabouk, 41 urtekoak eta nazionalitatez marokoarrak, 112ra deitu zuen Aicha, 18 hilabeteko bere alaba txikiaren desagertzea salatzen. Lehen momentuan, gizona bere burua errugabetzen saiatu zen; azalduz alabarekin lo egiten zuela eta esnatzean konturatu zela umea ez zegoela berak utzitako tokian. Ertzaintza, herriko Guardia Munizipala eta DYAKo kideak zonaldea arakatzen egon ziren. Handik gutxira Zarautzeko hondartzako uretan aurkitu zuten haurraren gorpua.

Umearen gorpuari eginiko autopsiak frogatu zuen itota hil zela eta ez zuela biolentzia zantzurik. Hiltzaileak haur txikiaren amarekin eztabaida izan zuen, bere alabaren zaintza zuen emakume errumaniarrarekin. Mutilak aurrekari polizia zituen, horietako asko bere emazteari tratatu txarrak emateagatik, eta beste bat 2010eko uztailan bere alaba bahitzeagatik.

07. ID 653 - 2010/12/06. Cristina Estébanez Barreiro, 25 urte. Barakaldo (Bizkaia). Feminizidio intimoa. Zifra ez ofiziala. Aurkitutako sententzia. Akusatua erailketa eta hilketa saiakeragatik 32 urte eta 10 hilabeteko kartzela zigorrera kondenatua.

Cristina Estebanez Barreirok, 25 urteko espainiarrak, Seidel M. G., 25 urteko kubatarrarekin bikote harremana izan zuen lau urtez. Erlazioa hasi eta gutxira hasi zen mutila tratatu txarrekin. Harremana bukatuta ere, gizonak etengabe jazartzen zuen. 2010eko azaroan jarri zuen Cristinak azken salaketa, gauerdian batean bere mutil ohia etxera sartzen saiatu eta gero, atea indarrez zabalduz. Biak izan ziren epaiketara deituak Barakaldoko 2. Instrukzio Epaitegira, gela berean eta ordu berdinean, eta neskak banatzeko eskatu behar izan zuen. Epaia urruntze-ordena jarri zuen erasotzailearen kontra.

Urte bereko abenduaren 6an Cristina eta bere lagun Aingeru, 29 urtekoa, Seidelekin egin zuten topo neskaren etxean: balkoitik sartu zen bi leiho indarrez ireki eta ondoren. Seidelek Aingeru kolpatu zuen katana batez. Hiltzaileak Cristina kolpatu zuen bizkarretik eta bi aldiz sartu zion labana lepoan, bizkarrezur-muina ebakiz.

2011

08. ID 583 - 2011/03/17. Amaia Azkue Adabaldetrek, 39 urte. Getaria (Gipuzkoa). Lapurretak eragindako hilketa. Zifra ez ofiziala. Aurkitutako sententzia. Akusatua gazte-zentro batean 10 urteko atxilo-aldi itxira kondenatua eta bost urte zaintzapeko askatasunera zigortua.

Martxoaren 17an, Amaia Azkue Adabaldetrek, 39 urtekoak, 7 eta 9 urteko alabak utzi zituen Meagaseko eskolako autobus geltokian (Getaria). 17.15ean agertu zen bere gorpua Azpeitiko Ibai-eder urtegian flotatzen, biolentzia zantzuak zituela. Bost hilabete geroago, 17 urte bete

baino egun bat lehenago, bere burua aurkeztu zuen Ertzaintzan Ander Echevarriak. Gazteak, goi klaseko familia bateko kideak, biktima auto-stoparen egiten hartu zuela deklaratu zuen, eta emakumeari lapurtzen saiatu zela. Pistolaren ertzarekin erasotzen saiatu zen, eta konorterik gabe zegoenean, harri batekin kolpatu zuen buruan hil arte, eta gero urteigira bota zuen.

09. ID 691 - 2011/06/16. Jone, abizen ezezagunak, 31 urte. Durango (Bizkaia). Feminizidio intimoa. Zifra ez ofiziala. Aurkitutako sententzia. Prozesu judizialari eta sententziari buruzko informaziorik ez.

2011ko ekainaren 16an, Jone, 31 urtekoa, antzinako Fundifés enpresako bigarren pisuko leihotik erori zen, bertan bizi zen bere bikotearekin, nazionalitatea marokoarra eta etxe gabeko beste pertsona batzuekin. Emakumea, anbulantzia medikalizatu batean eraman zuten Gurutzetako ospitalera zauri larriekin, urgentziazko interbentzio kirurgiko bat egin zioten eta erreanimazio unitatean ingresatu zuten. Gaztea ezin izan zen errekuaratu eta hurrengo egunean hil zen. Hasiera batean suizidioa izan zela uste izan zen, baina lekukoek deklarazioek eta adituen frogak identifikatu zuten leihotik bota zuela bere bikoteak.

4. Instrukzio Auzitegiko epaile titularrak, Genero Indarkeriaren delituen jarduketa medio, gizonaren baldintza gabeko espetxeratzea dekretatu zuen. Prentsan ez da epaiketaren informaziorik jaso, ezta hiltzailearen izen edota adina bezalako daturik ere.

10. ID 692 - 2011/06/29. Pilar Alonso, 58 urte. Portugalete (Bizkaia). Familiarteko feminizidioa (bere semeak eraila). Zifra ez ofiziala. Aurkitutako sententzia. Absolbitutako akusatua erantzukizun osoaren salbustea antzemateagatik. Barneratze erregimen itxiko zortzi urteko neurri terapeutikoa.

2011ko uztailaren 29an, Ismael Quesada Alonsok, 17 urteko adingabeak, labankadaz hil zituen bere ama, 58 urtekoa, eta bere anaia, 11 urtekoa, familiaren etxean. Hiltzaileak bere egunerokoan idatzita utzi zuen bere familia osoa hiltzea planeatua zuela. Atxilotua izan zen bere burua erruduntzat jo ondoren, eta ospitale zentro batean ingresatu zuten Bilboko Adingabeen Epaitegiko 1. zenbakiko titularrak aginduta.

11. ID 694 - 2011/07/03. Rosario Roman de la Fuente, 55 urte. Hernani (Gipuzkoa). Feminizidio intimoa. Zifra ez ofiziala. Aurkitutako sententzia. Akusatua hilketengatik 17 urte eta erdiko kartzela zigorrera kondenatua, eta beste bederatzi urte gehiagoko espetxeratze agindua tentazio graduako hilketagatik eta bi lesio delituengatik.

2011ko uztailaren 3an, Rosario Roman de la Fuentek, 55 urtekoak eta bere alabak, Yolanda Sanchez Romanek, 30 urtekoak, biak nazionalitate espainiarrekoak; taxi bat hartzen ari ziren Rosarioren bikote ohiak, Freddy Ramiro Apolok, 42 ekuadortarrak, arma zuri batekin erasotu zituenean. Gertu zeuden bi gizon, biak marokoarrak, eta horietako batek alaba lagundu ahal izan zuen, erietxean ingresatu behar izan zutena labankadak birika zulatu ziolako. Haiek ere erasotutak izan ziren. Biktima erasotzaileak toraxean eta bihotzean sei sastada eman ostean hil zen. Gizonak krimenetik bederatzi ordura entregatu zuen bere burua. Espediente bat zabalik zuen 2007tik genero indarkeria erasoengatik. Urte bereko maiatzean biktimak salaketa bat jarri zuen, baina hurrengo egunean erretiratu zuen. 2008an armen-gabetze, hurbiltze eta komunikazio debekuengatik kondenatua izan zen. 2009an beste eraso bat gehitu zitzaion espedienteari, baina salaketa gehiago ez jasotzeagatik artxibatu egin zuten. Hilketak baino hilabete eta erdi lehenago, emakumeak berriro salatu zuen bere bikotea, eta tratatu txarren erantzuleari espedientea ireki zioten berriz. Nahiz eta espedientea zabalik izan, gizonak ez zuen urruntze-ordena ezarrita.

Rosariok hiru seme-alaba zituen eta Gipuzkoako poliklinikako sukaldaria zen. 2014ko uztailaren erasotzailea 17 urte eta erdiko kartzela zigorrera kondenatu zuten hilketak delitu batengatik, eta beste bederatzira tentazio graduako erailketa eta lesioengatik.

12. ID 704 - 2010/08/22. Deisy Maria Mendoza Cruzatti, 36 urte. Bilbo (Bizkaia). Feminizidio intimoa. Zifra ez ofiziala. Aurkitutako sententzia. Hilketa delituagatik, zigorra hausteko delitu jarraiatatik eta ohiko tratu txarren delituagatik 32 urteko kartzela zigorrera kondenatutako akusatua.

Hector Melecio Reynal 38 urtekoa eta Ekuadorrekoa, bere bikote ohia bizi zen ingurutik zebilen, Deisy Maria Mendoza Cruzatti, 36 urtekoa eta ekuadortarra ere. Pare bat hamarkadetan batera bizi izan ziren, eta banatu berri zeuden, duela hilabete batzuk. Deisy etxeko langilea zen, eta Hectorrekin bi alaba eta seme bat izan zituen, 11 eta 17 urte bitartekoak. Gizonak bere emaztea eta bi alabak jo izan zituen hainbat urtez. Bai eta prentsaren bidez argitara atera zen haren bi alabek sexu-abusuak jaso izan zituztela.

Erail baino hilabete batzuk lehenago, Deysik bere bikote ohia salatu zuen fisikoki erasotua izan ondoren. Genero Indarkeriaren Epaitegiak uztailaren 1tik aurrera hiru hilabeteko urruntze-ordena agindu zuen, baina gizonak ez zuen betetzen. Euskadiko Herrizaingo Sailak salatzaileari mugikor bat eman zion bere bikote ohiarekin izandako edozein gorabehera mota komunikatzeko. 2011ko abuztuaren 22ko arratsaldean, auzokide batek eztabaida gogor bat entzun zuen eta larrialdi zerbitzuak ohartarazi zituen. Auzokidea emakumea laguntzera joan zen, baina beranduegi zen. Erizainak heldu zirenean, bikote ohiak laban batekin sastakatua zuen biktima hirugarren pisuko eskailera-buruan. Oraindik bizirik zegoen, baina erizainek ezin izan zuten bizkortu. Ertzainak hilketa gertatu zen lekuan atxilotu zuen erasotzailea.

2012

13. ID 795 - 2012/03/25. Caridad de los Angeles Rodríguez Arrieta, 39 urte. Tolosa (Gipuzkoa). Feminizidio intimoa. Zifra ez ofiziala. Aurkitutako sententzia. Akusatua maltzurkeri eta ankerkeriazko hilketaren delitu batengatik 22 urte eta sei hilabeteko kartzela zigorrera kondenatua.

Martxoaren 25ean, Caridad de los Angeles Rodríguez Arrieta, jatorri kubatarrekoa eta 39 urtekoa, hilda aurkitu zuten bere Tolosako etxeko gela batean. Arma zuri batekin egindako mozketa zuen lepoan. Duela bi urte ingurutik mantentzen zuen erlazioa gizon espainiar batekin, José Antonio García Akhamlichekin, 26 urtekoa. Lau hilabete ziren bere etxe berrira aldatu zela.

Bere senar ohia izan zen Ertzaintzari abisua eman ziona, biktimarekin 12 urteko semea izan zuena, Ertzainak emakumearen gorpua aurkitu eta hiru ordura joan zen biktimaren bikotea etxera.

Epaiketa Gipuzkoako Entzutegi Probintzialeko Lehen Sailean izan zen. Prozesura Clara Campoamor elkarte eta Tolosako Udalaz bertaratu ziren, baita akusazio fiskal eta partikularra, biktimaren semeak gauzatua. Herri epaimahaiko bederatzi kideek errudun kontsideratu zuten akusatua, eta 2014ko ekainean tribunalak kondenatu zuen 22 urte eta sei hilabeteko kartzela zigorrera, maltzurkeria eta ankerkeriazko hilketa baten delituagatik.

14. ID 903 - 2012/05/25 Mireia S. M., 42 urte. Bilbo (Bizkaia). Feminizidio ez intimoa. Zifra ez ofiziala. Aurkitutako sententzia. Traiziozko hilketa baten delituagatik 13 urteko kartzela-zigorrera eta 20 urtez psikiatriko batean barneratzera kondenatutako akusatua, erailketagatik hurrengo bost urteetan zaintzapeko askatasuna ezarriz.

Mireiak 42 urte zituen eta osasun laguntzaile gisa egiten zuen lan geriatriko-etxe batean. Rafael T.M-ren gainean bizi zen, 37 urteko gizona, tratamendu psikiatrikoa zuena. Emakumeei nazka handia zien eta lesioengatik, mehatxuengatik eta familiako indarkeriagatik aurrekari penal zein kondena ugari zituen (aurrez auzokide bat sastakatu zuen). Auzokideen komunitate osoa ikaratuta zuen, are, urruntze-ordena dekretatzeko sinadura bilketa egina zuten, izan ere,

azken urteetan zortzi aldiz izan zen atxilotua eta leporatua bizilagunei mehatxu, eraso eta suntsiketak eragiteagatik, Euskadiko Herrizaingo Sailaren arabera. Biolentzia nabarmenagoa zen eraikineko emakumeen aurka, batzuk ihes egiten zuten korrika bera ikustean.

Maiatzaren 25ean, ostirala, Rafael T-k jarraitu egin zuen Mireia portaletik ateratzean eta kalean sastakatu zuen. Emakumeak 52 sastakada jaso zituen. Minutu batzuk geroago atxilotu zuten erasotzailea bere etxean. Epaiketa 2014ko urtarrilean izan zen Bizkaiko Auzitegiko Bigarren Sekzioan. Hiltzailea erruduntzat jo zuen herri epaimahaiak, nahiz eta salbuesle osagabea aplikatu alterazio psikikoengatik. Akusatuaren defentsak epaiketari aitortu zuen honi eskizofrenia paranoidea diagnostikatu ziotela. Urtarrilaren 29ko sententziaren arabera, gizona 13 urteko kartzela zigorra eta 20 urteko barneratze psikiatrikoa betetzera kondenatua izan zen, ondorengo bost urteak zaintzapeko askatasunean igarotzera zigortuz.

15. ID 945 - 2012/10/2010. Rogelia Chivite Ayensa, 93 urte. Donostia (Gipuzkoa). Lapurretak eragindako hilketa. Zifra ez ofiziala. Aurkitutako sententzia. Hiru hiltzaileak izan ziren kondenatuak (Egile nagusia, adingabea, adingabeentzako zentro batean zazpi urte eta erdiko itxialdira; eta adinez nagusikoak erailketa eta lapurretagatik 22 eta 23 urteko kartzela zigorrera).

2012ko urriaren 10ean ageriko biolentzia zantzuak zituen 93 urteko emakume baten gorpua aurkitu zuten Donostian bere etxean. Andre zaharra zaintzen zuen emakumeak, bakarrik bizi zena, hilda aurkitu zuen. Rogeliak arma zuriz, zehazki labana batekin, egindako zauriak zituen bistan, baita bere gorputzeko hainbat kolpe ere. Gainera, etxebizitzan bitxiak falta zirela ziurtatu zen. Ikerketak ondorioztatu zuen gaizkileetako bat zaintzailearen semea zela, 16 urteko nikaraguarra, hondurastar jatorria zuten beste bi gizonekin batera: Jose Alexander A.F, egile nagusia, eta Jorvic Fernando F.B. Biek zituzten 18 urte krimena gertatu zenean. 2013ko maiatzean, adingabea epaitua izan zen Donostiako Adingabekoen Epaitegian, eta adingabeko zentroan zazpi urte eta erdi barneratzera kondenatu zuten, eta zaintzapeko askatasunean beste hiru urte ematera. Sententziak zehazten zuen adingabekoa, enplegaturen semea, izan zela lapurreta antolatu zuena beste akusatu batekin batera, eta azken honek, aldi berean, hirugarren bat gonbidatu zuela. 2015eko urtarrilean, Gipuzkoako Auzitegiak adinez nagusiak ziren bi hiltzaileak hilketa delitu batera kondenatu zituen, baita lapurreta delitura ere. Gipuzkoako Auzitegiaren sententziak 22 eta 23 urteko kartzela zigorra ezarri zien, hurrenez hurren.

16. ID 959 - 2012/11/27. Maria Teresa Egurrola, 65 urte. Asparrena (Araba). Feminizidio intimoa. Zifra ofiziala. Hiltzaileak bere buruaz beste egin izanagatik kasua itxita.

Maria Teresa Egurrola 2012ko azaroaren 27an hil zuten bere senarrarekin, Jesus Peredarekin, 68 urtekoa, partekatzen zuen etxean, Aiaran. Biak jubilatuak ziren. Senar-emazteek hiru seme zituzten. Auzokide batek gizona bere etxeko su-itxalgailuko habe batetik eskegita aurkitu zuen. Polizia abisatu ondoren, honek gizonaren suizidioa baieztatu zuen, baita Maria Teresaren ustezko hilketa ere, zeina bikotearen logelan aurkitu zuten, ohearen gainean eta bekokian kolpe gogor batekin. Gorpuaren alboan erabilia izan zen arma aurkitu zuten: aizkora bat.

2013

17. ID 1022 - 2013/04/18. Maria Angeles M., 53 urte. Vitoria-Gasteiz (Araba). Feminizidio intimoa. Zifra ez ofiziala. Hiltzaileak bere buruaz beste egin izanagatik itxitako kasua.

Gasteizko finka bateko auzokideek nabaritu zuten etxe hartatik usain indartsua jario zela, nahiz eta uste zuten akaso bikoteak ateratzea ahaztutako zabor hondarrak zirela, oporretan alde egin zutelakoan. Leihoak mugitu gabe zeuden eta arropa zegoen eskegita zegoen duela

denbora askotik. Finkako administratzaileak polizia deitu zuen egoeraren berri emateko. Ertzainak senar-emaztearen seme batekin jarri ziren kontaktuan, eta honek baimena eman zien etxebizitzan sartzeko, berak ez zuen giltzarik eta. Senar-emazteak sukaldean agertu ziren hilda biolentzia zantzuekin. Emakumeak 53 urte zituen eta gizonak, 61. Aizto bat zegoen gizonaren alboan. Gorpuak deskonposizio egoera aurreratuan zeuden.

18. ID 1025 - 2013/05/25. Amagoia Elezcano Corchón, 26 urte. Audio (Araba). Feminizidio intimoa. Zifra ofiziala. Aurkitutako sententzia. Akusatua 22 urte eta sei hilabeteko kartzela zigorra betetzera kondenatua.

Amagoia Elezcano Corchónek, 26 urteko laudiarrak, desgaitasuna duten pertsonentzako egoitza batean egiten zuen lan, eta bere bikotearekin partekatzen zuen etxebizitza, Francisco Javier Maestre, 49 urtekoa; eta bien semearekin, apenas urte eta erdikoa. 2013ko maiatzaren 23an gizonak sukaldeetik aizto bat hartu eta 42 sastakada sartu zizkion Amagoiari lo zegoela; eta ondoren bere arrebari deitu zion hori kontatzeko. Emakumea etxebizitzara joan zen eta polizia deitu zion, baina etxera heldu zenean ezin izan zuen ezer egin Amagoiaren bizitzagatik. Epaiketa epaimahaikide herrikoiekin (zazpi mutil eta zazpi neskez osatua) gauzatu zen Arabako Auzitegi Probintzialeko Bigarren Sekzioan, 2014ko urrian. Akusatua 22 urte eta 6 hilabeteko kartzela zigorra betetzera kondenatua izan zen. Horrez gain, komunean zuten semearen guraso-agintetik kanpo utzi zuten.

19. ID 1032 - 2013/05/25 (Gutxi gorabeherako data). Jenny Sofía Rebollo Tuirán, 40 urte. Bilbo (Bizkaia). Prostituzio feminizidioa. Zifra ez ofiziala.

20. ID 1033 - 2013/06/05 (2013/06/02 erasotua). Maureen Ada Otuya, 29 urte. Bilbo (Bizkaia). Prostituzio feminizidioa. Zifra ez ofiziala.

Aurkitutako sententzia. Akusatua traiziozko bi hilketengatik 38 urteko kartzela zigorra betetzera kondenatua.

Jenny Sofía Rebollo Tuiranek, 40 urteko kolonbiar nazionalitatekoak, medikuntza ikasketak zituen, baina ile-apaindegietan ibili zen lanean Logroñon lehendabizi, eta Bilbon ondoren. Hemen bi seme-alaba izan zituen, nagusia Kolonbian bizi zen eta gazteena bere aitarekin, zeinarengandik banandua zegoen Jenny. Azken aldian prostituzioan aritzen zen, nahiz eta bere familiak ez zuen horren berri. Jennynren gorpuzkiak bigarren biktima baten hilketa ikertzen ari zirenean aurkitu zituzten, eta gizonak lehen feminizidio hura onartu zuen. Juan Carlos Aguilar Gómez, 47 urtekoa eta sortzez Bilbotarra, dibortziatua eta seme bat zuena, gimnasio baten arduraduna zen.

Juan Carlos Aguilarrek Jenny hil zuela aitortu zuen eta bere gorpuzkiak Bilboko errekan utzi zituela; hala ere, gimnasioan poltsa batean zituen gordeta eskuen eta bizkarrezurraren zati batzuk.

Juan Carlos Aguilarren bigarren biktima Maureen Ada Otuya izan zen, 29 urtekoa eta nazionalitatez nigeriarra, poliziak uztailaren 2an aurkitu zuen hanketatik, eskuetatik eta lepotik lotuta, gorputz guztian bortizki kolpatu izanaren zantzuekin. Hainbat auzokidek ohartarazi zuten oihuak entzun zituztela eta hiltzaileak emakumea gimnasia indarrez sartzera nola behartu zuen ikusi zutela. Polizia bertara sartu zenean, lurrean aurkitu zuten emakumea eta erasotzailea bere alboan. Emakumea Bilboko ospitalean zendu zen hiru egun geroago, ekainaren 5ean. Estatu Espainiarrera duela hiru urte heldu zen, Bilbon bizi zen eta prostituzioan aritzen zen.

Epaiketa Bilboko Justizia-Jauregian egin zen 2015eko apirilaren 17 eta 22 egunen bitartean. Herri-epaimahaiak (bost gizon eta lau emakumez osatua) aho batez jo zuen erruduntzat. Hala ere, ankerkeria egon izana baztertu zuten (aldeko zazpi botorekin eta kontrako birekin). Apirilaren 30ean magistratu lehendakariak, Manuel Ayonek, feminizidioaren egilea krimen bakoitzagatik 19 urteko kartzela zigorrera kondenatzen zuen epaia eman zuen.

21. ID 1036 - 2013/06/06* (Gorpua aurkitutako data). Maria Angeles López Marrón, 81 urtekoa. Bilbo (Bizkaia). Lapurretak eragindako hilketa. Zifra ez ofiziala. Prentsan ez da jaso hilketaren egile edo egileak atxilotu izana.

Uztailaren 6an María Ángeles López Marrónen gorpua agertu zen, 81 urteko jubilatua, bere Bilboko etxean. Ostegun guztietan geratzen zen María Ángeles bere lagunekin kafea hartzeko. Egun horretan, agertu ez zela ikusita, bere etxeraino hurbildu ziren. Poliziak adineko emakumearen lagunena deia jaso zuen 19:00ak aldera, ezin baitziren berarekin harremanetan jarri. Etxebizitzara sartu ziren suhiltzaileek aurkitu zuten emakumea hilda, eskuak lotuta eta ahoa estalita. Poliziak lapurretatik erail izana zuen hipotesi nagusi. Ez zuen biolentzia zantzurik erakusten. Etxeko atea ez zegoen bortxatua eta senideek ezin izan zuten hilketa gertatu zen momentuan bizilekuan zer falta zen zehaztu. Datu base honetako kasuaren erregistroan ezin izan da baieztatu ebazpen edo atxiloturik egon zen.

22. ID 1317 - 2013/10/03. Yaiza D. S., hiru urte. Barakaldo (Bizkaia). Haur feminizidioa. Zifra ez ofiziala. Aurkitutako sententzia. Akusatua 18 urteko kartzela zigorrra kondenatua.

2013ko urriaren 3an, Víctor Manuel D.S.-ek, 30 urtekoak eta sortzez Ponferradakoak, Leon; Yaiza D.S. jaso zuen eskolan, bere bikotearen alaba. Supermerkatu batera joan zen txikiarekin, eta gero Barakaldoko ohiko etxerantz zuzendu ziren. Behin etxean zeudela, sarrerako pasilloko hormaren kontra kolpatu zuen bi aldiz gutxienez, horrek eragin zizkion barne-zauriak eta ondoren heriotza. Ostean, umea eskaileretatik erori izanaren koartada erabiltzen saiatu zen, baina ikerketek frogatu zuten umea hilda zegoela istripua simulatzeko jaurti zuenean. 2015eko urtarrilean ihes egin zuen hiltzaileak epaiketa ekiditeko, eta lau hilabete pasa ondoren atxilotu zuten Frantzian. Víctor Manuel D.S.-ren kontrako epaiketa 2015eko irailean gauzatu zen Bizkaiko Audientzia Probintzialeko Bigarren Sekzioan.

Umearen ama, Ruth S.J., Víctor Manuelen bigarren alaba baten esperoan zegoen, haurdun, honek haien lehenengo alabaren feminizidioa gauzatu zuenean. 2014ko azaroan, hilketatik urte batera, Ruthen mehatxuengatik salatu zuen akusatua, eta epaileak emakumearengana eta umearengana hurbiltzea galarazten zion urruntze-ordena agindu zuen. Herri-epaimahaiak, zazpi emakumez eta lau gizonez osatuak, erruduntzat jo zuen aldeko zazpi bozekin eta kontrako birekin. 2015eko urrian eman zen epaia eta Víctor Manuel D. hilketatik 18 urteko kartzela zigorrra kondenatua izan zen.

2014

23. ID 1121 - 2014/03/17. Andina Reges Pereira de Brito, 35 urte. Mungia (Bizkaia). Feminizidio intimoa. Zifra ofiziala. Aurkitutako sententzia. Akusatua hilketa delituagatik 16 urteko kartzela zigorrra kondenatua.

2014ko martxoaren 17an Andina Reges Pereira de Brito, 35 urteko brasildarra, konorterik gabe aurkitu zuen haren etxean bere bi seme-alabetako batek, 10 urteko alabak. Alabak emergentzia zerbitzuetara deitu zuen, baina hauek ezin izan zuten ezer egin emakumearen bizitza salbatzeko, itotze zantzuak zituen eta. Emakumea etxebizitza horretan bizi zen bere bikotearekin erlazioa utzi zuenetik, Joseba Andoni Aguirre P., adin berekoa eta sortzez mungiarra. 14 urteko bere semearekin eta 10 urteko alabarekin bizi zen. Andinaren bikote ohiak aurretik izandako bikote baten kontrako genero indarkeriagatik aurrekari ugari zituen.

Joseba Antoni A. P. hilketaren egun berean atxilotu zuten, eta Gernikako epailearen aurrean deklaratzeari uko egin eta gero, Basauriko kartzelan behin-behinekoz espetxeratzea agindu zuten. Doluaren erakusgarri bezala Udalak aste batez Mungiako plazako eskulturako "M" morez estaltzea eta krespoi beltza jartzea erabaki zuen. Andinaren seme-alabak

Redençãora itzuli ziren, Brasilera, familia guztia dagoen tokira. Bizkaiko Diputazioak hartu zituen beregain hegazkineko bidaia gastuak. Mungiako Udaletxea arduratu zen Andina Reges P.-ren gorpuren aberriatzearen gastuez. Mungiako Udalak feminizidioaren prozesu judizialera bertaratzea erabaki zuen. Abokatu talde bat izendatu zuen familiaren izenean akusazio partikular modura jarduteko, eta herri-akusazio gisa Udaletxea. Bizkaiko Probintzia Fiskalak 16 urte eta erdiko kartzela zigorra eskatu zuen. Azkenean, Bizkaiko Probintzia Auzitegiak 2016ko apirilean 16 urteko kartzela zigorrera kondenatu zuen hiltzailea hilketa delitu bategatik eta ohiko tratatu txarren delituagatik.

24. ID 1149 - 2014/06/08. Benigna María Lago Rodríguez, 80 urte. Barakaldo (Bizkaia). Familiarteko feminizidioa. Zifra ez ofiziala. Hiltzaileak bere buruaz beste egiteagatik itxitako kasua.

Benigna María Lago Rodríguez, 80 urtekoa, eta bere senarra, Antonio Lamas Ballares, 79 urtekoa, haien seme Iñaki Lamas Lagok erail zituen, Bilboko udaltzaina, 51 urteko, 2014ko uztailaren 8an, senar-emazteen etxean. Biak oso gaixorik zeuden. Emakumeak iktusa jasan zuen duela bi urte eta ezin zuen hitz egin. Gizonak bertigoa zuen, beste minez gainera. Hiltzaileak araututako arma batekin tirokatu zituen gurasoak, pasilloan hilda agertu zirenak, eta ondoren, etxeko sukaldean egin zuen bere buruaz beste. Ezkonduta zegoen eta seme nerabe bat zuen; bere emaztea izan zen, hain zuzen, polizia ohartarazi zuena, zerbait gertatu izanaren susmoa zuen, bere senarrak ez zien deiei erantzuten eta.

25.- ID 1208 2014/10/31. Rosa, abizen ezezagunak, 42 urte, Vitoria-Gasteiz (Araba). Feminizidio intimoa. Zifra ofiziala. Prozesu judizialari buruzko informaziorik ez.

2014ko azaroaren 4an etxe batean aurkitu zuten bizitzarik gabeko Rosaren gorpua, 42 urteko dominikarrarena. Emakumea ohean aurkitu zuten izugarrizko biolentzia zantzuekin, izara batez estalita eta odol putzu handi baten erdian. Aurpegia guztiz desitxuratuta zuen; buruko kolpe batek eragin zion heriotza.

Poliziak bere bikote ohia atxilotu zuen, 45 urteko gizona, Rosarekin duela denbora asko harremana izan zuena. Ikerketak desegin zuen feminizidioaren susmagarriaren koartada, mugikorraren arrastoak hilketaren agertokian kokatzen zuelako. Gizonak behin-behineko espetxealdiari ekin zion, Gasteizko 1. Instrukzio Epaitegiaren aginduz.

26. ID 1225 - 2014/12/10. Mari Luz Alejo Rodríguez, 54 urte. Abadiño (Bizkaia). Feminizidio intimoa. Zifra ofiziala.

27. ID 1226 - 2014/12/10. Amelia Rodríguez Sardón, 80 urte. Abadiño (Bizkaia). Familiarteko feminizidioa (loturagatik). Zifra ez ofiziala. 2016ko urrian epaiketa prozesuan. 40 urteko kartzela-zigorrera kondenatu zuten akusatua (20 urte amaginarreberen erailketagatik, 19 bere emaztearenagatik eta urtebete gehiago bere enpresako sutean emandako kalte materialengatik).

2014ko abenduaren 10ean hasi zen erretzen Zuhaitz Zurgindegia, Atxondoko (Bizkaia) industriagune batean kokatua. Barnealdean zegoen enpresako jabea, Benito Quintairos Folgoso, 55 urtekoa. Sua itzaltzera joan ziren bi langileek atera zuten, oinak lotuta aurkitu zuten gizona. Gertatutakoaz ohartaraztera joan zirenean hainbat senide Benitoren etxera, han zeudelako bere emaztea, Mari Luz Alejo Rodríguez, 54 urtekoa, eta honen ama, Amelia Rodríguez Sardón, 80 urtekoa, emakumeen gorpua aurkitu zituzten. Bortizki kolpatuak izan ziren eta etxebizitzako gela bateko ohe baten gainean zeuden kokatuta. Ordu batzuk geroago gizonak aitortu zuen kontu ekonomikoengatik izandako eztabaida familiar bategatik hil zituela. Bere emaztea burdinazko barra batekin kolpatu zuen, eta, ondoren, oheko burko eta izararekin ahoa eta sudurra estali zizkion ito arte. Neskaren amaginarrebarekin berdina egin zuen bost ordu eta gero.

Mari Luz Alejo duela gutxi erretretatua zen, eta bere amak, Ameliak, Galiziatik Euskadira bidaiatu zuen familia artean igarotzeko Gabonak. Epaileak feminizidio bikoitzaren egilearen espetxeratzea agindu zuen. 24 urteko seme bat zuen. Bestalde, ikerketa polizialak hiltzaileak zuen beste bikote bat aurkitu zuen, zeinak krimen bikoitza gertatu baino zazpi egun lehenago seme bat izan zuela argitu zuen.

2015

28. ID 1253 - 2015/04/02. Maria Ana Prunar, 29 urte. Vitoria-Gasteiz (Araba). Feminizidio intimoa. Zifra ofiziala. Hiltzailea prebentziozko espetxean.

Apirilaren 2an, María Ana Prunar, 29 urtekoa eta nazionalitatez errumaniarra, bere senar ohiak hil zuen, 34 urteko eta nazionalitate berdinekoak, adingabeko hiru semerekin emakumea bizi zen tokian (neska bat eta bi mutil, 2 eta 10 urte bitartekoak). Bikotea banandua zegoen. Gizonak laban batekin hil zuen, eta manta batekin estali. Arratsaldeko seiak inguruan, kalera atera zen odoleztatua, patruila batengana hurbildu eta Ertzaintzari aitortu zion bere emaztea hil berri zuela. Hiltzailea presoaldi-prebentiboa ezarri zioten hilketa delitu bategatik akusatuta.

29. ID 1305 - 2015/08/08. Leire Rodríguez Montero, 34 urte. Bilbo (Bizkaia). Feminizidio intimoa. Zifra ofiziala. Hiltzailea prebentziozko espetxean.

Abuztuaren 8an harrapatu zuten Leire Rodríguez Montero Bilbon. Emakumeak 34 urte zituen, banatu berri zegoen eta adin gutxiko bi seme zituen. Lehenengo ikerketen ondoren poliziak Jose Mateos ikertzea erabaki zuen, biktimaren senar ohia, zeinak bere burua trenbidera botatzea erabaki zuen susmagarria zela jakitean. Bizirik eta zauri larriekin atera zen, eta ospitalean errehabilitazio egokia izan zuen ikerketak jarraitu zuten bitartean, izan ere, lehen momentutik 24 urteko beste gizon bat itauntzera gidatu zituen ikerketak, kasuarekin lotura zuelako. Leireren senar ohia harremanetan jarri omen zen gaztearekin bere emazte ohia harrapatu zezan, eta istripu plantak egiteko. Gaztea atxilotu zuten, eta handik gutxira askatu zuten, komisaldegian egunero agertzeko obligazioarekin.

Ondorengo ikerketek eta emakumearen etxean eskuratutako ADN frogak ondorioztatu zuten bere etxean izan zela eraila, eta gorpua agertu zen tokiraino kotxez eraman zutela ondoren. Honek harrapaketaekin bat ez zetozen lesioak erakusten zituen: autopsian hauteman zuten burmuinaren oinarriko zauri batek frogatzen du hilketa harrapaketaaren aurretik izan zelaren tesia, biktimaren etxebizitzatik gertu dagoen errepide batean. Leireren odol arrastoak agertu ziren etxeko hainbat tokitan eta eraikinaren eskaileretan ere. Jorge M.-ek 2015eko urrian deklaratu zuen Emakumeenganako Indarkeriaren Arloko Bilboko Epaitegiko 2 zenbakiko epailearen aurrean.

30. ID 1313 - 2015/10/04. Almudena Matarranz Velasco, 39 urte. Erandio (Bizkaia). Feminizidio intimoa. Zifra ofiziala. Kasuaren egoera judizialari buruzko informaziorik ez.

Almudena Matarranzek, 39 urteko bilbotarrak, maitasun-harremana zuen Jorge Vicente D.-rekin, 38 urtekoa, duela bost urtetik. Urriaren 3tik ez zegoen haren inguruko berri bat ere ez. Senide batek jarri zuen salaketa desagertuagatik. Ertzainak kasua ikertu zuen, eta urriaren 5ean aurkitu zuten emakumearen gorpua bere bikotearen logelako ohearen azpian, Erandioko Mezo kalean; bere amarekin bizi zen, eta Almudena joana zela esana zion hari. Gizona desagertu egin zen, baina handik egun batzuetara aurkitu zuten bere kotxean, bere bizilekutik kilometro gutxira. Bere buruaz beste egiten saiatu zen. Ospitale batera eraman zuten epaileak prebentziozko espetxeratzea agindu baino lehen.

NAFARROA

2011

31. ID 605 - 2011/04/04. Yanela Mariuxi Zaruma Cabrera, 22 urte. Beriain (Nafarroa). Feminizidio intimoa. Zifra ofiziala. Aurkitutako sententzia. Akusatua 16 urteko kartzela zigorrrera kondenatua.

Yanela Mariuxi Zaruma Cabrera, urtekoa eta nazionalitatez ekuadortarra, eta Edgar Ruben Guaman Llaguarima, ekuadortarra baita ere, bananduta zeuden eta elkarrekin izandako hiru urteko alaba bat zuten. Apirilaren 3tik 4rako gauean hiltzaileak soka bat erabili zuen biolentzia handiz bere bikote ohia bere kotxean urkatzeko. Ondoren gorpua Beriaineko urmaeleraino eraman zuen, non biolentzia zantzu nabarmenekin aurkitua izan zen. Gizonak egindakoa onartu zuen epailearen aurrean, nola gertatu zen azaldu ezinda. Bere bertsioaren arabera, lehengo eskuekin ito zuen eta gero jertse batekin. Biktima eta gaizkilea bikotekide izan ziren lau urtez.

2012ko urrian hiltzaileak Ministerio Fiskalarekin, akusazioekin eta defentsarekin lortutako akordio bat sinatu zuen. Hilketak delituagatik 16 urteko espetxe zigorraren kondena izenpetu zuen Nafarroako Auzitegiak Bigarren Sekzioan.

2013

32. ID 987 - 2013/02/01. Maria Montserrat Marigó Olleta, 42 urtekoa. Antsoain (Nafarroa). Feminizidio ez intimoa. Zifra ez ofiziala. Aurkitutako sententzia. Akusatua hilketagatik zortzi urteko kartzela zigorrrera kondenatua.

Urtarrilaren 31tik otsailaren 1eko goizaldean hainbat auzokidek oihuak entzun zituzten bi gizon eta emakume bat bizi ziren etxebizitzan. Poliziari deitzea erabaki zuten, baina hau heldu zenean, 42 urteko emakumea hilda topatu zuen, María Montserrat Marigó bezala identifikatua. Emakumea etxebizitzako ohe batean zegoen abdomenean sastakada bat zuela. Gorpuaren alboan zeuden pisu kideak, Jesús Santos Larrondo Osta, 54 urtekoa, eta F.J.C.C, 39 urtekoa. Lehenak hilketaren egiletza aitortu zuen poliziaren esku zegoela. Guardia Zibilak baztertu egin zuen biolentzia matxistaren kasu bat zela. Fiskalak eta akusatuaren defentsak sententzia hitzartu zuten, hilketak delituagatik zortzi urteko kartzela zigorrrera kondenatuz.

33. ID 1020 - 2013/05/01. Izen ezezaguna, L., 12 urte. Kaseda (Nafarroa). Haur feminizidioa. Zifra ez ofiziala. Hiltzaileak bere buruaz beste egiteagatik itxitako kasua.

12 urteko neskatila bat, Kasedan jaioa, Nafarroan, Down sindromearekin, Bardeetako kanal batean aurkitu zuten, bere aitarena zen lursail batetik hurbil, kotxe baten barruan eta ageriko biolentzia zantzurik gabe. Ondoan zegoen bere aita, J.L.I.B, 49 urtekoa, duela gutxi alargun geratu zena. Gizona lur jota zegoen, eta mediku tratamenduarekin. Bere buruaz beste egin aurretik, ohar bat utzi zuen bere asmoak azalduz.

8. BIZTANLERIA ETA TESTUINGURUA

2015eko Euskal Estatistika Urtekariaren²⁹ arabera, 2014an Euskadiko populazioa, guztira, 2.172.877 pertsonakoa zen: 1.057.455 gizon eta 1.115.422 emakume. Jaiotza kopurua 19.288 lagunera igo zen, 2013ko datuekin alderatuta % 0,9 hazi zen, beraz.

Ekonomia alorrean, 2014an Barne Produktu Gordinaren (BPG) % 69,2 zerbitzuen sektoreak sortua zen, % 23,6 industriak, % 6,3 eraikuntzak eta % 0,9 lehen sektoreak. BPG lurraldeka nola banatu zen aztertuta % 50,8 Bizkaia dagokio, % 33,1 Gipuzkoari eta gainontzeko % 16,1 Arabari.

Gizarte arloan, zehazki lan merkatuarekin lotuta dagoenean, 2014ko batez besteko jarduera tasa % 57,3 zen, eta langabezia tasa % 14,9. Lurraldeka banatuta, Araba da jarduera tasarik altuena duen probintzia (% 60,2). Gipuzkoa da bigarren herrialdea (% 58,3), eta azkena, Bizkaia, % 55,9.

Nafarroako Estatistika Institutuaren arabera, Nafarroako Foru Komunitateko biztanleria osoa 2016an 640.339 pertsonakoa zen: 317.678 gizon eta 322.661 emakume. 2014. urtean, jaiotza kopurua 6.183 lagunera igo zen, 2013an baino % 1,77 gehiago.

2013an, ekonomiari dagokionez, Nafarroako Foru Komunitateko BPGren % 73,9 zerbitzuen sektoreak sortu zuen, % 17,6 industria eta energiak, % 5,7 eraikuntzak eta % 2,8 lehen sektoreak.


Gizarte arloan, lan merkatuari dagokionez, jarduera tasa % 58,80an kokatuta dago batez beste, eta langabezia tasa % 14,25ean. Espainiar Estatuan % 59,9an eta % 21ean kokatuta daude aipatutako adierazleak, hurrenez hurren.

Biztanleria sexuaren arabera islatzen duen grafikoan³⁰ ikus daitekeenez, Euskadin % 8 da atzerriko biztanlea, emakume zein gizon; Estatu mailan baino % 5 gutxiago. Nafarroako kasuan, jatorri atzerritarra duen biztanleria tasa, bi sexuak aintzat hartuta, Estatuko bera da, %13.

Euskadiko biztanleria osoa (Espainiar Estatuko % 4,7) Nafarroako populazio osoari gehituta (Espainiar Estatuko % 1,4), Espainiar Estatuko biztanleria osoaren % 6,1 da.

²⁹ Datu garrantzitsuenak Euskal Estatistika Erakundetik (EUSTAT) hartu dira. Informazio hori www.eustat.eus webgunean eskura daiteke.

³⁰ Grafiko honetako biztanleria datuak Espainiako Estatistika Institutuko (INE) webgunetik hartu dira.

Euskadi + Nafarroa: biztanleria sexuaren arabera**Euskadi + Nafarroa: Biztanleria lurraldeka eta atzerritarren zehaztasunak**

	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Horietatik atzerritarrak	
				Gizonak	Emakumeak
ESTATU ESPAINIARRA	46.624.382	22.890.383	23.733.999	% 13	% 13
EUSKADI	2.189.257	1.065.925	1.123.332	% 8	% 8
% Euskadi/E. Espainiarra	% 4,7	% 4,6	% 4,7	% 0,4	% 0,4
NAFARROA	640.476	317.885	322.591	% 13	% 13
% Nafarroa/E.Espainiarra	% 1,37	% 1,39	% 1,34	% 0,2	% 0,2

9. EUSKADIKO ETA NAFARROAKO KASUEN HARREMANA, ESPAINIAR ESTATUKOEKIN ALDERATUTA


9.1 FEMINIZIDIOA ESPAINIAR ESTATUAN: KASU KOPURUA LURRALDE DESBERDINETAN

2010 eta 2015 urte bitartean 33 kasu erregistratu ziren Euskadin eta Nafarroan guztira: 30 feminizidio (% 91) eta emakumeen hiru erailketa (% 9). Espainiar estatuan, epe berean, 586 feminizidio (% 86) eta emakumeen 95 erailketa (% 14) dokumentatu ziren; hau da, guztira, gizonek 681 emakume hil zituzten.

Feminizidioak

eta emakumeen bestelako erailketak

Espainiar Estatuko txostena 2010-2015



Euskadin eta Nafarroan erail zituzten 33 emakumeetatik, 14 kasu barne hartzen ditu zifra ofizialak (% 42). Estatuko lurraldean jazotako kasuetan, ordea, 681etik 354 dira ofizialak (% 52). Izan ere, Genero Indarkeriaren aurkako Babes Osoko Neurriei buruzko 1/2004 Lege Organikoak bikote edo bikote ohiaren markoan eraildako emakumeen kasuak soilik airtortzen ditu.

681 kasuak kontuan hartuta, batez beste urtero 113,5 feminizidio eta erailketa daude Espainiar estatuan. Euskadiko eta Nafarroako 33 kasuak aintzat hartuta, aldiz, urteko batez besteko zifra 5,5 feminizidio eta erailketetan kokatzen da.

Euskadiko eta Nafarroako kasuak urteka sailkatuz gero, zazpi erailketa izan ziren 2010ean, sei 2011an, lau 2012an, zortzi 2013an, bost 2014an eta hiru 2015ean. Estatu espainiarrean 126 kasu egon dira 2010ean, 115 2011an, 110 2012an, 114 2013an, 104 2014an eta 112 2015ean.

Euskadi + Nafarroa: 2010-2015 kasu kopurua								
Urtea	Feminizidioak	Erailketak	Guztira	Prebalentziak/ feminizidioak	Prebalentziak/ kasuak guztira	Feminizidio intimoak	Zifra ofizialak	Zifra ofizialen % guztira
2015	3		3	2,07	2,07	3	3	% 100
2014	5		5	3,46	3,46	3	3	% 60
2013	7	1	8	4,84	5,53	2	1	% 13
2012	3	1	4	2,07	2,77	2	2	% 50
2011	5	1	6	3,46	4,15	4	3	% 50
2010	7		7	4,84	4,84	3	2	% 29
Guztira	30	3	33	3,46	3,80	17	14	% 42

Emakume kopurua

(2015eko INEren datuak)

EUSKADI + NAFARROA

1.445.923

ESPAINIAR ESTATUA

23.733.999

**%
6**

Espainiar Estatua: 2010-2015 kasu kopurua								
Urtea	Feminizidioak	Erailketak	Guztira	Prebalentziak/ feminizidioak	Prebalentziak/ kasuak guztira	Feminizidio intimoak	Zifra ofizialak	Zifra ofizialen % guztira
2015	97	15	112	4,09	4,72	63	60	% 54
2014	85	19	104	3,58	4,38	59	54	% 52
2013	95	19	114	4,00	4,80	57	54	% 47
2012	90	20	110	3,79	4,63	60	52	% 47
2011	103	12	115	4,34	4,85	72	61	% 53
2010	116	10	126	4,89	5,31	79	73	% 58
Guztira	586	95	681	4,12	4,78	390	354	% 52

Estatu espainiarreko emakumeen % 4,7 dago Euskadin, 2015eko urtarilaren 1ean INEK argitaratutako biztanleria errolda datuen arabera. Estatu mailako feminizidioen eta emakume erailketen % 4,4 jazo da bertan, beraz, esan daiteke biztanleria eta kasuak alderatuta, apur bat azpitik dagoela.

Nafarroak, Estatu espainiarreko emakumeen % 1,4 duen lurraldeak, feminizidio eta emakumeen erailketa kasuen % 0,44 erregistratzen du. Hortaz, kasu eta populazio kopuruei dagokienean, hemen ere azpijartze bat dago, baina Euskadikoa askoz ere nabarmenagoa da.

Espainiar estatuan erregistratu diren feminizidio motak hauek dira:

- Feminizidio intimoa: 390 kasu (% 57). Hauetatik 354 zifra ofizialak dira, eta 36 zifra ez ofizialak.
- Familiarteko feminizidioa: 90 kasu (% 13). Hauetatik 50 kasutan semeek haien amak erail zituzten.
- Feminizidio ez intimoa: 51 kasu (% 7).
- Haur feminizidioa: 31 kasu (% 5).
- Prostituzio feminizidioa: 22 kasu (% 3).

Gehien gailentzen den erailketa mota lapurretak eraginda hilketa da; 51 kasu egon ziren (% 7) Espainiar estatuan 2010 eta 2015 urteen arteko epe-aldian.

9.2. LURRALDE DESBERDINETAKO PREBALENTZIA

2010 eta 2015 arteko epea kontuan hartuta, estatu mailan urtean milioi bat emakumeko 4,8 emakume erail daude batez beste. Ratio hau Europako 28 estatuen arteko batez bestekoa baino txikiagoa da. Izan ere, 2013an, Europan, 5,5 emakumeko erail zituzten miloi bat emakumeko, *Eurostat Death due to homicide, assault, by sex – 2013 Standardised death rate by 100.000 inhabitants* adierazlearen arabera.

Autonomia Erkidegoen arteko banaketa oso desorekatua da feminizidio eta erailketei dagokienez. Melilla Autonomia-hirian beha liteke prebalentzia tasa altuena (11,91), batez bestekoaren bikoitza, hain zuzen. Haren atzetik, tasarik altuenak dituzten erkidegoak dira Balearrak (6,31), Asturias (5,77), Katalunia (5,76), Valentzia (5,69), Andaluzia (5,33) eta Galizia (5,30). Beste muturrean daude sei urteko epe honetan ratio txikienak erregistratu dituztenak: Nafarroa (1,55), Errioxa (2,08), Murtzia (2,51) eta Extremadura (2,72). Euskadi estatuko batez beste mailatik gertu dago (4,45).

Probintzien araberako analisia egingo bagenu, 2010 eta 2015 epe-aldian lurraldeen arteko ezberdintasunarekin egin dezakegu topo. Izan ere, prebalentziarik altuenak, Melillan (11,91); Gironan eta Cuencan (11,52); Almerian (10,62), eta Tarragonan (10,49) daude. Eta, aldiz, Teruel eta Ávilan ez da kasurik erregistratu sei urte horietan.


Estatu mailako feminizidio moten bilakaera aztertuta, azpimarratzekoa da feminizidio intimoek izandako beherakada arina, nahiz eta azken bi urteetan goraka hasi diren. Beste kategoria batzuek, familiarteko feminizidioek kasu, gorakako joera islatzen dute. Feminizidio intimo ofizialei dagokienez, kasuen guztiekin alderatuta, txikitu egin da zifra. 2010ean % 58 ziren, eta 2012an zein 2013an % 47. Hala ere, 2014tik aurrera igoera eman zen, % 52ra iritsiz; eta 2015ean berriro ere handitu zen, kasuen % 54 izatera ailegatuz.

Feminizidioak

eta emakumeen bestelako erailketak

Espainiar Estatuko txostena 2010-2015

Prebalentzia autonomia erkidegoka 2010-2015



10. KASU KOPURUA


Geofeminicidioan dokumentatutako 33 kasuetatik 17, feminizidio intimoak dira. Osasun Ministerioaren Genero Indarkeriarako Gobernu Ordezkaritzak horietatik 14 aitortu zituen zifra ofizialtzat; sei urtetako epe-aldian jazotako kasuen % 42. 2010ean, 2011n eta 2013an, beraz, urte bakoitzeko feminizidio intimo kasu bat geratu zen zifra ofizialetan kontabilizatu gabe.

10.1. KASU KOPURUA PROBINTZIAKA ETA PREBALENTZIA

Probintziei dagokienean, 2010-2015 epean, sei feminizidio eta erailketa erregistratu dira Araban, zazpi Gipuzkoan, 17 Bizkaian eta hiru Nafarroan.

2010-2015 epe-aldian Feminizidio eta erailketen kopuru osoa biztanleriarekin alderatuta, urteko batez bestekoa milioi bat emakumeko 4,45 pertsonakoa da Euskadin, eta 1,55ekoa Nafarroan. Estatu espainiarrean erregistratu den batez besteko urteko prebalentzia tasa,

Kasu kopurua probintziaka eta prebalentzia 2010-2015



aldiz, 4,78 da. Euskadik Estatuko datu antzekoak islatzen dituen bitartean, nahiz eta pixka bat txikiagoa izan; Nafarroan urteko batez besteko tasa askoz txikiagoa da. Nabarmenezkoa da seriean jasotako sei urte horietatik lautan ez direla feminizidioak ez erailketak gertatu: 2010ean, 2012an, 2014an eta 2015ean.

Probintziei dagokienez, desoreka nabaria da batzuen eta besteen artean. Azpimarratzekoa da Arabaren kasua, bere urteko emakume erailen batez besteko tasa 6,12 baita (Espainiar estatuko batez besteko tasatik gora). 2011n ez zen kasurik egon. Araba da Euskadiko probintzietatik biztanleria dentsitate txikiena duena. Bizkaia urtero ditu kasuak, eta bere batez besteko tasa Estatuarenaren antzekoa da, milioi bat emakumeko 4,77 emakume erailak. Gipuzkoak du hiru probintzien artean urteko batez besteko tasarik baxuena, eta nabarmenezkoa da azken hiru urteetan ez dela ez feminizidiorik ez emakumeen erailketarik egon.

Nafarroako kasua oso parekoa da. 2011n eta 2013an kasuak egon badira ere, gainontzeko urteetan ez dira egon. Ikusi erantsitako taula.

Prebalentzia tasa urteka eta probintziak 2010-2015								
	Emakume kopurua	2015	2014	2013	2012	2011	2010	Urteko batez bestekoa
Araba	163.354	6,12	6,12	12,24	6,12	0,00	6,12	6,12
Bizkaia	593.943	3,37	6,73	6,73	1,68	5,05	5,05	4,77
Gipuzkoa	366.035	0,00	0,00	0,00	5,46	5,46	8,20	3,19
Euskadi	1.123.332	2,67	4,45	5,34	3,56	4,45	6,23	4,45
Nafarroa	322.591	0,00	0,00	6,20	0,00	3,10	0,00	1,55
Espainiar Estatuan guztira	23.733.999	4,72	4,38	4,76	4,63	4,85	5,31	4,78

Iturria: Geofeminicidio datu basetik eta Biztanleria INE 2015etik abiatutako sorkuntza propioa

Euskadik duen biztanleria dentsitatea Espainiar Estatuko baina handiagoa da. Ez, ordea, Nafarroan. Euskadiren kasuan probintzien arteko joeran desberdintasuna dago. Bizkaia eta Gipuzkoan 518 eta 362 biztanle daude km² bakoitzeko, hurrenez hurren. Arabak, km² bakoitzeko 106 biztanle ditu, Espainiar Estatuaren antzeko dentsitate maila. Nafarroak, aldiz, 62 biztanlerekin, euskal lurraldeek baino dentsitate maila txikiagoa du, Populazioaren Dentsitate taulan ikus daitekeen bezala.

Biztanleriaren dentsitatea Espainiar Estatuan, Euskadin eta Nafarroan						
	Espainiar Estatua	Euskadi	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Nafarroa
Azalera (km2) 504.780	504.780	7.235	3.037	2.217	1.980	10.391
Azalera (km2) %-tan	100	1,43	0,6	0,44	0,39	2,06
Biztanleria	46.624.382	2.189.257	323.648	1.148.775	716.834	640.476
Biztanleria %-tan	100	% 4,7	% 0,7	% 2,5	% 1,5	% 1,4
Dentsitatea (Bizt./km2)	92,37	302,59	106,57	518,17	362,04	61,64

10.2. KASU KOPURUA UDALERRIKA

Euskal biztanleria 251 udalerritan banatuta dago. Horien %72 5.000 biztanle baino gutxiagokoa da. 100.000 lagun baino gehiago dituzten lau herriek Euskal Herriko udalerrien % 1,59 ordezkatzen dute, eta horietatik hirutan feminizidioak jazo dira.

2010 eta 2015 artean Euskadin izan ziren feminizidio eta erailketen kasuak udalerrika multzokatuz, deigarria da bost udalerritan kasu bat baino gehiago egon direla. Horiek dira Bilbo, Barakaldo, Vitoria-Gasteiz, Tolosa eta Abadiño (azken honetan feminizidio bikoitza jazo zen). 100.000 biztanle baino gehiago dituzten herrien %75 ordezkatzen dute zerrenda horretako hiru lehenek. Tolosa da 10.000 eta 20.000 herritar dituzten Euskadiko 24 udalerrietako bat. Bestalde, Abadiñok 5.000 eta 10.000 biztanle ditu, Euskadiko beste 28 udalerrirekin batera.

Bestetik, Nafarroak 272 udalerrri ditu. Hiru feminizidioak 20.000 biztanle baino gutxiago duten herrietan izan dira.

Feminizidioak/erailketak gauzatu diren Euskadiko eta Nafarroako udalerriak 2010-2015

Autonomia Erkidegoa	Probintzia	Udalerrria	Feminizidioak/ Erailketak
Euskadi	Bizkaia	Bilbo	7
Euskadi	Bizkaia	Barakaldo	4
Euskadi	Araba	Vitoria-Gasteiz	3
Euskadi	Bizkaia	Abadiño	2
Euskadi	Gipuzkoa	Tolosa	2
Euskadi	Araba	Asparrena	1
Euskadi	Araba	Laudio	1
Euskadi	Araba	Agurain	1
Euskadi	Bizkaia	Durango	1
Euskadi	Bizkaia	Erandio	1
Euskadi	Bizkaia	Mungia	1
Euskadi	Bizkaia	Portugalete	1
Euskadi	Gipuzkoa	Azpeitia	1
Euskadi	Gipuzkoa	Donostia	1
Euskadi	Gipuzkoa	Hernani	1
Euskadi	Gipuzkoa	Lasarte-Oria	1
Euskadi	Gipuzkoa	Zarautz	1
Nafarroa	Nafarroa	Antsoain	1
Nafarroa	Nafarroa	Beriain	1
Nafarroa	Nafarroa	Kaseda	1

Udalerrien banaketa Autonomia Erkidego eta tamainaren arabera			
	Espainiar Estatuan guztira	Nafarroa	Euskadi
Guztira	8.119	272	251
101 baino gutxiago	1.238	42	0
101etik 500era	2.659	110	62
501etik 1.000ra	1.032	36	38
1.001etik 2.000ra	905	23	45
2.001etik 3.000ra	494	24	16
3.001etik 5.000ra	491	15	20
5.001etik 10.000ra	549	12	28
10.001etik 20.000ra	351	7	24
20.001etik 30.000ra	152	1	7
30.001etik 50.000ra	103	1	5
30.001etik 50.000ra	83	0	2
100.001etik 500.000ra	56	1	4
500.000 baino gehiago	6	0	0

Iturria: Espainiako Estatistiken Institutu Nazionala

Feminizidioak eta emakumeen bestelako erailketak izan dituzten Euskadiko eta Nafarroako udalerriak 2010-2015								
Autonomia Erkidegoa	Probintzia	Udalerrria	Bertakoak	Atzerri-tarrak	Kasu kopurua	Emakume biztanleak	Emakume atzeritarak	Emakume atzeritarren %
Euskadi	Bizkaia	Bilbo	4	3	7	182.577	12.534	% 7
Euskadi	Bizkaia	Barakaldo	4		4	51.782	2.932	% 6
Euskadi	Araba	Vitoria-Gasteiz	1	2	3	124.549	9.948	% 8
Euskadi	Bizkaia	Abadiño	2		2	3.771	181	% 5
Euskadi	Gipuzkoa	Tolosa	1	1	2	9.919	576	% 6
Euskadi	Araba	Asparrena	1		1	813	52	% 6
Euskadi	Araba	Laudio	1		1	9.254	397	% 4
Euskadi	Araba	Agurain	1		1	2.503	260	% 10
Euskadi	Bizkaia	Durango	1		1	14.769	952	% 6
Euskadi	Bizkaia	Erandio	1		1	12.361	671	% 5
Euskadi	Bizkaia	Mungia		1	1	8.783	621	% 7
Euskadi	Bizkaia	Portugalete	1		1	24.381	880	% 4
Euskadi	Gipuzkoa	Azpeitia	1		1	7.290	410	% 6
Euskadi	Gipuzkoa	Donostia	1		1	98.563	6.646	% 7
Euskadi	Gipuzkoa	Hernani	1		1	10.018	542	% 5
Euskadi	Gipuzkoa	Lasarte-Oria	1		1	9.258	615	% 7
Euskadi	Gipuzkoa	Zarautz	1		1	11.779	627	% 5
Nafarroa	Nafarroa	Antsoain	1		1	5.466	345	% 6
Nafarroa	Nafarroa	Berriain		1	1	9.440	693	% 7
Nafarroa	Nafarroa	Kaseda	1		1	505	17	% 3

10.3 URTEKO KASU KOPURUA HILABETEKAT


Sei urteko epean, urteko hilabete guztietan izan dira feminizidioak eta emakumeen erailketak, irailean izan ezik. Datu orokorrak ikusita, deigarria da urtarrileko eta azaroko kopuru baxua, izan ere, kasu bakarra egon da hilabete bakoitzean. Gertakari gehienak ekainean eta urrian erregistratu dira, bost kasu, hurrenez hurren. Hilabete batzuetan kasu kopuru gehiago egoteko joera Estatu espainiarreko seriean ere ematen da. Lehen begiradan antzeman liteke ekaina dela erailketa gehien metatu den hilabetea Euskadin eta Nafarroan, bost kasurekin; Estatu espainiarrean gailendu den bezala, 69 kasurekin.

Bestalde, Euskadi eta Nafarroako kasuetan ez da baieztagarria indarkeria matxistak opor garaian heriotza gehiago eragiten dituela, erasotzaileak eta biktimak elkarrekin bizi direlako denbora luzeagoan. Izan ere, uztailean eta abuztuan urteko gainontzeko hilabeteetan baino kasu kopuru baxuagoa ematen da, urtarrilean eta azaroan izan ezik (ahaztu gabe irailean ez zela kasurik izan). Datu horrek, gainera, Estatu Espainiarrarekin dagoen aldea erakusten du, uztailak kasu kopuru handia eduki du, 63; abuztuak 53 kasu pilatu dituen bitartean.


Feminizidio eta erailketak hilabeteak 2010-2015

Guztira:
33

Euskadi + Nafarroa



Espainiar Estatua



Guztira:
681

11. FEMINIZIDIO MOTAK ETA EMAKUMEEN BESTE ERAILKETA BATZUK


11.1. EUSKADIKO ETA NAFARROAKO FEMINIZIDIO MOTAK, ESPAINIAR ESTATUKOEKIN ALDERATUTA

Geofeminicidioaren alor hau da garrantzitsuena, izan ere, berari esker feminizidioaren anatomiaren deskripzioa egin daiteke, fokua hilketako biktimak eta gaizkilearen arteko harremanean jartzen delako, emakumea hiltzeko arrazoian edo motiboetan. Feminizidioan bukatzen duten muturreko biolentzia mota guztiak sailkatzeak aukera ematen du biolentzia matxistaren ikerketa eta sentsibilizazioaren espektroa zabaltzeko. Datuek erakusten dute gizonen rol desberdinak behatu eta ikertu behar direla; baita hauek haien harreman eta loturetan nola eragiten duten ere bai, ez bakarrik emakumeekin, beraien hurbileko ingurune sozialarekin ere.

Euskadin 27 feminizidio eta lapurretengatik gertatutako hiru emakumeren hilketak jazo ziren 2010 eta 2015 artean, kasu guztien % 91, hain zuzen. Nafarroan denbora tarte berdinean hiru feminizidio jazo ziren, kasuen % 9.

Grafikoan ikusi dezakegun bezala, kasu guztien % 52 feminizidio intimoak dira; % 18 familiarteko feminizidioak (sei kasu), % 9 haur feminizidioak (hiru biktimak); % 9 lapurretak eragindako hilketak (hiru kasu), % 6 feminizidio ez intimoak (bi kasu) eta % 6 prostituzio feminizidioak (bi kasu).

Feminizidio motak eta emakumeen bestelako erailketak



Euskadi eta Nafarroa lurraldeetan sei urtetan sei feminizidio eta hilketak mota burutu ziren. Estatu espainiarrean, aldiz, feminizidio eta hilketak moten kopurua bikoitza da, Feminicidio.net atarian 14 sailkapen mota daude (zalantzasak eta informazio nahikorik ez duten kasuak kontatuta). Euskadin eta Nafarroan ikus daiteke haur feminizidioak kasu ororen % 9 direla, Estatu espainiarrean % 5 den bitartean. Familiarteko feminizidioa, berriz, % 18koa da Euskadin eta Nafarroan, eta % 13koa Estatu espainiarrean.


2010-2015 feminizidio motak Euskadin, Nafarroan eta Espainiar Estatuan

	Euskadi	Nafarroa	Hego E.H.	Espainiar Estatur	Espainiar Estatuko %
Feminizidio intimoak	16	1	17	390	% 4
Familiarteko feminizidioak	6		6	90	% 7
Feminizidio ez intimoak	1	1	2	51	% 4
Haur feminizidioak	2	1	3	31	% 10
Datu gutxidun feminizidioak/erailketak				22	% 0
Prostituzio feminizidioak	2		2	21	% 9
Feminizidio transfobikoak				1	% 0
Emakumeek eragindako feminizidioak (patriarkatuaren agente gisa)				1	% 0
Lapurretak eragindako emakumeen erailketak	3		3	51	% 6
Indarkeria komunitarioak eragindako emakumeen erailketak				16	% 0
Narkotrafikoak eta krimen antolatuak eragindako emakumeen erailketak				3	% 0
Gazteen indarkeriak eragindako emakumeen erailketak				1	% 0
Biolentzia ekonomikoak eragindako emakumeen erailketak				1	% 0
Kasu dudagarriak, informazio nahikorik gabeak				2	% 0
Guztira	30	3	33	681	

11.2. FEMINIZIDIO ETA EMAKUMEEN BESTE ERAILKETA MOTAK PROBINTZIAKA

Feminizidio motak probintziak 2010-2015

Guztira: 33



Probintziak, Bizkaiak biltzen ditu txosteneko kasuen erdia baino gehiago, baita feminizidio intimoen erdia baino gehiago ere (zortzi kasu). Horrez gain, familiarteko feminizidioen sei kasutik lau bertan jazo dira, Euskadin erregistratutako bi haur feminizidioetako bat, bi feminizidio ez intimoetako bat, bi prostituzio feminizidio eta lapurretak eragindako hiru feminizidioetatik bat.

Gipuzkoan zazpi feminizidio izan ziren, horietatik hiru intimoak; familiarteko bat eta haur feminizidio bat; eta, beste alde batetik, lapurretak eragindako bi erailketa.

Araba lurraldean aipatzekoa da burututako sei kasuetatik bost feminizidio intimoak izan direla: Euskadiko hiru probintzien eta Nafarroaren arteko zerrendako burua da, nabarmenki. Probintzia honetan egin zen ere familiarteko sei feminizidioetako bat.

Nafarroan tipologia ezberdineko hiru feminizidio egin ziren: lehena intimo, bigarrena ez intimoa eta hirugarrena haur feminizidioa.

11.3. KASUAK, FEMINIZIDIO ETA ERAILKETA MOTEN ARABERA

Feminizidio motei dagokienez, gehiengoa, 17 kasu, feminizidio intimoak direla topa dezakegu. Horietatik hiru ez dira zifra ofizial gisa aitortu, Maria Elena Cal Troncoso (ID 505), Jone (ID 691) eta M^a Angeles M. (ID 1022), hain zuzen. Maria Elenaren kasuan, bikote ohiak erasotu zuen, berarekin bizi zen (haren oraingo bikotearekin batera), eta epaiketan hilketa arduragabekeria larria izan zela zehaztu zen. Geofeminizidioan, mota horretan sailkatu zen, biktimak gaizkilearekin erlazio afektiboa izan baitzuen. Joneren kasuan, lanik gabeko gaztea, bere bikotearekin eta beste familia batzuekin nabe industrial bat zuen, hedabideetan jasotako informazioaren arabera; horregatik, hasiera batean, bere buruaz beste egin izanaren posibilitatea aipatu zen. Gaizkilearen arabera, emakumea ondoezik zegoen berriki medikazioa aldatu ziotelako. Gizona atxilotua izan zen ondoren; lekukoek deklarazioen arabera, inplikaturik baitzegoen bigarren pisutik behera jausi zen bere erorketan. Ezin izan da aurkitu ez prozesu judizialaren informaziorik ezta sententzia bera ere. Ofizial gisa aitortu ez den hirugarren feminizidio intimoa, M^a Angelesena, gaizkileak ustez bere buruaz beste egin izanagatik itxitako kasua da. Biak etxeko sukaldean aurkitu zituzten deskonposizio egoera aurreratuan, biolentzia zantzuekin. Gizonaren gorpuaren alboan labana bat zegoen.

Feminicidios íntimos no reconocidos como cifras oficiales								
ID	Izena	Abizena	Adina	Erailketa data	Udalerría	Probintzia	Autonomia	Feminizidio mota
505	María Elena	Cal Troncoso	45	2010/01/18	Tolosa	Gipuzkoa	Euskadi	Feminizidio intimoa
691	Jone	Ezezaguna	31	2011/06/16	Durango	Bizkaia	Euskadi	Feminizidio intimoa
1022	M ^a Ángeles	M	53	2013/04/18	Vitoria-Gasteiz	Araba	Euskadi	Feminizidio intimoa

Feminizidio ofizial gisa aitortu ziren 14 kasuetatik bederatzitan, emakumeak haien senar/ bikote/mutil-lagun ohiek zituzten, hau da, erlazioa amaituta eta gero: Amelia Amaya Jiménez (ID 635), Cristina Estébanez Barreiro (ID 653), Rosario Román de la Fuente (ID 694), Deisy María Mendoza Cruzatti (ID 704), Andina Reges Pereira de Brito (ID 1121), Rosa (ID 1208),

María Ana Prunar (ID 1253), Leire Rodríguez Montero (ID 1305) eta Yanela Mariuxi Zaruma Cabrera (ID 605). Beste bost kasuak senarrek/bikoteek/mutil lagunek egindako feminizidioak izan dira: Caridad de los Angeles Rodríguez Arritea (ID 795), M^a Teresa Egurrola (ID 959), Amagoia Elezkano Corchón (ID 1025), Mari Luz Alejo Rodríguez (ID 1225) eta M^a Almudena Matarranz Velasco (ID 1313).

Sei kasu familiarteko feminizidio gisa sailkatu ziren; horietatik lau haien semeek burutu zituzten. Hildakoak: Amelia Sánchez Blanco (ID 512), Isabel Vélez Montero (ID 517), Pilar Alonso (ID 692) eta Benigna Maria Lago Rodríguez (ID 1149). Bonifacia Ruiz de Arbulo (ID 538) bere bilobak hil zuen eta Amelia Rodríguez bere suhiak.

Txosten honetako hiru haur feminizidioetatik bitan, gaizkileak aita biologikoak izan ziren, Aicha Rezmivesen (ID 1194) eta 12 urteko neskatila adingabearen (ID 1020) kasuetan. Hirugarren kasuan, Yaiza D. S. (ID 1317), aitaordea izan zen.

Erregistratutako bi feminizidio ez intimoetan, Mireia S.M (ID 903) auzokide baten eskutik izan zen eraila, eta M^a Montserrat Marigó Olleta (ID 987) pisu-kide batengatik.

Era berean, beste bi prostituzio feminizidio sailkatu ziren, prostituzioan aritzen zen bezero batek Jenny Sofía Rebollo Tuirán (ID 1032) eta Maureen Ada Otuya (ID 1033) hil baitzituen.


Azkenik, lapurretak eragindako hiru hilketa erregistratu ziren, gaizkileetako bat biktimaren semearen zaintzailea zen, Rogelia Chivite Ayensarena (ID 945); eta beste bat Amaia Azkue Adabaldetrekuren (ID 583) ezezaguna. Azken kasuan, M^a Angeles López Marrón (ID 1036), ez da gaizkilearen eta biktimaren arteko erlazioa ezagutzen.

Kasuen arteko erlazioari erreparatuz, ondorioetan ikusiko da txosten osoan zehar Geofeminizidioen alor ezberdinetan bildutako informazio eta datuekin sortutako buruhaustea, biktima eta erasotzailearen arteko harremanean egituratuta dagoela; krimenaren motibo eta zirkunstantzietan, eta feminizidio motan. Feminizidio mota bakoitza ulertzeak garamatza aztertzeraz eta irudikatzeraz biktima eta gaizkilearen profila; eta krimena gertatu zen. Datu hauek ondorengo kapituluetan biltzen eta analizatzen dira.

12. BIKTIMEN PROFIL DEMOGRAFIKOA: JATORRIA, ADINA ETA LANBIDEA

12.1. JATORRIA

Biktimen % 76 bertakoak dira, gainontzeko % 24 jatorriz atzerritarra den bitartean. Atzerrian jaio eta Euskadin bizi den emakume kopurua biztanleriaren % 10 da, Nafarroan % 13. Eraildako emakumeen eta emakume atzerritarren biztanleriaren artean % 14ko gain-ordezkatze bat dago (Estatu mailako gain-ordezkatze kasuetan baino %2 gutxiago, % 16koa baita). Atzerriko biktimen nazionalitateari erreparatuz, bi Ekuadorrekoak dira, Deisy Maria (ID 704) eta Yanela Mauixi (ID 605), biak feminizidio intimo ofizialak; Brasilekoa zen Andina Reyes (ID 1121), feminizidio intimo ofiziala; Kolonbiakoa Jenny Sofía (ID 1032), prostituzio feminizidioa; Kubakoa Caridad de los Angeles (ID 795), feminizidio intimo ofiziala; Dominikar Errepublikakoa Rosa (ID 1208) feminizidio intimo ofiziala; Nigeriakoa Maureen (ID 1033) prostituzio feminizidioa; eta Errumaniakoa M^a Ana Prunar (ID 1253), feminizidio intimo ofiziala. Bestalde, bertakoa izanda eraildako emakumeen artean bat ijitoa zen, Amelia Amaya (ID 635), feminizidio intimo ofiziala.



12.2 ADINA


Feminizidioen eta erailketa biktimen batez besteko adina 44 urtekoa da, Estatu Espainiarreko biktimen batez bestekoa baino bi urte gutxiagokoa, hain zuzen; 46 urtekoa baita. Atzerriko emakume erailak gazteagoak dira, 34 urte dituzte, batez beste. Biktimen adina barne hartzen duten 20 eta 49 urte arteko hiru tarteek kasuen %58 ordezkatzen dute (bost daude 20-29 urte artean, zortzi 30-39 bitartean eta sei 40-49 urteren baitan). Datu hori bat dator munduko estatistiketan zabaltzen den zifra batekin: feminizidioa da 15 eta 44 urte arteko emakumeen heriotza kausarik nagusia. Feminizidio eta erailketa motak zein kasu gehien dituzten adin tarteekin egindako ikerketa gurutzatu batetik ondoriozta daiteke 20 eta 49 urte artean eraildako 19 emakumeetatik 13 (adin tarte horretako %69) feminizidio intimoagatik hil zirela. Datu horrek adierazten du ugalketa adinean dauden emakumeek arrisku handiagoa dutela bikote edo bikote ohien eskutik feminizidio intimoaren biktima izateko beste adin tarte batean daudenek baino. Gazteenen artean (bost kasu) prostituzio feminizidio bat dago, Jennyrena, 29 urtekoa (ID 1032), eta lau feminizidio intimo: Yanela Mariuxi, 22 urtekoa (ID 605); Cristina, 25 urtekoa (ID 653); Amagoia, 26 urtekoa (ID 1025), eta María Ana, 29 urtekoa (ID 1253). Tarteko adineko biktimen artean, 30 eta 39 urte bitartekoetan, berriz, lapurretak eragindako hilketa bat dago, Amaiaarena, 39 urtekoa (ID 583); eta zazpi feminizidio intimo: Jone, 31 urtekoa (ID 691); Leire, 34 urtekoa (ID 1305); Andina Reges, 35 urtekoa (ID 1121); Amelia (ID 635) eta Deisy María (ID 704), 36 urtekoak biak. Azkenik, 40 eta 49 urte arteko emakumeen artean, bi feminizidio intimo daude: M^a Elena (ID 505), 45 urtekoa; eta Rosa (ID 1208), 42 urtekoa. Bestalde, intimoak ez ziren beste bi feminizidio egon ziren: Mireia (ID 903) eta M^a Montserrat (ID 987), biak 42 urtekoak. Horrez gain, prostituzio feminizidio bat jazo zen, Maureenena (ID 1033), 40 urtekoa; eta familiako feminizidio bat, Isabelena (ID 517), 48 urtekoa.

Bestetik, kasuen % 9, hiru biktima, neskatilak ziren; 12, hiru eta urte batekoak. Urte gehien dituzten biktimen artean lapurretak eragindako erailketak eta familiarteko feminizidioak gailentzen dira. Rogelia (ID 945), 93 urtekoa, 16 eta 18 urteko hiru gaztek erasotu zuten etxean. Bonifacia (ID 538), 91 urtekoa, bere ilobak erail zuen. 80 urteko Benigna María (ID 1149) eta Amelia (ID 1226), berriz, haien semeak eta suhiak erasotuta hil ziren, hurrenez hurren.

Biktimaren adina


Euskadi + Nafarroa

Guztira:
33
Kasu



Biktimaren adina


Espainiar Estatua

Guztira:
681
Kasu

12.3 LANBIDEA

Euskadi eta Nafarroako 33 kasuetako biktimen lanbideari dagokionez, esanguratsuena datu falta dagoela da. Kasuen % 34an, 11 biktima, ez zen agertu prentsan zein zen beraien ogibidea. Orokorrean informazio hori ia hutsala da. Biktimetatik zazpi erretiratuta zeuden, hau da, kasuen % 21; beste hiru, % 9, adinez txikikoak ziren bitartean. Bost emakume zaintzarekin edo zerbitzuekin lotutako lanbideetan aritzen ziren: Rosario (ID 694) sukaldaria zen, Deisy María (ID 704) etxeko langilea, Mireia (ID 903) erizain laguntzailea, Amagoia (ID 1025) egoitzako langilea, eta Rosa (ID 1208) zerbitzaria. Bi txiroak ziren, M^a Elena (ID 505) eta Jone (ID 691), eta beste bi prostitutak: Jenny (ID 1032) eta Maureen (ID 1033), % 6 bi kasuetan. Horrez gain, etxeko-langileak ziren bi emakumerekin egin dugu topo, Amaia (ID 583) eta Mari Luz Alejorekin (ID 1225), % 6; eta langabezia zegoen beste emakume batekin, Cristina (ID 653).

Biktimaren langintza

Guztira:
33


13.2. ADINA

Euskadiko eta Nafarroako hiltzaileen batez besteko adina 39 urtekoa da, Estatu Espainiarreko batez besteko adina (44 urte) baino bost urte gutxiago. Erasotzaileen adina barne hartzen duten 20 eta 49 urte arteko hiru tarteek kasuen %61 ordezkatzen dute. Gehienak, 20 erasotzailetik hamaika, feminizidioetako hiltzaileak dira; hau da; 20 eta 49 urte bitarteko gizonak feminizidio intimoak gauzatu dituzte gehien bat. 20 eta 29 urte artean, hiru feminizidio eta familiarako feminizidio bat eragin zituzten erasotzaileak erregistratu ditugu. 30 eta 39 urte artean, berriz, lau feminizidio intimoren hiltzaileak daude, feminizidio ez intimo baten erasotzailea, haur feminizidioko beste hiltzaile bat, eta lapurretak eragindako erailketa burutu zuen beste gizon bat. Azkenik, 40 eta 49 urte bitartekoen artean dauden bederatzi hiltzailearen kasuetatik lau feminizidio intimoak dira, bi prostituzio feminizidioak, bi haur feminizidioak eta bat familiarako feminizidioa.

Azpimarratzekoa da kasuen %12, alegia, lau erailketetan hiltzaileak 19 urte baino gutxiago zuela zirela (bi kasutan adingabeak ziren). Bonifacia (ID 538), 91 urteko emakume nagusia, familiarako feminizidioaren biktima, bere 18 urteko ilobak erail zuen. Amaia (ID 583), lapurretak eragindako erailketaren 39 urteko biktima, 17 urteko gazte batek hil zuen. Pilar (ID 692), berriz, 58 urteko familiarako feminizidioaren biktima, 17 urteko semeak erail zuen bere 11 urteko beste semearekin batera. Bestalde, Rogelia (ID 945), lapurretak eragindako erailketa baten 93 urteko biktima, 18 urteko gazte batek hil zuen, 16 eta 18 urteko beste bi gaztek lagunduta. Euskadin adin tarte horretako ehunekoa oso handia da (%12) Estatu Espainiarrarekin alderatuta, non hiltzaileen %3 baino ez diren.


Hiltzailearen adina

Euskadi + Nafarroa



Guztira:
33
kasu

Espainiar Estatua

Guztira:
681
kasu

13.3. LANBIDEA

Hiltzaileen lanbideari dagokionez, biktimekin gertatzen zena errepikatzen da. 33 kasutik 19tan (%58) ez dago lanbidearen inguruko informaziorik. Lau kasutan agertzen dira enpresaren jabeak ziren bi hiltzaile: J.C.A, gimnasio baten jabea, prostituzioan aritzen ziren bi emakume erail zituen, Jenny (ID 1032) eta Maureen (ID 1033); eta Zuhaitz zurgindegiko jabea zen B.Q., bere emazte Mari Luz (ID 1225) eta bere amaginarrebaren (ID 1226) erasotzailea.

M^a Elenarekin (ID 505) konpartitzen zuen txabola P.J-k, Joneren (ID 691) bikoteak bezala, beste familia batzuekin industria-nabe batean bizi baitziren. M.S, bere amaren hiltzailea, Amelia (ID 512), harekin bizi zen, langabezian zegoen. J.L.I.B Viscofan enpresako langilea zen, eta Down sindromea zuen bere alaba (ID 1020) hil zuen. J.P. jubilatua bere emaztea hil zuen, M^a Teresa (ID 959). Bilboko udaltzaingoa zen I.L.L-k bere gurasoak erail zituen, Benigna (ID 1149) eta Antonio. Bestalde, identifikatu gabeko 45 urteko gizonezko narkotrafikante bat izan zen Rosaren (ID 1208) hiltzailea.


Hiltzailearen langintza

Guztira:
33

14. FEMINIZIDIOA ETA ERAILKETA: TESTUINGURUA

14.1 GORPUA AURKITUTAKO AGERTOKIA

Feminizidioaren/Eraiketaren agertokia



Gorpua aurkitutako agertokian, beste txostenetan bezala, nabarmentzekoa da espazio pribatua dela feminizidio eta hilketa gehienak gertatzen diren tokia: 33tik 23 kasutan etxebizitza edo espazio pribatua izan da eszenatokia, orotarikoaren %70 suposatzen duena. Bigarrenik, jendea bizi ez den espazio publikoetan sei kasu topa ditzakegu (%18). Eta hirugarrenik, lau kasu daude jendea bizi den espazio publikoetan (%12).

Espazio pribatuei lotutako 23 kasuei dagokienean, horietako hamahirutan, gorpua aurkitu zuten espazioa biktimaren etxea izan zen: sei feminizidio intimo ofizial: Cristina (ID 653), Deisy María (ID704), Caridad de los Angeles (ID 795), Andina Reyes (ID 1121), Rosa (ID 1208) eta M^a Ana (ID 1253); familia arteko lau feminizidio: Amelia (ID 512), Isabel (ID 517), Bonifacia (ID 538) eta Benigna Maria (ID 1149); bi emakumeren lapurretak eragimdako erailketa: Rogelia (ID 945) eta M^a Angeles (ID 1036); eta feminizidio ez intimoaren kasu bat, M^a Montserrat (ID 987).

Bederatzi kasutan etxebizitza familiarra zen. Horien artean nabarmentzen da Amelia Amayaren feminizidio intimo ofiziala (ID 635), bere senarrarekin eta haren ama eta anaiarekin bizi zen etxebizitzan aurkitua; edo Pilar Alonso (ID692), familia arteko feminizidioa, bere etxean aurkitu zutena, 11 urteko semearen alboan, biak honen semeak eta anaiak hil zituen hurrenez hurren, 17 urtekoak.


Gaizkilearen etxebizitzan erregistratutako kasu bakarra M^a Almudenarena da (ID 1313), hilda aurkitu zutena bere bikote ohiaren eta feminizidaren gelako ohearen azpian.

Jenderik bizi ez den espazio publikoa eszenatoki izan zen 6 kasutik bitan, emakumearen gorpua urtegi batean aurkitu zutela ikus dezakegu. Amaia (ID 583) Azpeitiko Ibai- Eder urtegian aurkitu zuten, eta Yanela (ID 605) Beriaingo La Morea urmalean. Jenny Sofíaren

(ID 1032) kasuan, bere gorpuzkiaren zati bat Bilboko Itsasadarrera bota zuten, gaizkilearen aitortpenaren arabera. Horretaz gain, gizonak bere gimnasioan gorde zituen biktimaren eskuak eta bizkarrezur muina poltsa baten barruan. Leireren gorpua (ID 1305) harrapatuta agertu zen errepidean. Urte bat baino gutxiago duen Aicharen kasuan (ID 1194), Zarautzeko hondartzan aurkitu zuten bere gorpua. Beste kasu batean gorpua aurkitu zuten eszenatokia Bardeetako Kanala izan zen. Bertan agertu ziren hilda kotxe baten barruan 12 urteko neskatila eta haren aldamenean zegoen aita, hilketaren egilea (ID 1020).

Eszenatokia jendea bizi den espazio publikoa izan den lau kasuei dagokienez, horietatik bitan biktimen bizitza gabeko gorpuak kalean aurkitu zituztela esan dezakegu: Rosariok (ID 694) Hernaniko Izpizua kalean jasan zuen eraso bere alabarekin batera. Mireia (ID 903) bere auzokide batek erasotu zuen bere etxeko portaletik lau metrora Deustu auzoan, Bilbon. Lau kasu horien beste bien artean aurki dezakegu Jonerena (ID 691), Durangoko Tabira auzoko kale batean topatua bigarren pisutik bultzatua izan ostean. Ospitalean hil zen ebakuntza konplikatu baten ondoren. Edo, Bilboko erietxean hil zen emakumearen kasua, Maureen Ada (ID 1033), Poliziak larriki zaurituta aurkitu zuena bere hiltzailearen gimnasioan.

14.2 HILTZAILEAK ERABILITAKO ARMAK



Txosten honetako 33 kasutik hamabostetan (%45) arma zuria erabili zen hiltzeko. Cristinaren (ID 653) kasua bezalakoak nabarmentzen dira, hiltzaileak katana eta aizto batekin erasotu baitzuen. Emakumeak babes-agindua ezarria zuen. Edo, Deisi Maria (ID 704), babes-agindua indarrean zuena ere, baina horrek ez zuen galarazi gaizkileak urdaiazpikoa mozteko aizto batekin erasotzea bere etxeko eskailera-buruan. Amagoia (ID 1025), aldiz, bere senarrak 17 zentimetroko zerra zuen labana batekin emandako 42 sastakadengatik hil zen. M^a Teresaren senarrak (ID 959) emakumea buruan kolpatu zuen aizkora batekin. Kasu guzti hauek feminizidio intimo ez ofizialak dira.

Rogelia (ID 945), lapurretatetik izandako hilketa batean erasotu zuen haren hiltzaileak labana batekin. Maria Montserratek (ID 987), berriz, feminizidio ez intimoa, zenbait aitzorekin pairatu zituen agresioak.

Gehien erabili zen bigarren arma, 10 kasutan (%30), eskuak eta indar fisikoa izan ziren. Ameliak (ID 635) izugarrizko jipoia jaso zuen bere bikotearen eskutik; saihetsak eta barea

apurtu zizkiolarik. Yanela (ID 605) hiltzaileak ito zuen eskuekin eta jertsearekin. Maria Luz (ID 1225) bere ohean gogorki kolpatu zuen senarrak ezustean burdinazko barra batekin. Kasu guzti horiek feminizidio intimo ofizialei dagozkie. Alabaina, Maria Luzen ama, Amelia (ID 1226), bere alaba bezala hil zuen suhiak, eta beraz, familia arteko feminizidioa izan zen, eta zifra ez da ofizialki ezagutu. Isabel (ID 517), familia arteko feminizidioa baita ere, zifra ez ofiziala, lurraren kontra kolpatu zuen bere semeak, eta kaskezurraren hondoratzea jasan zuen; horretaz gain, semeak zenbait erremintarekin torturatu zuen.

Hiltzaileek biktimak jaurtitzeko eskuen indarra erabiltzen dute neskakilak direnean, hurrengo haur feminizidioen bi kasu hauetan gertatu zen bezala: Aicha (ID1194), urte batekoa, bere aitak jaurti zuen itsasora; eta Yaiza (ID 1317), hiru urtekoa, paretaren kontra kolpatu zuen bere aitaordeak. Jone (ID 691), feminizidio intimo ez ofiziala, 31 urtekoa, bigarren pisutik bota zuen gaizkileak.

Beste batzuetan urkatzeko erabiltzen da eskuko indarra: Jenny (ID 1032) eta Maureen (ID 1033), biak prostituzio feminizidioak, hiltzaile berak ito zituen, J. C. A.-k, zeinak horrez gain Maureen eskuetatik lotu eta jo zuen.


Lapurretagatik egindako emakumeen erailketen kasuetako batean, harri bat izan zen arma: Amaiarenean (ID 583). Beste bi kasutan, feminizidio intimo ofizialak, arma desberdinak erabili dira: plastikozko poltsa bat, hiltzaileak M^a Almudena (ID 1313) itotzeko erabili zuena; eta Andina (ID 1121) bere bikotekide ohiak ilerako plantxaren kable batekin urkatu zuena. Benigna Maria (ID1149), familia arteko feminizidioa, bere semeak hil zuen araututako bere udaltzaingo armarekin. Azkenik, hiru haur feminizidioetako batean, 12 urteko adingabearenean (ID 1020), bere aitak kotxearekin hil zuen neskatila, ubide batean itotzeko erabili zuen, umea lokartu eta kopilotuaren jesarlekuan lotu ostean.

14.3. INDARKERIA EKINTZAK

Indarkeria ekintzen alorrak hiltzaileak biktimaren gorpuarekin egindako biolentzia eta krudelkeria erregistratu eta zehazten du. Geofeminicidioak, berriz, feminizidio edo hilketaren aurreko, bitarteko eta ondorengo ekintza biolentoak kontaktzen ditu.

2010 eta 2015 urteen artean Euskadin eta Nafarroan erregistraturiko 33 feminizidio edota hilketetatik 14 kasutan, % 42, indarkeria ekintza bakarra zehaztu dezakegu egindako analisisan. Gainontzeko %58 kasuetan bi ekintza edo gehiago erregistratu ditugu: 14 kasu daude bi indarkeria ekintzarekin (% 42), lau kasu hiru ekintza biolentorekin (% 12) eta kasu bat lau ekintza biolentorekin (% 3).

Ekintza bortitz nagusia aztertzen badugu, hots, emakume bakoitzaren hilketaren zergatiaren hipotesizat ulertzen dena, ikus daiteke 15 kasutan emakumea sastakatze edo labankadengatik hil dela (% 46). Bigarren maila batean, kolpetik hiltzen diren emakumeak daude, 33tik 7 kasu (% 21). Hirugarrenik, asfixiaz edo itota hil direnak (33 kasutik 6, % 18). Bestalde, 33 kasutik bitan emakumeak ito egin zituzten (biak adingabeak, % 6). Geratzen diren hiru kasuetan, aldiz, bat amildegira botatzean hil zen, bestea tirokatuta eta azkenaren kasuan ezin izan da hilketaren indarkeria ekintza zehatza egiaztatu.

Gutxi-
33
kasu**Indarkeria ekintza nagusia****Indarkeria ekintza nagusia****indarkeria ekintza 1**Gutxi-
14
kasu**2 indarkeria ekintza**

1. indarkeria ekintza (nagusia)	2. indarkeria ekintza (hil aurrekoa/ostekoa)	Kasu kopurua
Itotzea	Ohiko tratu txarra-neskatila bahiketa	1
	Lokartu eta autoan jotzea	1
Sastakatzea	Kolpatzea	1
	Ohiko tratu txarra	3
Asfisiatzea/urkatzea	Urmaelera jaurtitzea (gorpua ezkutatzea)	1
	Burdinezko barrarekin kolpatzea	2
	Ohiko tratu txarra	1
	Eskuak jotzea	1
Kolpatzea	Ohiko tratu txarra	2
	Erreminta ezberdinekin torturatzea	1
Guztira		14

3 indarkeria ekintza

1. indarkeria ekintza (nagusia)	2. indarkeria ekintza	3. indarkeria ekintza (hil aurrekoa/ostekoa)	Kasu kopurua
Sastakatzea/Aiztoa sartzea	Aerosolez aurpegia bustitzea lau egun lehenago	Ohiko tratu txarra	1
Kolpatzea	Pistolarekin berriro kolpatzea	Urmaelera jaurtitzea	1
Ez daki	Leku aldatzea eta harrapatzea	Errepidean abandonatzea	1
	Eskuak jotzea	Ahoa zapiarekin jotzea	1
Guztira			4

4 indarkeria ekintza

1. indarkeria ekintza (nagusia)	2. indarkeria ekintza	3. indarkeria ekintza	4. indarkeria ekintza	Kasu kopurua
Kolpatzea	Eskuak jotzea	Zatikitzea	Isaira jaurtitzea, hondarrak poltsan gordetzea, gorpua ezkutatzea	1


14.4. HILTZAILEEN ARRAZOIAK ETA EGOERAK

Alor honetan, Geofeminizidioa definitzeko eta dokumentatzeko, kontutan hartzen dira feminizidioa edo hilketa justifikatzeko hiltzaileak erabilitako arrazoi edo motiboak, zein faktorek eragin zuen biolentzia feminizida eta hilketaren inguruabarrak³¹.

Hiltzaileek hilketen arrazoiak nola argudiatzen dituzten aztertzerakoan, 33 kasutik lautan ez da posiblea izan arrazoiak aurkitzea, eta/edo prentsan ez da ezagutzera eman. Jone (ID 691), M^a Teresa (ID 959), M^a Ángeles (ID 1022) eta Rosaren (ID 1208) kasuak izan dira.

Hiltzailearen motiboak eta egoerak

Guztira:
33



31 "Hilketaren inguruabarrak" zuzendibe penaletik hartu da; delituaren gauzatzeari eragiten dioten hainbat gertaera jazo eta sailkatzen ditu, delituaren aringarri edo larrigarri izan daitezkeen egoerak kasu. Kasu honetan horrela izendatzen dira hiltzailearen erailtzeko moduan esku hartzen duten egoerak; hala nola buru-nahasmendu larriak edo mendetasunak. Era berean, krimenaren gaineko inguruabarrek izan duten eraginean aztertu behar dira ere genero estereotipoak, eta hiltzen duen gizonaren maskulinitatean edo identitate maskulinoaren eraikuntzan eragina izan duten faktoreak.

33 kasutik 7 sailkatu dira “banaketa-ukapen prozesua” epigrafearen barnean. Hausketaren aurretiko eta ondorengo momentuak kontsideratzen dira banaketa fase osoaren parte, zazpi kasutan islatzen dira. Denak feminizidio intimo ez ofizialak direla identifikatu da. Cristina (ID 653), babes agindua indarrean zuena, bere bikotekide ohiak hil zuen, aitortu zuenaren arabera, honek harremanarekin jarraitzea ukatu ziolako. Berdina gertatu zitzaion María Anari (ID 1253), bere senar-ohia izan zen kartzelarik ateratzean emazteak berarekin ez jarraitzea jasan ezin izan zuena; edo M^a Almudenaren (ID 1313) kasua, bere mutil lagunak ez baitzuen haustura krisia gainditu familiakoek hedabideei aditzera eman zietenaz. Amagoiaren (ID 1025) bikoteak ere ez zuen onartu emakumeak, pertsona berri batekin harremana hasi nahi zuelako erlazioa eten nahi zuela esan izana. Epigrafe honetako beste hiru kasutan emakumeek erlazioa utzi berri zuten, Andina (ID 1121) eta Leire (ID 1305) beraien bikotekide eta senar ohietatik banandu berri zeuden. Deisy Mariáren kasuan (ID 704), babes agindua ezarria zuen, hilabeteak zeramatzan bere senar ohiarengandik bananduta, 20 urtez ezkondata egon eta gero.

“Eztabaida biolentoa” epigrafean bost kasu sailkatu dira. Horietatik bitan alkohol eta droga kontsumoaren kontaktak ageri dira, María Elenarenean (ID 505), feminizidio intimo ez ofiziala, eta M^a Montserratenean (ID 987), feminizidio ez intimoa. Ez dira arrazoietakoz batzuk aintzat hartu feminizidio hauetan eztabaida erdian gertatu zirela nabarmentzen delako, eta alkoholaren eta drogen kontsumoak ez duelako ekintza justifikatzeko balizko arrazoirik aurkeztzen ikerketa honetan gauzatzen den analisi feministaren ikuspuntutik. Mari Luz (ID 1125), familia arteko feminizidio intimoa, eta bere ama Amelia (ID 1126), familia arteko feminizidio ez ofiziala, lehenengoaren senarra eta bigarrenaren suhia zen hiltzaileak erail zituen eztabaida gogor baten ondoren. Yanela Mariuxi ere (ID 605), feminizidio intimo ez ofiziala, haren kotxean hil zuen gaizkileak eztabaida gogorrean baten bitartean.

“Ohiko tratu txarrak” epigrafean 33 kasutik bost sailkatu ditugu. Horietatik bi, haur feminizidio ez ofizialak: Aicharen (ID 1194) aitak tratu txarra ematen zion umeari eta haren amari, eta itsasora bota baino hilabete batzuk lehenago bahitu egin zuen. Yaizaren kasuan (ID 1317), bere aitaordeak paretaren kontra bultzatu zuen, eta bere bikoteari, Yaizaren amari, aurrekari penal ugari ezkutatu zizkion. Bi feminizidio intimo ofizial daude, Ameliaren kasua (ID 635), babes agindua indarrean zuena, eta Rosariorena (ID 694); etengabeko biolentzia identifikatu dena. Ameliaren kasuan (ID 512), familiarteko feminizidio ez ofiziala, bere semeak tratu txarra ematen zion, bere emazte ohiarengandik banatua zegoen tratu txarrengatik ere bai.

“Jeloskortasuna (txartu txar emaileak eta feminizidak maiz defendatutako arrazoia)” epigrafean, Caridad de los Angelesen kasua (ID 795) agertzen da, feminizidio intimo ofiziala. Bere bikoteak ezin izan zuen jasan kalera ateratzerako orduan azalpenik eman gabe apaintzeko erabakia. Gizonak lau urte eman zituen kartzelan, eta hainbatetan atxilotu zuten lapurreta, mehatxu, narkotrafiko eta aurretik izan zuen bikote baten aurkako indarkeria matxistagatik.

Zirkunstantziatzat hartzen den arrazoietakoz bat (arrazoien azpi-sailkapen bat, aurretik azaldu bezala), “arretarik jaso ez duen nahasmendu psikiatrikoa” da. Lau kasu agertzen dira eta denak dira familiarteko feminizidioak dira. Bonifacia (ID 538) bere bilobak hil zuen, nortasun-nahasmendua zuenak. Isabel (ID 517), Pilar (ID 692) eta Mireiaren kasuetan (ID 903), beraien semeek hil zituzten. Lehen hiltzailearen diagnosia eskizofrenia izan zen, azken biena eskizofrenia paranoidea.

Lapurretagatik eraildako hiru emakumeren kasuetan, argi eta garbi, telefono mugikorrren lapurreta ageri da arrazoi nagusi gisa. Amaia (ID 583) bere kotxean erasotu zuen gazte

adingabe batek, aizto eta pistola batekin mehatxua eginez. Rogelia (ID 945), 93 urteko andre zaharra, arma zuri batekin kolpatu eta zauritu zuen mutil adingabe batek (zaintzailearen semeak) bere etxean; 18 urteko beste bi gaztek lagunduta, erasotu eta bitxiak lapurtu zizkietenak. M^a Angeles (ID1036), 81 urteko jubilatua, bere etxean aurkitu zuten hilda, eskuak lotuta eta ahoa estalita. Poliziak lapurreta hartu zuen hipotesi nagusi bezala.

“Misoginia” epigrafean bi kasu sailkatu dira. Gaizkileak krimena gauzatzerako orduan emakumearenganako muturreko gorroto, mespretxu eta gauza bihurtzeari deitzen zaio. Bi kasuak Jonny Sofia (ID 1032) eta Maureen (ID 1033) prostituzio feminizidioei dagozkie.

Bada kasu bat, zirkunstantzia gisa identifikatu dena baita ere: hiltzaileak “Depresio latza” pairatzen zuena. Badirudi egoera horretan berriro erori izana izan zela bere alaba hiltzearen eta bere aldamenen bere buruaz beste egitearen arrazoia. Gizona alargun geratu berri zen eta bakarrik geratu zen, Down sindromea zuen 12 urteko neskatilaren arduradun. Umea ito zuen kotxean egin zuen bere buruaz beste (ID 1020).

Azkenik, arrazoiaren artean, beste epigrafe bat dago “Ahalguztiduntasuna”, Benigna Mariarena (ID 1149) bezalako kasuei aplikatu zitzaiona, familia arteko feminizidio ez ofiziala. Kasu horretan bere semeak, udaltzaingoa zenak, ama eta aita hil zituen araututako armarekin, eta gero bere buruaz beste egin zuen. Familia arteko feminizidio honetan genero arrazoiak ez du familia feminizidotzat definitzen denarekin bat egiten –erasotzaileak bere aita ere hil zuen-, baizik eta genero estereotipoak, eta honek hiltzaileak krimena egiteko orduan duen eraginak. Prentsak jasotako informazioak zioen semeak gurasoak zaintzen zituela, eta hauek osasun egoera makala zutela. *Ahalguztiduntasun* faktorean ez da bakarrik kontuan hartu bere gurasoen zein beraren bizitzarekin unilateralki amaitzea erabaki izana, indarkeriarekin eta araututako pistola batekin egin izana ere hartu da aintzat.

14.5 HILTZAILEA ETA BIKTIMAREN ARTEKO HARREMANA

Txosten honetako 33 kasuetako 10 hiltzaile ziren emakumeen, senar, bikotekide edo mutil-lagun ohiak. Horietako bederatzik feminizidio intimo ofizialak egin zituzten, Deisy María (ID 704) edo Leireren (ID 1305) erailketak bezala. Soilik kasu bat da feminizidio intimo ez ofiziala, Maria Elenarena (ID 505).

Zazpi hiltzaile ziren biktimen senarrak, bikoteak edo mutil lagunak. Horietako bostek feminizidio intimo ofizialak burutu zituzten, adibidez, Caridad de los Angeles (ID 795) edo Amagoia (ID 1025) bezalako kasuak. Hiltzaileetako bik ez dute bat egiten feminizidio intimo ez ofizialekin, Jone (ID691) eta M^a Angelesen kasuek (ID 1022), hain zuzen.

Lau kasutan izan zen gaizkilea biktimaren semea: horietako bi kasutan, Isabel (ID 517) eta Pilar (ID 692), bien semeek zituzten arazo psikiatrikoak, eta oso gazteak ziren, 23 eta 17 urtekoak. Beste kasu batean gaizkileak bere bikoteari tratu txarra eman zion, eta emakumeak harremana eten zuenean bere amarekin joan zen bizitzera, eta hau ere hiltzen amaitu zuen; Ameliaren kasua da (ID 512). Benigna Maria (ID 1149) bere semeak hil zuen, ezkontuta zegoen udaltzainak, nerabea zen seme bat zuenak.

Bi kasutan, Jenny (ID 1032) eta Maureen Ada (ID 1033) gizon berdinak hil zituen, prostituzio bezero batek.

Bi hiltzaile izan ziren biktimen aita; Aicharen (ID 1149) aita, apenas urte bat zuen neskatila, 2010eko urrian honek itsasora bota zuena. Lehendik bahituta izan zuen, urte bereko uztailean. Bestea, Down sindromea zuen 12 urteko neskatila adingabearen kasua da (ID 1020), aitak ito zuena berarekin batera bere kotxea urmael batean sartuta.


Lapurretan eraildako emakumeen bi kasuetan: Amaiaren (ID 583) gaizkileak, ezezaguna zenak, lapurtzeko erasotu zuen neska; eta M^a Angelesen kasuan (ID 1036) hiltzailea edo hiltzaileak ez ziren lokalizatu ez identifikatu prentsaren arabera.

Kasubatean hiltzailea, andrezahar baten zaintzailearen semea izan zen, Rogelia (ID 945) hil zuena. Bestean, biloba izan zen bere amama Bonifacia (ID 538) hil zuena, andreak mugikortasun murritzua zuen. Eta beste batzuetan aita-ordea (Yaiza ID 1317), edo suhia (Amelia, ID 1226).


Beste bi kasutan, feminizida biktimaren auzokidea izan zen; Mireiaren (ID 903), eta M^a Montserratenean (ID 987), pisu-kide bat.

Hiltzaile eta biktimaren arteko erlazioa

Guztira:
33




14.6 HILTZAILEAREN SUIZIDIOA



Lau kasutan hiltzaileak bere buruaz beste egin zuen. Bata, Teresarena (ID 959) izan zen, feminizidio intimo ofiziala, hiltzaileak emakumea hil zuen etxebizitza familiarraren kanpoaldeko habe batean urkatu zuen bere burua. M^a Angelesen (ID 1022) hiltzaileak, feminizidio intimo ez ofiziala, ustez bere buruaz beste egin zuen haren emaztea hil zuen arma zuri berarekin familiaren etxebizitzako sukaldean. Benigna Mariaren semeak (ID 1149), familia arteko feminizidio ez ofiziala, udaltzaingoaren arma arautuarekin egin zuen buruaz beste, gurasoak hiltzeko erabili zuen arma berarekin. Azkenik, 12 urteko adingabekoaren (ID 1020) kasuan, haur feminizidio ez ofiziala, hiltzailea, hots, bere aita, alabarekin batera ito zen pastilla batzuk hartu eta kotxea urmael batera jaurti ondoren.

Bi feminizidio intimotan hiltzailea bere buruaz beste egiten saiatu zen, baina ez zuten lortu. Leire (ID 1305) eta M^a Almudenaren (ID1313) kasuak dira. Lehenengoan, feminizida zainak mozten saiatu zen eta bere burua trenbidera bota zuen. Bigarrenetan, gaizkileak pastillak hartu zituen.

PRENTSAREN ANALISIA



15. 2010-2015 ARTEAN EUSKADIN ETA NAFARROAN JAZOTAKO FEMINIZIDIOEN ETA EMAKUMEEN BESTE ERAILKETEN PRENTSA DIGITALEKO ALBISTEEN ANALISIA

15.1. ALBISTEEK BIOLENTZIA MATXISTA DESBERDINTASUN ESTRUKTURALETIK BEREIZTEN DUTE

Marian Meyersek autorearentzat kezkarria zen gogoeta batekin hasi zuen bere *New Coverage of Violence against Women: Engendering Blame* liburua 1997an. Bertan ohartarazten zuen komunikabideetan biolentzia matxistaren biktima diren emakumeen irudiek, maiz errudunetsi, eta aldi berean haien kontaketa zalantzan jartzen zutela. Gogoetak indarrean jarraitzen du gaur egun. Idazlearen ustetan, komunikabideen diskurtsoak gertaeraren errua biktimaren gain jartzeak eragina du pertsona eta gizarte modura erabakiak hartzeko momentuan. Halaber, emakumeek desberdintasun estrukturalagatik jasaten dituzten ezaugarriak erakusten dizkigu: biolentzia matxista berdintasun ezan sostengatu eta berrelikatzen da. Horregatik, beharrezkoa da feminizidioen inguruko komunikabideen tratamenduaren analisia, biolentzia matxistaren aurrean gehiengoan pertzepzio soziala identifikatzeko, diagnostikatzeko eta aldatzeko; ez baitu arazo larritzat ezta konpontzeko premiazkotzat hartzen, ez eta desberdintasun estrukturalarekin lotzen ere.

Varona eta Gabarrónen (2015) arabera, biolentzia hau “gehiengoaren eguneroko bizitzatik aldentzen den gaia da; eta, beraz, herritarren gehiengoaren pertzepzioa, hein handi batean, komunikabideetan agertzen denaren menpe dago”. Kazetaritzaren estaldurak estereotipoak erreproduzitzeak, testuinguru gabeko informazioa zabaltzeak eta sakontasun faltak; gizarteak arazoarekiko duen irudia erakusten dute. Ikerketa Soziologikoen Zentroak (ISZ/CIS) adierazi zuen 2016ko irailean barometroak jaso zituen erantzunetatik % 0,9ak bakarrik erakusten zuela “emakumearen kontrako biolentziaren” inguruko kezka.

Komunikabideak al dira biolentzia matxista herritarren arduren artean ez egotearen erantzuleak? Euskadi eta Nafarroaren kasuan, informe honen analisia egiteko erabili diren hedabide gehienak ez dira salbuespena izan. Komunikabideen tratamenduak, Varona eta Gabarrónek dioten bezala, hedabide bakoitzaren ildo editorialaren mende egoteko joera du. Adierazpen askatasuna goratu egiten da biktimen kontaketen testuinguruetan (eta testuetan), biktimak biktimago bilakatuz, erruduntzat jo eta haien errelatoak zalantzan jartzen baitira. Adierazle hauek, pribilegio patriarkalaren aurrean babes erreakzio bezala identifikatu daitezke, eta kazetaritzan aritzen diren profesionalen hezkuntza eta heziketa matxistaren emaitza gisa.

Analisi honetan gomendio eta kritiken iturri nagusi bezala hartzen dira gidak, eskuliburuak, dekalogo nabarmenenak, bereziki Euskadiko Publizitate eta Komunikazio ez-sexistarako Kode Deontologiko eta Autorregulazioak (Begira-Emakunde, 2016). Helburu nagusia gomendio horiek erregistratutako Geofeminizidioak dokumentatzeko beharrezkoak izan diren argitalpenen emaitza kuantitabo eta kualitatiboekin kontrastatzea izan da, txosten honetan bilduma iturri eta datuen analisi gisa erabiliak. Horrekin, 2010 eta 2015 artean Euskadin eta

Nafarroan gertatutako feminizidioen eta emakumeen bestelako hilketen trataera mediatikoen erradiografia gauzatu nahi da.

15.2 TXOSTENAREN ITURRI HEMEROGRAFIKO BEZALA ERABILITAKO MEDIO DIGITALAK

Gomendio eta proposamenen analisia orotara 369 artikulurekin kontrastatu zen (279 gazteleraz eta 90 euskaraz). Txostenak ikertutako edukiak feminizidio eta emakumeen bestelako hilketen kasuei erreferentzia egiten zieten online bidezko komunikabideetatik aukeratu ziren. Prentsa digitalean gazteleraz kontsultatutako 44 medioetatik argitalpen gehien egin dituztenak El correo (53 sarrerarekin, guztira %19), El País (42 edukirekin, % 15); El Mundo (31 artikulua, % 11); eta Diario Vasco (29 argitalpen, % 10) izan dira. Euskaraz iturri hemerografiko bezala aztertutako 17 hedabideek 90 sarrera egin zituzten. Berria 55 argitalpen egitera iritsi da, guztiaren % 61,1, hain zuzen. Zerrendako bigarrena da Argia, zazpi artikulurekin aztertutako edukien %7,77 ordezkatzeko duelarik.

15.3. BIOLENTZIA MATXISTAREN JATORRIAREN IDENTIFIKAZIOA

Feminizidioen berri emateko oinarritzkoa da biolentzia matxista, hala, edo behintzat Genero-Indarkeriaren aurkako Lege Integralean aitortua dagoen bezala, identifikatzea. Begira-Emakunderen Emakumeen genero indarkeriaren informazio-trataeraren dekalogoak esaten duenez, “Zenbait terminologien erabilpenak, Emakumeen aurkako Biolentzia gisa izendatzen denaren barnean kokatzen laguntzen du informatzen den kasu zehatz bakoitza” (2016, 19.or). Irizpide honetan huts egiten duten argitalpenek arazoaren ikusezintasuna bultzatzen dute, jatorriari entzungor egiten diote, eta deuseztatzeko neurrietatik aldentzen gaituzte. Ikusezintasun hau bereziki nabarmena da estatistika ofizialetan parte hartzen ez duten feminizidio kasuetan eta biolentzia matxistaren aukera zabalagoa hartzen duten kasuetan. Hedabideek ezjakintasunagatik edo ukazio estrategiatik ez dute kontuan hartzen biolentzia matxista modu desberdinetan azaleratzen dela biolentzia patriarkalaren euritakopean: biolentzia feminizida, sexuala, fisikoa, psikoemozionala, eskubide sexualen eta ugalketen aurkako, ondarezkoa, ziberbiolentzia, LGTB kolektiboen kontrakoa, instituzionala eta abar gisa. Komunikabideek biolentzia matxistaren definizioa bikotekide eta bikotekide ohien esparrura mugatzen duten legeria erabiltzeko joera dute. Horrela, prebentzioaren pedagogia egitea saihesten dute, argitaratze kontseiluen borondatearen esku utziz; erregulatze ahalegin ahul eta isolatuak egiten dituenak.

Datuek baieztatzen dute gazteleraz aztertutako 279 edukitik, 154tan ez dela erabili inolako terminologia espezifikorik gaizkileak gauzatutako biolentzia deskribatzeko. Hau da, %55ak ez zuen kokatu krimena emakumeen aurkako biolentzia estrukturalen testuinguruan. Biolentzia motaren bat aipatu zutenen artean, “genero indarkeria” kontzeptua nabarmentzen da. Beste aukera batzuekin batera 79 eduki agertzen dira hitz hori (guztien % 28,3), “biolentzia matxista” 71 argitalpenetan agertzen den bitartean (% 25,45). Bestalde, bai “etxeko indarkeria” eta bai “tratu txarrak” kontzeptuak ez dira ia izendatzen: soilik zazpi edukitan agertzen dira, % 2,5.

Euskaraz, krimena isolaturiko ekintza bezala aurkeztzen duten argitalpenen ehunekoa txikiagoa da: % 33,3k zabalitzen du hilketaren informazioa biolentzia mota inolaz bereizi

gabe. Euskaraz aztertutako artikuluetako terminologia ohikoena “genero indarkeria” da, 30 edukitan agertzen da (% 33,3), “biolentzia matxista” 20 argitalpenetan (% 22,2) azaltzen den bitartean.

Datuek erakusten dute bikotekidetik haragoko jarrera matxistak identifikatzerako orduan ahalegina biderkatzeko beharra. Kontrastatutako zenbait eskuliburuak bat egiten dute esatean, besteak beste, hedabideek nabarmendu behar dutela indarkeria matxista erroak patriarkatuan dituen arazo sozial bat dela, eta feminizidioak ez direla krimen puntualak eta irrazionalak. “Beharrezkoa da agerian jartzea, emakumeen aurkako indarkeriaren jatorria, hauek gizonen aurrean jasaten dituzten desberdintasun estrukturaletan kokatzen dela, emakumeak izate hutsagatik” (Begira-Emakunde, 2016, 19.or). Eduki hauek atentzioa biktiman eta bere erabakietan jartzeko joera dute, eta kontakizunak sortzen dituzte azpimarratu gabe gizonak izan behar direla haien ekintza biolentoen arduradun. Publizitate eta Komunikazio ez sexistarako Kode Deontologiko eta Autorregulaziokoak proposatzen du Euskadin genero ikuspegia ezartzea eduki anitzetako kazeta analisiari. Garrantzitsua da biolentzia erakusten duten ekintzei buruzko edukiak beste “diskriminazio elementuekin” gurutzatzea, “sexualitate ezberdinak erakusten dituzten mezuak erabiltzea” eta “edukietan [emakumeak] era normalizatuan txertatzea” (Begira-Emakunde, 2016, 16-18.or).

Ikusi 87. eta 91. orrialdeen arteko grafikoak.

15.4. ZIFRA OFIZIALEN ETA ITURRI ESPEZIALIZATUEN ERABILERA

Indarkeria matxista gizarte osoari eragiten dion eta kide guztiak barne hartzen dituen arazo estruktural bat dela ulertzeaz gain, iturri espezializatuak lortu behar dut genero ikuspegia areagotzea. “Garrantzitsua da mota honetako informazioa eskaintzea, lagundu egiten duelako emakumeen aurkako Indarkeriaren kontzeptu barruko kasu konkretu bakoitza testuinguruan jartzen, baita indarkeria jasan dute emakumeen jarrera ezberdinak azaleratzen ere, haien inguruarena barne” (Begira-Emakunde, 2016, 21.or).

Kazetaritza formatu desberdinetan aztertu diren gaztelerazko 279 testuetatik, bostek bakarrik (%2) aipatzen dituzte hitzez hitz “kolektibo feministak”, feminizidioaren testuingurua azaleratu edo aldarrikapenak egiten badituzte ere, erailketa bakoitzaren ondoren deitutako salaketa elkarretaratze edo manifestazioetatik harago. Argitalpenek apenas egiten diote erreferentzia “heteropatriarkatu”, “autodefentsa feminista” edo “feminizidio” bezalako kontzeptuei. Euskaraz ehunekoak desberdinak dira. Terminologiari dagokionez, “patriarkatu” kontzeptua aztertutako 90 argitalpenetatik lautan agertzen da (% 4,44), “kolektibo feministak” 29 aldiz kontsultatu diren bitartean (% 31,1).

Datu hauek Begira-Emakunderen (2016, 19. or) gomendioa ezeztatzen dute:

“Albistearen kontaketa emakumeen aurkako indarkeria etengabeko ekintza moduan erakutsiko digu, eta ez emakume jakin batek jasandako azken gertakaria kontatzen den ekintza isolatu gisara.”

Biolentzia matxisten hildakoen zifra ofiziala zabaltzerako orduan, nabarmena da gaztelerazko eta euskarazko emaitzen arteko aldea. Gazteleraz 30 argitalpen daude informazioa zifra ofizialen esparruan soilik azaldu dutenak. Horien artean daude El País (zazpi argitalpenekin),

El Mundo (seirekin) eta Diario Vasco (bostekin). Gainera, 279 edukitik 20tan (% 7,2) kontsultatu dira iturri espezializatuak, hilketa zifra ofizialetatik harago testuingurua kokatzen dutenak.

Euskaraz, ordea, hedabide batek ere ez du erabaki horrela erabiltzea informazioa: ez dituzte soilik zifra ofizialak erabiltzen albistearen testuinguru bezala. Horren ordez, kolektibo feministak eta iturri espezializatuak gehiagotan kontsultatzeko joera dute: 90 argitalpenetik 27k zifra ofizialetatik haragoko azalpenak zituzten. Honek euskarazko albisteen % 30 suposatzen du, gaztelerazko analisietan % 7,2 izaki, oso gaineratik daude. Eduki horiek, ordea, salbuespenak dira, eta gaztelerazko argitalpen hauei dagozkie: Pikara Magazine (zortzi edukil), El Correo (sei), El Mundo eta Gara (bi), eta El País eta ElDiario.es (bat). Euskaraz, testuingurua azaldutako 27 edukitik 17 Berrian argitaratu dira; eta bost, Argian. Horrez gain, Hitza, Uztarria, Bilbobranka eta Aleak argitalpen bat gehiago erantsi diote ikuspegi espezializatu batetik tratatutako edukiei.

15.5 HILKETAREN JUSTIFIKAZIOAK

Gazteleraz aztertutako adibideen artean, Diario Vascok 2012ko azaroaren 28an auzokide eta diputatu ohi baten deklarazioen berria dago. “Fedegabe” agertu zen haren senarrak burututako 65 urteko emakume baten erailketaren aurrean, hilketaren ondoren buruaz beste egin zuena (ID959)³². “Tere hiltzeko eta bere buruaz beste egiteko azalpen bakarra burua joan izana da” jasotzen du testuak. Gutxitan txertatzen da adituen testuinguruaren kokapena lekukoaren edo politikarien iritziak dauden atal nabarmenduetan. “Haserrealdiak” ez dira aitzakia hilketa bat egiteko eta justifikazio horiek ezin dira zabaldu iturri fidagarriek eskainitako datu konkretuekin kontrastatu gabe, eta oinarririk gabeko iritziekin. Honek instituzio propioak zaku berean sartzen ditu. 2010ean El Correek huts egin zuen bere bilobak hil zuen emakume baten hilketaren justifikazioan, izan ere, “haserrealdi” batekin lotu zutela polizia iturriek aipatu zuen³³. Orotara, lau berrik lotzen dute hilketa arrazoi horrekin, “gehiegizko izaera” bezala deskribatzen duten beste birekin batera.

Edozein justifikazio mota ekiditeko, “garrantzitsua da saihestea erasotzailearen edo bere ingurukoaren kontaketa biolentzia jasan duen emakumearen kontaketa gainetik jartzea” (Begira-Emakunde, 2016, 21.or).

Beste alde batetik, deigarria da gaztelerazko 10 edukitan aipatzea biktimak hirugarren pertsona batekin –maitalea- harremana izan zezakeela krimenaren justifikazio (inplizitu) gisa, eta ez emakumeak haien menpeko *gauza* bailiran hartzen dituzten hiltzaileen matxismo edo maskulinitate hegemonikoa. Euskaraz, hilketaren inolako justifikaziorik aurkezten ez dituzten argitalpenak guztien %90 dira, gaztelerazkoak, aldiz, %76,7. Justifikazioen artean, instituzio publikoek aintzat hartu ez dituzten arazo psikikoak edo psikiatrikoak ageri dira 90 edukitik bostean, %5,55 suposatzen duena. Bi argitalpenek biktima eta gaizkilearen arteko “eztabaida” aipatu zuten; Tolosaldeko Atariak, biktimaren babesgabetasuna azaltzeko epaileak egindako alkoholaren aipamena adierazi zuen

32 Góngora, Francisco (12.11.28). “La única explicación es que se le haya ido la cabeza”. Diario Vasco. Hemen eskura: <http://bit.ly/2eUUVpB>

33 González, David (10.04.07). “Sí, he matado a mi abuela”. Hemen eskura: <http://bit.ly/2efNpax> González, David (10.04.08). “Salvatierra despide a Boni”. Hemen eskura: <http://bit.ly/2dVTFp6>
El Correo (10.04.08). “Ingresa en prisión el joven que confesó haber asesinado a su abuela en Salvatierra”. Hemen eskura: <http://bit.ly/2fauDik>

bitartean³⁴. Akusatuak kontsumitu zituen alkohola eta drogak beste bi edukitan ere agertzen dira.

Gaixotasun mentalak ere aipatu egiten dira krimena azaltzeko. Arrazoi nahikoak izan daitezke “eskizofrenia paranoidea” edo “depresiorako tratamendua”, besteak beste. Eduki hauek, biolentziaren jatorria azaltzen duten eta gizarte egitura patriarkal batean kokatzen duten gaietan inolako iturririk kontsultatu gabe argitaratzen dira (psikologia klinikoa, psikiatria, antropologia, soziologia, kriminologia...). Nahiz eta gidek eta eskuliburuek hilketa justifikatzen duten apreziazioak ekiditeko gomendatzeko joera duten, beharrezkoa da hizkuntzan generoaren ikuspegi zabalagoa eta sakonagoa ezartzea: albistea sinatzen duen pertsonaren subjektibitate semantikoak irakurleak gertakariaren gainean egingo duen interpretazioan eragingo du. Zentzu honetan, garrantzitsua da gogoratzea Euskadiko Publizitate eta Komunikazio ez-sexistarako Kode Deontologiko eta Autorregulaziokoak egindako gomendioak, informazioa iturri fidagarriekin eta sinesgarriekin kontrastatzeko beharra nabarmentzen baitu, “emakumearen biktimia gisa ahuldu edo erasotzailearen jokaerak justifikatu ditzaketen testigantzak saihesten saiatuz ahal den neurrian” (Begira- Emakunde, 2016, 23.or).

15.6 BIKTIMAREN ERRUDUNTASUNA

“Beharbada dena amaitu zela pentsatu zuten, azkenean ulertu zuela. Izan daiteke imajinatu izana maitasuna probak behar izateari utzi ziola, momentu hartatik aurrera emakumeentzat tratatu txarrik gabeko bizitza hasiko zela. Mutila damututa zegoela eta oraingoan egia zela. Baina ez zen egia. Ez, behintzat, lau emakumetik hirurentzat, urtea hasi zenetik gaur arte Euskadin hil dituzten indarkeria matxistaren biktimentzat. Hirurak beraien erasotzailearekin bizi ziren, aurretik tratatu txarrengatik salatu bazituzten ere”.³⁵

Horrela hasi zuen El Correok 2010eko irailaren 11n publikatutako albistea. Hau egunkariaren orrialdeetan behin eta berriz errepikatu den adibidea da: gertakariaren kontaketa biktimaren ikuspegitik egiteak biolentzia matxistaren jatorria ikusezin bihurtzen du. “Erasotzailearen jarreraren berri emateak eta hau testuinguruan jartzeak, gizon hauek nola jokatzeko duten ezagutzen lagunduko du” (Begira-Emakunde, 2016, 21.or). Biolentzia erabiltzea beti da hautu bat eta honen egileari egotzi behar zaio. Horregatik da gomendagarria gaizkilea gertakariaren erantzule eginez ardaztea gertaerak. Urte bereko uztailera argitalpen batean biktimia jotzen da erruduntzat bere erasotzailearekin berriro bizitzera itzultzeagatik, “epaileak urruntze-agindua jarri zuen arren”³⁶. Horregatik, behin eta berriz gogorarazi behar da hilketa deskribatzeko beharra, aldi berean, indarrezko hiltzailearen ikuspegi zitala deseraikitze helburua izan dezan.

Erregistratutako bi prostituzio feminizidioen hedabideen trataerak, biktimak emagaldi izateagatik iraindu zituen. Hau ohikoa da egunkarietako gertakariaren orrialdeetan, bertan, emakume hauei indarkeria matxistaren biktimia izatea ukatzen zaie erasotu edota hiltzen badituzte. Prentsak feminizidio kasu hauetan ez du zalantzan jartzen prostituzioaren bezzeroaren indarkeria matxista; gainera, hauek ankerkeria eta azpikeria handiz gauzatzen dira.

³⁴ Tolosaldeko Ataria [12/07/02] 22 urteko kartzela zigorra, Caridad Angeles Rodriguezen hiltzailearentzat. Hemen eskura: <http://bit.ly/2espzGc>

³⁵ Guillenea, Javier [10.09.11] “Tres de las cuatro vascas muertas por violencia de género pusieron denuncias”. El Correo. Hemen eskura: <http://bit.ly/2esrc6s>

³⁶ Tomé, M. José [10.07.31] “La última noche de Amelia Amaya”. El Correo. Hemen eskura: <http://bit.ly/2essRsL>

Txosten honetan aztertu diren bi prostituzio feminizidioetan paradoxa bat agertu zen. Alde batetik, biktimaren, gaizkilearen eta krimenaren berri eman zuten hedabideen kopurua igo zen (ikus kasu paradigmatikoa kapitulu honen bukaeran), argi azaldu gabe zein zen gaizkilearen eta bi biktimen arteko harremana. Honek kolektibo honen kontrako biolentziaren ikusezintasuna suposatzen du. Edukiaren trataera gaizkilearen izaera higuinagarrion eta eroan zentratu zen, garrantzia kenduz honek erakutsitako misoginiari eta bere jokabide kriminalari. Hau erruaren pisu gehiena emakume prostitutat izateari eransten dion gizartearen isla da. Prostituzioaren estigma eta honen ondorioak ez zituen argitalpen batek ere ez sakon landu.

Azkenik, gizonak emakumea erasotzea, dibortzio edo haustura prozesu ireki baten ondorio naturala dela uste duten kasuak ere badira; biktimari errua botatzen zaio (inplizituki), eta feminizidioa bikotearen banaketaren ondorio simple bezala aurkezten da.

15.7. LEGERIAREN ETA PROZESU JUDIZIALAREN HEDAPEN FALTA

Ikusi 92. eta 96. orrialdeen arteko grafikoak.

Analisiaren atal honetan argi ikusten da prentsaren hutsunea informazioa emateko orduan: prozesu judizialaren jarraipena. 016 telefono zenbakiaren informazio eza ere hauteman zen indarkeria matxistari buruzko informazioan, azken urteotan zabalduen dagoen gomendiotako bat. Gazteleraz aztertutako 279 edukitik soilik bik zuten indarkeria matxistaren biktimez arduratzen den doako telefono zenbakiaren iragarkia; nahiz eta 016 sortu aurretik, Barakaldo Digitalek genero indarkeriaren biktimentzat 24 orduko Telefono Arreta Zerbitzuaren telefono zenbakia eskaintzen zuen (900 840 111)³⁷. Euskarazko argitalpenetan ere bi izan ziren 016 zenbakia erakutsi zuten edukiak, % 2,22. Portzentajea baxua bada ere, gaztelerazko zifrek erakusten duten % 0,71 baino altuagoa da.

Prozesu judizialari dagokionean, txosten hau komunikabideek indarkeria matxisten hilketek suposatzen dituzten erantzukizun penalak eta zibilen berri ematen duten identifikatzeko asmoarekin egin da. Euskadiko Publizitate eta Komunikazio ez sexistarako Kode Deontologiko eta Autorregulaziokoak gogorarazten digun bezala, garrantzitsua da prozesu judizialaren eta sententziaren informazioa azaltzea. “Epaiketen berri ematean eta erasotzaileen kontrako kondena-epaiak aipatzean, haien jarrerak dituen ondorioak ikustarazten lagunduko dugu” (Begira-Emakunde, 2016, 22.or). Nahiz eta argitaratutako kasuen inguruko albisteek ezin dituzten datu hauek aintzat hartu (Gaztelerazko 115 eduki, % 41,2; eta euskarazko 12, % 13,33), hedabide askok erakusten dute oraindik ere hilketa edo lege ondorioak dituen indarkeria matxistaren jarraipen falta. Txosten honen analisiak, prozesu judizialaren jarraipena (susmagarria justiziaren kargu geratzen den unetik aurrera) egiten dutenen gaztelerazko 117 edukitik 29k bakarrik eman dute aditzera azkeneko epaia (guztien % 10 baino ez), berrikusia izan zen beste sententzia baten berri eman zuten beste bi edukirekin batera. Euskarazko hedabideetan, prozesu judiziala jarraitu duten 41 edukitik 10ek bakarrik erakutsi dute sententzia, % 11,1k, gaztelerazko datua baino puntu bat gehiago. Prozesu judizialaren berri ematea gakoa baldin bada hilketak zigor gabe ez

³⁷ Barakaldo Digital (10.12.07). “La mujer asesinada recibió atención psicológica del Ayuntamiento 72 horas antes del crimen”. Hemen eskura: <http://bit.ly/2eUVlwb>

uzteko eta gaizkileentzako kondena egoteko, are garrantzitsuagoa da prozesua ixten duen sententziarekin osatzea informazioa.

Gaztelaraz argitaratutako 115 artikulutan eta euskarazko 12tan; prozesu judiziala hasi baino lehen zabaldu zen hilketari buruzko informazioa. Argitalpen hauek hedabideetan agertutako lehen albisteei egiten diote erreferentzia, osatu gabeak izaten dira, eta ezin dute prozesu judizialari buruzko zatirik erantsi, susmagarria ez delako oraindik justiziaren esku geratu.

15.8 ESTEREOTIPOEN ERREPRODUKZIOA

Begira-Emakunderen gomendio nagusi batekin bat etorritik, “informazioen zorroztasuna arriskuan ez jartzeko aurreiritziak eta estereotipo sexistak erreproduzitzen” eskatzen duena; analisi honen puntuetako batek informazioetako estereotipoen erabilpena azaltzen du. Estereotipoak indartzea da txosten honetan identifikatutako arazo nagusienetako bat. El Paiseko kasua da, adibidez. Izan ere, bi kasutan (ID583 eta ID694) indarkeria matxista profil zehatz batekin lotzen duen auzokideen iritzia plazaratu du. Lehenengo kasuan, inplikaturako familiaren ospeak justifikatu egiten duela dirudi herriko bizilagunen zalantza. Bigarrenean, biktimaren ahizpa izendatzen da, erasotzailea hilketaren erantzule egiten duena; El Paisek honakoa erantsi zuen:

“Gainera, ustezko erasotzailea ‘pertsona non grata’ izendatzeko eskatu zuen eta, ‘arrazista’ ez zela esan arren, “bere herrialdera alde egin dezala” erreklamatu zuen, izan ere ‘horrelako jendea’ ez dute ‘ez hemen ez inon’ nahi. Zentzu honetan, Eusko Jaurlaritzak gogoratu zuen biolentzia jasaten duten emakumeengan jatorri desberdina dagoela, eta badirela hainbat kolektibo biolentzia jasateko aukera gehiago dituztenak faktore kulturalengatik, baliabideekiko edo hizkuntza berarekiko ezjakintasunagatik”[...]”³⁸. Ahizparen hitzak gorroto tentazioan eroriz erreproduzitzeko beharraren eztabaidan sartu gabe, gomendagarria da mota honetako komentarioak datu objektibo eta estatistikoekin kontrastatzea nahasgarriak diren adierazpen eta deklarazio instituzionalekin beharrean; alderdiko propaganda gisa diseinatuak izan baitaitezke, eta ez dute saihestuko indarkeria matxistari lotutako estereotipoak indartzea.

Bestalde, Diario Montañésekin “Portugaleteko guraso-hiltzailearen” erretratua egiten du, eta bertan zenbait alditan azpimarratzen du gaizkilearen “izaera isila”, “ordu hilak ordenagailuaren aurrean pasatzen zituela ziurrenik”. Mota honetako informazioak gaizkilea profil zehatz batekoa denaren ideia indartzeko joera du, biolentzia matxistak jatorria patriarkatuan duela alboratuz eta zentsuratuz; baita ohiko tratu txarrak edo biolentziaren zikloak nola adierazten diren ere. Gainera, erabilitako hizkuntzaren arabera, indartu egin daitezke gizon eta emakumeei ezarritako estereotipoak. Emakume ahulak eta defenditzeko gai ez direnak; eta gizon oldarkorrak, “haserrealdi” geldiezindunak (gizentasunaren esanahiari isilpean atxikia). Feminizidioaren trataeratik harantzago, hedabideetan “emakumea izaki ahula, gaixotia; eta zainketa, botika eta dieta berezien beharra” duena bezala transmititzen da (Begira-Emakunde, 2016, 10-11.or). Ikertutako gaztelarazko hedabideek sei aldiz erabiltzen dute “haserrealdi” esamoldea gaizkileak bere biktima gogorki erasotzearen erabakia deskribatzeko. Zazpi adierazpen kontabilizatu dira biktima zuzenean

³⁸ Landa López, I. (11.07.05). “La mujer asesinada en Hernani retiró una denuncia contra su expareja”. Hemen eskura: <http://bit.ly/2fxHZJy>

erruduntzat jo dutenen artean, adibidez, “bere bikote ohiaz fidatzeagatik”³⁹. Askotan egotzen zaio feminizidioaren biktimari pasibotasuna eta erabaki falta. Alabaina, ezaugarri hauek bere gaizkilearen aurrean autodefentsa estrategiak izan daitezke, albisteetan agertzen ez den informazioaren ikuspegia.

15.9. MATERIAL GRAFIKO ETA TITULAR DESEGOKIAK

“Hilketa batez ari garenean, irudiek hildako emakumearen eta bere ingurukoen duintasuna errespetatu behar dute beti, eta emakumeen aurkako biolentzia gizarte osoa erantzule egiten duen arazo estrukturala dela agerian uzteko erabili behar dira” (Begira- Emakunde, 2016, 24.or). Gazteleraz ikertutako 279 albisteetatik 139k erabili zuten material grafiko egokia, hilketaren eszenatokiari, herriari edo inguruari erreferentzia eginez; edo polizia ikerketari buruzko artxiboko irudiak, besteak beste. Hala ere, horietatik 29 (% 10,4) ez ziren egokiak izan informazio garrantzitsu ezagatik, baina, bereziki, biktimaren eta familiakoen intimitatea eta duintasuna iraintzeagatik. Euskaraz, edukietatik 90 bakarrik izan ziren desagokiak, % 2,2. Behatutako adibideen artean, azpimarratu beharra dago El Correok 2010eko apirilaren 7an publikatu zuen argazkia, hurrengoa gehituz: “Biktimarekin bizi zen emeak atsekabetuta hausnartzen du. ‘Nire bizitzako egunik tristeena izan da’, baieztatu zuen”⁴⁰.

Adierazpenari ematen zaion garrantzia albo batera utzita, inportantea da nabarmentzea zein alferrikakoa den seguru aski bere bizitzako egun txarra den gaztearen argazkiaren zabalpena.

Audientzia erakartzeko beharrak titularentsazionalista eta ez-beharrezkoetan jausteko joera du. Hauek informazioa indargabetu dute eta biolentzia matxistaren aurkako borrokaren eta honen onarpenaren lana zailtzen dute. Zentzu horretan, garrantzitsua da baztertzea indarkeriaren jatorria ikusezin bihurtzen dituzten titullarrak, 2010eko urriaren 8an El Correok bere albistea irudiztatzeo erabili zuena, kasu: “Hilda aurkitu dute Zarautzeo uretan neskatila bat, tratu txarrak leporatu dizkioten akusatu baten alaba”⁴¹. Edozein kasutan, biktimak ez dira hilda aurkitzen: erailak dira. Errugabetasun presuntzioa sententzia diktatu arte errespetatu behar delako, hain zuzen,zalantzazkoa egiletasuna da, ez krimena.

15.10.FEMINIZIDIO MOTEN ARABERA, PRENTSAN ARGITARATUTAKO INFORMAZIOA

Bikote edo bikotekide esparruan gauzatutako emakumeen kontrako hilketak (feminizidio intimoak) genero indarkeriaren zifra ofizial gisa daude jasota Lege Integralaren markoan. Nahiz eta Euskadin eta Nafarroan kontatutako kasuen % 52 suposatu, testuinguru honetan gertatzen diren kasu guztiak ez dira barne sartzen Osasun Ministerioak egindako

39 Europa Press (10.07.29). “Amelia Amaya, otra mujer asesinada”. Hemen eskura: <http://bit.ly/2f1CX4H>

40 González, D (10.04.07). ‘«Sí, he matado a mi abuela»’. El Correo. Hemen eskura:<http://bit.ly/2efNpax>

41 Peñalba, J. (10.10.08). ‘Una niña, hija de un acusado de maltrato, aparece muerta en aguas de Zarautz’. El Correo. Hemen eskura:<http://bit.ly/2eNonjz>

estatistiketan. Diskriminazio instituzional honen ondorioz, komunikabideek hilketen berri ematen dute, baina ez dute salatzen instituzioen aldetik ikusezin bilakatzea. Hau Euskadin autoritateek erregistratutako hiru feminizidio intimotan gertatzen da (ID 505, 691 eta 1022).

Berdina gertatzen da haur feminizidioekin: 2013tik aurrera zifra ofizialen parte dira hilketa aitak gauzatu duenean. Alabaina, 2013an Nafarroan erregistratutako kasua ez da erregistro ofizialetan ageri (ID 1020). Euskadin, ID 1317 da zifra ofizialek jaso ez zuten beste haur feminizidioa, 3 urteko neskatilarena, nahiz eta biktimaren aitaordeak gauzatu. Informazio trataera feminizidio kasu hauetan, beste feminizidio edo emakumeen erailketa mota batzuetakoa baino askoz sakonagoa izaten da.

Euskadin eta Nafarroan 2010 eta 2015 artean gertatutako familia arteko sei familiarteko feminizidioek % 18 suposatzen dute. Biktimaren eta gaizkilearen arteko familia erlazioa naturaltzat jotzen denez, hedabideetako trataeren joera da hilketaren arrazoi matxista eta misoginoez harantzagoko arrazoiak bilatzea. Ez dute generoaren ikuspuntutik informazioaren trataera egiten. Era berean, ez dute biolentzia filio-parentala (seme-alaba eta gurasoen artekoa) kontutan hartzen. Horregatik, ikertu beharrekoa da ere bai biolentzia matxistaren espektrotik ea seme edo biloben rola gauzatzen duten gizonak diren, txosten honetan erregistratutako bost kasuek erakusten duten bezala (ID 552, 517,538, 1149 eta 1226).

Lapurretak eragindako feminizidioei dagokienez (ID 583, 945 eta 1036), komunikabideek argitaratutako informazioa eskasagoa izaten da, eta joera testuingurutik zeharo kanpo aurkeztea da. Azken kasuan, hain da informazioa eskasa, ezin dela jakin susmagarririk identifikatu ote zen. Trataera hau familia arteko feminizidioek jasotzen dutenen antzekoa da, hauen informazioa eskasa da biolentziaren jatorria ulertzeko.

2013an erregistratutako feminizidio ez intimoak (ID 903) atentzio gehiago lortu zuen; nagusiki, auzokideek biktimarekin eta gaizkilearekin mantentzen zuten harremanagatik, eta instituzio eta inguruko komunitateak erasotzaileak zuen misoginia kriminala ezagutzeagatik.

Azkenik, atentzio berezia merezi du hedabideek prostituzio feminizidioei egindako trataerak, analisi honetako hurrengo zatian garatuko denak.

15.11. KASU PARADIGMATIKOA: PRENTSA OKERTU ZUEN “SHAOLIN” MAISU FALTSUA

“Shaolin maisu faltsuaren” kasua da kobertura mediatikoko kasu paradigmatico gisa nabarmentzen dena. Telebistako programetan parte hartu zuen Arte martzialetako aditu bezala, baina bere iragana eraitsia izan zen prostituzioan aritzen ziren bi emakumeren hilketagatik ikertua eta kondenatua izan zenean, 2013an. 47 urterekin erabaki zuen gizon honek bi emakumeren bizitzarekin amaitzea denbora tarte txikian. Auzokideek Maureen Ada Otuya jabetzan zuen gimnasia berrira sartzea behartzen ari zela ikustean atxilotu zuten; eskuak lotu zizkion bertan eta torturatu egin zuen. Orduan aurkitu zituzten Jenny Sofía Rebollore gorpuzkiak. Neskaz honetaz dakiguna da, nahiz eta medikuntza ikasi, prostituzioan aritzen zela Estatu espainiarrean, bere familiak jakin gabe, bere jatorriko herrialdean semea galdu eta gero. Ez dago jakiterik Ada Otuyak bide bera hartzera zerk bultzatu zuen.

Morbositatez kontatutako kasuen inguruko albisteak bere profil kriminal sadikoan eta eszentrikoan zentratu ziren; ez prostituzio feminizidioen biktimek berarengandik jasandako indarkeria matxistan. El Paisek, adibidez, sentsazionalismoa aukeratu zuen eta pertsonaiaren inguruaz mintzo zen “jarraitzaileen ejertzitza”⁴² bezalako adierazpen neurritz gaineckoekin, eta ezertarako balio ez duten adjektibazioekin: “Bi aldiz bizi izan zituen sexu eta odolezko orgia berberak. Eta, akaso, bere karrera kriminal zoroarekin jarraituko luke Ertzaintzak ez balio amaiera jarri infernurako jaitsiera beldurgarriari”.

Kasu honetan, bereziki kezagarria da aztertutako edukietan agertzen ez den informazio ugaria, nahiz eta erredakzioen esku egon. Horien artean, funtsezko datu bat: gaizkilearen eta biktimaren arteko erlazioa. Izan ere, Juan Carlos Aguilarrek hilketak gauzatzerako orduan ezaugarri espezifikoak zituzten emakumeak aukeratzen zituen, haiekin zuen harremana prostituzio bezeroarena zen, kasuaren berri eman zuten hedabide gehienek aipatu ez zuten informazioa. Bi emakumeak beraiei familia eta jatorrizko herrialdetik urrun zeuden, biak aritzen ziren prostituzio lanetan gune berean, eta biek bizi zuten egoera ekonomiko prekarioa. Testuinguru honetan, gaizkilea pribilegio egoeraz baliatu zen, eta biktimak menpean hartu zituen gailentasun fisiko ukaezina eta misoginia hilgarria erakutsiz.

Ikusi 97. eta 99. orrialdeen arteko grafikoak.

45 dira kasu honen inguruan jasotako albiste eta erreportajeak, Jenny Sofíari erreferentzia egiten diotenak, eta Maureen Adari buruzko informazioa eskaintzen dutenak. Horietatik hamabostek argitu zuten Juan Carlosek harremana izan zuela bi emakume horiekin bezero gisa prostituzio testuinguruan. Informazio batek ere ez zuen aipatu, ordea, bezeroaren profila dela gaizkileen artean ohikoena prostituzio feminizidioetan: 2010 eta 2015 artean Estatu espainiarrean erregistratutako 31 prostituzio feminizidiotik 17 prostituzio bezeroek gauzatu zituzten⁴³.

Euskaraz, 16 dira bi kasu hauei erreferentzia egin dioten edukiak, % 17,7, gaztelerazkoak % 16,1 diren bitartean. Feminizidioaren teoriak azpimarratzen du hilketak gaizkilearen ikuspuntutik tratatzeko beharra, nork hartu duen biolentzia egiteko erabakia nabarmentzeko. Horregatik da garrantzitsua albisteetan biktima eta gaizkilearen arteko harremana zehaztea.

Feminizidio bikoitzaren kasu hau, beste alde batetik, ez zen inolako biolentziarekin deskribatua izan gazteleraz analizatutako 45 edukitik 33tan. Horrek esan nahi du edukien % 60ak saihestu zuela hilketen jatorri matxista eta misoginoa. Euskaraz, zifra hori % 25ekoa da, 16 edukietatik lauk lotzen baitute krimena “biolentzia matxistarekin”; eta beste hainbestek “genero indarkeriarekin” edo “terrorismo sexistarekin”, besteak beste. Pilar López Dízek azaltzen duen bezala, aurreko hamarkadetan emakumeek jasaten zuten arazoaren ikusezintasuna, bere pribilegio eta mantenuen alde borrokatzeko beharra zuen sistema patriarkalean oinarrituta zegoen. “Sistema patriarkalak emakumeei hiritar libreak izateko behar zuten informazioa lapurtu zien” (López Díez, 2007, 2.or).

Bi prostituzio feminizidioen prozesu judizialari dagokionez, azpimarratu beharra dago prentsa digitalak erakutsitako krimenaren alderdi latzenak errepikatze gogoa, hilketaren xehetasunetan zentratuz eta albo batean utziz Jenny eta Ada biolentzia matxistaren aurrean

42 Duva, Jesús (14.08.24) El infierno del monje shaolín. El País. Hemen eskura: <http://bit.ly/1rzvkvW>

43 Feminicidio.net: “Feminicidio en el sistema institucional del Estado español. Víctimas 2010-2015: 31 mujeres asesinadas”. Hemen eskura: <http://bit.ly/1XfqlAT>

ahultasun posizioan kokatu zituzten faktoreak. Honek, hipersexualizatutako emakumeen irudiekin batera, alde batetik, erredakzioetan sentikortasun falta erakusten du; eta bestetik, gutxi edo gaizki testuinguratutako edukietan generoaren ikuspuntu eta borroka feministaren inguruko informazio eta konpromisu falta. Gazteleraz erregistratutako 45 edukitik Pikara Magazinak argitaratutako zortzi argitalpenek soilik gehitzen dute iturri espezializatuen informazioa. Horri testuingurua azaldu duten beste hainbat eduki erantsi behar zaizkio: El Paisena argitalpen bat eta El Mundoren bi. Hala, zifra ofizialen berri eman duten edukiak % 18,8 izan dira. Euskaraz analizatutako argitalpenetan, berriz, zifra ofizialen azalpenetatik harago joan dira Berriako lau eduki eta Argiako beste bi. Guztira, % 37,5, hain zuzen.

Laburbilduz, kasu honetako kobertura mediatikoak erakusten du oraindik bide luzea egin behar dela informazio trataera pluralera iristeko, misoginiatik zein hizkuntza sexistatik aske egongo dena, bestela, indarkeriaren jatorriaren ikusezintasunaren piztia elikatzen da, eta emakumea eta gizona estereotipatzen duten problematikan sakondu.

15.12. ONDORIOAK

Txosten honetan 2010 eta 2015 artean Euskadin eta Nafarroan Feminicidio.net-ek erregistratutako feminizidioen eta eraildako beste emakumeen kasuen inguruan online bidezko komunikabideek landutako eduki informatiboak analizatu dira.

Ikerketa honen helburuetako bat indarkeria matxistaren inguruko trataera mediatikoari buruzko, gomendio batzuk kontsultatzea eta izendatzea izan zen; elkarte, federazio, instituzio eta beste erakunde batzuek luzatutakoak; eta horrez gain, datu basean jasotako informazioarekin kontrastatzea. Hizkuntzaren erabilpenaren, material grafikoaren eta garrantzizko informazioaren aukeraketaren azterketarik gabe, indarkeria matxistaren trataera mediatikoak ez luke onartuko emakumeen giza eskubideen inguruko aurrerapenik. Hain zuzen, erabilitako gidek, eskuliburuak eta dekalogoek indarkeria matxista gizarteko arazo bezala testuinguratzearen beharra azpimarratzen dute. Horretarako, kazetariak “gizarte errealtatean sexismoak nola eragiten duen” behatu eta kontatu beharko dute, zeharkako ikuspegi batetik, eta gai asko landuz (Begira-Emakunde, 2016, 16.or).

Kausa honekin konprometituko diren hedabide gehiago egotea lortzeko ibilbidean, funtsezkoa da gauzak bere izenarekin deitzea. Bistakoa da termino zehatzak erabiltzeko saiakera egin dutela gaizkileak biktimarekin erlazio argia zuen feminizidio intimoetako kasuetan. Komunikabideek ez dute biolentzia matxista bere marko teorikoarekin uztartzen eta ez dituzte horrela kalifikatzen ezaugarri matxistak edo misoginoak dituzten feminizidioak, adibidez, prostituzioak eragindakoak. Hau segur aski, erredakzioetako eta erdi-mailako arduradunen generoaren inguruko perspektiba faltaren ondorio da, oinarritzko teoriaren ezagutza ezarena. Ezagutza falta honek, publikatzeko azkartasunarekin lotuta, zifra ofizialetatik harago, adituen aldetik testuingururik gabe argitaratutako edukien ugaritzea eragin du. Informazioa oraindik ere hilketen edo biktima biktimago bilakatzen duten justifikazioek markatzen dute.

Biolentzia matxistaren inguruan komunikabideetan irudikatzen den ikuspegia zabaltzeko, beharrezkoa da prozesu judizialaren jarraipena egitea gaizkilea prebentziozko

espetxeratzean sartzen den unetik epaiketa amaitu arte, sententzia eman arte. Zentzu honetan, datuek erakusten dute analizatutako datuen % 50ak bakarrik egiten diola erreferentzia feminizidio edo hilketaren lehenengo informazioei, eta hauek, krimena informazioa osatu gabe eta testuingurua aipatu gabe irudikatzeko joera erakusten dute.

Gainera, lekukoen, auzokideen zein familia artekoen adierazpenek edota prozesu judizialean kazetariak jasotako zatiek estereotipo sexistetan eta krimenaren justifikazioetan erortzeko joera dute, eta inoiz ez dira gaian adituak direnen balorazioekin kontrastatzen. Halaber, material grafikoa desagokitzat jo da gazteleraz 29 alditan eta euskaraz bitan. Horien artean aipagarriak dira atsekabetuta dauden biktimen familiakoen argazkiak edo ikerlariek gorpua mugitzen duten uneko irudiak. Interneten *klik*-aren aldeko borrokak eragin du biolentzia matxistaren prebentzioarekin sentikortasun gutxi duten komunikabideak sentsazionalismoan, berehalakotasunean eta morboaren bilaketan erortzea, kazetaritza lanbidearen printzipio deontologikoen kontura.

Azkenik, garrantzitsua da azpimarratzea komunikabideak gizartearen isla eta maisu direla, eta horregatik bihurtzen dela indarkeria matxistari ematen dioten trataeraren jendearen iritzi. Erronkak kazetaritza egunerokoan prebentzioaren eta indarkeria matxistaren desagerpenaren aldeko borrokan konprometitzea izaten jarraitzen du, dagokion erantzukizun sozialarekin.

15.13. GRAFIKOEN AZALPEN ZEHATZAK

GRAFIKOA. 2010-2015 artean Euskadin eta Nafarroan izandako feminizidioen eta beste erailketen trataera mediatikoa gazteleraz

Grafiko honen helburu nagusia hilketa matxistaren aurkezpena deskribatzea da, publikatzen duten hedabideek ezartzen duten testuingurua, hain zuzen. Hau da, feminizidioei buruzko albisteak zein daturekin osatzen diren identifikatzea, gertakari isolatu gisa ez aurkezteko helburuarekin, biolentzia estrukturalaren zati gisa baizik. Alde batetik, hilketa zalantzarik deskribatu bada, sozialki onartu den eta marko estruktural batean kokatzen duten azalpenetatik urrun, patriarkatua bezala; arazoaren iturria ikusezin bihurtzen ari da. Bestetik, iturri espezializatuak kontsultatzeko ahaleginak informazio osatuago eta testuinguratuago baten aldeko apustua suposatzen du. Bestalde, datuek ondorio argia erakusten dute: feminizidio eta emakumeen beste hilketen inguruko eduki gehienak isolatuta agertzen dira perspektiban kokatzen dituen iturri edo datuetatik; kultura matxista eta misoginoak hilketen hazitegi gisa identifikatzen dituztenetatik.

Informe honetako aztertutako 44 hedabideetatik, 30ek erakusten duten edukiaren % 100 isolatua dagoela biolentziari buruzko edozein azalpen ematen duten kanpoko iturrietatik. Halaber, ez zuten aipamenik egin Lege Integralaren markoan genero indarkeriaren hildakoen zifra ofizialen inguruan, eta ez zieten ahotsik eman elkarte edo material adituak diren iturriak. Testigantzek sakontasuna eta ikuspuntua ematen diote hilketaren informazioari, nahiz eta gertaera hauetan aurkeztutako informazioak eskusiboki kasuari buruz hitz egiten zuten.

Zifra ofizialen aipamena iturri nagusi gisa erabiltzeari dagokionez, alor honek, beste edozein iturri alboratuz, Espainiako Gobernuak Osasun ministerioak, Gizarte Zerbitzuak


eta Berdintasunak aztertutako estatistikak aurkezten dituzten edukiak zenbatzen ditu. Eduki hauek, izendatutako kasuari buruz informatzeaz gain, zifra hauen aipamenak sartzen dituzte, feministen aldarrikapenei bide eman gabe, eta adituen iritzia kontsultatzeari muzin eginda. Kasutik urruntzen den informazio iturri bakarra zifra ofizialak dira, gauzatutako biolentziaren ikuspegi pixka bat badute, ofizialtasunaren kontrapuntua behar dutenak. Hedabide horien artean deigarriak dira El Pais, El Mundo eta Diario Vasco; zifra ofizialak zazpi, sei eta bost edukitan aipatzen dituzte bakarrik, hurrenez hurren. Hiruen artean, biolentziaren jatorria azaltzeko estatistika hauek bakarrik erabiltzen dituzten argitalpenen % 60 osatzen dute.

Adituen iturriak, nagusiki, Pikara Magazinek kontsultatzen ditu: publikatutako zortzi edukiek testuingurua txertatua zuten, eta mahai-gainean jarritako kasuan erabilitako biolentziaren ikuspegi zabalago bat eskaintzen dute. Horrez gain, El Correok zifra ofizialetatik harago doazen adituen iturriak erabiltzen ditu bi argitalpenetan (datu baseak eskaintzen dituen edukien % 11,32). Gertaera hauetan, kasuaren inguruko zehaztasunaren edo ondorengo ikerketen edukiak, zifra ez ofizialetatik harago doaz, hiltzaileak baliatutako biolentziaren jatorriaren azalpen zehatzago bat eman nahi dute. Beharrezkoa da biktimen elkarteek, kolektibo feministen edo gaian adituak diren iturrien kontsulta indarkeria matxistaren informazioa modu arduratsu batean zabaltzeko.

GAZTELERAZKO PRENTSA DIGITALA: 2010-2015 ARTEAN TESTUINGURATUTAKO FEMINIZIDIOEN INFORMAZIOA

Feminizidioen eta zifra ofizialen argitalpenen informazioa; testuingurua zehazteko iturri espezializatuekin hedabide bakoitzak publikatutako albiste eta erreportaje kopurua

- Iturri nagusi gisa zifra ofizialen erabilera
- Iturri espezializatuekin testuinguratutako edukia
- Testuingururik gabeko informazioa



GRAFIKOA 2010-2015 artean Euskadin eta Nafarroan izandako feminizidioen eta beste erailketen trataera mediatikoa euskaraz

Feminizidioen eta emakumeen beste erailketen inguruko informazioaren trataera mediatikoa euskaraz eta erdaraz konparatzeko helburuarekin, albisteei aplikatutako metodologia bera ihardetsi zen euskarazko edukietan.

Nabarmendu behar da gaztelerazko edukien analisisan sortutako erantzun posibleetako bat ez dela ez dela agertzen euskaraz idatzitako edukietan. Testuinguruaren zehaztapena ez da hizkuntza honetan ekoiztutako albisteen kasu batean ere ez zifra ofizialetara mugatzen. Datuak erabili diren edukietan ez da izan iturri bakarra krimenaren perspektiba areagotzerako orduan. Hau da, euskarazko edukiak gaztelerazkoekin alderatuta, ofizialtasun gutxiagokoak izateko joera dute.

Nahiz eta Alea.eus-en albisteen % 100ak testuingururik gabeko edukiak erakutsi, kasu batean bakarrik egin diote ekarpena datu baseari. Argiak jarraitzen du, zazpi eduki txertatuz, baina horietatik bik soilik ez dute hilketaren testuingurua aipatzen (% 28,6).


Beste muturrean daude hedabide gehienak, haien edukien % 100 testuinguruan kokatzen dituztenak (nahiz eta datu baseari egindako ekarpena baxua izan, albiste kopuru txikia baita). Konparaketa eginez gero, esan daiteke euskarazko hedabideetan esfortzu handiagoa egiten dela ikuspuntu konprometitu batetik gertakariak kontatzeko, hots, haien helburua ere medioen biolentzia matxista bere forma guztietan kondenatzea dela, ezaugarri estrukturala nabarmentzea.

Alor honetan, testuingurua zehazten den albiste gehien aurkeztu dituen medioa Berria da, 17 edukirekin (guztien % 62,96). Hauek datu basean ekarpenen % 30,9 ordezkatzeko dute. Argiaren bost edukirekin batera, zerrendara gehitzen dira eduki bana argitaratu dituzten hedabideak (Hitza, Uztarria, Bilbobranka, Hiruka eta Alea). Orotara, datu basean aztertutako 90 edukitik 27 dira.

EUSKARAZKO PRENTSA DIGITALA: 2010-2015 ARTEAN TESTUINGURUTUTAKO FEMINIZIDIOEN INFORMAZIOA

Feminizidioen eta zifra ofizialen argitalpenen informazioa; testuingurua zehazteko iturri espezializatuekin hedabide bakoitzak publikatutako albiste eta erreportaje kopurua

- Iturri espezializatuekin testuingurututako edukia
- Testuingururik gabeko informazioa



GRAFIKOA. 2010 eta 2015 arteko prozesu judizialen estaldura mediatikoa.

Komunikabideek zein puntura arte aurkezten duten feminizidioak suposatzen duen prozesu osoa neurtzeko helburuarekin, hainbat alor aztertu dira. Alde batetik, ea ikertutako edukiek prozesu judizial osoaren berri ematen duten behatu da, hau da, susmagarria justiziaren eskutara pasatzen den unetik sententzia ematen den momentura arte. Bestalde, auzipetuaren kontrako sententziaren epaiaren berri eduki hauetatik zenbatek zabaltzen duten neurtu da.

Datu honek ezinbesteko garrantzia du feminizidio eta emakumeen bestelako erailketetan egiten den trataera mediatikoaren analisian. Izan ere, informazio hau gabe, delitua egiteak dakartzan ondorioak ikusezin bihurtzen dira. Honekin ez da bakarrik inpunitate irudia zabaltzen. Horrez gain, sentsazionalismorako joera bat adierazten da, lehen informazioak nahasiak eta testuingururik gabeak izaten baitira.


Datu hauen analisian prozesu judiziala ez zegoela hasita kontutan hartu da, hortaz, hedabideek ez dute izan horri buruz informatzeko aukera. Alabaina, beste eduki batzuk ere neurtzen dira, prozesuaren zatiren baten inguruan informatzeko parada izanda baztertu egin dutenak.

Gaztelerazko argitalpenetan prozesu judiziala 2011n jazotako feminizidio eta emakumeen bestelako erailketei erreferentzia egiten zien edukien % 63,6an azaltzen zen. Gainontzeko edukiek prozesua kontuan hartu ez duten albisteen ehuneko bera dute, oraindik horri buruz informaziorik eskaini ezin zuten argitalpenena. Joera orokorraren salbuespen gisa, nabarmendu beharra dago 2015 urtea, izan ere, urte horretan jasotako argitalpen gehienetan ez zegoen posibilitaterik prozesu judizialaren berri emateko, erdibideko fasean zegoelako. 2012 eta 2010 urteek jarraitzen dute, modu nabarmenago batean, zerrenda (% 54,1 eta % 48,3rekin, hurrenez hurren). 2012. urtea da hain zuzen, prozesu judizialari buruzko aipamenik egiten ez dien albisteen ehunekorik baxuena aurkezten duena (% 5,4).

Euskarazko argitalpenetan 2012an prozesu judizialaren aipamenik gabe publikatutako edukien ehunekoa % 0 izan zen. Datu oso baxua gainontzeko segida historikoari dagokionez, zifra baxuena 2014an eman baitzen: % 33,3. Aldiz, 2010ak adierazten du edukien erdiak baino gehiagok (% 53,1) ez zuela kontuan hartu informazioaren zati hau, 2013 eta 2015 urteen jasotako datuen antzera (% 40 eta % 50, hurrenez hurren). Susmagarria xedapen judizialera oraindik pasatu ez zen hilketen inguruan argitaratutako albiste kopuruari dagokienez, batez besteko ehunekoa % 13,33 izan zen. Alabaina, 2012an ehunekoa % 42,9ra heldu zen. Datu kontrajarria da, zeren prozesua albo batera uzten zuten albisteak % 0 izanik, gainontzeko portzentajea horren berri ematen duten argitalpenei dagokio (% 57,1). Hau da, prozesuaren aurretiko edukien zenbateko handiena duen urtea, prozesu judizialari jarraipena egiten dioten argitalpenen ehuneko handiena dagoen urtea ere bada.


2010 ETA 2015 ARTEKO FEMINIZIDIOEN PROZESU JUDIZIALAREN JARRAIPIEN MEDIATIKOA

Prozesu judizialari buruzko informazioa duten albiste eta erreportaje kopurua gazteleraz




2010-2015 ARTEKO FEMINIZIDIOEN SENTENTZIEN OIHARTZUN MEDIATIKOA

2010-2015 artean sententzia barne hartzen duen informazioaren jarraipena egiten duten albiste eta erreportaje kopurua gazteleraz



2010 ETA 2015 ARTEKO FEMINIZIDIOEN PROZESU JUDIZIALAREN JARRAIKEN MEDIATIKOA


Prozesu judizialari buruzko informazioa duten albiste eta erreportaje kopurua euskeraz



2010-2015 ARTEKO FEMINIZIDIOEN SENTENTZIEN OIHARTZUN MEDIATIKOKOA

2010-2015 artean sententzia barne hartzen duen informazioaren jarraipena egiten duten albiste eta erreportaje kopurua euskaraz

- Oraindik ebatzi gabeko sententzia
- Sententziaren informaziorik ez
- Sententziaren inguruan informatu dute



GRAFIKOA. Biktima eta hiltzailearen arteko harremanaren ezarpena.


Biktima eta hiltzailearen arteko harremana ez bada argi adierazi feminizidio bati buruzko albistean, hilketaren gako nagusia baztertua izaten ari da. Gizonaren eta emakumearen artean ezarritako botere erlazioek, beraien arteko harremanatzeko modua zehazten dute; eta, azken instantzian, emakumeek gizonengandik pairatzen duten indarkeria modua.

Alor hau ikertzeko ezarritako irizpideek aintzat hartu dute hauen arteko erlazioa deskribatzerakoan erabilitako zehaztasuna. Gazteleraz, hedabideen gehiengoak biktima eta hiltzailearen arteko erlazioa zehazten du. Nola 2014an hala 2015ean, erlazioa ederki zehaztuta zegoen argitalpen guztietan. Hala eta guztiz ere, 2013. urtea salbuespena da alor horretan: “shaolin maisu faltsuaren” kasu paradigmaticoagatik; prostituzioan zebiltzan bi emakume hil baitzituen Bilbon. Bi kasu hauetan, biktima eta hiltzailearen arteko erlazioa argitzen ez duen edukien ehunekoa % 31,1 da. Bestalde, urte berean, lapurretak eragindako erailketa bat gertatu zen Donostian; hiltzailea hilabete pasa arte ez zuten atxilotu; eta, beraz, lehen informazioetan ezin izan zen baieztatu biktima eta hiltzailearen arteko erlazioa.

Euskaraz aztertutako edukietan, Getariako Amaia Azkueren hilketak markatzen ditu 2011ko estatistikak, 17 urteko gazte batek erail baitzuen. Hiltzaileak konfesatzeko behar izan zituen bost hilabeteek eragin zuten bost argitalpenetan ezin zehaztea elkar nola ezagutu. 2013an “shaolin maisu faltsuak” egindako hilketen berri eman zen eta, 14 edukitan, biktima eta hiltzailearen arteko erlazioa albo batera geratu zen (azken erregistroa ID 1036 zuen kasuan jazo zen). Gaztelerazko analisiekin konparatuz, euskarazko trataera mediatikoak ez du hainbeste nabarmentzen feminizidio eta bestelako emakumeen erailketetako biktima eta hiltzailearen arteko erlazioa. Nahiz eta harremana zehaztu 2010ean izandako feminizidio eta hilketei buruzko edukietan kasuen % 96,88k, datua ez zen hobetu hurrengo bost urteetan. 2011 urteak biktima eta hiltzailearen arteko erlazioa argitu ez duten edukien % 63,64 utzi du, eta % 40 da portzentajea 2013an. Batez beste, argitalpenen % 31,11k ez zuen argitu nola ezagutu zuten elkar biktimak eta hiltzaileak, ezta zein motatako erlazioa mantentzen zuten ere.


GAZTELERAZKO PRENTSA DIGITALA: FEMINIZIDIOAREN BIKTIMA ETA HILTZAILEAREN ARTEKO ERLAZIOARI BURUZKO INFORMAZIOA

- Oso argi ez dagoen harremana
- Hiltzaile ezezaguna
- Zehaztu gabeko harremana
- Zehaztutako harremana



EUSKERAZKO PRENTSA DIGITALA: FEMINIZIDIOAREN BIKTIMA ETA HILTZAILEAREN ARTEKO ERLAZIOARI BURUZKO INFORMAZIOA

■ Zehaztu gabeko harremana
■ Zehaztutako harremana



Dekalogoak, eskuliburuak eta gidak

- Nazioartekoak

- 1 AMÉRICA LATINA Y EL CARIBE GENERA IGUALDAD (2011): *Manual de Género para Periodistas. Recomendaciones básicas para el ejercicio del periodismo con enfoque de género*. Hemen eskura: <http://bit.ly/1jxLbij>
- 2 FEDERACIÓN INTERNACIONAL DE PERIODISTAS (2008): *Protocolo de la FIP para el cubrimiento de la violencia contra las mujeres*. Hemen eskura: <http://bit.ly/2fo2J7w>
- 3 NATIONAL UNION OF JOURNALISTS (2013): *NUJ guidelines for journalists on violence against women*. Hemen eskura: <http://bit.ly/2f22ddv>
- 4 ZERO TOLERANCE (2015): *Handle with care: a guide to responsible media reporting of violence against women*. Hemen eskura: <http://bit.ly/2eNuYKW>

- Estatukoak

- 1 FEDERACIÓN DE ASOCIACIONES DE PERIODISTAS DE ESPAÑA (2006): *Tratamiento informativo de la violencia doméstica*. Hemen eskura: <http://bit.ly/2efJjz5>
- 2 INSTITUTO OFICIAL DE RADIO Y TELEVISIÓN (2002): *Manual de urgencia sobre el tratamiento informativo de la violencia contra las mujeres*. Hemen eskura: <http://bit.ly/2fawHa3>
- 3 INSTITUTO OFICIAL DE RADIO Y TELEVISIÓN ESPAÑOLA (2008): *Manual de Estilo de RTVE. Directrices para los profesionales*. Hemen eskura: <http://bit.ly/1zY37Js>

- Lurralde edo autonomia mailakoak

- 1 BEGIRA – EMAKUNDE (2016): *Código Deontológico y de Autorregulación para una Comunicación y Publicidad no sexistas en Euskadi*. Hemen eskura: <http://bit.ly/1QcV5Di>
- 2 CANAL SUR TELEVISIÓN (2012). *Código de tratamiento informativo de CDTV para la elaboración sobre violencia machista*. Hemen eskura: <http://bit.ly/2f21vxl>
- 3 CONSEJO AUDIOVISUAL DE ANDALUCÍA (2016): *Guía para el tratamiento informativo de la violencia de género*. Hemen eskura: <http://bit.ly/29UoAw5>
- 4 CONSELL DE L'AUDIOVISUAL DE CATALUNYA (2009): *El tratamiento de la violencia machista en los medios de comunicación*. Hemen eskura: <http://bit.ly/2fxGGdT>
- 5 INSTITUTO ANDALUZ DE LA MUJER (2003): *Medios de comunicación y violencia contra las mujeres*. Hemen eskura: <http://bit.ly/2fo1sx6>
- 6 JUNTA DE CASTILLA Y LEÓN (2006): *Código para el Tratamiento Informativo de la Violencia de Género*. Hemen eskura: <http://bit.ly/2esu57m>

- Autorregulazioa

1 LA MAREA (2015): *Decálogo de propuestas para el tratamiento informativo de la violencia machista*. Hemen eskura: <http://bit.ly/2eUX982> [Atxikitutako medioak: Ctxt.es, Diagonal, Eldiario.es, Infolibre.es, La Marea, Periodistas-es.org, Publico.es eta TMEX]

2 PÚBLICO.ES (2015): *Decálogo de violencia de género de Público*. Hemen eskura: <http://bit.ly/1MUdL8t>

Erreferentzia bibliografikoak

1 LÓPEZ DíEZ, P. (2007): *Género y Comunicación*. Editorial Fundamentos. (73-101.or) Hemen eskura: <http://bit.ly/2eNwKvx>

2 LÓPEZ DíEZ, P. (2008). *Feminismo/s*, (95-108.or). Hemen eskura: <http://bit.ly/2fo49i4>

3 MEYERS, M. (1996). *News coverage of violence against women: Engendering blame*. Sage Publications. Hemen eskura: <http://bit.ly/2f6dSWC>

4 VARONA, D., eta GABARRÓN, N. (2015): *El tratamiento mediático de la violencia de género en España (2000-2012): agenda setting y agenda building*, Análisis del Derecho aldizkariko 2. alerako idatzia (16-50.or). Hemen eskura: <http://bit.ly/2efP2ES>

5 YÉBENES ALBERCA, J. (2005): *Recomendaciones para las buenas prácticas en la información sobre violencia de género*. Hemen eskura: <http://bit.ly/2f611nS>

Metodologia

Txosten hau 2010 eta 2015 artean Euskadin eta Nafarroan izandako feminizidio eta emakumeen beste hainbat hilketen berri eman duten komunikabideek Interneten argitaratutako informazioarekin egin da.

Hemeroteka

Feminizidio.net-ek egindako feminizidio eta emakumeen bestelako erailketen erregistroak -eta horiei egindako jarraipenak- ahalbidetzen du hedabideek sarean argitaratutako edukien sailkapen kronologikoa, baita kasuen arabera ere. Gaztelerazko 279 eduki jaso dira, eta euskarazko 90; guztira tokiko, lurraldeko eta estatu mailako 59 hedabideetan argitaratu direnak.

Datu Baseak

Komunikabideek zabalduetako edukien analisi kuantitatibo eta kualitatiborako diseinatu da ikerketa honetako interesgarriak diren alor nagusiak biltzen dituen datu basea. Jakiteko:

- Feminizidioa edo hilketa gertatu zen urtea

- Geofeminicidio.com-en erregistratuta dagoen ID-a.
- Identifikatutako ID-aren PDF kopurua
- Krimena gertatu zen Autonomia Erkidegoa
- Web orriko edukien argitalpenen data, edo, kasuan kasu, azken eguneratze data.
- Edukia argiratua agertzen den hedabidea
- Lege Integraleko markoaren barneko genero indarkerien biktimen zifra ofizialak: Bai edo Ez.
- Gaizkilearen identifikazioa.
 - Bai: izena osorik agertzen denean.
 - Partziala: inizialak agertzen direnean.
 - Ez: identitatea ez denean ezagutzero ematen.
- Biktimaren identifikazioa:
 - Bai: izena osorik agertzen denean.
 - Partziala: inizialak agertzen direnean.
 - Ez: identitatea ez denean ezagutzero ematen.
- Ekintza nagusia titularrean edo hasierako esaldian aipatzea: Edukiaren hasieran hil-keta deskribatzen duen aditza edo ekintza. Adibidez, “hil”, “hilketa” edo “aurkitua”.
- Titularra edo hasierako esaldia: Aurreko alorra ateratzen den testu aipamena.
- Adituen edo biolentziaren testu inguratzea:
 - Bai: kolektiboen errebindikazioen berri ematen denean, zifra ofizialetik haratago, edo gaian aditua den pertsona baten iritzia erreproduzitzen denean.
 - Iturri ofiziala: genero indarkeriaren biktimen zifra ofizialen berri ematen denean soilik.
 - Ez: biolentziaren jatorri matxistaren gaineko azalpenik ematen ez denean.
 - Terminologia: Nola deskribatzen den biolentzia. Adibidez, “indarkeria matxista” edo “genero indarkeria”.
- Feminismoa eta Patriarkatua:
 - Bai: deskribatutako indarkerian jatorri patriarkal bati erreferentzia egiten zaio-nean edo hilketa kondenatzeko argudio feministak nabarmentzen direnean.

- Ez: gertaera estruktura patriarkalarekin zerikusirik ez balu bezala agertzen bada.
- Material grafikoa.
 - Ez: informazioari ez zaionean argazkirik edo bideorik eransten.
 - Egokia: Susmagarriaren, akusatuaren edo egile aitortuaren irudiak eta prozesu judizialean ateratako argazkiak daudenean, besteak beste.
 - Desegokia: Adibidez, atsekabetuta agertzen diren biktimaren familiakoen irudiak, ikerlariak gorpua mugitzen eta abar. Albisteari inolako informazio garrantzitsurik eskaintzen ez dion eduki mota oro, sentsazionalismo gradu minimoa duena.
- Hilketaren eragilea.
 - Bai: hilketaren zergatietako bat eskaintzen badu.
 - Ez: azalduzina den ekintzaren bat agertzen bada.
 - Biktima eta gaizkilearen arteko harreman argitua. Bai edo Ez.
 - Erasoaren justifikazioa: Eragilearekin ez konfunditzea. "Alkohola" ez da eragile bat.
- Prozesu judizialaren inguruan informatzen duten ala ez, akusatua justiziaren esku geratzen den momentutik aurrerako prozesu bezala ulertuta.
 - Bai
 - Ez
 - Ez (ezintasunagatik): xedapen judizialera pasako den akusaturik ez dagoenean.
- Sententzia: xedapen judizialari buruzko informazioaren berri amaiera arte ematen ote duten.
 - Bai
 - Ez
 - Ez (ezintasunagatik), sententzia oraindik ez denean igorri eta ezin dutenean honen berri eman. Partziala: Sententziari buruz informatzen denean, baina ez direnean aldaketen eguneraketak egiten.
- 016: informazioaren baitan nabarmendua dagoen edo ez.
- Erasotzailearen aurkako aurrekari, aurretiko salaketa edo zaintza neurrien existentziaren berri ematen duten edo ez.
- Albistearen esteka.

Analisiaren Softwarea

Tableau Publick softwarearen erabilpenak baimendu du datu basean jasotako informazioaren analisia. Aldagaien gurutzaketak ahalbidetu du Euskadin eta Nafarroan gertatutako biolentzia matxisten trataera mediatikoen zifrak eskuratzea.

Analisi honen helburu nagusiak kontuan hartuta, ikerketarako alor garrantzitsuak prozesu judizialei dagozkienak izan dira, biktimen arretarako telefonoen zabaltzea (016), eta hedabideek erabilitako terminologiaren analisia.

ANÁLISIS DE SENTENCIAS



16. 2010-2015 ARTEAN EUSKADIN ETA NAFARROAN JAZOTAKO FEMINIZIDIOEN ETA EMAKUMEEN BESTE ERAILKETEN SENTENTZIEN ANALISIAK

16.1. SENTENTZIEN ANALISIAK

Txostenaren atal honetan jada publikatuta dauden feminizidio kasuen sententziak aztertu dira, 2010 eta 2015 artean Euskadin eta Nafarroan burutuak. 18 sententzia dira (33 kasu dira guztira, % 58).

Falta diren kasuen artean emaitzen berririk ez dugun bi daude. 2011/06/16 (ID 691) kasuan sententzia egon beharko litzake, eta 2013ko beste kasu batean (ID 1036) igaro den denbora kontuan hartuta ere bai; baina ez dago horren konstantziarik, eta posiblea da argitu gabe geratzea egilea ez ezagutzeagatik ⁴⁴. Beste guztiak argituta edo argitzeko bidean daude: 2011/06/29 (ID 692) kasua Adingabeen Epaitegian ebatzi zen. Bestalde, hiltzaileak bere buruaz beste egin zuelako itxi ziren 2012ko kasu bat eta 2013ko bi (ID 959, 1020 eta 1022). Gainontzekoak duela gutxikoak dira, 2014 eta 2015 urteetakoak, eta oraindik ez da epaiketa gauzatu seguru asko.

Hau ikuspuntu feministatik egindako analisi juridiko-biktimologiko bat da. Helburua da erakustea txosteneko kasuetako epaiketen emaitzen panorama, interesa duten pertsonen ulertzeko moduan, legelariak izan ez arren. Horretarako deskribapen analisi bat egin da. Bizkortasunagatik saihestu dira, orokorrean, artikulua legalak; xehetasun tekniko-juridikoak ez direlako garrantzitsuak. Sententzien testuetarako sarbidea errazteko, CENDOG (Agiri Juridikoen Zentroaren) bidez jaso dira edukiak zehaztasun gehiago nahi duenarentzat.⁴⁵

Analisi honen bidez, hain hedatua, mingarria eta zaila den errealitate hau ikusgarri egin nahi da kasuak kondenatzen dituzten sententzien bitartez ere, guzti horrek kontzientzia eta gaitzespena zabaltzen lagundu dezan. (Atencio, Ed. 2015: 214). Guzti hau sententzietatik jasotzen den informazioa sistematizatzen duen taula batekin osatzen da⁴⁶. Eta hainbat auzi argitu nahi dira. Saiakera egiten da faktore arriskutsuak detektatzeko, gizarte ikuspuntutik kasuak zerk eragin zituen aztertzeko, sistemako hutsak azaleratzeko, zentzu zabalean: heziketa, osasuna, gizartea, asistentzia, egoera poliziala, legala, judiziala... zerk eragin zuen emakume hauen feminizidioa. Era berean, jakin nahi da instituzioek zer nolako erantzuna eman zieten aurretiko egoerei (kasuan kasu eta konpetentzien arabera), tragedia igarri zezaketelakoan. Dударik gabe, interesgune da feminizidioei eta emakumeen

⁴⁴ Emaitza ezagutzen ez den bi kasuei buruzko informazioa eskatu dugu, epaiketarik egon zen edo kasuak artxibatu ziren jakiteko asmoz, BAS eta Eusko Jaurlaritzako Zuzenbide Zuzendaritzaren bidez eta Dekanoen Epaitegian ere. Eta horrekin batera, organo judiziala eta sententziaren zenbaki eta data (babestutako datu pertsonalik ez). Informazio hau ukatu digute argudiatuz soilik biktimaren senide zuzenei eman diezaieketela.

⁴⁵ Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren jurisprudentzia bilatzailea (CENDOJ).

⁴⁶ María del Mar Daza Bonachelak eta Isabel E. Vélez Ortegak egina.

FEMINIZIDIOEN SENTENTZIEN ANALISIKO ADIERAZLEAK

• Datu orokorrak

- Kopurua (ikertutako sententziak)
- Sententzia (justizia erakundea, zenbakia eta data)
- Epaia (bai/ez)
- Feminizidio mota
- Bada aurretiko salaketarik?
- Hiltzailearen adina
- Biktimaren adina
- Biktima eta hiltzailearen arteko harremana
- Sexismo linguistikoa¹
- Ikuspegi multi/transdiziplinarra²
- Genero ikuspegia
- Zigor kalifikazioa (kondena)
- Bada adostasunik?
- Bada akusazio partikularrik?
- Bada herri-akusaziorik?
- Erantzukizun kriminalaren zirkunstantzia aldarazleak
- Elkarrekin seme-alabarik dute?
- Askatasuna nagusiki mugatzen duen zigorra/neurria (iraupena, mota)
- Askatasuna osoki mugatzen duen zigorra/neurria (id)
- Beste zigorrak
- Erantzukizun zibila (guztira)

• Erantzukizun zibila

- Zenbakia
- Biktimarekin/egilearekin onuradun harremana
- Zuzeneko/zeharkako biktima
- Onuradunaren adina
- Onuradunaren sexua
- Onuradunaren kalteak
- Onuradunaren kalte ordaina
- Bada 35/95 Legearen laguntzarik?

• Zirkunstantzia aldarazleen xehetasunak

- Zenbakia
- Feminizidio mota
- Defentsak alegatutako gaixotasun mentala (sententzian prezatua)
- Substantzia psikoaktiboen abusua (sententzian baietsia)
- Ondorioa (sententziaren epaiaren arabera)
- Zirkunstantzia aldarazleak

• Biktimizazio feminizidaren kalteberatasunean eragiten duten zirkunstantzia edo faktoreak

- Aurretiko biolentzia
- Ohiko biolentzia
- Hiltzailearen gaixotasun mentala
- Biktimaren desgaitasuna
- Hiltzailearen adina
- Biktimaren adina
- Hiltzaile etorkina
- Biktima etorkina
- Pobrezia
- Hiltzailearen alkohola/drogak
- Biktimaren alkohola/drogak

¹ Testuan genero diskordantzia kasuak soilik erregistratu ditugu sexismo linguistiko gisa (Adb.: "la médico"). Ez dira aintzat hartu deitzaile maskulino generikoak ez direnak.

² Auzitegi-Medikuntzak prozesuari egindako ezinbestekoak eta saihestezinak diren datuen ekarpenetik harago.

beste erailketei zigor sistemak emaniko erantzuna; bai egindako delituak zigortzean eta baita biktimekiko babes edo ordain neurrien alorrean ere. Ildo beretik, feminizidioaren erantzun penal zorrotzaz harago, jakin nahi da justiziak aztertu eta erantzuten ote dituen bestelako delituekin osagarriak diren egoerak, batez ere, feminizidioaren kausa diren ohiko indarkeriak; bereziki, feminizidio intimoen kasuak.

Genero arrazoiengatik gauzatutako emakumeen erailketa bortitzen ikerketen Latinoamerika-ko Protokolo Ereduak (feminizio/feminizidio)⁴⁷, OACNUDHk⁴⁸ eta ONU Mujeresek egina (Protokolo latinoamerikarraren aurrean) honakoa berresten du: *“Feminizidioak ezin dira ikusi biolentzia matxistaren isolatutako edo noizbehinkako kasu gisa [...] Esperientziak ohartarazten du feminizidioa, bereziki eremu pribatuan gertatzen dena, naturalki elementu bereizgarriak dituen etengabeko biolentziaren gailurra dela askotan”* (NBGEEGKB, 2014: 100).

Ildo hauetan proposatutako gaiak analizatzea orientazio gisa baliagarria izan daiteke jakiteko zertan ari diren egiten huts instituzioak eta gizarte eragileak, edo zertan eragin daitekeen. Halaber, biolentzia matxistak eragozteko zer aldatu behar den jakiteko balio dezake; gizarte arduratsu guztiek egin beharreko ezinbesteko lana, bereziki Estatuek eta Administrazioek. Aipatutako feminizidioen ikerketen *Protokoloak* honakoa baieztatzen du:

“391. Emakumearen aurkako indarkeriaren forma guztietarako prebentzio politikak. Ezinbestekoa da Estatuek [...] feminizidioak prebenitzeko neskaila eta emakumeen aurkako biolentzia forma guztien prebentzio programak sortzea, garatzea eta indartzea. Politika hauek, Estatuko dependentsia guztien hitzarmena eduki behar dute eta zuzenduak egon behar dira biolentzia hilgarriaren arriskuaren ezabapenera, emakumeenganako arreta bide kritikoen sorkuntzara, aurrez detektatzeko neurrien ezarpena edo estatuko agentzien babesa bilatzen duten biktimen heriotza arriskuaren baloraziora. Eraginkortasuna bermatzeko epe labur, ertain eta luzean; emaitzak ebaluatzeko aukera ematen duen adierazleen sistema bat eraiki behar da”.

Eta jarraitzen du:

“393. Beharrezkoa da giro egokia eta kultura judizial eraginkor zein efektibo bat sortzea gertakarien argipena ziurtatzeko; zeharkako biktimen, familia kideen eta oro har gizartearen egia eskubidearen exigentzia asetzeko; ekintzaren erantzuleak zigortzeko, biktimak osoki indartzeko, eta antzeko ekintzak berriro ez errepikatzeko ziurtasuna edo neurriak ezartzeko. Aipatutako giroa sortzeko babes garrantzitsua ekar lezake jendartearen emakumeen kontrako biolentzia praktikak indartzen dituen baloreei buruzko eztabaida publiko bat emateak, praktika horiek modu indartsuan gaitzesteko beharra azaleratu, eta behin betiko erauzteko. Guzti hori herriarren belaunaldi berrien heziketa prozesuetan transmititu behar da”.

Behar horretatik atera da analisi hau, eta eztabaida publikoari zein gizarte hezkuntzari lagundu nahi dio, mundu justuago baten eraikuntzari ekarpen txikia eginez modu honetan.

47 Nazio Batuen Erakundeak emakumeen aurkako muturreko indarkeriaren lanketa judizialari eginiko ekarpen garrantzitsu bat da. Europako herrialdeetako Protokolo baten faltan, hau egin artean, erreferentzia gisa balia liteke, beharrezkoak diren moldaketak eginez gure arau sisteman, justizia penaleko langile mota guztiengan, gizarte zibileko erakundeengan, adituengan edo profesionalengan. Guzti hori, ordea, emakumeenganako indarkeriaren prebentzioan, biktimen arretan eta feminizidioen argipenean inplikatur egin beharko litzake (NBGEEGKB, 2014: 5)

48 NBGEEGKB: Nazio Batuek Giza Eskubideetarako duten Ertamerikako Goi-Komisarioaren bulegoa.

EUSKADI

1.- 2010/01/07. Gipuzkoako Probintzia Auzitegia (PA). Zinpekoen Epaimahaia (ZE), 420/2011 sententzia, 2011ko azaroaren 3koa⁴⁹.

Zuhurtziagabekeriazko gabeko hilketaren bortitza. Biktimak: 45 urte. Hiltzailea: etxe bereko elkarbizitza (bikote-ohia), 49 urte⁵⁰. Tokia: Tolosa. Zifra ez ofiziala.

Sententziak frogatutako ekintzen kontaketa:

“Lehenengoa. 2010/01/17 Akusatua, Alejandra anderea, eta Ezequiel jauna txabola batean zeuden [...] Tolosan [...] hirurak bizi ziren bertan. [...] eztabaida [...] akusatuak arma zuri bat hartu zuen [...] Alejandra andereari lepoaren ezker aldean sastakada bat sartu zion [...] Donostiako ospitalean hil zen.

Bigarrena. [...] ez zuen hiltzeko intentziorik [...] erraza zen arriskuaz jabetzea [...]

Hirugarrena. Akusatuak alkoholaren edariaren kontsumoaren azalaz larrak erakusten zuten [...] bere gaitasunari arinki eragin zion.

Laugarrena. [...] aspaldi erlazio afektiboa mantendu zuen Alejandra anderearekin, ezkonbizitzaren antzekoa.

Zuzenbide Oinarriko (ZO) bigarren judiziozko gertaeran jasotzen da:

“Errendimendu frogagarria”:

- Ertzaintzako polizien arabera [...] hiruren arteko elkarbizitza problematikoa zen. [...] denboraldi lasai bat egon zen [...] biktimaren eta Ezequiel jaunaren [...] absentiarekin bat egiten du.

Ezequiel.- Biktima eta Ezequiel jauna txabolara sartu ziren unea zakarra izan zen, atea indarrez irekiz [...] – [...] eztabaida [...] bikoteak hasi zuen, ez akusatuak. – [...] jarrera agresiboa biktimaren aldetik [...] Forentseak [...] biktimaren hatz-koskorretan hematoma bat (ZO 2º.3).

Fiskaltzak (F) eta defentsak parte hartzen dute batez ere. Fiskaltzak gertakaria homizidio delitu gisa kalifikatu zuen eta 14 urteko kartzela zigorra, kondena bete bitartean inhabilitazio osoa eta biktimaren mutil-lagunarentzat erantzukizun zibilagatik 92.000 euroko kalte-ordaina eskatu zuen. Defentsak zuhurtziagabekeriazko homizidiotzat jo zuen, edari alkoholaren kontsumoaren mendekotasun larria dela medio, gertaera jazo zen unean horien eraginpean zegoela argudiatuta; eta urte bateko zigorra eskatu zuen.

Sententziak akusatua zuhurtziagabekeriazko homizidio delituaren egile gisa kondenatu zuen. Hiru urte eta sei hilabeteko kartzela zigorra ezarri zion, ahaidetasun zirkunstantzia

⁴⁹ Id CENDOJ: 20069381002011100007.

⁵⁰ Sententzietako datu pertsonalak legeak babesten dituenenez, sententziak publikatzean jarritako izen faltsuak agertzen dira biktima eta hiltzailearen izen gisa atal honetan.

larrigarria eta edari alkoholadunen kontsumoaren menpekotasun aringarria aitortuta. Horrez gain, biktimaren mutil-lagunari 92.000 euroko kalte ordaina egotzi zion galeragatik, baita kostu prozesalak bere gain hartzeko beharra ere.

Kasu hau, argi eta garbi, inplikaturako hiru pertsonen egoera sozioekonomikoak baldintzatua da: hiltzailea, biktima eta lekukoa. Zuhurtziagabekeriak delituaren eginkizuna biktimak eta haren bikotekideak hiltzailearekin konpartitzen zuten txabolatik aparte bizileku autonomorik ez izateak eragin zuen. Izan ere, kanpoan garai bat igaro ostean, harekin harremana berrabiatzera behartu nahi zuen. Oso dudagarria da delitu honen feminizidio sailkapena; hiltzaile eta biktimaren harreman motibazioa, bikote erlazioak baino, miseria egoerak bultzatua zelako; horregatik bizi ziren teiltupe berean (hau bai, garai bateko harremanagatik zen).

Gipuzkoako Probintzia Auzitegiak, erreferentzia bezala erabiltzen ditu, sententzian azaltzen duen bezala, erantzukizun zibilari eta segurtasunari buruzko Legean ezarritako adierazleak; hots, zirkulazio istripuetakoak. Nahiz eta eremu horretatik kanpo loteslea ez izan, baliagarria da "segurtasun juridikoaren eta tratu berdintasunaren orientazio modura". Baremoa erabilgarria da gutxienekoen adierazle gisa, nahiz eta gainditzeko mugak dituen eremu horretatik kanpo dagoen gertakari kriminalak sortutako kalteei buruz ari garenean, bereziki delitu mingarrietan; izan ere, mina egiteko asmoak kalte ordain handiagoa izan behar du, erantzukizun handiagoa duelako. Kasu honetan, zuhurtziagabekeriak delitua izanik, baremoko irizpideak egokiak lirateke, baina fiskaltzak 2010ean baremo horrek ezarritako kantitatea baino gutxiago eskatu zuen, auzitegiak ezin duelako erreguzko printzipioengatik erantzukizun zibilean aitortutakoa gainditu (Epaiketako parte guztiek eskatutakoaren baitan erabaki behar du). Momentu horretan indarrean zegoen urriaren 29ko 8/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren⁵¹ baremoa ezarrita, kalte ordaina gutxienez % 26 gehiago izan beharko litzake, 116.243€. Kasu honetan auziak ez zuen ziur aski garrantzia praktikorik; alde batetik, aurreikusi zitekeen kondenatuaren kaudimengabeziagatik; eta, beste alde batetik, zuhurtziagabekeriak delitua izatean laguntza publikoen existentzia ezagatik. Hala ere, kaltetuek aukera izango dute kalte ordaina jasotzeko engainagarriak diren delitu guztietan (nahita eginikoak), Abenduaren 11ko 35/1995 Legeak ezarritako laguntzari jarraiki, zeinetan delitu bortitzek kaltetutako eta sexu askatasunaren kontrako biktimen laguntza eta sorospena aitortzen den, sententziak zehazten duen indemnizazioa jaso daitekeen laguntza maximoaren muga delarik.

2.- 2010/02/09. Bizkaiko PA, 6. saila, ZE, 2011/25 Sententzia, 2011ko martxoaren 18koa.⁵²

Familiarteko feminizidioa (ama-hilketa). Biktima: 65 urte. Hiltzailea: semea, 41 urte. Tokia: Barakaldo. Zifra ez ofiziala.

Frogatutako gertakarietan jasoa:

"[...] Abel akusatua Sofia amarekin zegoen batera bizi ziren etxean, aizto bat ateratu zuen [...] emakumea erasotu zuen heriotza eragin nahian, hamazazpi aldiz sartu zion aiztoa [...]."

⁵¹ Eranskina, I. taula: Heriotzagatiko oinarriko kalte-ordainak, kalte moralak barne, eta II: zuzenketa faktoreak (indargabetua). Zirkulazio istripuetan pertsonen eragindako kalte-galeren balorazio sistemaren erreformarako onartu zen irailaren 22ko 35/2015 Legeak erregulatzen du gaur egun (EAO zbkia. 228, 2015/09/23, <http://bit.ly/2l2wzXl>).

⁵² Id CENDOJ: 48020381002011100001.

[...] Eraso ezustekoa eta espero gabea izan zen eta biktimak ez zuenez momentu batean ere ez defendatzeko aukerarik izan, defentsa-gabezia egoeraz baliatu zen. Akusatuak [...] alkohol-dun edariak kontsumitu zituen [...] ahalmena zuen ulertzeko ekintza bidegabea zela, edo arinki gutxitutako ulermen horren arabera jarduteko gaitasuna zuen.

Akusatuak [...] alkohol-dun edariak edan zituen [...] bere ahalmena [...] arinki gutxitua zuen. [...] Ez zen ezkututzen saiatu, eta polizia aurkitu eta atxilotu zuen. Denbora guztian onartu zuen bere ama hil izanaren posibilitatea”.

Defentsak onartu egiten du akusatuak hil zuela haren ama, edanda egoteagatik kotxea hartzea galarazi ziolako.

Fiskaltzak, prozesuaren akusazio bakarrak, gertakariak azpikeria eta ankerkeriarekin egindako erailketa delitu gisa kalifikatu zuen behin-behinean; senidetasun larrigarriekin, anomalia edo alderazio psikikoen aringarriarekin. Hala, 19 urteko kartzela zigorra eta gaitasungabetze absolutua eskatu zuen; baita haren ahizpa eta nebari, bakoitzari, 30.000 euroko kalte-ordaina ematea ere. Ahozko epaiketan fiskaltzak ondorioak beritu zituen, hainbat kalifikazio alternatiba planteatuz: azpikeria eta ankerkeria homizidio delitutik hasita, mozorkeri analogikoaren aringarriagatik, 23 urteko kartzela zigorraren eskatuz; nagusitasun-egoeraz abusatzeagatik senidetasun larrigarrien hilketa gisa kalifikatzera arte; irregulartasun psikiko aringarriak erantsita, 9 urteko kartzela zigorra eskatuz, erdibideko beste bi aukerekin.

Defentsak gertakariak zuzurtziagabekeriako homizidiotzat kalifikatu zituen. Salbuespen zirkunstantziatatzat jo zituen desoreka mental trantsitorioa, edo, tartekako alkohol-intoxikazio osoa; edo gaingitu-gabeko beldurra, eta absolutzioa eskatu zuen.

Auzitegiak erruduntasun epaia eman zuen azpikeriazko hilketaren delitu bategatik. Ez zituen aurkitu uste sendoko elementu nahikoak ankerkeriaren elementu subjektiboaren aldebereketasuna frogatzeko- Alde batera utzi zituen, halaber, buru-nahaste trantsitorioarekin lotutako edozein modalitatearen konkurrentzia eta mozorkeriaren salbuesle osatua edo osatugabea. Egoera aringarri gisa, mozorkeria eta konfesioa hautemateko arrazoiak topatu zituen, ahaidetasun larrigarriarekin batera. Sententziak *“anai-arreben arteko harreman propiotik eratorritako afektibitatearekiko mespretxu larriak”* nabarmentzen ditu; *“erabat gaitzesgarria den”* hiltzailearen *“abandonu egoera pertsonalari”* erreferentzia eginez; eta adierazten du bere *“erreakzio zeharo bortitza eta justifika ezina desadostasun txikiak konpontzeko zela, akusatuak emandako azalpenean aipatu bezala, [...] Horrek arriskugarritasun kriminal berezia erakusten du”* (5. ZO). Ondorioz, 16 urteko kartzela zigorrera kondenatu zuen, inhabilitazio absolutua ezarritik. Era berean, prozeduraren kostua bere gain hartzea eta anai bakoitzari 30.000 euroko kalte ordaina ematera behartu zuen epaiak.

3.- 2010/02/22. Gipuzkoako PA, 1. saila, ZE, 319/2012 Sententzia⁵³, 2012ko uztailaren 18koa.

Familiarteko feminizidioa (ama-hilketa). Biktima: 48 urte. Hiltzailea: semea, 23 urte. Tokia: Lasarte-Oria. Zifra ez ofiziala, irregulartasun psikikoa, salbueslea.

53 Id CENDOJ: 20069381002012100001.

Prozesuan soilik fiskaltzak eta defentsak esku hartu zuten.

Frogatutako gertakariak:

“Lehenengo. Akusatua [...] Encarnaren semea [...] bere amaren etxean bizi zen [...] ingresatuta zegoen Ospitale Psikiatrikotik ihes egin ondoren.

Bigarren. 2010-2-19 egunean, adierazitako etxebizitzan, akusatuak bere ama hil nahian kolpe handi bat eman zion buruan zenbait tresna eta erreminta erabiliz, eta aipatutako tresnak sartu zizkion gorputzeko hainbat gunetan.

Hirugarrena. Horren ondorioz, akusatuak bere amari [...].

Laugarrena. - [...] heriotza eragin zion [...] ezinbesteko gune entzefalikoak suntsituta.

Seigarrena. [...] sintoma negatiboak dituen eskizofrenia paranoidea du [egoera errezidual eskizofrenikoa], eta gertakaria jazo zen unean deuseztatuta zeuden bere gaitasun intelektiboak zein borondatezkoak.”

Kontaketa laburra eta soila izanagatik ere, frogatutako gertakariak kontaketa ikaragarria dira biktimaren heriotza eragin zuten zauriak eta gainontzeko lesioak zenbatzerakoan. Biktima azkar hil zen, eta horregatik ez zen kontsideratu ankerkeria zirkunstantzia hilketaren larrigarri espezifiko gisa. Kode Penalaren 3. 139 artikuluari jarraiki, *“irainduaren mina nahita eta ankerkeriaz”* handitzean oinarritua, elementu hori biktima hil aurretik soilik beha liteke, eta ondorioz zuzeneko biktima bakarrik kontsideratzen da *“mindutzat”*.

Zuzenbideko Oinarrietan (ZO) beste datu esanguratsu batzuk ageri dira:

- Kontrolatuta ez dagoen momentuetan substantzia toxikoen kontsumoa eta medikazioa alde batera uzteak eragiten du bere gaixotasunaren bilakaera penagarria izatea [...].

- Agresibitatea sendotzen duten gertakariak: haren anaia metxero batekin erretzea, aurrez bere ama kubitua apurtuta torturatzea eta honi heriotza mehatxua egitea [...]” (ZO 7º.II)

Fiskaltzak gertakariak azpikeriazko hilketaren delitutzat jo zituen behin-betiko, erabat salbuesten duen desoreka mentalaren erantzukizun kriminalarekin, ahaidetasun larrigarria erantsiz. Absoluzioa eskatu zuen, eta 20 urtez patologia horretarako egokia den zentro psikiatriko batean sartzeko segurtasun neurriak ezartzea. Horretaz gain, haren anaiari 45.352 euroko kalte ordaina eman behar izan zion, adingabea eta harrera familia batean bizi dena duela urte askotik.

Defentsak, behin-betiko ondorioetan, homizidio delitutzat jo zituen gertakariak. Egilea erantzukizunetatik libre utziaz absoluzioa eskatu zuen, 15 urte arte segurtasun neurria ezartzea eta anaiaren mesedetan kalte ordainik ez adostea.

Sententziak fiskaltzaren kalifikazioa hartu zuen – ahaidetasun larrigarriarekin azpikeriazko hilketa, eta desoreka mentalagatik salbuestea-. Hala, hiltzailea zentro psikiatriko batean sartzea ebatzi zuen gehienez 20 urtez, hitzartu zitekeen denbora maximoa, hain zuzen; Auzitegiaren agindurik gabe ateratzea galaraziz. Era berean, *Candido* anaiari fiskaltzak eskatutako kalte ordaina ematea adostu zuen.

Hau familiarteko feminizidioa da, ama-hilketa konkretuki. Kasu honetan hiltzailea gazte bat da, adimen eta borondatezko gaitasunak baliogabetzen dizkion irregulartasun psikiko larriak dituena. Hau arriskutsua da berarentzat eta hirugarren pertsonentzat; eta beraz, zentro itxi bateko tratamendu psikiatrikoaren beharra du. Saihestu zitekeen hilketa baten aurrean gaude, baldin eta Ospitale Psikiatrikotik ihes egin ondoren aurkitu eta ospitalera itzuli izan balute (oso erraza zen bera aurkitzea, bere etxean zegoen, amaren etxean; harengan deskargatzen zuen haserrea eta emakumeari aurrez besoa apurtua zion, baita heriotza mehatxua egina ere). Osasun eta eremu sozialari dagokionez, gaixotasun mentalak dituzten pertsonengan eta senideengan behar besteko atentzioa ez jartzeak eragindako efektu kaltegarrien adibide dramatiko eta izugarria da, kasu honetan, agian, atentzio ezaren arduragabekeria -gizarteak gaixotengan atentzio gutxi jartzen duenaren isla-.

Beste alde batetik, ikerketek eta esperientzia kriminologiko eta biktimologikoek erlazio ukaezina aurkezten dute alkohol kontsumoaren, sustantzia psikoaktiboen gehiegizko erabileraren eta hiltzaileak duen gaixotasun mentalaren artean (eskizofrenia paranoidea). Horrek oso efektu negatiboak ditu, horien artean, familiaren ohikoa biktimizazio egoera edota larria. Gobernuaren eta osasun aginte, zein hezkuntza autoritatearen eskutik atentzio gehiago eta hobea merezi duen errealtatea da. Seguru aski gaur arte egin dena baino gehiago egin ahalko litzateke drogen erabilpen eta abusuaren prebentzioan, hezkuntzaren bidez herriko haurrei eta gazteei efektu anitzen inguruan formazio hobea eskainita; edota drogazaleak diren pertsonen atentzioa eta tratamendua hobetuta.

Sententziak sexismo linguistikoen xehetasunak ditu ("la médico" aipatzen da medikuaren orde, genero diskordantzia).

4.- 2010/04/05. Arabako PA, 2. saila, ZE, 2011/311 sententzia, 2011ko irailaren 29koa.⁵⁴

Familiarteko feminizidioa (familia indarkeria). Biktima: 91 urte. Hiltzailea: biloba, 19 urte. Tokia: Agurain. Zifra ez ofiziala. Irregulartasun psikikoa, salbueslea.

Soilik fiskaltzak (F), akusazio publikoa gauzatzen duenak, eta akusatuaren defentsak hartzen dute parte. Adostutako kalifikazio idatzia aurkeztu zuten.

Frogatutako gertakariak (laburpena):

Akusatua

Amonaren etxera joan zen [...] bakarrik zegoela aprobetxatuz [...] senidetasunaren konfiantza baliatuta [...] poltsikoan zeraman [...] sukaldeko labana [...] 29 sastakada [...] sartu zizkion [...] emaitza mortala ziurtatu nahirik, defendatzeko aukerarik utzi gabe [azpikeria], eta Asuncionen sufrimendua nahita eta krudelki handituz [ankerkeria] [...].

Akusatuari eskizofrenia paranoidea (lehen episodioa) diagnostikatu diote sintoma psikotikoen desoreka koadroa aurkeztuz, ziurrenik substantzia toxikoen kontsumoan jatorria duen patologia, pertsonalki zein familiarki eskuragarritasun erraza izanagatik eratorria [...]."

⁵⁴ Id CENDOJ: 01059381002011100002.

Bi aldeek – eta, ondorioz, sententziak- gertakariak azpikeria eta ankerkeriazko delitu gisa kalifikatu zituzten, senidetasan larrigarriaren zirkunstantziarekin; alabaina, irregulartasun psikikoaren salbuesle osoarekin. Hortaz, hiltzailea absolbitua izan zen, eskizofrenia paranoidea diagnostikatua izateak eta delitua gauzatzean zuen sintoma psikotikoen desoreka koadroa aurkezteak haren adimen eta borondate gaitasunak deuseztatzen zituelako auzitegiaren ustez.

Ez zen ahozko epaiketarik burutu akusazioak eskatutako segurtasun neurriekiko adostasun osoagatik: akusatuak zuen alterazio psikiko mota tratatzeko aproposa zen zentro psikiko espezializatuan sartzea, 12 urtez mediku tratamendua jasotzeko.

Esperientzia biktimologiko praktikoak erakusten du, Biktimei laguntzeko Zerbitzu eta Bulegoek eskaintzen duten arretan, oso ohikoak direla buruko gaixotasunekin erlazionatuta dauden kasuak, bereziki eskizofrenia, alkohol edota droga menpekotasunak⁵⁵. Zerbitzuetan patologia hauek jasaten dituztenak edo familia kideak entzun, orientatu eta zerbitzu sozial edota osasun zerbitzuengana bideratzen dituzte. Babesa emateaz gain, beharrezkoa denean auzibidera joatea aholkatzen zaie kaltetutako pertsona Osasun Mentaleko Unitate zorrotzean derrigorlortuta sartzea eskatzeko. Era berean, tratamendu zentroetara sartzeko eskaera egiteko orientatzen dituzte. Ekintza hauek egoera oso zailak arintzen laguntzen dute (Daza Bonachela, 2015a: 342, 407, 452), baina atentzio jarraitua jasotzeko aukera, egokitzen zaien eremuan, hots, osasun zerbitzuetan, osasun mentala artatzeko dituzten baliabideen arabera izaten da.

Kasu honetan familiarteko feminizidio gisa kalifikatzea zalantzarik gabea litzake, nahiz eta aukera egon; pentsatzen bada akusatuak bere aitona berdin hilko lukeela (bizi izan balitz, etxean topatu izan balira, etxean onartu izan balu...). Baina era berean, pentsa liteke aitona izanda aukera gutxiago leudekeela bilobak egindako delitua gauzatzeko (adin horrekin ez litzake bakarrik biziko, edo akaso ez luke biloba etxean onartuko, ziurrenik haren espektatibak ezberdinak izango lirateke...).

5.- 2010/07/25. Bizkaiko PA, 6. saila, 2011/78 Sententzia, 2011ko azaroaren 9koa.⁵⁶

Feminizidio intimoa. Biktima: 36 urte. Hiltzailea: bikotekidea, 41 urte. Tokia: Bilbo. Zifra ofiziala. Kondera urratzea (ohiko biolentzia) - Delituak galarazteko betebeharraren omisioa. Hiltzaileak: senideak.

Akusazio publiko gisa parte hartu zuen fiskaltzak, herri-akusazio modura Bilboko Udaleko abokatuak, eta akusazio partikular bezala biktimaren amak.

Frogatutako gertakariak (laburpena):

“Lehenengoa. [...] 2010eko ekainean 7an Emakumeen aurkako Indarkeriaren Epaitegiak [...] adostutako epaia eman zuen [...] Gervasio jauna kondenatu zuen gizarte lanak egiteko zigorra ezarritik, eta Inmaculada andrearenganako 500 metro urruntze agindua ere [...] emakumea mehatxatu zuen [...] “hil egingo zaitut; ez dakizula bururatu hemendik ihes egitea, bestela

⁵⁵ Baieztapena egileak Andaluziako BASen jurista-kriminologa gisa 10 urtez izandako esperientzian oinarritua dago.

⁵⁶ Id CENDOJ: 48020370062011100531.

eskopeta bat hartuko dut, jarraitu eta hil egingo zaitut” [...] Ertzainek atxilotu zutenean, Inmaculadarengana zuzendu zen esanez: “hauetako bati pistola hartuko diot eta lau tiro emango dizkizut”.

Bigarren. [...] Inmaculada anderearekin erlazioa mantentzen jarraitu zuen [...] elkarrekin bizitzen [...] uztailaren 24an [...] bikotea Gervasio jaunaren familiakoan etxera zuzendu zen [...] Gervasio jauna oihuka hasi zen [...] “emagaldua, urdanga, hilko zaitut”, besteak beste, gorputzeko hainbat ataletan behin eta berriz kolpatzen zuen bitartean.

Deskribatutako pasartearen lekuko izateaz gainera, eta jakinda Gervasio jauna suminkortasun eta oldarkortasun handiko pertsona zela, biolentzia ekintza asko gauzatu dituela bere bizitza osoan zehar; Josek eta Nuriak bikotea bakarrik utzi zuten, Inmaculada eta Gervasiok erabiltzen zuten aldameneko gelara joan ziren [...].

Hirugarrena. [...] nola Gervasio jauna hala Inmaculada anderea substantzia toxikoen zaleak ziren [...] aurretiko orduetan [...] biek droga desberdinak kontsumitu zituzten.

Sententzia honetan, hizkuntza inklusiboa erabiltzeaz gainera, frogatutako gertakarien kontaketa nahiko osatua dugu. Dena den, kausaren instrukzio fasean ez zen ikertu ohiko biolentziaren egoeren existentzia. Prozesuaren baitan, hiltzailearen jardueran, horren zantzu argiak baino probak daude. Hala ere, sententziak ez du ZK-aren 173.2 artikuluan ez ohiko biolentziaren akusaziorik ez kondenarik jasotzen. Ez dirudi iritsi zenik eztabaidagai izatera.

Fiskaltzak behin behinean hiltzaileak buruturiko ekintzak hilketa delitu gisa kalifikatu zituen. Bigarren delitu bat egotzi zioten etengabe kondena urratzeagatik, eta beste bat irainengatik. Hori dela eta, guztira 18 urte eta 11 hilabeteko kartzela zigorra eskatu zuen, eta 10 egunez uneoro lokalizatuta egotea. Horrez gain, osagarriak eta kostuak bere gain hartzea eskatu zitzaion; eta biktimaren amari 60.000 euroko kalte ordaina ematea. Beste bi inputatuentzat urtebeteko kartzela zigorra eskatu zuen, delitua egitea ez eragozteagatik, hori ere delitua baita. Bi horien defentsak absoluzio librea eskatu zuen; eta hiltzailearen kasuan absoluzioa, alterazio psikikoa salbuesle izateagatik.

Froga, batez ere, akusatu eta lekukoaren adierazpenetan (bizilagunenak, batzuk babestuak) oinarritu zen, baina bereziki biktimaren gorpuak emandako informazioan, gorpua altxatzean eta autopsia egitean eskuratutako emaitzetan, hain zuzen. Frogak eta gero, ahozko epaiketan, fiskaltzak ondorioak egokitu zituen, ankerkeriazko hilketa izan zela argudiatuz; eta alaben aldeko kalte ordaina eskatu zuen. *Gervasioren* defentsak, berriz, absoluzioaren alternatiba bat formulatu zuen: toxikomania aringarriarekin homizidio burugabea iradokiz eta 3 urteko kartzela zigorra proposatuz.

Aurrekariaren kontakizunek, frogatutako gertakariak eta Oinarri Juridikoek harritu beharko gintuzketen zerbait islatzen dute, baina ez dute lortzen: emakumeen aurkako indarkeriaren egoerak nola naturalizatu eta minimizatu diren, bereziki, bizitzari eta segurtasunari eginiko mehatxuak. Biktima emakumea denean, mehatxu arinak ikustera heltzen da bakarrik sistema (definizioagatik delitutzat hartzen ez diren gaizki egindako gauzak izan beharko lirateke, ZK-aren 171 art.). Hori da frogatutako lehen gertakariak aipatzen zuen aurrekaria: mehatxuengatik aurrez izandako epaiketan ez zioten zegokion zigor mota ezarri, gizarte lanak egiteko beharra baizik, eta jarritako urruntze agindua ez zuen inork betearazi. Kritika, ez zaio egiten sententziari bere horretan bakarrik, sistemari baizik, kasuaren lanketa serioa eta sakona egiten baitu – nahiz eta ez duen azaltzen zergatik ez duten prozesuan ohiko

biolentzia landu-. Mehatxu horiek ez ziren prozesu penal honen eztabaidagaia izan, baina horren azterketa kritiko minimo bat erantsi zezaketen, besterik gabe onartu beharrean; eta ohiko biolentzia ikertu, mehatxuek zein feminizidioak horiek markozkatzen zituen eta – hemen kritika batez ere instrukzioari eta akusazioei zuzenduta dago-.

Inmaculadari egindako mehatxuak, heriotza eta baldintzapekoak izanik, aurretiko epaiketa horretan arintzat kontsideratzeko minimizatu ziren; eta sententziak ebatzen duen auzi honetan hilketa eta kondena urratzeari buruz eta irain larrien hutsen inguruan eztabaidatu zen; baina inork ez zuen ZK-aren 173.2 artikuluko ohiko indarkeria delituaz akusatu, eta ez zen ZK-aren 173.2 artikuluko ohiko biolentziaren delitu horri buruz eztabaidatu ere, akusazioen arabera biktimak pairatu egin zuena, nahiz eta existitu ez balitz bezala baztertu.

Etxean bizi ziren senideak jaramon ez egiteagatik inputatu zituzten bakarrik, baina eraikineko bizilagunek ere entzun zituzten kolpeak, zaratak, behintzat bi orduz, hiltzailearen mehatxuak, emakumearen ahots ahula... Alabaina, inork ez zuen Ertzaintza deitu. Eta auzokide hauek ez dituzte inputatu.

Sententziak *Gervasio* 20 urteko kartzela zigorrera eta erabateko inhabilitaziora kondenatu zuen, senidetasun aringarria eta nagusitasun abusua baliatuta ankerkeriazko hilketa gauzatzeagatik (burugabekeria, salbuesle den irregulartasun mentala eta alegatutako toxikomania aringarria baztertuz). Hamaika hilabeteko kartzela zigorra ezarri zioten kondena urratzearen delituagatik; eta zeharkako biktimei, *Inmaculadaren* ama eta bi alabei, bakoitzari 60.000€ ordaintzeko agindu zitzaion. Halaber, feminizidaren ama eta anaiari urte bateko kartzela zigorra jarri zieten delituak eragozteko betebeharrari muzin egiteagatik, aukera izan zuten eta. Horrez gain, hiruren artean kostuak euren gain hartzea eskatu zieten, herri akusazioarenak barne; lehenak hiru bosten eta beste biek bosten bat, hurrenez hurren.

6.- 2010/12/06. Bizkaiko PA,1. saila, TJ, 2012/48 Sententzia, 2012ko ekainaren 11koa.⁵⁷

Feminizidio intimoa. Biktima: 25 urte. Hiltzailea: bikote ohia, 25 urte. Tokia: Barakaldo. Zifra Ofiziala. [Ohiko biolentzia] – Hilketa ahalegina. Biktima: mutil laguna- Norbanakoen lekukotzak, hiltzailearen lagunak adierazpen faltsuak egin zituela uste izanagatik.

Frogatutako gertaerak (laburpena):

“[...] Kuban jaiotako Carlos Francisco, Espainian bizileku legala duena eta aurrekari penalik gabea; Evangelinaren bikotea izan zen 2006 urtetik gutxi gora behera, zehaztu gabeko 2010eko data batera arte. 2010eko azaroan Evangelinak Carlos Franciscoren kontrako salaketa jarri zuen genero indarkeriagatik.

[...] babes agindua Evangelinarentzat [...].

[...] Evangelinaren etxera zuzendu [...] eta bertara sartu zen [...]. balkoira iritsi zen [...] leihoa bortxatu eta etxebizitzan sartu zen, zain geratu zen [...].

[...] Evangelina etxera joan zen Fabio bikotekidearekin batera [...] akusatuak bat-batean

⁵⁷ Id CENDOJ: 48020370062012100543

ordenagailua zegoen gelako atea ireki zuen; katana motz batekin atera zen bertatik, eta, horrekin kolpatu zuen Fabioren bizkarra.

Fabio [...] kolpeak ekiditen saiatu zenean, akusatuak aldean zuen sukaldeko labana bat atera zuen [...] 32 zentimetrotako luzera zuen eta 20 zentimetroko zerra. Mugimendu azkar batekin, Fabio hiltzeko intentzioarekin, lepoaren eskuinaldean sartu zion [...] berau moztuz. Fabiok, odol asko jariatzaren zuela, etxea abandonatu zuen [...] laguntza bila [...] ospitalera [...] berehalakoan [...] egin zioten ebakuntza, bere heriotza saihestuz.

Fabio bizilekutik joan zenean, akusatua etxeko gelara zuzendu zen, Evangelina babestu zen tokira [...] eta lehen aipatutako labana sartu zion birritan [...].

Kausa honetako sententzian ez da ageri biktimak ziurrenik jasaten zuen ohiko biolentzia egoerak ikertu izana, Emakumeenganako Indarkeria Epaitegiak ezagutzen zuena, urruntze agindua ezarria baitzuen. Era berean, ez da jaso feminizidioa burutu baino hilabete lehenago biktimak biolentziagatik jarritako salaketa prozesuaren emaitzarik, ez eta fiskaltzak Prozesu Kriminalaren Legearen baitako 17.5 artikuluari jarraiki loturagatik prozesuak pilatzeko eginiko eskaeraren berririk ere.

Feminizidioa biktimaren aurkako ohikotasuna osatzen duten gertakari batzuen azken ekintza da. Horregatik, bi prozesu desberdin jarraitzeak, bat aurretiko salaketagatik eta bestea feminizidioagatik, ekonomia prozesalari kontra egiteaz gain, bigarren mailako biktimizazioa ekarriko lieke senideei. Bestalde, delitua ez jarraitzea prozesu batean ere ez, ohiko tratu txarren delituaren zigorgabetasuna onartzea da, bereziki, kasurik larrienetan. Auzitegi Gorenak, {2010-01-20ko AG-ko Bigarren Aretoko Plenoan⁵⁸ onartutako akordioetan eta 2010eko otsailaren 23ko Pleno ez Jurisdikzionaletan hartutako erabakietan⁵⁹} loturen suposizioetan Zinpeko Epaimahaiak duen kompetentzia argitzen du. Aurkeztu den kasu honetan kompetentzia arlo penaleko epaitegiarena edo Probintzia Auzitegiarena dela esaten da, ez Zinpeko Epaimahaiarena. Izan ere, LOTJren 5.2c artikuluko irizpideak betetzen ez dituen kasuak konexio delitutzat hartzeko ez da uste delituetaiko bat bestea gauzatzeko, errazteko edo zigorgabetasuna lortzeko egin denik, “eta ez dadin epaiketa prozesua bereizi kausaren eustea hautsi gabe”.

Prozesuan, defentsak eta fiskaltzak ordezkaturako akusazio publikoaz gain akusazio partikular gisa parte hartu zuten *Fabiok*, erailketa saiakeraren biktimak eta *Evangelinaren* aitak. Estatuko Abokatua eta Barakaldoko Udala herri-akusazio moduan aritu ziren.

Ez dira akusazio konkretuen kalifikazioak ageri, soilik ondorioak behin betikotzat aurkeztu zirela. Ahaidetasun larrigarriarekin azpikeriazko hilketa gisa kalifikatu zuten feminizidioa, kautela neurriak urratzearen delituarekin eta bizilekua bortxatzearen delitu batekin. Horrez gain, Fabio hiltzeko eraso saiakera egotzi zioten. Kasu honetan ez zen onetsi, ez zelako elkarbizitzarik egon biktima eta hiltzailearen artean, ZK-aren 23 artikulua eskatzen duen bezala, eta “*in malam parten*” analogia Zuzenbide penalean debekatuta ez dagoelako.

Defentsak gertakariak homizidio delitu gisa izendatu zituen, aurrez zuen kautela neurriaren haustura, eta subsidiarioki, etxean indarrez sartzearen delitua zein lesio delitua erantsita.

⁵⁸ <http://bit.ly/2eQZBN2>

⁵⁹ <http://bit.ly/2enuTKV>

Zirkunstantziak aintzat hartzea ere eskatu zuen: erotasun eta pertzepzioaren alterazioa salbuesle oso, subsidiarioki salbuesle osatugabe, edo aringarri analogiko gisa; haserrealdi, itsualdi edo pasiozko egoeraren aringarria; eta aitopena, biak aldizka aringarri analogiko gisa. Hala, absoluzioa eskatu zuen, eta era subsidiario batean homizidio eta lesio zigorra, baina gradu minimoetan.

Sententziak, epaileen ebazpenean oinarrituta, gertakariak horrela zerrendatzen ditu: azpikeriazko erailketa delitu bat, saiakera graduco hilketa delitu bat, kautela neurrien urraketa delitu bat (biktimarengana hurbiltzeko eta komunikatzeko debekua), eta etxean indarrez sartzea, biak hilketa delituko neurrietan pilatuta⁶⁰. Gauzak horrela kondenatuari 19 urte eta 10 hilabeteko kartzela zigorra ezartzen dio hilketagatik, eta 13 urteko espetxeratzea saiakeragatik, kondena bete arteko inhabilitazio absolutuaren osagarriarekin, eta biktimaren aitarenagako eta Fabiorenagako urruntze aginduarekin – 500 metro baino gutxiagora hurbiltzea eta edozein bitartekorekin haiekin komunikatzeko debekuarekin-. Halaber, armak izatearen eta eramatearen eskubidea galarazten dizkio, biak 10 urtez.

Horrez gain, kostuen kondena ezartzen zaio, akusazio partikularrenak barne; eta kalte ordainak emateko agindua: 130.000 € biktimaren aitari, eta Fabiori, hilketa saiakeraren biktima eta bere neska-lagunaren galera izan zuenari 90.000 €. Akusazio partikularrak eskatu zuen kuantitatea dela suposatuta behar dugu, fiskaltzak eskatutakoa baino askoz altuagoa da, azken honek ez baitzituen "askitzat jo nola izaera psikikoaren ondorioak hala kalte morala" (ZO 7º); oso larria den gertaera traumatikoko batetik eratorria bada ere, berehalako bizi arriskuarekin, eta bikotearen galerarekin.

7.- 2010/10/07. Gipuzkoako PA, 1º saila, ZE, 2014/37 sententzia, otsailaren 3koa ⁶¹.

Haur feminizidioa. Biktima: 18 hilabete. Hiltzailea: aita, 41 urte. Tokia: Zarautz. Zifra ez ofiziala. Mehatxuak. (Ohiko biolentzia)

Fiskaltzaren akusazio publikoaz gain, Clara Campoamor Elkarteak agertu zen herri-akusazio gisa.

Frogatutako gertakariak (laburpena):

Lehenengoa. - Zinpekoen Epaimahaiak aho batez frogatutzat jo zuen:

1.- Antoniok Monikarekin ezkontzaren antzeko erlazioa mantentzen zuen 2007ko abuztutik [...] alaba bat zuten komunean [...] 2009 [...] jaio zen [...] erlazio [...] lehen momentutik gatazkatsua [...].

[...] Monikarekin eztabaida izan zuen, bera hiltzeko nahiarekin plater bat botatzeraino, hilko zuela esan zion hurrengo goizean etxebizitza familiarrean jarraitzen bazuen. Era berean, bere asmoa beteko zuela esan zion María Consuelo eramaten bazuen. Izututa, Monika anderea momentu hartan joan zen etxetik bere seme Valentínekin, alaba aitarekin utziz.

⁶⁰ Neurrien pilaketak eskatzen du, sententziak jaso bezala, "kasu ez egitea egokitasun edo delitua egiteko erraztasun hutsari, baizik eta izaera objektiboko konexio instrumentala egotea, ekintzen egilearen nahiaren edo pentsamendu hutsetik harago kokatua beharrezkoa den eremuan sartzeko" (2011.09.15eko AGS)

⁶¹ Id: CENDOJ: 20069381002014100001.

2.- 2010eko urriaren 6an, Antoniok etxebizitza familiarra utzi zuen [...] alkohol-dun edariak kontsumitzen jardun zuen, adingabeari jaramonik egin gabe [...]

[...] Zenbait alditan deitu zuen Monika, azken deian esan zion [...]: "ikusiko duzu zer gertatuko zaizun, amaiera zoriontsua izango duzu".

Zazpi bozen gehiengoarekin onartu egin zen honakoa:

3.- [...] Antonio bere alabarekin heldu zen Zarautzera [...] Montexio inguruan zegoen txabola batera zuzendu zen alabarekin, babesleku hura ezaguna zuen, bertan bizi izan zelako aurreko garai batzuetan [...] alaba uretara jaurti zuen itsasgora betean. Antonio toki horretatik joan zen, adingabea bertan utziz, eta hau itota hil zen [sic].

8 botorekin gehiengoak frogatutzat eman zuen:

Magistratu-Lehendakariak, 63.2LOTJ artikuluan esaten denarekin bat, onartutzat eman zuen [...] Antoniok ulermen gaitasun murriztu arina zuela eta legez kanpoko bere jarrera desegoki tratatutako eskizofrenia paranoide kronikoari eta alkohol-dun edarien kontsumoari zor zaiola".

Azken hau bi akusazioek hala kontsideratu zutelako eman zen, eta dagokion aringarria aplikatzea erabaki zutelako, eta akusazio-printzipioaren indarraldiak akusazioa gainditzea eragozten ziolako Auzitegiari.

Prozesuan, defentsaz gain, fiskaltzak parte hartu zuen akusazio publiko gisa, eta Clara Campoamor elkarteak herri-akusazio modura.

Kasu hau lehen aipatutako arauaren salbuespena da, emakumeenganako mehatxuak beti arintzat kontsideratzearena, eta ondoren epaitu delako da salbuespena. Mehatxua izan zen, hain zuzen ere, emakumea alaba gabe etxetik atera izanaren arrazoia; hiltzaileari alaba hiltzeko bidea libre utziz.

Frogatutako gertakariak harremanak "funtzionatzen ez zuela" kalifikatzen hasten dira: frogatutako gertakariak deskribatu ordez etiketa bat jartzen diote. Hau biolentziaren normalizazioaren eta ezkutaketaren beste modu bat izan daiteke. Sententziak azaldu beharko luke zer den funtzionatzen ez duen modura ulertzen duena (Auzitegiak eta Epaimahaiak), zeintzuk diren kalifikatzaile horren arrazoiak. Ziur aski diskriminazio egoerekin erlazionatuta daude, hainbat faktore direla medio, genero diskriminazioa indartzen dutenak. Egoera horien artean daude hiltzailea eta emakumea etorkinak izatea, jatorri ezberdina edukitzea, pobrezia, guzti horrek suposatzen duen erazte, osasun beharren arreta eza, eta abar. Aurreko kasuetan bezala, hiltzaileak (nahiz eta epaileek ez onartu, Magistratu-Lehendakariak onartu zuen, akusazioek onartu zutelako) desegoki tratatutako gaixotasun mentalen koadroa zuen (eskizofrenia paranoide kronikoa) eta alkohol kontsumoa. Forentseen adierazpenen arabera, bere gaitasun intelektualei eta egikaritzeei arinki eragiten zien horrek (ez zen agerraldi psikotikoen zantzurik egon).

Kasu honetan biolentziaren aurrekariak existitzen dira, eta ia ziurtasunez, prozesuan oin-puntetan pasa den emakumearen aurkako ohiko indarkeria egoera ere bai. Epaia konbikzio elementuen artean ageri da:

"2008ko urtarilaren 2an Durangoko instrukzio epaitegiko 4.zenbakiak tratu txarren aurrekariengatik ezarritako genero indarkeriaren kontrako babes neurriak erakusten du Antoniok bikote harremanean zuen izaera bortitza". [2º A-ZO].

Gainera, frogatutzat ematen da Monikari, umearen amari, egindako baldintzazko mehatxuak -emakumeari plater bat botatzeagatik kondenatu zuten hiltzailea- ZK-aren 153.1 artikuluko tratu txarren delitua osa lezakeela. Alabaina, akusazioak ez zuen kontuan hartu, itxura denez, mehatxuetan subsumitua izan zelako, eta agerian geratu zen amak haren bi seme-alabekin bizitzeko alokatu zuen etxebizitza bertan behera utzi zuela, eta herrialdetik joateko prest zegoela beldurragatik, akusatuak mehatxatzen zuelako. Sententziak ez du azaltzen zergatik ez ziren ikertu ez akusatu prozesuan zehar ZK-eko 153.1 eta 173.2 artikuluetako delituak; izan ere, aurrez salaketa eta babes neurriak indarrean zeuden tratu txarengatik; eta prozesuan amari zein alabari eginiko tratu txar fisikoak eta psikologikoak frogatu ziren.

Egoera honek erlazioa dauka genero indarkeriaren gaiarekin orokorrean (Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integraleko Neurriei buruzko 1/2004 Lege Organikoaren zentzu mugatuan): salatutako kasu gehienetan alde batera uzten da ohikotasuna; eta Diligentzia Larrietan jasotzen da atoan salaketa jartzea eragiten duen azken ekintza puntuala. Fiskaltzak eta akusazio partikularrek epai mordoa adosten dituzte defentsekin ildo horretan, nahiz eta ohiko biolentzien mehatxuen inguruan aritu horrela ez dutelako ohikotasuna frogatu behar, askoz zailagoa baita; eta auzia bide azkarretik konpontzen da. Hainbat estereotipotan oinarritzen dira artxibatutako salaketa kopuruak, Angela Alemanyk zerrendatzen duenaren arabera, parteek bertsio kontraesankorrak dituzte: krisian dagoen bikote bat dela, ez zuela gertaera jazo eta berehala salatu, gurutzatutako salaketak daudela, presio familiarra eta berak prozesuarekin jarraitzeari uko egin diola, adibidez (Alemany, 2015).

Aztertzen ari garen kasuan akusazioek hilketa delituagatik eta bi mehatxu deliturengatik (baldintzazkoak eta ez baldintzazkoak) eskatu zuten kondena; bi delituetan ahaidetasun larrigarriarekin eta irregulartasun psikikoaren aringarri analogikoarekin; hilketa tokiaren eta denboraren aprobetxamenduekin. Defentsak akusatuaren absoluzio librea eskatu zuen; eta subsidiarioki kalifikatu zuen homizidioa, erabateko irregulartasun psikikoko zirkunstantzia salbueslea baliatuta burugabekeria larria justifikatzeko.

Hiltzaileak, errealitatearekin bateraezina zen umearen hilketaren bertsioa artikulatu zuen, beste baliabide batzuen artean, autopsiak demostratu zuena. Hori dela eta, kondena ezberdinak jarri zizkieten. Batetik, azpikeria eta ankerkeriaz egindako erailketa delitu bategatik 19 urteko kartzela zigorra ezarri zioten; tokiaren, denboraren eta ahaidetasunaren probetxuaren larrigarriekin eta alterazio psikikoen analogia aringarriekin; baita kondena bitartean inhabilitazio absolutua ere. Bestetik, baldintzazko mehatxuen delitu bategatik, ahaidetasun larrigarriarekin eta irregulartasun psikikoen analogia aringarriarekin, bi urteko kartzela zigorra jaso zuen, kondena bitartean sufragio pasiboaren eskubidea izateko inhabilitazio berezia barne. Bestalde, hiru urteko *Monikarenganako* urruntze agindua ipini zioten, 200 metro baino gutxiagora hurbiltzea edo edozein bitartekoren bidez berarekin komunikatzea debekatuz.

Baldintzarik gabeko mehatxuen delituengatik absolbitu zuten akusatua, biktimak ez zituelako epaiketari gogoratu instrukzioan deklaratu zuenean komunikatu zituen telefono bidezko heriotza mehatxuak.

Sententziak erantzukizun zibil gisa amari 35.000 euroko kalte ordaina ordaintzera kondenatu zuen hiltzailea kalte moralengatik. Fiskaltzak ezarritako kopuru hau orientazio erreferentzia moduan ezartzen den zenbatekoari dagokiona baino askoz txikiagoa da (Urriaren 29ko 8/2004 Errege Lege Dekretuaren tauletan zehaztutakoa -erantzukizun zibilaren eta motor ibilgailuen zirkulazio segurtasunaren inguruan moldatutako testua onartzen duena Legean-, dagozkien eguneraketekin eta delitu mingarria baldin bada arrazoitutako igoerarekin)⁶².

8.- 2011/03/17. Gipuzkoako PA, 1. saila , 212/2012 Sententzia⁶³, 2012ko maiatzak 15koa.

Lapurretak eragindako emakumeen erailketa. Biktima: 39 urte. Hiltzailea: biktimarekin ez zuen aurrez harremanik, 16 urte. Tokia: Zarautz-Azpeitia. Zifra ez ofiziala.

Frogatutako gertakariak (laburpena):

"[...] Felicísima Otilia anderea erasotzen du kotxean sartzen den unean [...]. Tokira helduta, bere nagusitasun fisikoa aprobetxatuz [1,91 neurtzen du], eta zeraman tresna arriskutsuaz baliatuta, bankuko bi txartelen jabetza lortzen du [...] Felicísima Otilia andereak txartel horien zenbaki sekretuak eman zizkion.

[...] Ustekabez erasotuko du [...].

[...] bizitzarekin bateragarriak ez diren lesioak egin, eta ondorioz, heriotza [...]."

Gipuzkoako Probintzia Auzitegiaren Sententziak (PAS) hiltzailearen defentsak formulatutako apelazio helegitea gutxiesten du, 2012ko apirilean Adingabeen Epaitegiak eman zuen sententziaren kontra. Honek hurrengo delituen egile deklaritzen zuen hiltzailea: larderia lapurreta eta lanabes arriskutsuak erabiltzea, hilketa, besteen motordun ibilgailuen lapurreta eta bide segurtasunaren aurkako delitua. Alabaina, absortzioa dela medio absolbitu egin zuten etengabe gauzak indarrez lapurtzearen delitutik, eta akusatzen zitzaion legez kanpoko atxiloketa delitutik. Dena den, hezteko eta birgizarteratzeko helburuarekin aplikatu zitzaion 10 urteko erregimen itxiko barneratzea, eta horren ondoren 5 urteko zaintzapeko askatasuna, heziketa laguntzarekin eta esku-hartze terapeutikoarekin; bere ekintzen ondorioak onartu, portaeren erantzukizuna hartu, zailtasunak barneratu eta besteen sufrimenduarekin konektatzeko abilezia emozionalak eskuratzeko xedearekin. Horrez gain, bost urtez Zarautz, Getaria eta Orio udalerrietako lurretara bertaratzea debekatu zitzaion urruntze agindua ezarri zaintzapeko askatasun osagarria indarrean sartzen den egunetik aurrera. Halaber, behin betiko askatasuna eskuratzen duen unetik 500 metro baino gutxiagora hurbiltzeko bi urteko debekua jarri zitzaion; biktimaren senarrarekin, alabekin eta nebarekin edozein bitarteko baliatuta komunikatzea ere galaraziz. Gainera, kalte moralengatik senarrari (350.000€), 10 eta 8 urteko alabei (175.000€ bakoitzari) biktimaren bost ahizpei eta nebari (bakoitzari 37.000€) kalte ordaina emateko agindu zioten. Orotara 922.000€, bere gurasoen erantzukizun zibil solidarioarekin. Alde handiarekin, hau da ikerketako sententzia guztien artean ezarritako kalte ordainik altuena.

62 <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2004-18911>

63 Id CENDOJ: 20069370012012100514.

Txosteneko kasuko aipamenak kontatu bezala, hiltzaile gazteak hasieratik onartu zion hilketa Ertzaintzari, baina defentsa abokatua aldatzean, bere konfesioa zuzendu eta gertakarietako bere partaidetzaren azalpen sinestezin bat eman zuen. Bertsio hartan errugabetzat jotzen zuen bere burua, baina epaiketan zehar egiaztatutako frogak mota guztiek zeharo kolokan jartzen dute bertsioa, bereziki, sententzian txertatu diren kriminal izaerako ebidentziek eta horien inguruko azalpen zehatzek.

Defentsak akusazioaren hipotesi guztiak eztabaidatu zituen, erantzun zibileko balioak bezala, adingabearen gurasoei esleitu beharreko kantitatea ez neurtzea barne. Alderdi honi dagokionez, sententziaren oinarriak dio gurasoen erabateko erantzukizunaren arau orokorra salbuesteko, prozesuaren eztabaidan parte hartu behar zutela adingabearen engainu eta zabartasun larriaren jokaeran ez zutela lagundu demostratuz, baina ez zuten hori egin.

Sententziak biktimaren ahizpei eta nebari kalte ordaina emateko ekintza justifikatzen du: *“agerikoa da hirugarren pertsona batek bortizki hiltzen duen arrebaren heriotza sufritzen duen nebaren kalte morala. Bidegabeki aurkitzen da maite duen pertsona baten konpainia eta afektu gabe, odol lotura izanik. Nebei kalte moralen kalte ordainak ez emateko, familiarterko afektuaren haustea frogatu behar da, eta autoen kasuan [...] urraketa hori ez da frogatzen; bai, ordea, estimu sakona [...] eta elkar lotzen zituzten erlazio sakona”*. Hori dena, beste modu batzuen artean familiako kide bakoitzari hilketak eragindako efektuen frogak prozesura ekarri egiaztatzen dute. Azkenik, sententziak argitzen du, Auzitegi Gorenaren jurisprudentzian oinarrituta, zirkulazio istripuetako pertsonei eragindako kalteen ordainen inguruan indarrean dagoen Baremoaren baitan, engainuzko delituetan: 1. Eremu horretatik kanpo ez dela derrigorrezkoa bere ezarpena. 2. Izaera orientagarriarekin erabiltzen da; eta 3. Erabiltzekotan, minimoen baremo gisa hartu behar da; burugabekeria delituarekin konparatuta delitu engainagarriak kalte moral handiagoa sortzen baitu.

Txosten honek kasu hau “lapurretak eragindako erailketa” gisa kalifikatzen du. Baina hiltzailearen motibazioan erabakigarria izan zitekeen, alde batetik, biktimak zuen desabantaila fisikoa hiltzailearekin alderatuz, 1,91 altuerako gizon gaztea baitzen, erdibideko adina duen edozein emakume arruntek ahultasun handiagoa duela adierazten duen datua, bere tamainako gizabanako batek izango lukeen gizonarekin alderatuz gero. Eta, beste alde batetik, biktimaren bizitzarekiko mespretxua dago, generoak zerikusia duela lapurretak eragindako hilketan pentsa-araztera eramaten duena, eta beraz, feminizidio deitu beharko litzake.

9.- 2011/07/03. Gipuzkoako PA, 1º saila, 187/2014 Sententzia, 2014ko ekainaren 12koa⁶⁴.

Feminizidio intimoa. Biktima: 55 urte. Hiltzailea: bikotekide ohia, 42 urte. Tokia: Hernani. Zifra ofiziala (Ohiko biolentzia) – Homizidio saiakera. Lotura biktima: alaba, 30 urte – Lesioak. Loturengatik biktimak: ezagunak (erasoaldia ekiditera hurbildu ziren bi auzokide).

Frogatu zen lehen gertakaria biktima eta hiltzailearen arteko harremanaren aurrekaria da. Akusatuak eta *Filomenak* erlazio egonkorra izan zuten zazpi urtez, senar-emazteenaren antzekoa. 2008/05/20an akusatua zigortu egin zuten neskaren aurkako tratu txar delitua egotzita, 31 egunez gizartearentzat lan egiteko eskatuz. Sei hilabetez gutxienez 100 metroko distantzia gordetzera kondenatu zuten.

⁶⁴ Id CENDOJ: 20069370012014100159.

2011/05/01ean *Filomenak* gizonaren aurkako salaketa jarri zuen iraindu eta umiltzeagatik. Une hartatik aurrera utzi zuen bertan behera emakumeak erlazioa. Hurrengo egunean deklaratzera deitu zuten Emakumeeganako Indarkeriaren arloko Auzitegira (EIA), “*salaketa kendu*” zuen, eta diligentziak artxibatu ziren. Ez dago argi diligentziarik egon zen salaketa kentzearen zergatia ikertzeko. Automatikoki artxibatu zuten, ez da bestelako jarduerarik agertzen, Biktimaren Arreta Zerbitzura bideratu izana, Gizarte Zerbitzuei txostena eskatzea, edo, kasu horretan, udalerriko Emakumeen Arreta Zentrora jotzea kasu.

Frogatutako bigarren gertakariak epaitegiak auzitaratzen dituenak jasotzen ditu:

“Bigarrena. Filomena eta bere alaba, Berta, Angelicaren etxera zuzendu ziren [...] Hernani (Gipuzkoa). Etxebizitzatik metro gutxira zegoen akusatua banku batean lo egiten, eta bere aldamenetik pasatzean, Filomenak esnatu egin zuen, etxera lo egitera joateko konbentzitzen saiatuz.

Filomena eta bere alaba Berta Angelicaren bizileku barnean zeudenean [...] akusatuak [...] kanpoaldetik [...] tonu mehatxatzaile eta agresiboan oihukatu zuen “zor didazun guztia ordainduko duzu”.

Filomenak eta Berta akusatua inguruan ez zegoela egiaztatzean [...] zuzendu ziren Taxi-geralekura [...] auzipetua bi hauen bizitzaren aurka atentatzen saiatu zen momentu horretan, bi neskengana hurbildu zen isilpean ezkutuko labana batekin, eta behin haiengandik hurbil egonda, ezustean eta oso bizkor erasotu zuen Berta. Borroka txiki baten ostean, lurrera bota eta hainbat sastakada sartu zizkion [...].

Berehala, Filomena erasotu zuen, lurrera bota zuen, bere gainean jarri zen edozein mugimendu galaraziz, eta sei sastakada sartu zizkion [...].

[...] Inguruan zeuden Roke eta Leopoldok oihuak entzun zituztenean [...], gertakariaren lekura joan ziren, erasoaldia amaitzeko intentzioarekin [...] akusatuak [...] bi mutilak erasotu zituen [...].

Filomena hil zen [...].

B) [...] Bertak lesioak [...] jasan zituen [...] trauma osteko estresaren nahasmendua [...] antsietate eta depresio koadroa [...] kirurgialariaren kontrola [...] tratamendu psikoterapeutikoa [...]

C) Leopoldok [...] berariaz uko egin dio dagokion kalte-ordainari

D) Roquek lesioak jasan zituen [...].

Egitate epaiketak, frogen errendimendua jasotzen du. Froga horien artean daude, besteak beste, *Filomenak* jasaten zuen ohiko tratu txarren egoera kontatzen duten lekukoek testigantzak. Hala ere, prozesu honetan ohiko biolentzia baztertu egin zen, existituko ez balitz bezala.

Bere ama hilda, bizirik atera zirenetatik, Berta izan zen egoera txarrean geratu zena. Kalteberatasun handidun egoeran dago- behar bereziak ditu, bere amaren menpe zegoen-, eta ondorio txarrenak pairatu ditu, logikoki, konpentsatzerako orduan kontutan hartu

beharko litzakeena (sinbolikoki behintzat). Paradoxikoki ez zen horrela egin. Sententziak hiltzailea, salatzaileak eskatutako kalte ordainak ematera kondenatu zuen. Baina honen joera kritikagarria da: Harrigarria da *Bertak* lesio gehiago izanda, *Rokerenak* baino larriagoak; kontzeptu honen kalte ordaina soilik 742 € aldatzea. *Bertarentzat* eskatutako kalte ordainak, ibilgailuen zirkulazioaren baremoan oinarrituta, ez du kontuan hartzen ondorioengatik kalte moralengatik sufritu zuen minaren larritasuna, bihotzean sartu zion sastakada baten ondorioz hiltzeko zorian egon zen eta. Are, berarentzat bereziki larriak izan ziren nola biktima zuzena izan zen delitua hala bere amaren heriotza. Bere mina eta sufrimendua balioz gutxituta daude, kasu honetako gainontzekoen kalte ordainei dagokienez (eta beste kasuetako indemnizatuak ere bai). Sententziak, lesio eta ondorioez gain, “*kalte moralengatik*” kantitate bat finkatzen du – akusazioetako batek “bere amaren heriotzagatik” eskatzen du, eta besteak “lesioengatik”-, eta biak zaku berdinean sartuta delitu bat edo beste ahaztu zuten; edo argi esanda, gutxiegi baloratu zituzten.

Gainera, ez da ulertzen, sententziak ez du azaltzen, zein arrazoiengatik esaten den amaren kasuan hiltzailea hurbiltzen behintzat ikusi zuela, haren erasoaldia espero gabe, ez bere alaba hiltzeko asmoarekin, bizkarra ematen baitzion, nahiz eta erasotutako lehena izan. Azpikeriazko egoeraren azalpena eman ostean, kasua azpikeria proditoriatzat deklaratu zen - biktima fidakor zegoelako, ez zuen erasoaldirik susmatzen- ustekabeko azpikeria erantsita – “*akusatuaren bat-bateko ekintza azkarrak ez ziolako biktimari utzi erasoaldia saihesten edo horren kontra egiten*”. Sententziaren arabera, “*homizidio saiakera*” da, eta hilketa izan beharko litzateke; proditoria eta ustekabeko azpikeriak, edo gauza gehiagok, osatu zuten *Bertaren* erasoaldia. Ez da posible izan ZK-eko 23 artikuluko *in malam partem* interpretazio zabalak saialdiari ahaidetasun larrigarriaren zirkunstantzia aplikatzea, nahiz eta hiltzailea *Bertaren* familiaren etxebizitzan bizi, bere amaren bikote gisa zazpi urtez.

Sententziak hiltzailearen aurretiko alkohol kontsumoa aintzakotzat hartzen du margen legalaren barnean zigor minimoa ezartzeko, eta honako kondena ezartzen dio: ahaidetasun larrigarriarekin burututako azpikeriazko hilketa delituaren egile izateagatik 17 urte eta sei hilabeteko espetxeratzea, kondena osagarria eta kostuak barne; erantzukizunaren zirkunstantzia moldagarririk gabeko homizidio saiakeraren delituaren egile izateagatik zazpi urteko kartzela zigorra, defentsak onartu zuena; eta lesioen delitu bakoitzagatik urte bateko kartzela zigorra (adostasuna erakutsi zuen baita ere).

Azkenik, hiltzaileari Hernanira joateko debekua ezarri zitzaion, baita *Bertarengana*, bere etxera, lantokira edo dagoen tokira, 500 metro baino gutxiago hurbiltzekoa ere. Halaber, berarekin 20 urtez komunikatzea galarazi zioten; zentzu horretan bai hartu zuten aintzat bereziki *Berta*, baina agian gainontzeko biktimak pixka bat ahaztu zituzten, zuzenekoak eta zeharkakoak. Kalte ordainei dagokienez, honakoa ebatzi zuen sententziak: *Andresi* eta *Amadorri*, biktimaren beste bi semeetako bakoitzari 50.000€ ematea; *Bertari* 120.000€ kalte moralagatik, 9.307€ lesioengatik eta 27.746.19€ ondorioengatik ordaintzeko agindua; eta *Rokeri* 8.565€ lesioengatik eta 865,5€ ondorioengatik pagatzeko beharra.

10.- 2011/08/22. Bizkaiko PA, 6. saila, 34/2013 Sententzia⁶⁵, 2013ko ekainaren 7koa.

Feminizidio intimoa. Biktima: 36 urte. Tokia: Bilbo. Zifra ofiziala- Sexu- abusu jarraitua. Biktimak: 16 eta 12 urteko alabak (feminizidioa gertatu zenean) – Ohiko biolentzia. Biktimak:

⁶⁵ Id CENDOJ: 48020370062013100534.

aurrez aipatuak eta 10 urteko semea. Hiltzailea: senar ohia, aita, 38 urte. Etengabeko kondena urraketa.

Defentsaz gain, fiskaltzak esku hartu zuen akusazio publikoa formulatuz, eta Estatuaren Abokatuak eta Bilboko Udalak herri-akusazio gisa.

Hau kasu paradigmaticoa da ikerketa honetan, eta salbuespena. Izan ere, aztertutako 18 sententzietatik ikerketa bitartean agertu ziren delituak ikertu eta auzitegiak kondenatu duen kasu bakarra da, feminizidioan bukatu zuen egoera kokatzen duena: ohiko tratutxarra, eta ikusezinagoa den delitu bat, kasu honetan bi: haurren sexu-abusuak (HSA). Hau sistema patriarkalak, nahiz eta formalki zigortu, biktimak isilarazteko mekanismoak sortzen dituelako gertatzen da [etengabe moldaketan daudenak], biolentzia hauek ikusezin izaten jarraitzea lortuz. Azpimarratu behar da seme-alabak HSA egoeretatik edota aitak eragindako indarkerietatik babesten saiatzen diren emakumeak, Justiziari laguntza eskatzea irtenbide bakartzat dutenak, akusatu egiten dituztela sistematikoki -eta inguruagatik- salaketa faltsuak jartzea eta *ahaidetasun alienazio sindromea* leporatuta. Edo, terminologia berriagoan esanda, *ahaidetasun edo senideen arteko interferentziagatik*. Beraz, abusu egoera bizi duen amak oso zaila du bere seme-alaba babestea, aitari zaintza eta kustodia eskusiboa ematera arriskatzeko da [komunikazio erregimena eta haurrarekin egonaldia galtzera]. Horretaz aparte, salaketa faltsuagatik prozesatua eta kondenatua izatera arriskatzeko da; edo gutxienez, nahiz eta absolbitu, bere eta seme-alaben egoera oso ezegonkorrari aurre egitera, eldarniokeria jasangaitzari, hain zuzen⁶⁶.

Kasu honetan ez zegoen amarik bere alabak eta semea manipulatu zituela leporatzeko; sexu abusuen salaketa umeen izebak jarri zuen hilketaren ondoren; baina aitak alabek gezurra ziotela argudiatu zuen. Bere abokatuak galdeketa egin zien haurrei, *“ea norbaitek zer egin behar zuten azaldu zien”*. Umeen testigantzak sinesgarritasun ebaluazio psikologiko batekin frogatu ziren, eta azterketa gainditu zuten. Letradu defendatzaileak *“masokistatzat eta ez ohiko erlaziotzat”* jo zuen, *“haurrak, adierazten dutena gora behera, bere aitarekin erlazonatuko direla”*. Alaba nagusiak azaldu zuen ez zuela aurretik kontatu beldurra eta lotsagatik, nahiz eta zuela askotik *“bere amak jakin”*. Emakumeak hilketa baino lau hilabete lehenago jarri zuen salaketa eraso bategatik. Huts egitea medio zigor-epai batekin bukatu zen auzia berehalako epaiketan, hiru hilabeteko urruntze neurriarekin. Akusatuak Ertzaintzari esan zion atxilotutako momentuan: *“seme-alabak kendu nahi zizkidalako hildut”*. Alabak eta semeak aita preso zegoenean soilik hitz egin ahal izan zuten.

Fiskaltzak eta gainontzeko akusazioek honela kalifikatu zituzten gertakariak: azpikeriazko hilketa delitu bat, familiarteko eremuan ohiko tratutxarren beste delitu bat, abusu sexualen bi delitu jarraikorrak, eta etengabeko kondena urratzearen delitu bat. Guztira, 30 urteko espetxeratzea eskatu zuten [20 urte, 3, 3, 3 eta 1, hurrenez hurren], baita inhabilitazioaren osagarriak, armen jabetze eta erabiltze debekua, hiru seme-alabekiko urruntze agindua, seinalatutako epealdian gurasotasun debekua, eta erantzukizun zibilaren kalte ordaina ere. Sententziak adierazten duen bezala, herri-akusazioak erantzukizun zibilagatik fiskaltzak baino kalte ordain egokiagoak eskatu zituen gertakarien larritasunari dagokionez (120.000 € seme-alaba bakoitzarentzat amaren galeragatik, eta 20.000 € alaba bakoitzarentzat sexu abusuek sortutako kaltearengatik).

⁶⁶ Materiaren inguruan, sakontasun handiagoz, Maria. M. Daza Bonachela: *Escuchar a las Víctimas*. Tirant lo Blanch, Valentzia, 2015, 36 [oharra], 422 orritik 450era.

Defentsak, behin-behineko erabakian absoluzioa eskatu zuen, baina aldatu egin zuen behin betiko ebazpenean, akusatuak bere ematzea hil izana eta kondena urratzea soilik onartuz, zirkunstantzia salbuesle gisa depresio batekin lotutako desoreka mentala alegatuta.

Sententziak frogatutako gertakaritzat jaso ditu:

"[...] bikotekide bezala bizi izan ziren hamazortzi urte baino gehiagoz [...].

[...] Elkarbizitza hasi zenetik erasotzen zituen Jeronimo jaunak fisikoki jazartzen zituen hiru seme-alabak. Berdin aipatzen da Crescencia anderea, fisikoki kolpatzeaz gainera, "emagaldua", "urdanga"... deitzen zuela [...] Edo, Brigidak sei edo zazpi urte zituenean, bere aita, Jeronimo akusatua, ohean etzaten zela umearekin [...] eta ukitu egiten zuela behin eta berriz [...] Ezin izan da zehaztu zenbat aldiz [...] baina bai errepikatu egiten zela.

Antzera jasota dago Maria Doloresek sei urte zituenetik, Jeronimo jaunak alaba biluzten zuela, edo biluztea eskatzen ziola [...].

Halaber, egiaztatua dago 2010eko irailean, Jeronimo jaunak Crescencia anderea erasotu zuenean, etxetik alde egiteko eskatu ziola emakumeak egoera horrekin ez jarraitzeko, akusatuak onartu ez zuen erabakia.

[...] 2011ko apirilean, Crescencia andereak salaketa jarri zuen Jeronimo jaunaren aurka Epailearen aurrean. Huts egiteen epaiketa hasi eta berehala amaitu zen Jeronimo jaunaren aurkako kondena-epaiarekin. Zigorren artean, Crescencia anderearekin komunikatzeko debekua ezarri zioten, baita emakumea zegoen tokitik bostehun metro baino gutxiago gerturatzeke ukapena ere [...] baina etxebizitza ingurura hurbiltzen jarraitu zuen [...]

[...] igogailuko atea ireki zuenean [...] sartu zion Crescenciari gorputzera gainean zeraman 25 zentimetroko urdaiazpiko aiztoa [...] ustekabea eta ezustean egindako eraso izan zen".

Sententziak egindako frogak ikertzen ditu, akusazio bakoitzari dagokionez gertakariak nola finkatu diren arrazoituz.

Hiltzailea zauriak biktimak egin zituela baieztatzeraz heldu zen aiztoa kendu eta gero. 19 zauri izan ziren orotara, eta azpikeriazko konkurrentzia onetsi zen, baina ez ankerkeria. Harrigarria da kasu batzuetan ankerkeria ez dela balioztatzen biktima azkar hiltzen delako, eta suposatzen delako "postmortem" zauriek ez dutela mina eragiten – zuzeneko biktimari mina eragiten ez dion arren, gertuko pertsonen sufrimendua eragin lezake, zeharkako biktimena -. Beste kasu batzuetan, honetan bezala, ez da ankerkeria balioztatzen biktima ez delako azkar hiltzen, beranduago baizik; hortaz, hiltzeko asmoa besterik ez dagoela kontsideratzen da, ez beharrezkoa ez den mina areagotzearena.

Ohiko tratu txarren akusazioari dagokionez sententziak gaitzespen tonu batean adierazten du erantzun judiziala, *Crescencia* bere senarra lau hilabete lehenago salatu zuelako ohiko tratu txarrengatik:

"[...] Mota guztietako irainak jasotzen zituela azalduz etorri zen, mehatxuak [...]. Erasoaldi fisiko bat kontatzen du [...] eta duela gutxi (salaketaren datan) telefonoz deitu zuela "putakumea, hilko zaitut" esanez. [...] kontua salatzailearekin adostutako sententzia batekin

amaitzen da, baina prozedurak huts egiteen epaiketa azkar gisa jarraitu zuen, isekengatik falta soil batera kondenatuz”.

Hau, genero indarkeriaren kasu gehientsuen trataerarekin Epaitegietan gertatzen denaren adibide bat da. Biktimak salatzeke beldurra du, egoera zenbat eta larriagoa izan, izua ere bai. Horregatik, salatzean, askotan, gauza asko isiltzen dituzte ez hiltzeko. Eta ez dio ezinbestez jasaten duten sufrimendua kanpoaldeari erakusten. Denbora, espazioa, eta formazioa behar da biktimen isiltasuna entzuteko, hauek isildu ohi dutena adierazi ahal izateko, seguru sentituz. Baina sistema ez dago prestatuta, ez emakume hauek babesteko, ezta entzuteko ere ez. *Biktima idealaren* irudia dute, biktimen kategorien irudi estereotipatu batzuk (ikus Herrera Moreno, 2012: 82). Eta biktimatzat estereotipoari erantzuten diotenak soilik identifikatzeko joera dute. Bikote heterosexualekin erlazioa duten genero indarkeriaren biktimentzat, honek, Auzitegi Gorenaren jurisprudentziak islatzen duenaren antza du, 2. OJ- D sententziako 19. orrian biktima aipatzen duena: *“konfusio eta beldur egoera, espresio minimoetan autoestimu falta, segurtasun eza [...]”*, baina hori ez da biktimizazioa jasaten duten benetako emakumeen irudia. Emakume gehienek, ezarritako egoerari aurre egitea erabakitzen duten momentuan, egoera horretatik ateratzeko salaketa jarrita – haien kasa ezin izan dutelako, nahiz eta behin eta berriro saiatu- ez dute estereotipo horrekin bat egiten, ez dute aurpegian marraztuta eramaten eragiten dien egoera hori; baina, logikoki, ez dute beraientzat nahi. Auzitegi Gorenak *familiarteko bakean* jartzen du arreta 173.2 artikulua motak babesten duen ondasun juridiko gisa, ohiko biolentzia eremu familiarrean zigortuz, baina ez du delitu honek babesten dituen ondasun juridikoen berri ematen. Babestutako ondasun juridiko gisa kontsideratu behar ditugu momenturen batean ohiko tratatu txarren egoeretan bortxatuak izan diren biktimen oinarritzko eskubide bakarrak edo guztiak: duintasuna, berdintasuna, segurtasun fisiko eta morala, askatasuna, segurtasuna, ohorea, intimitatea, irudi propioa, izaeraren garapen librea, bizitza...

Deigarria da defentsa abokatuak zirkunstantzia aringarriaren konkurrentzia planteatzeko frogatutako gertakariak biltzen dituzten gauzak argudiatzea *“normala dela, ohikoa familia batean”*. Hala ere, defentsak alegatzen zuen motibazio kulturala sententziak zentzuz desegin zuen, arrazoi horren edozein arintze gaitzesteko.

Sententziak akusatua kondenatu egiten du delitu bakoitzagatik lege-mailaren barneko zigor maximoak ezarritz, akusazioek eskatu bezala, 30 urte orotara. Bilboko Udalaren izenean herri-akusazio gisa aritu zen abokatuak eskatutako kalte ordainak aitortu zitzaizkien seme-alabei: 120.000 € bakoitzari erailketagatik, ziurrenik inoiz jasoko ez duten kalte ordaina. Kasurik onenean bakoitzaren ordaina gehienez 20.235 eurora murriztuko da, laguntza publikoko abenduaren 11ko 35/1995 Legearen⁶⁷ kontzeptuari jarraiki, delitu bortitzen eta askatasun sexualaren kontrako delituen biktimentzako laguntzak eta asistentzia eskaintzen dituelako, beti ere sententzia ematen den unetik urte bat baino lehenago eskatzen badute laguntza. Horrez gain, alaba bakoitzari 20.000 € ordaintzera behartu zuen hiltzailea abusu sexualengatik (epe berdinean, askatasun sexualaren kontrako delitutik eratorritako tratamendu terapeutikoaren gastuentzako laguntza publikoa eska zezakeen, gastua frogatuz, gehienez 5 aldiz IPREM: 2.662€). Horrez gain, hiltzaileari bere bi seme-

⁶⁷ Zaharkitua dagoen legea da, berrikusteko eta eguneratzeko beharra duena, egin behar zen momentuan burutu ez bada ere, Biktimaren Delitu Estatutuaren apirilaren 27ko 4/2015 Legearen onarpenean egon baitzen aukera (BDE). Faltsua da, azken honen itzulingeruan, “biktimaren eskubideen lege katalogoko testu bakar baten” baieztapena: erreparazioa ahaztu zuen, ez baitu biktimen eskubideen 3.artikuluari aipatu ere egiten, eta barkaezina da ahanztura hori (Daza Bonachela, 2015:272). Ikusi BDE 2015eko apirilaren 28ko EA0ko 101.zenbakian.

alaba txikien guraso-agintea debekatzen dio epaiak; eta urruntze agindu bat adosten dute, 500 metroko segurtasun neurri batekin *"bizi, ikasi, lan egin edo edozein momentutan egon daitezkeen tokitik [...]"*. Ildo beretik, edozein bitarteko baliatuta 30 urtez komunikatzeko debekua ezartzen zaio hilketa delituagatik, 5 urte ohiko tratatu txarren delituagatik, eta alaben kasuan beste bost urte abusu sexualen delituagatik. Azkenik, kostuak hiltzailearen gain geratzea ebatzen du sententziak -eta honetan ere salbuespena da kasu hau- Bilboko Udalak gauzatutako herri-akusazio gastuak barne (nahiz eta zuzenbide publikoko pertsona juridikoak kontsideratu, ez dutelako akzio penalaren jardueraren legitimaziorik, Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Gobernuaren Ordezkarik gisa doan Estatuko Abokatuak izan ezik).

11.- 2012/03/25. Gipuzkoako PA, 1º saila, TJ, 191/2014 Sententzia, 2014ko ekainaren 26koa.⁶⁸

Feminizidio intimoa. Biktima: 39 urte. Hiltzailea: bikotekidea, 28 urte. Tokia: Tolosa. Zifra ofiziala.

Prozesu honetan hartu zuten parte inputatuaren defentsak; fiskaltzak, akusazio publiko bezala; biktimaren seme adingabeak, akusazio partikular modura; eta Clara Campoamor Elkarrekin zein Tolosako Udalak herri-akusazio gisa.

Behin behineko ondorioen tramitean fiskaltzak azpikeria eta ankerkeria hilketa delitu gisa kalifikatu zuen, ahaidetasun larrigarriarekin; eta 20 urteko kartzela zigorra eskatu zuen, biktimaren seme txikiari (ez zen hiltzailearen semea) 100.000 euroko kalte ordaina ematearekin batera. Gainontzeko akusazioek bat egin zuten zigorraren eskaeran, nahiz eta, hasieran ez zuten ankerkeria hauteman (batzuek, ahaidetasuna ere ez). Horregatik, akusazio partikularrak 175.000 euroko kalte ordaina eskatu zuen eta, inhabilitazio bereziaren eta prozesuaren kostuen ordainketaren zigor erantsia ere.

Defentsak homizidio gisa kalifikatu zituen gertakariak, hainbat larrigarriren eragina aipatuz: substantzia psikotropikoak, haserrealdia eta itsualdia. Gertakariaren aitortzea egiteagatik eta argipenean laguntzeagatik lau urteko kartzela zigorra eskatu zuen defentsak. Epaketa ostean, fiskaltzak 25 urteko kartzela zigorra egozteko moldaketa egin zuen; akusazio partikularrak eta herri-akusazioak ankerkeria larria ikusita 25 urteko espetxe eskaera proposatu zuten; eta defentsa legitimo osatugabeagatik salbuestea.

Auzitegiak erruduntasun epaia eman zuen, frogatutako gertakari gisa deklaratzuz:

Lehenengoa. "Akusaturia [...] Raimundaren bikote sentimentala zen [...] biak etxebizitza berdinean bizi ziren [...]."

Erlazioa [...] akusatuaren jarrera agresibo eta jeloskorrak baldintzatzen zuen; hori zen bien arteko etengabeko eztabaida gogorren arrazoia.

Bigarrena. 2012ko martxoaren 23an, 8,5 zentimetro baino gehiago zituen aiztoa hartu zuen sukaldetik eta Raimundari lepoan sartu zion [...] heriotza eraginez [...].

⁶⁸ Id CENDOJ: 20069381002014100007.

Laugarrena. Akusatuak [...] Raimundaren mina eta ankerkeria nahita areagotu nahi zuen [...] heriotza eragiteko beharrezkoak ez ziren jasankizunak gauzatu.

Bosgarrena: Jarraian, akusatuak aiztoa garbitu zuen eta suizidio frustratu bat simulatzen saiatu zen. Mozketak egin zizkion bere buruari aizto batez eskuineko ukondoaren inguruan, eta sotoko trasteleku baten tutu batetik soka batzuk eskegi zituen”.

Akusatua ankerkeria eta azpikeriazko hilketa delitu bategatik kondenatu zuten, 22 urte eta 6 hilabeteko kartzela zigorra ezarriz, kondenak iraun bitartean inhabilitazio absolutuaren oinarriarekin, biktimaren semeari 175.000 euroko kalte ordaina eman beharra aginduz, eta prozesuko kostuak bere gain utziz, akusazio partikularrena barne.

Ikertutako gehienetan bezala, prozesu honetan akusatuak bikote harremanean ohikoan biolentzia baliatzen zuela jasotzen da, baina ohiko indarkeriaren delitua baztertu egiten da, existituko ez balitz bezala. Horregatik da beharrezkoa hizkuntzari arreta jartzea, errealitatea ezkutatzeko balio duten hitzak daude eta: *“askotan ematen ziren eztabaidak”*. Indarkeriaren biktima izan diren emakumeak artatzen direnean erabiltzen dituzte termino horiek, haien bikotekidearekin *“borrokatu zirela”*, edo *eztabaidak zein borrokak* izan dituztela edo zituztela. Borrokak nolakoak ziren galdetzean, azaltzeko denbora emanda, askotan azaleratzen da, deskribatzean, ohiko tratu txarren egilearen eraso fisiko eta psikologikoak direla gertatutakoak. Gainera, tratu txarren egileak *“borrokatzea”* deitzen dio haren exijentziei men ez egiteari, emakumeak arazoa argudiatzeko, defendatzeko edo baztertzeko egiten duen saiakerari; haren agresibitatea askatuz.

Kasu honetan, ankerkeria egon zela hauteman zen, izan ere, biktimak lepoan azaleko mozketak txikiak zituen. Hala ere, ez zen erreminta hura izan heriotzaren kausa, hiltzaileak Auzitegiari sinestarazi nahi izan zion biktimak *“berak bakarrik egin zituela zauriak mugitzen saiatu zenean”*, bai eta emakumeak bera erasotzeko saiakera egin zuela ere. Mediku txostenek adierazi zuten akusatuak ez zuela berak azaldutako errugabetasun bertsioarekin bat zetorren lesiorik, are, eskuineko besaurrean berak bere buruari egindako zauriak zituen. Argudiatutako defentsa legitimo osatugabea salbuesle bezala ez baloratzeak baldintzatu zuen ere akusatuaren adierazpenen sinesgarritasun faltagatik aitortu izanaren aringarria ukatzea. Defentsa erantzukizun kriminalaren aringarria lortzen saiatu zen; akusatuak egun batzuk lehenago kontsumitutako substantzia estupefazianteak baliatuta, froga forentseekin egiaztatu zuena. Alabaina, lekukoen testigantzek frogatu zuten bere jarrera eta argitasun egoera oso normala zela gertakarien egunean; horregatik baztertu egin zen asmo aringarria. Zirkunstantzia hau, bere lagunari hurrengo egunean bidalitako mezuarekin batera, *“nire maitea hil dut [...] abisatu polizia [...]”*, baliagarria izan zitzaion marko legalaren barneko zigor minimoa ezartzeko. Kasu honetan faltan botatzen da, agian, akusazioek urruntze neurria eskatu ez izana zeharkako biktimentzat.

Azkenik, sententziak azaltzen duenez, kaltea konpontzeko izaera orientatzailea duen zirkulazio istripuetako kalte ordainetako baremoa erabiltzen da, igoera arin bat erantsiz delituaren intentzio izaeragatik. Kontutan hartu beharko litzateke intentzioak gertakaria ez duela arintzen, substantzialki desberdin eta larriagoa bilakatu baizik; eta beraz, orokortasunean, kalte ordainen igoera handiagoa izan beharko litzateke, arina baino, substantziala.

12.- 2012/05/25. Bizkaiko PA, 2. saila, TJ, 7/2014 Sententzia⁶⁹. 2014ko urtarrilaren 29koa.

Feminizidio ez intimoa. Biktima: 55 urte. Hiltzailea: auzokidea, 42 urte. Tokia: Bilbo. Zifra ez ofiziala. Irregularitasun psikikoa, osatu gabeko salbueslea.

Partaideak: defentsak; fiskaltza akusazio publiko gisa, eta biktimaren guraso eta anai-arrebek ordezkaturako akusazio partikularra.

Akusatuak aurrekari penalak zituen bi kondena irmogatik, lesioengatik bata, 2010/09/09; eta familiarteko tratatu txarreetatik bestea, 2012/01/13; eta eskizofrenia paranoidea du.

Epaiak frogatutako gertaerak (laburpena):

[...] akusatua bere etxean zegoen [...] Goiko pisuko auzokidea, Gema, etxetik atera zela entzun zuenean, sukaldeko aizto bat hartu zuen, 9 zentimetroko xaflakoa [...] tresna bere arropa artean ezkutatu eta emakumearen bila joan zen; ez dago frogatua une hartan haren bizitzarekin amaitzeko intentzioa zuen edo ez.

Gema kalera arte jarraitu zuen, berarekin hitz egin nahi zuela esaten zion bitartean [...].

[...] aiztoa atera zuen bat-batean, ustekabea, eta iltzatzeari ekin zion [...]. “

Gertakariak hurbiletik ikusi zituzten lekukoak egon ziren. Etengabeak eta jarraikorrak ziren sastakadak, akusatuak aiztoa berea zela aitortu zuen, biktima ezagutzen zuela azaldu zuen baina ez zuela erlaziorik berarekin; haren heriotzarekin zerikusirik zuen ezer gogoratzen ez zuela esan zuen. Gertakariaren aurretik amari esana zion *“nazkatuta zegoela goiko auzokideaz zarata handia egiten zuelako gauetan”* (1º ZO). Forentsearen txostenak ezagutzera eman zuen gertakariaren unean ez zegoela eldarnio agerraldi baten unerik gorenean, eta beraz, aipaturako memoria galtzea oso zaila zela justifikatzeko. Azkenik, adimen eta borondatezko gaitasunen eragina neurrizko eta larriaren artekoa zela ondorioztatu zen (4. ZO).

Sententzian jasotzen ez dena da, antza, azken urteetan zortzi aldiz atxilotu eta inputatu zutela bere auzokideei mehatxatu eta erasotzeagatik zein suntsiketak eragiteagatik. Emakumeak bereziki gorroto zituen, eta prentsak argitaratutako informazioak dienez, bereziki bortitza zen hauekin. Era berean, epaiak ez du azaltzen lesioengatik aurrez ezarritako kondena bizi-lagun bat arma txuri batekin erasotzeagatik izan zela.

Bai jasotzen du aldiz:

“Mediku psikiatrek [...] ezarritako anbulatorioko programakoek adierazi zuten akusatua lehenengo kontsultetara joan zela [...], medikamentua hartzen zuela esaten ziela [...]. Gizarte laguntzailearekin zituen hitzorduetara joateari utzi ziola [...]” Sententzien arteko harremana dagoen 4 eta 5 kasuetan bezala, atentzio eta prebentzio sistemak huts egin zuen. Seinaleei jaramon egin izan baliote, gaixoaren osasun mentala hobetzeko etxeko arretera egokia jarri balitzaio, heriotza saihestu zitekeen ⁷⁰.

⁶⁹ Id CENDOJ: 48020381002014100001.

⁷⁰ Esaterako, 1987an “Las Nieveseko” (Araba OSAKIDETZA) mediku zuzendariak deskribatu zuen ereduarekin bat. Ikus José Ignacio Zuazo: “Asistencia domiciliaria en salud mental, Aspectos Socioasistenciales y Sanitarios”, *Zerbitzuan: Gizarte zerbitzuetarako aldizkaria* – Revista de servicios sociales, 3. zenb, 1987.

Eskizofrenia paranoidea duten pertsona askok behar dute eskaintzen ez zaien etxeko arreta berezia haien bizitza eta gaixotasunaren kontrola kudeatzeko. Horrek ondorio kaltegarriak ditu gaixo dauden pertsonengan, familiengan, eta kasu honetan bezala, auzokideengan. Pertsona guzti horiek gain hartuta ikusten dira zeharo, kudeaketa eta kontrolaren jabe egiteko aukerarik gabe; eta askotan sufritzen dituzte biktimizazio egoerak, urruntzen edo gaixoa osasun mental akutuen unitatera sartu-arazten bakarrik saihestu daitezkeenak. Bertan geratzen da medikuaren irizpidearen arabera egonkortu arte, alta jaso eta hurrengo krisia izan arte.

Fiskaltzak behin behineko ondorio gisa ondorengo biak kalifikatu zituen. Lehen ondorioa azpikeriazko hilketa izan zen, irregulartasun edo alterazio psikikoen osatu gabeko zirkunstantzia salbueslearekin; 15 urte baino egun bat gutxiagoko kartzela zigor-eskaera, tarte horretan inhabilitazio absolutua jartzearekin batera. Horrez gain, segurtasun neurri gisa proposatu zuten tratamendua jasotzeko psikiatrikoan sartzea eta askatasuna mugatzea 20 urtez, espetxeratze zigorrari kenduko litzaiokeen denbora. Zigor eta neurri hori bete ostean, 5 urteko zaintzapeko askatasuna ezarriko litzaioke segurtasun neurri gisa, mediku tratamendua jarraitzeko betebeharrarekin, aldikako mediku kontrolak gauzatuz. Bigarren ondorioztat aldikako homizidio delitua aurkeztu zuen fiskaltzak, salbuesle berdinarekin, nagusitasun-abusuaren larrigarriarekin; 10 urte baino egun bat gutxiagoko kartzela zigorra ezarritz. Halaber, kondena bete bitartean, sufragio pasiborako eskubidearen inhabilitazio berezia eta aurretik aipatutako segurtasun neurriak ezarri ziren: tratamendu psikiatrikorako 20 urteko barneratzea eta zaintzapeko askatasuna 5 urte gehiagoz mediku kontrolarekin. Erantzukizun zibilagatik, ordea, biktimaren gurasoei 75.000 euroko kalte ordaina ematea eskatu zuen, eta prozesuaren kostuak ordaintzea.

Akusazio partikularrak behin betiko kalifikatu zuen delitua azpikeriaz eta ankerkeriazko hilketa gisa, erantzukizunaren zirkunstantzia aldagarririk gabe. 25 urteko kartzela zigorra eskatu zuen, inhabilitazio absolutua eta gastuak beregain hartzea; eta horrez gain, biktimaren gurasoentzat 250.000 € eta anai-arreba bakoitzarentzat 40.000 euroko kalte ordainak.

Defentsak alterazio psikikoz eta erabateko zirkunstantzia aringarriekin izandako homizidio gisa kalifikatu zuen, eta beraz, absoluzioa eskatu zuen, 10 urtez zentro psikiatriko batean sartzea onartuz, segurtasun neurri gisa askatasuna mugatuta. Biktimaren gurasoei eragindako kalteagatik, aldiz, 75.000 euroko kalte ordaina proposatu zuen.

Ahozko epaiketa egin eta Auzitegiaren Erruduntasun epaia eman ostean, fiskaltzak bere lehen aukeran aurreikusitako zigorrak ezartzea eskatu zuen. Akusazio partikularrak ere zigor berdinak eskatu zituen, aurrez adierazitako kalte ordain kopuruaren eskaera errepikatuz, biktimaren guraso eta anai-arrebentzat. Defentsak, berriz, 7 urte eta 6 hilabeteko kartzela zigorraren ezarpena eskatu zuen, epealdi berean sufragio pasiborako eskubidearen jardunaren inhabilitazio berezia, eta 15 urtez tratamendu psikiatrikoa jasotzeko barruratzeko segurtasun neurria, kartzela zigorraren baitan abonatu zena. Bestalde, biktimaren gurasoentzako kalte ordaina 75.000 eurotan finkatzea planteatu zuen.

Sententziak – zeinetan sexismo linguistikoaren zantzuren bat detektatzen den: generoaren diskordantzia, “la médico psiquiatra”- akusatua azpikeriazko hilketaren delitu-egile gisa kontsideratzen du, irregulartasun edo alterazio psikikoaren larrigarri osatugabearekin

(zigorra gradu bat jaisten duena). Hala, 13 urteko kartzela zigorrera kondenatzen du hiltzailea, akusazioek eskatutako segurtasun neurriekin (20 urteko barneratzea zentro psikiatriko batean eta 5 urte gehiagoz zaintzapeko askatasuna, mediku tratamendua jarraitzeko betebeharrarekin). Horrez gain, osagarriak, biktimaren familiarentzat erantzukizun zibilagatik kalte ordainak ematea eta prozesuaren kostuak bere gain hartzeko eskatzen du, akusazio partikularrenak barne.

Berriro ere, emakumearen heriotza azkarra dela medio, ez da larrigarritzat hartzen ankerkeria, nahiz eta hiltzaileak biktimari 52 saskakada sartzeko portaera objektiboa izan – ankerkeriaren definizio legala berriz pentsatzea planteatu beharko litzateke agian; kontuan hartuta, hiltzailearen asmoaz gain, gertatutako egintza; eta zeharkako biktimen beharrak eta sentipenak, probabilitate guztiarekin areagotzen delako muturreko biolentzia horren sufrimendua; bere alaba edo ahizparen gorpua txikitua agertzearekin bat. Gai hauei berriro heldu beharko zaie, arrazoi gehiagorekin, sententzia hauen 15.kasua aztertzean.

Kalte ordaina ezartzean, Auzitegiak akusazio publikoak eta partikularrak eskatutakoaren erdibideko jarrera aukeratzen du. Izan ere, familia liburutik harago, biktimaren guraso eta anai-arrebek ez zuten aurkeztu euren artean zuten harremanaren inguruko frogarik -ezta delituak eragindako ondorioz ere-. Hala, egokitzen jotzen du Zirkulazio Baremoak ezartzen dituen kalte ordainen kopurua % 20 igotzea. Izan ere, *“Irain-delituak eragindako kaltea [...] suposatu behar da zuhurtziagabekeriak lesioak eragindakoa baino handiagoa dela”*. Hori dela eta, gurasoei 95.000 euroko kalte ordaina eta haren hiru anai-arrebei 30.000 eurokoa (10.000 € bakoitzari) ematera kondenatzen du.

13.- 2012/10/10. Gipuzkoako PA, 1. saila, 2014/313 sententzia ⁷¹, abenduaren 23koa.

Lapurretak eragindako emakumeen erailketa. Biktima: 93 urte. Hiltzailea: 18 urte. Tokia: Donostia. Zifra ez ofiziala.

Defentsak eta fiskaltzak egindako akusazio publikoak baino ez dute parte hartzen.

Hiru gaizkilek burutu zituzten gertakariak, bat adingabea zen eta Adingabeen Epaitegiak kondenatu zuen, eta prozesu honetan auzipetu dira beste biak, biak 18 urtekoak.

Auzitegiak frogatutzat eman zituen gertakariak hurrengoak izan ziren:

Lehenengoa.- [...] auzipetuak [...] eta adingabeko Eutimio (gertakari hauengatik epai irmoarekin kondenatua izan zena [...], Florencia andrearen etxean dirua eta balore ekonomikoa zuten beste zenbait objekturen lapurreta egitea adostu zuten, [...] 93 urteko Florencia Salome andreak zaintzen zuen, Eutimio adingabearen amak.

[...]

Laugarrena.- [...] bizilekura sartu ziren [...] Florencia andreak arrotzen presentzia sumatu zuen etxean, sorpresa adierazi, eta D. Carlos Ramon bere gainera bota zen eta saskakada bat eman zion [...] hiru saskakada [...] heriotza eragin ziotenak”

⁷¹ Id CENDOJ: 20069370012014100274.

Auzitara ekarritako gertakariak honela kalifikatu zituen fiskaltzak; habitatutako etxebizitzan, tresna arriskutsu batekin egindako indarkeriazko lapurreta delitua eta hilketa delitua, bi kasutan moztarrotua egotearen larrigarriarekin. Fiskaltzak ondorengo kondena eskatu zuen: lapurreta delituagatik bi akusatuei bost urteko kartzela-zigorra eta sufragio pasiborako eskubidearen gaitasungabetze berezia beste horrenbeste urtez, eta erailketa delituagatik 20 urteko kartzela zigorra *Carlos Ramón* akusatuarentzat, eta 18 urteko kartzela zigorra *Rogelio* akusatuarentzat, honi dagokion gaitasungabetze osagarriarekin; bai eta bi akusatuak erantzule zibil solidario gisa zigortzea biktimaren bi seme-alabei kalte-ordaina ematera; 15.000€ kalte moralagatik eta lapurtutakoaren itzultzea.

Bi akusatuen defentsak hilketaren zama soilik adingabeak bere gain hartzeko saiakera egin zuten. *Carlos Ramón*en defentsak behin behineko kalifikazio-idatzian absoluzioa eskatu zuen eta, era subsidiario batean, aitortu izanaren aringarri analogikoa ezartzea. *Rogelio*ren defentsak aldiz, lau urteko kartzela-zigorra eta kondenaren indarraldirako sufragio pasiborako eskubidea erabiltzeko gaitasungabetze berezia eskatu zuen habitatutako etxebizitzan, tresna arriskutsu batekin moztarrotuta egotearen larrigarriarekin egindako indarkeriazko lapurreta delituaren egile izateagatik.

Froga-gauzatzearen ostean, *Carlos Ramón*en defentsak baino ez zuen bere eskaera aldatu eta azkenik, akusatuarentzat, habitatutako etxebizitzan tresna arriskutsu batekin moztarrotuta egotearen larrigarriarekin eta aitortu izanaren aringarriarekin egindako indarkeriazko lapurreta delituagatik hiru urte eta sei hilabeteko espetxeratzea eskatu zuen gaitasungabetze bereziaren osagarriarekin, edo eta horren orde, baldintza berdinetan emandako lapurrettagatik, lau urteko espetxe-zigorra eta osagarria. Arduraren baldintzagarri izateko egoerarik gabeko homizidio delituaren erantzule izateagatik aldiz, 13 urteko espetxe-zigorra eskatu zuen. Ardura zibilari dagokionean, lapurtutakoa itzultzea, eta biktimaren seme-alaba bakoitzarentzako indemnitazioa 10.000 eurokoa izatea.

Auzitegiak balioetsi zuen, erailketaren egiletza materiala gora behera, froga biologikoek *Carlos Ramón*ek egin zela frogatu zutena, hiru partaideak egilekideak izan zirela, izan ere, “*proiektu kriminala ideiatzea komun baten emaitza*” izan zen; hirurek “*hartu zuten parte honen exekuzioan*” eta “*guztien artean gauzatutako egoera, proiektatutakoaren edo, espresuki proiektatu gabekoa izanagatik ere, planifikatutakoan presente zeuden elementuak aintzat hartuta gertatu zitekeela aurreikus zitekeena gertatu zelako*”. Sententziak jasotzen duenez, euren arteko ezberdintasun bakarra, “*bere jarduna gidatu zuen doluan dago*”; *Rogelio*ren kasuan “*zuzeneko dolua lapurretaren gauzatze osoari dagokio, Florencia andrearen heriotzaren jarduerari dagokionean ordea, bere dolua ebentuala da*”; lapurretan aktiboki parte hartzeaz gainera, erailketaren gauzatzean “*ez egin*” batekin parte hartu zuen (3. OJ).

Sententziak biak kondenatzen ditu habitatutako etxebizitzan egindako indarkeriazko lapurreta delituaren egile gisa 4 urte eta zortzi hilabeteko espetxera, sufragio pasiborako eskubidearen gaitasungabetze bereziaren osagarriarekin. Erailketa delituagatik aldiz, *Carlos Ramón*i 19 urteko kartzela zigorra ezartzen dio, eta *Rogelio*ri berriz 17 urte, sei hilabete eta egun batekoa, bi kasutan gaitasungabetze absolutuaren osagarriarekin, bai eta kalte moralengatik biktimaren seme-alaba bakoitzari 15.000 euroko kalte ordaina ematera, lapurtutakoa itzultzea eta prozesuko kostuen erdia ordaintzera.

lkerketa honetan ikus daiteke, alde batetik, euskal auzitegietan oro har onartutako irizpidea dela erantzukizun zibilaren eta ibilgailuen zirkulazioaren aseguruari buruzko Legeak

ezarritako taulek zehazten dituzten kopuruak erreferentzia gisa hartzea, gutxieneko izaerarekin, arinki bada ere, intentzio-egintzaren larritasun handiarengatik handitu beharko litzatekeena. Beste alde batetik, Fiskaltzak, delitu hauen akusazioak adierazten direnean, larritasun handitze eta erantzuki egite hori aintzat ez hartzeko joera du, batzuetan taula horiek zehazten dutena baino kalte ordain txikiagoak eskatzen dituzte (hori gertatzen denean biktimen bizitza debaluatzen dute argi eta garbi) eta beste batzuetan aldiz, autoen kasuetan, gehikuntza horretan justu -edo apur bat urri- geratzen da, auzitegiak bezala, interpretatzen bada, seme-alabentzako Fiskaltzak eskatutako kopurua seme-alaba bakoitzarentzako zela (ez dakigu akusazioak zehaztu ote zuen), bestela erdia izango bailitzateke. Sententziak ondo jasotzen duen bezala, sufrimenduak ez du itzulpen ekonomikorik, eta ezarritako kalte ordainak bidegabeko kalte konpentsatzeko beharra sinbolikoki islatzen du (7. ZO). Berez, jada komentatu den bezala, kasu gehienetan indemnizazioa nekez ordainduko da hiltzailearen kaudimengabeziagatik. Baina arlo sinbolikoan bada ere, Fiskaltza publikoak biktimen bizitza eta biktima zuzenen nahigabea gehiago hartu beharko luke kontuan. Sententziak adierazten du (1º kasuan bezala) auzitegiak ezin duela gaingitu Fiskaltzak, parte akusatzaile bakarria izanik, eskatutako kopurua.

14.- 2013/05/23. Arabako PA, 2. Saila, 342/2014 sententzia⁷² 2014ko urriak 1ekoa.

Feminizidio intimoa. Biktima: 26 urte. Hiltzailea: bikotekidea, 49 urte. Tokia: Audio. Zifra ofiziala. 18 hilabeteko semea. Ohikotasuna?

Akusazio publikoaz gainera (Fiskaltza), biktimaren gurasoak aritu ziren akusazio partikular gisa, eta herri-akusazio modura aritu ziren Estatuko Abokaturia eta Orozkoko Udala, bertakoa baitzen biktima eta haren familia (zeharkako biktimak).

Akusazioek delitua azpikeriaz eta ankerkeriaz egindako hilketatzat kalifikatu zuten, ahaidetasun larrigarriarekin eta aitortu izanaren aringarri analogikoarekin. 25 urteko kartzela zigorra eskatzearekin bat egin zuten, kondena bitartean erabateko inhabilitazioa ezarri, komunean zuten semearen gurasotasuna kenduz (azken honetan, estatuko Abokatua, salbu), eta kartzela zigorra baino 10 urte gehiagoko urruntze agindua ezarri, komunikaziorako eta Orozkora joateko debekuarekin batera. Semeari 300.000 euroko kalte ordaina eman beharrekin ados agertu ziren; ez, ordea, biktimaren gurasoei eman beharreko kalte-ordainaren kopuruan (kalte moralengatik fiskaltzak eta herri-akusazioak 11.000 € eskatu zituzten guraso bakoitzarentzat, Estatuko Abokatuak 200.000 € eta akusazio partikularrak aldiz 250.000€). Biktimaren bi nebak ez ziren akusazio gisa agertu; hortaz, ez zituzten kaltetu bezala aintzat hartu kalte-ordainei dagokienean; baina bai urruntze neurriak aplikatzerako orduan.

Defentsak homizidio delitutzat kalifikatu zuen gertakaria, aitorten eta haserrealdi larrigarriarekin, itsumen edo antzerako izaerako pasiozko egoerarekin. Gauzak horrela, 9 urte, 11 hilabete eta 29 eguneko kartzela zigorra eskatu zuen (10 urte baino egun bat gutxiago), gainontzeko zigorrak onartuz. Kalte ordainen zehaztapena auzitegiaren irizpideen esku utzi zuen.

Frogatutako gertakariak (laburpena):

⁷² Id CENDOJ: 01059381002014100001.

“Lehenengoa. [...] etxebizitza familiarrean [...] Lucasek sukaldetik aizto bat hartu zuen [...] eta logela nagusira zuzendu zen, bertan Gema zegoen, eta hiltzeko asmoarekin sastakatu zuen. [...] Ihes egin nahian [...] aitzokada gehiago jaso zituen, guztira 42 [ankerkeria], hil zen [...]”.

Bigarrena. Gema etzanda eta lo zegoen ohean [...] ezin izan zuen bere burua defendatu [...]”

Erasoaldia aurreikusi gabea eta ezustekoa izan zen [azpikeria] [...] komunean zuten urte eta erdiko umearen presentzia [...]”.

Hiltzaileak berrerortze efektuekin egozgarriak ez diren aurrekari penalak zituen.

Epaimahaiak akusatua ankerkeria eta azpikeriaz egindako hilketa delituagatik kondenatu zuen, ahaidetasun zirkunstantzia larrigarriarekin, eta aitortu izanaren aringarri analogikoarekin. 22 urte eta 6 hilabeteko kartzela zigorra ezarri zion (marjina legalaren erdian kokatutako zigorra hain zuzen ere, 20 urtetik 25erakoa baita). 139 artikuluan jasotako bi zirkunstantzia larrigarri espezifiko ematen zirenez, aringarria ez da minimora gutxiagotzera heltzen, komunean zuten umearen aurrean hil zuelako emakumea, ez ziolako bere ekintzak justifikatzeari utzi eta epaiketari ez zuelako biktimarekin inolako enpatiarik erakutsi, baina halere ezingo litzaioke gehienezko zigorra ezarri tartean aringarri bat zegoelako (7. ZO). Horretaz gainera, erabateko gaitasungabetzea, biktimaren guraso eta neba-ahizpekiko urruntzea, Orozkora 32 urte eta 6 hilabetez joateko debekua, bere semearen zaintza debekua, erantzukizun zibila eta prozesuaren kostuak ordaindu beharra -herri-akusazioarenak salbu- ezarri zitzaion zigor bezala.

Bestalde, erantzukizun zibil bezala, honako ordainketa egitera kondenatu zuen: 300.000 € umezurtzarentzat eta 50.000 € zuzeneko biktimaren guraso bakoitzarentzat mantentzen zuten harreman estuagatik, eta hilketaz geroztik bilobarekiko kontaktu sarriarako ezintasunagatik.

Argudiaketa ia osoki juridikoa da, nahiz eta zigorra ezartzerako orduan nozio biktimologikoren bat erabili: hiltzaileak, aitortu arren, bere ekintzak justifikatu izana, biktimarekiko eta bere semearekiko enpatia falta, semearen zaintzari atxikitutako obligazioekiko mespretxua bere aurrean hil eta haurra umezurtz utzi zuelako; eta haserrealdiaren aringarria onartu ez izana.

Hizkuntzan sexismo-linguistikoaren zenbait zantzu ageri dira (“la médico forense”; [...] andrea, Estatuko Abokatua parte izan da [...] eta ondoren “El Abogado del estado” bezala izendatzea).

Feminizidioaren arrazoi edo kausari dagokionez, nahiz eta sententzian frogatutako gertakarien kontaketa ez agertu, datu esanguratsua da hiltzaileak aitortzea emakumeak harremana etengo zuelako hil zuela. Epaiketari berak propio adierazi zuen; *“ezin zuela bera hiltzea saihestu, utzi egingo zuelako, eta bere semea eramango zuelako”*. Balorazio Integraleko Forentse Unitateak akusatuak bere semearekin zuen enpatia zalantzan jarri zuen – (5. ZO). Hau da, emakumeak bera uzteko erabakia hartu zuelako hil zuen, feminizidio intimoen arrazoi ohikoena da bikote harremana uzteko erabakia. Latinoamerikako Protokolo Ereduak “itzulera gabeko puntu” bezala izendatzen du tratatu txarren emakumeak ez dela berarekin bueltatuko egiaztatzen duen momentua. Momentu horretatik aurrera arriskua asko handitzen da, batez ere emozioetan urrunak eta hotzak diren erasotzaileen kasuetan (NBE- Emakumeak NBGEKG, 2014: 79).

Defentsak (gertakaria homizidio mingarri gisa kalifikatu zuenak) nahi zuen zirkunstantzia hori, hau da, neskak bera uzteko erabakia hartu izana, haserrealdi aringarria ezartzeko balio izatea (ZK-ko 21.3 art.). Epaimahaia jurisprudentzia-irizpidea ezartzen du, irizpide egokia, ez baitu onartzen haserrealdi aringarria ezartzeko arrazoi gisa bikotekideen arteko afektu galera, harremana eteteko nahia, hisia, ez eta bere jabetzakoa zen zerbait kendu izanaren pentsamendua ere. Era berean, Auzitegiak ziurtatzen du, *“Gemaren sentimenduetan beste pertsona bat zegoela astebete lehenagotik jakitea”* aringarria ezartzeko asmoaren kontrakoa zela (5. ZO).

Sententzian ez da jasotzen ikertu edo eztabaidatu denik, aurretiko salaketarik egon ez izana egiaztatzeaz gainera, ohiko tratatu txarrak eman izanaren aukera, nahiz eta semearen jaiotza goiztiarra adierazle bat izan zitekeen.

Semearen zaintza eta custodia hiltzailearen arrebari eman zion babes-erakundeak. Sententziak ez zion umearekiko urruntze-neurririk ezarri, eta beraz, umea bere amaren hiltzailearekin kontaktuan sartzeko arriskuan egon liteke, egia ezkutatzekoa, eta abar... Hiltzailea kaudimengabezia egoeran egongo balitz, umeak, bere amaren heriotzagatik 35/1995ko Legeak ezarritako laguntza publikoa jasotzeko eskubidea izango luke, sententzia indarrean sartu eta urtebetera eskatu behar dena. Ez dakigu laguntza hori kudeatu ote zen, ez eta bere aitaren parteko izebarekin bizi izana laguntza jasotzeko eragozpen izan bazen ere.

15.- 2013/05/25. Bizkaiko PA, 2. Saila, TJ, 23/2015 sententzia.⁷³ Apirilak 28koa

Prostituzio feminizidioa. 2013/05/25 (gutxi gora beherako data). Biktima: 40 urte. Tokia: Bilbo. Zifra ez ofiziala – prostituzio feminizidioa. 2013/06/02 (2013/06/05ean hil zen). Biktima: 29 urte. Tokia: Bilbo. Zifra ez ofiziala. Hiltzailea: biktimarekin alde aurretikako erlazioz gabekoa, 47 urte.

Kasu honetan, defentsak, eta Fiskaltzak egindako akusazio publikoarekin batera, Clara Campoamor Elkartea herri-akusazio gisa eta bi biktimen familia-kideen akusazio partikularrak aritu ziren.

Sententzia honetan deigarria da hitzetan oso murrizta dela, nola frogatutako gertakarien deklarazioan, hala osteko argudiaketa juridikoaren ere. Hain dira urriak azalpenak, ezen eta irakurtzen denean ezin baita jakin, adibidez, nortzuk diren kalte-ordainak jaso behar dituzten biktimaren familia-kideak. Era berean ez du azaltzen zergatik gai batzuk ez diren sententzian jasotzen; suposatu behar da akusazioek mahai-gaineratu ez zituztelako dela, edo eta ez zituztelako behar zen momentuan egin. Are eta larriagoa da, hilketa serie-hiltzaile batek egina dela jakinda (bere lehenengo bi hilketak izan zirela suposatuta ere -hori baieztatzerik ez badago ere) eta hilketak komunikabideetan izan zuen oihartzuna ikusita.

Akusazio publikoak gertakariak ankerkeriaz egindako bina hilketa delitu gisa kalifikatu zituen, erantzukizun kriminalaren aldagarria den inguruabarren konkurrentziarik gabeak, eta hilketa delitu bakoitzagatik gehieneko zigorra eskatu zuen (20 urteko kartzela zigorra eta iraupen berdineko gaitasungabetze absolutua), biktimen familia-kideentzako hainbat kalte ordain -seguruenik zirkulazio istripuetan jasandako lesioengatiko balorazio Baremoan

⁷³ Id CENDOJ: 48020381002015100002.

oinarritutakoak- eta epaiketa-kostuak. *Melisaren* senideen izenean jardun zuen herri-akusazioak modu berdinean kalifikatu zituen gertakariak, baina kalte-ordain apur bat handiagoak eskatu zituen: bi familia-kiderentzat 120.000 euro bakoitzarentzat, eta 12.000 euro beste familia-kide batentzat.

Herri-akusazioak ere modu berean kalifikatu zuen *Melisaren* erailketa, baina *Caridaden* erailketa ankerkeriaz eta azpikeriaz burutu zela iritzi zion; eta honetan bat etorri zen familia-kideen ordezkari gisa jardun zen akusazio partikularrekin; honek 120.000 euroko kalte-ordaina eskatu zuen horietako batentzat eta 25.000€ beste batentzat.

Frogatutako gertakariak:

"I.- Melisarekin ERLAZIONATUTAKO GERTAKARIAK.

LEHENEGOA.- [...] Vidal [...] bere ibilgailuaren barruan zegoen [...], kalean [...], Melisa agertu zen [...] bere kotxera igotzea onartu zuen eta gizonaren gimnasia abiatu ziren [...].

BIGARRENA.- [...] Vidalek, Melisaren bizitzarekin amaitzeko asmoz, bat-batean, ezustekoan eta ustekabea, besoak lotu zizkion eta defendatzeko aukera guztiak kenduta, erasotu egin zuen heriotza eraginez.

[...]

II.- Caridadekin ERLAZIOANATUTAKO GERTAKARIAK.

LEHENENGOA.- [...] Vidal kotxearekin tabernaren inguruetara zuzendu zen [...] Caridadekin kontaktuan jarri, emakumea ibilgailura igo eta gimnasia abiatu ziren.

BIGARRENA.- [...] erlazio sexualak izan ondoren, Vidalek bat-batean, ustekabez eta ezustekoz jardun zuen defenditzeko edo ihes egiteko aukerarik eman gabe, besoetatik eta lepotik geldiarazi zuen, kolpatuz [...].

HIRUGARRENA.- [...] Caridadek Vidalen deskuidu bat probestu zuen eta gimnasioko atera joan zen lokalaren nabarraren bitartez laguntza eskatzera, Vidalek geldiarazi zuen arte [...] ito zuen [...] atzetik oratu, gela erdi ilun batera eraman eta ito egin zuen [...].

LAUGARRENA.- Ertzainen esku-hartzearen ondoren, Caridad ospitalean ingresatu zuten eta bertan hil zen [...]."

Akusazioetako batek ere ez zuen eskatu beste delitu batengatik kondenatzea, espero izatekoa zen bezala. Lehenik eta behin, aipatu ere ez da egiten askatasun sexualen kontrako delituri egin izanaren aukera. Pentsatzekoa da autopsiak, begi-ikuskatzeak, eta burutako gainontzeko frogak, ez zutela horri buruzko informaziorik eskaintzen. Bi kasuetan ziurtzat jotzen da emakumeak borondatez joan zirela gimnasia, ezin izan baitzen kontrakoa frogatu. *Caridaden* kasuan ziurtzat ematen da borondatez izan zituela harreman sexualak gizonarekin, bere onarpenarekin, eta hori asko suposatzea da. Onartuta ezin izan zela frogatu, ezta susmatu, erlazio sexualaren aurreko biolentzia edo larderia, eta horrek eraso sexuala alde batera uzten du, aztertu behar izango zena da ZK-aren 181.3 artikulua jasotzen duen gehiegikeria sexualaren delitua eman izanaren aukera: "onarpena ematen denean, biktimaren askatasuna hertsatzen duen erabateko nagusitasunaz baliatzen denean gehiegikeriaren arduraduna".

Kasu honetan agerikoa da egoera hau ematen zela: bertako gizabanako bat, prostituzioan aritzen den emakume immigrante baten onespina lortzeko bere diruaz baliatzen dena. Gainera, ez zuen emakumea ordaintzeko inolako asmorik, baizik eta hiltzekoa, zer eta arte martzialetan aditua den gizon bat, bere jabetzakoa den lokal batean itxita duena emakumea. Baina ematen du hiltzailearen deklarazioa baino ez zela kontuan hartu, pertsona bat berarekin eramane, eta -gero hiltzeko asmoa izanda- edozein motatako sexu-ekintza egitera behartzeak, aldeztatik emandako zein nahi onespina ezeztatuko ez balu bezala. Beraz, emakume hauen askatasun sexualen kontrako balizko delitu hauek doan atera zitzaizkion hiltzaileari.

Baina hau ez zen gauza bakarra izan. *Melisaren* kasuan, gorpua zatikatu eta honen zati batzuk Bilboko itsasadarrera eta zakarrontzira botatzea -beste zati batzuk gordeta-, gorpua profanazio delitua izango litzake, hilketaren delituarekin batera epaitu beharrekoa. Baina ematen du akusazio bakar batek ere ez zuela aukera hori proposatu ere egin. Egia da delitu honek talka egiten duela auto-estalketaren figurarekin. Auzitegi Gorenak, urtarilaren 26ko 20/2016 AGS-an deklaratu du:

"[...] auto-estalketa, oro har, zigorgabea da, salbu auto-estaltzaileak egindako ekintzek bere horretan beste delitu berri bat sortzen badute, eta beraz, estali nahi den lehen ekintzaren ondoriozko jardunen absortzioa erabakitzeko, kasuaren zehaztasunetara jo beharko dugu [...] Hau horrela izanik ere, [...] <<arauaren ahuleria soilik onartu daiteke, ekintzaren parte bidegabe bat ere ez denean zigor-erantzun gabe geratzen, bestela, delituen pilaketara jo beharko da>>.

Sententzia honen arabera, auto-estalketa zigorgabearen teoria gailenduko da, gorpua profanazioaren bidez: *"ekintza hiltzailea ezkutatu eta disimulatu nahi den kasuetan soilik, eta ez bestelako arauen kontra jotzea, osasun publikokoak barne. [...] Beste kontu bat izango da, bistan denez, halako auto-estalketa baterako egindako ekintzekin xede hori gainditzea. Kasu horretan delitu-pilaketa posible bat baloratu beharko da" (3º ZO). "Auziz-azuzko analisía egitea beharrezkoa da beraz", baieztatzen du AG-k. Epai honetan egoera hori aintzat hartu eta gorpua profanazio-delituagatik kondena eman zen, beste laurdenkatze kasu batean apirilaren 17ko 314/2013 AGS epaiak egin zuen bezala. *Melisaren* kasuan, delitu horregatik, gutxienez akusazioa adierazi beharra zegoen, prozesuan eztabaidatu zedin eta auzitegiko epaiaren menpe geratu zedin, eta, delitu-pilaketa onartuko ez balitz, behintzat modu honetan baloratu zedin delitua; "hil izanaren aurreko ekintzari dagokion zigorra banan-banakotzerako orduan, gaitzespen penal handiagoa ezartzea" (Abenduaren 2ko 1068/2010 AGS). Baina kasu honetan ez zitzaion legeak ezarritako zigor-tarteen maximoa ere ezarri.*

Sententziak, azpikeriarekin egindako eta erantzukizun kriminalaren zirkunstantzia aldakorrik gabeko bi erailketa delituen erantzule penal bezala zigortu zuen hiltzailea: 19 urteko bi kartzela zigor, kondena bitartean gaitasungabetze absolutuaren osagarriarekin, eta biktima ez zuzenei kalte ordainak ematea euren akusazio partikularrek eskatutako kopuruetan.

Caridaden erailketari, eta honen kontra burututako gertakarien kalifikazio juridikoari dagokionez, eztabaidagarriak diren eta eztabaidatu ez ziren beste bi gai daude, edo, horietako bat, eztabaidatu bazen, oso modu eskasean izan zen.

Alde batetik, deigarria da legez kontrako atxiloteta delitu baten konkurrentzia planteatu ez izana, sententziak hurrengo frogatutzat eman zuenean: 1. Gimnasioan itxita eduki zuela 6:00ak ingurutik, Ertzainak iritsi ziren arte (sententziak ez du zehatz adierazten zein ordutan iritsi ziren, baina ematen du 15:20ak aldera izan zela), 9 ordutik gora hain zuzen ere. 2. *"Bi egoera*

desberdin” gertatu zirela, lehenengoan *“bat-batean, ustekabez eta ezustean, defendatzeko edo ihes egiteko aukerarik eman gabe, besoetatik eta lepotik heldu eta geldiarazi zuela, buruan eta sabelaldean kolpatuz baina momentu horretan heriotza eragin gabe”*, zeinarengatik sententziak sorpresa edo proditoria azpikeria ezartzea egoki irizten duen. Eta bigarren egoera; biktima *“fisikoki oso gutxituta egonik, lotuta zegoela aurrez buruan eta sabelaldean bortizki kolpatua izan ondoren”* ihes egiten saiatu, eta gimnasioko atletik laguntza eskatzera baino ez zenenean iritsi *“norbaitek entzun eta lagunduko zuen esperantzarekin, akusatua bere atzetik agertu eta iletik helduta geldiarazi zuen. Egoera hori probestuz, sarbide zaila zuen gela batera eramane zuen eta lepoan brida bat jarri zion, jarraian kordel bat lepoaren inguruan bost buelta emanda eta zinta amerikarra gainetik, defendatzeko eta ihes egiteko bat ere aukerarik gabe; azkenik kordelarekin urkatu nuen arte”* (sic). Hau guztia gertatu arren sententziak ez du ezer esaten legez kanpoko atxiloteta delituaren inguruan. Alderdi honi dagokionean, ematen du akusazioak defentsak esandakoekin konforme geratu zirela, hiltzaileak onartutako gertakari agerikoengatik akusazioa baino ez egitera mugatuz.

Beste alde batetik, harrigarria da ere *Caridaden* erailketaren kasuan ankerkeria konkurrentzia baztertzeko erraztasuna. Harrigarria, hainbat ordutan torturatu zuelako, eta lehenengo erasoaldiaren ostean geldiarazita izan ondoren, urkatzeko aukeratu zuen moduagatik (arte martzialetan aditua den gizabanako bat izanik): anoxia eragiteko bat ere beharrezkoa ez zen parafernalia erabilita, asfixiak eragindako heriotza motela -berez, ospitalean hil zen hiru egunen ostean-. Soilik urkatu nahi izan balu arinago egin ahalko zukeen. Sententziak ez du bat ere kontutan hartzen hiltzaileak bigarren emakumea astiro hiltzeak honengan eragin zuen sufrimendu psikologiko eta morala, fisikoaz gainera. Ankerkeria hauteman beharko litzake.

Ezarritako zigorren baturarekin, 38 urteko kartzela-zigorra, betetze muga 25 urtekoa da. Gerta daiteke beraz, kondenatua 2019ko urritik aurrera baimen bidez kaleratzeko aukera izatea, 2025eko abenduan hirugarren gradua ezartzea eta baldintzapeko askatasuna lortzea 2032ko martxoan.

16.- 2013/10/03. Bizkaiko PA, 1. Saila, TJ, 60/2015 sententzia⁷⁴ urriak 1ekoa.

Haur feminizidioa. Biktima: 3 urte. Hiltzailea: amaren bikotea (5 hilabete inguruko elkarbizitza) Tokia: Barakaldo. Zifra ez ofiziala.

Akusazio publikoarekin batera, umearen aitaren zein amaren akusazio partikularrak ere aurkeztu ziren.

Frogatutako gertakariak (laburpena):

LEHENENGOA.- [...] Gerardok [...] egunero egiten zuen bezala, eskolatik jaso zuen [...] Concepción, hiru urteko adingabea, garai hartan bere bikotea zenaren alaba zena [...] Evarena...

[...] bizi ziren etxera abiatu ziren [...] Gerardok, eskuineko eskuarekin adingabearen burua heldu zuen masailazurraren azpitik, eta sarrerako pasilloko paretaren kontra kolpatu zuen, birritan gutxienez [...].

⁷⁴ Id CENDOJ: 48020381002015100006.

Handik gutxira, urgentzia zerbitzuetara deitu zuen euren esku-hartzea eskatuz, esanez adingabea eskaileretatik behera erori zela. Horren ondorioz osasun-zerbitzukoak etorri ziren, eta hauek, arrakastarik gabe, Concepción adingabea suspertzen saiatu ziren.

[...] jasotako kolpeek [...] eragin zioten heriotza.

Kasu honetan akusatuak ez zuen delitua aitortu, eta bere burua errugabetzeko bertsioak asmatu zituen: lehenik, umea eskaileretatik erori zela baieztatu zuen- modu horretan ama engainatu eta honek harremana segituan ez etetea lortu zuen-. Beranduago aldiz, umea istripuz atearekin kolpatu zuela baieztatu zuen.

Kasu honetan ere, sententzia harrigarria da; ematen duelako feminizidioa modu espontaneo batean gertatu zela, aurretikako inolako historiarik gabe, *“ezagutzen ez diren arrazoiengatik”*. Aldez aurretik ikertu izana ez da inon jaso.

Gertakariak ankerkeriarekin eta ahaidetasun larrigarriarekin egindako hilketa-delitu gisa kalifikatu zituzten akusazioek; Fiskaltzak eta akusazio partikularretako batek 18 urteko kartzela zigorra eskatu zuten, eta beste akusazio partikularrak aldiz, 20 urte, osagarri legalak eta kostuak. Epaimahaiak ez zuen frogatutzat eman hasieran hiltzaileak umea hiltzeko asmoa izan zuenik, bai ordea, emaitza gerta zitekeela onartu eta onetsi, umea hil balizko doluarekin.

Sententziak hilketa delituaren egile gisa kondenatzen du akusatua, ahaidetasunaren inguruabar larrigarriaren konkurrentziarekin, ondorengo zigorra ezarriz: 18 urteko kartzela zigorra, kondena indarrean dagoen epe berdinean gaitasungabetze absolutuaren osagarri legala, eta prozesuaren kostuak ordaintzea, akusazio partikularrenak barne. Umearen amari 105.133,53 € eta aitari 76.460,74 euroko kalte ordaina ordaintzera kondenatu zuten, akusazio partikularrek eskatutako zenbatekoak hain zuzen ere, errepide istripuetan emandako gorputz-kalteengatiko gutxi gorabeherako baremo ez loteslea hori zela adieraziz.

NAFARROA

1 /17.- 2011/04/04. Nafarroako PA, 2. Saila, TJ, 205/2012 sententzia ⁷⁵ urriak 17koa.

Feminizidio intimoa. Biktima: 22 urte. Hiltzailea: 25 urte. Beriain. Zifra ofiziala. (Ohiko biolentzia?)

Prozesuan parte hartu zuten; akusatuaren defentsak, akusazio publiko gisa Fiskaltzak, biktimaren gurasoak akusazio partikular bezala eta berdintasunaren Nafarroako Institutua herri-akusazio gisa.

Sententziak adierazten duen bezala, parte guztiek adostasun idatzi bateratua aurkeztu zuten, zeinetan gertakariak modu honetan kalifikatu zituzten: leku eta denbora egoeraren probetxu eta ahaidetasunaren larrigarriekin, eta gertakariak alkoholdun edariak edan ondoren eman izanaren inguruabar aringarriarekin emandako hilketa delitua. Era berean, parteek kondena

⁷⁵ Id CENDOJ: 31201370022012100504.

hau adostu zuten; 16 urteko kartzela zigorra, gaitasungabetze absolutuaren osagarri legala, adin txikiko alabaren guraso-agintean jarduteko gabetzea (feminizidioa gertatu zenean 2 eta 3 arteko adina zuen), kostuak, eta kalte ordainak; alaba txikiari 163.269,75 € eta gurasoetako bakoitzari 9.070,54 €.

Frogatutzat eman ziren gertakariak –adostasuna lortu zenez, froga-praktikarik egin beharrik gabe–, hauek izan ziren:

“1.- [...] Maximo Manuela andrearekin joan zen, bere bikote sentimentala izandakoarengana [...].

3.- Bazkaltzeko orduan, akusatuak garagardo kopuru handia edan zuen, borondatezko eta adimenezko gaitasunak murriztu zizkiona, guztiz baliogabetu gabe.

4.- [...] akusatuak, errepidearen albo batean aparkatu eta ibilgailua gelditu zuen. Ondoren Manuela andrearekin harreman sexualak izan zituen ibilgailuaren barruan gutxi gora behera 22:00ak arte.

5.- Jarraian, akusatuak eta Manuela andreak eztabaida bat izan zuten eta akusatuak lepoa estutu zion eskuekin [...] konortea galdu nuen.

Jarraian, akusatuak identifikatu ezin izan den objektu bat hartu zuen, sokaren antzekoa, eta Manuela andrearen bizkarrean jarrita, lepoa objektu horrekin inguratu eta ito egin zuen garun-anorexia eta ehun-anorexiak heriotza eragin zion arte.

7.- [...] akusatuak Manuela andrearen gorpua urmaelera eraman zuen [...], eta bertan bota zuen [...]”.

Parteek adostu zituzten frogatutako gertakari hauetan ez da adierazten zergatik joan ziren elkarrekin bazkaltzera, hiltzaileak biktima presionatu ote zuen horretarako, eztabaidaren zergatiak zeintzuk izan ziren, edo zein arrazoi argudiatu zituen hiltzaileak hilketa azaltzeko; era berean, akusazioek ez zuten zalantzan jarri harreman sexualak behartuak izan izanaren aukera.

Kasu honetan akusazioek gehiegizko onginahia izan zuten akusatuarekin, zeharo desegokia, alkoholduen edarien eraginpean gertakariak eman izanaren inguruabar aringarria ezarri zitzaiolako: garagardoa edan zuen bai, bazkaltzen ari zela, eguerdian.

Auzitegi Gorenaren jurisprudentziaren arabera:

“[...] edandako edariaz gainera, edo eta kontsumoaren egiaztapenarekin batera, ezinbestekoa da honen gaineko balorazioa egiten lagunduko diguten bestelako datu batzuk ere zehaztea; kontsumo horrek subjektuan izan duen eragina zein izan den alegia, gertakaria legez-kanpokoa zela ulertzen ez uzterainokoa izan bazen edo ulerkuntza horren arabera jarduterainokoa (AGS 1424/2005 – 5.12). Zentzu horretan, oso baliagarria da subjektuaren jarrera aztertzea, ez soilik delitu izan daitezkeen gertakari zehatzekikoetan, baizik eta, batez ere, bere egoera konketuaren gaineko datuak eman ahal dizkigun bestelako gertakari periferiko guztietakoa ere (AGS 631/2004 – 13.5). Mozkorren eragina horren intentsitate handikoa izan behar da, ezen eta horren ondorioz gertakariaren legez-kontrako izaera edo eta ulerkuntza horren arabera jarduten ari dela ulertzeko gaitasuna ezeztatuta izan behar duen. Edonola ere, ez da, inola ere, kondena gozotzeko ezarri daitekeen bitarteko automatiko bat (AGS 136/2007 – 8.2).” (AGS, Zigor arloko Sala, 838/2014, abenduaren 12, 10. OJ).

Eta modu horretan ezarri zuten kasu honetan; bitarteko bat bezala, automatikoa baino, behartutako bitartekoa. Garagardo asko edanagatik ere, ingestioaren eta erasoaldiaren artean pasatutako orduetan hiltzaileak autoa gidatu zuen, isolatutako leku batera joan zen eta “biktimarekin harreman sexualak izan zituen” -erailketa 22ak aldera izan zen, denbora tarte gehiegi beraz, bazkaritan hartu zuen garagardoak, kantitatea edozein izanda ere, egiten ari zena legez-kontrakoa zela edo ulermen horren baitan jardutea ulertzeko bere gaitasunean eragina izateko. Hauek frogatutzat emanda, bazkaritan edan zuen garagardoak *“baliogabetzera iritsi gabe, bere nahimen eta adimen gaitasunak mugatu zituela”* baieztatzeak biktima iraintzen du. Gainera, ikuspuntu juridikotik kontraesana da: inguruabar aringarri hori hautemateak eragingo bailuke hiltzailea ZK-aren 379.2 artikuluko bide segurtasunaren kontrako delituagatik kondenatzea, alkoholadun edarien eraginpean gidatzeagatik.

Gainera, akusazioek ahaztu egin zuten alaba txikiarekiko urruntze agindua eta komunikazio debekua hitzartzea hiltzailearekin, guraso-ahalean jarduteko gaitasun gabe utzi zuten arren.

Kostuen-kondenak prozesuan eragindako guztiak jasotzen ditu, akusazio partikularrenak barne.

2 /18.- 2013/02/01. Nafarroako PA, ZE saila, 9/2014 sententzia⁷⁶ urtarrilak 29koa.

Feminizidio ez intimoa. Biktima: 42 urte. Hiltzailea: bizilaguna, 54 urte. Tokia: Ansoain. Zifra ez ofiziala.

Prozesuan soilik parte hartzen dute akusatuaren defentsak eta Fiskaltzak, eta aurreko kasuan bezala, adostasun ondorioen idazki bateratua aurkeztu zuten.

Gertakariak modu honetan kalifikatzea adostu zuten parteek: homizidio delitua nagusitasun-egoeraz abusatzearen zirkunstantzia larrigarriarekin eta alkoholaren eraginpean jardutearen aringarri analogiko kualifikatuarekin. Akusatua 8 urteko kartzela zigorrera kondenatzea adostu zuten, kondenaren epealdian sufragio pasiborako eskubidearen gaitasungabetze bereziaren eta prozesuaren kostuak ordaintzeko osagarriarekin. Erantzukizun zibilari dagokionez, biktimaren guraso bakoitzarentzat 42.500 € eta bere hiru anai-arrebetako bakoitzari 5.000 euroko kalte ordaina ordaintzea adostu zuten, herrian kokatutako higiezin baten jabetzaren behin betiko entregaren bitartez akusatuak ebartziko zuena.

Kalifikazio-idatzi bateratua aurkeztuta, Zinpekoen Epaimahaia osatu gabe, ahozko ikustaldia deitu zen akusatuak bere adostasuna berresteko. Honek gertakariak osorik aitortu zituen, bere burua errudun deklaratu eta eskatutako kondenarekiko adostasuna agertu zuen. Horrela, akusatuak berretsitako ondorioen txostenaren arabera ezarri zitzaion kondena.

Sententziak, frogatutako gertakari gisa aitortu zituen ondorengoak:

“[...] Prudencio akusatua, adinez nagusia eta berrerortzearekiko egozgarriak ez ziren aurrekari penalekin [...] Pilar eta beste maizter batekin [...] bizi zen etxean.

[...]

⁷⁶ Id CENDOJ: 31201381002014100001.

[...] Pilarrekin jaten ari zen, euren beste bizilagunarekin eta honen laguna zen Evarekin. [...] izendatutako guztien arteko eztabaida bat gertatu zen.

[...] akusatuak biktimaren logelan zegoen 19,4 zentimetroko xafla zuen sukaldeko aizto bat hartu zuen, eta aiztoarekin aurpegian eta lepoan zulatu zuen, eta azkenean sartu egin zion [...].

[...] shock hemorragikoa eragin zion, eta eraso gertatu eta ordu gutxira hil zen, ez zuelako mediku-laguntzarik jaso. "

Kasu honetan, eztabaidagarria dena da, gertakariak homizidio bezala kalifikatu izana erailketa beharrean. Bertan zeudenen arteko bazkalorduko eztabaida gertatu eta biktimaren logelan goizaldean oihuka indarrean sartu arren, hiltzailearen eta biktimaren artean konfiantza harreman bat zegoen, eta beraz, biktimak ezin izan zuen aurreikusi, espero ez eta imajinatu ere, hiltzaileak burutako erasoaldia gertatu ahal zenik, aizto batekin modu horretan jazarriko zuenik ez eta ondoren odolgabetu arte zaurituta bertan utziko zuenik ere. Ulertu daiteke, beraz, krimena aintzakotzat hartu ez zuten ustekabeko azpikeriaz burutu zela.

16.2. ONDORIOAK

Kapitulu honetan aztertutako gakoetako batzuk hauek dira: biktimen eta hiltzaileen arrisku-faktoreak; sistemaren akatsak zentzu zabalean (hezkuntzakoak, sozialak, sanitarioak, legalak, polizialak, judizialak...); aurretik ezagutzen ziren egoerei instituzioek emandako erantzunak; eta bereziki sistema penalak feminizidio eta emakumeen beste hilketei emaniko erantzuna. Interesgarria da hauen erantzuna ezagutzea, nola biktimen babes eta erreparazio alderdiei dagokionean, hala zigor ezarpenari dagokionean, feminizidioa testuingurutzen duten egoerak barne. Bereziki, ohiko indarkeriarena, ia beti feminizidio intimoan amaitzen dena, eta sarri askotan familia arteko edo haur feminizidioan deribatzen dena. Delitu hauen zirkunstantziak ezagutu eta, zigorgabetasun eremuak sortu eta biktima babesgabe uzten duten sistemaren akatsak identifikatu behar dira, horrela, bizirik dauden biktimei arreta egokiagoa emango zaielako eta feminizidioak hobe prebenituko direlako. Jendarteak, egoera hauek berriro ez gertatzeko bermea izateko eskubidea du, bai eta berme hauek eskatzeko ardura ere.

Prebentzio lana beharrezkoa da: indarkeria matxistak prebenitzeko koedukazioa berdintasunean eta teoria feministen irakaskuntzan, haur eta gazteek ondokoak eta euren burua zaintzen ikas dezaten. Paradigma aldaketa hau erdiestea denon erantzukizuna da.

Sistemaren funtzionamendua eta akatsak

2010-2015 bitartean Euskadin eta Nafarroan gertatutako feminizidio eta emakumeen beste hilketei ezarritako sententzien analisiak, egungo zigor-sistemak errealitate honi ematen dion erantzuna argitzen du, eta agerian uzten du nola zigortu dituzten, bai eta esparru hauetan ematen diren hainbat akats eta arazo ere:

- Informazio-eskubiderako sarbide eta jardutearen esparruan.
- Sistema sozialean, arriskuen prebentzioan.
- Zigor-sisteman, biktimen babesaren esparruan zein delituen jazarpenarenean.

Informaziorako sarbidean arazoak

Feminizidio eta emakumeen beste indarkeriazko hilketen kasuak ezagunak dira prentsan argitaratzen diren albisteengatik, baina gertatu ostean, denei ez zaie behar bezalako jarraipenik egiten. Zailtasun gehigarri bat dago gainera: zaila da sententziak eskuratzea. Testua publikoa da baina, ez dago datu pertsonalik, eta biktimia eta hiltzaileen izen faltsuekin argitaratzen dira. Gertakarien datuak jarraituta bilatu behar dira, eta bide horretatik aurkitu ezean, organo judizialek ez dute auzia ebatzi zen edo artxibatu ote zen jakitea baimentzen –salbu zeharkako biktimen bidez egiten bada, berbiktimizatzailea izan daitekeena–. Izaera pertsonaleko Datuen Babeserako Lege Organikoa hiltzaileak babesteko mekanismo bihurtzen da. Oso gutxi hitz egiten da hiltzaileez, euren izenak argitaratzea debekatzen delako, eta horrek ikerketa zailtzeaz aparte, feminizidioez, hiltzaileez eta euren arrazoiez gehiago jakiteko jendarteak duen eskubidea eragozten da. Errealitate hauen inguruan ezartzen den isiltasunaren alde egiten duen gizartearen lotsa kolektiboaren adierazpena da hau. Isiltasuna gaizkilearekiko konplizitatea da, baina legeak hiltzaileak ezkutatu eta isiltasuna ezartzen du. Justizia, jendarteak bere buruari eman dion tresna bat da, besteak beste, oinarritzko eskubideen bortxaketa okerrenen aurrean babesa eman eta, gatazkan dauden parte guztiak aurrez-aurre jarriko dituen esparru bermatzaile, zuzen eta publiko batera eramateko urraketa horiek gatazkaren konponbide-soziala erdiesteko. Oinarritzko eskubideak babesteak ezin du eragin Justiziak egiten duenaren gaineko informazioa -edo ebaztea lortzen ez duen auzien gainekoa- jendarteari ezkutatzeko egoera zentzugabea. Euskadi eta Nafarroako Feminizidioak 2010-2015 txostenean badaude bi kasu zeinetan ez den ebazpena ezagutzen txostenaren egileei ukatu egin zaielako oinarritzko informazio hori eskuratzeko aukera.

Arazoak prebentzioan. Arriskuak – ahultasunak-, sekzionalitate-artekotasuna eta diziplina-artekotasuna

Indarkeria matxistek maila sozial guztiak zeharkatzen dituzte eta munduko herrialde guztietara heltzen dira, fenomeno globala da, eta mota ezberdinetako faktore sozial eta kulturalekin (NBE-GEK, 2012) harremana duten espezifikotasunak ditu maila ezberdinetan (maila erregionalean, nazionalean, edo lokalean).

Latinoamerikako Protokoloak azaltzen duenez: emakumeak ez dira talde homogeen bat. Beraien artean *“ezberdintasun ekonomikoak, kulturalak, arrazakoak, hizkuntzakoak, kosmogonia/erlijiozkoak eta fenotipozkoak”* daude. Hiltzaileen artean ere ezberdintasun guzti hauek ematen dira, beraien arteko kontu komun bakarra biktimia menderatzeko helburua da. Protokoloak zehazten duenez, *“biolentziaren biktimia den emakumearen profila homogeneizatzea ezinezkoa da. Biktimaren bizitza eta ingurua testuinguruan jartzea desberdina da kasu bakoitzean. Feminizidio baten biktimia izan den emakumeari, delitu-ekintza baino lehenago, momentu horretan edo ondoren eragin ahal izan dioten indarkeria mota guztien azterketa egitea ezinbestekoa da, eta horretarako, azterketan sekzionalitate-artekotasuna aintzat hartu beharra dago. Diskriminazio-faktore desberdinak (ekonomikoak, arrazagatikoak, generokoak edo genero arrazoiagatik izandakoak, dibertsitate funtzionalak, jatorriak, gaixotasunak...) euren artean elkar eragiten dute “bazterketarako askotariko faktore konplexu” bezala, eta elkar-elikatu eta indartzen dira. Sekzionalitate-artekotasunean oinarritutako azterketa bat egiteko, bazterketa faktore guztiak hartu behar dira aintzat, “faktore bat bestearen menpe kokatu edo ñabardurarik egin gabe beste faktoreetako baten mesedetan, baizik eta emakumeen aurkako indarkerietako bakoitzak euren sortzen duen bereizitako eragina aztertzeke tresna gisa”.* Ikertutako kasuetan generoan eta

sekzionalitate-artekotasunean oinarrituta egindako azterketak etiketa sinplistetatik harago joateko aukera ematen digu, bai eta saihestu gertatutako biolentziak ez izatea ondoren *"indarkeria instituzionala"* jarraipen bezala (NBGEKGK, 2014: 43-45, 119, 120, 126).

Sententzien bidez ikertutako errealitateetan badago euren artean eragiten duten faktore multzo bat, zeinak, hiltzaileak feminizidioa burutzeko arriskua handitu eta biktimaren ahultasuna ere handitzen duena: faktore horien artean daude, pobrezia (1 eta 7 kasuak); substantzia toxikoen gehiegizko kontsumoa: hiltzaileak drogen edota alkoholaren gehiegizko kontsumoa izan zuen 18 kasuetatik 9-tan (% 50a, 1etik 5-era, 7, 9, 11 eta 18 kasuak)⁷⁷, gaixotasun mentala (substantzia toxikoen gehiegizko hartzearekin erlazio estuan), 3, 4, 5, 7 eta 12 kasuetan jaso (% 27) eta bere atentziorik eza; migratzailea izatea, hiltzaileen kasuan sei aldiz ematen dena (6, 7, 10, 11, 13 eta 17 kasuak, herena), eta beste hainbat biktimen kasuan (7, 10, 11 kasuak, bi biktima 15 eta 17an), horrek dakarren guztiarekin; deserrotzea, talka kulturala, eta, integrazio arazoak jasotzailea den herrialdean arrazakeria, xenofobia, langabezia, hizkuntza-arazoak, administrazioarekiko arazoak eta beste mota bateko arazoak medio.

Ahulezia faktoreren bat edo hainbat biltzen dituzten pertsonen erantzun sozial egokiak emateak arriskua leundu edo neutralizatzeko katalizatzaile izan daitezke, bere egoeraren araberrako giza-beharrak asetzeko arreta egokia artikulatzen bada. Baina era berean, erantzun sozial egokiak ez badira artikulatzen, arriskua handiagotu egiten da (Daza, 2015:111). Zentzu honetan, defizit garrantzitsu bat dago gaixotasun mentalak eta substantzia psikoaktiboekiko menpekotasuna duten pertsonen osasun-arretan, ikertutako sententzietan islatzen den bezala. Bereziki, eskizofrenia paranoidea duten pertsonen (3, 4, 5, 7 eta 12 kasuetan jasotzen den bezala) ez dute jasotzen behar duten tratamendua, ez eta etxetik-erretxetik laguntza ere, ezinbestekoa dena jarraipen egokia egin eta desorekak saihesteko. Familiak ez dute bitartekorik gaixo hauek kontrolatzeko eta zeharo gaindituak sentitzen dira sarritan biktimizazio jarraituko egoeretan, eta, aztertutako kasuetan bezala, muturreko biolentzia egoeretan.

Baina arrisku faktore guztien artean sententzietan oharkabean pasatzen direnak, matxismoa eta misoginia dira -izan ere, zigor-prozesu ia bakar batean ere ez baitziren hiltzailearen motiboak aztertu-: gaizkileak bere burua hil duen emakumearen edo umea baino hobea dela uste izatea, bere kontrol-helburutik ihes egiten duenean mespretxatzea edo gorrotatzea, eta -denek egin zuten bezala-, modurik odoltsuenetan bere bizitza debalutzea hil arte.

Hau guzti hau ulertzeko, jokabide hauek jazarri eta zigortzeko ardura duten zigor-justiziako kideek lege araudia ezagutzea ez da nahikoa -hau ere beharrezkoa izanik ere-, bestelako jakintza eremuetako ezagutzak barneratu behar dituzte (historia, antropologia, soziologia, psikologia, biktimologia...), eta ezinbestekoa da jakintza hauek genero ikuspegi batekin barneratzea. Bestela, *"emakumeen jasaten duten indarkeriaren zati bat ikusezina izango da, eta beste bat aldiz zigorgabetasunean geratuko da, eta beraz, ez dira indarkeria horiek sortzen dituzten kausak aldatuko. Egoera horrek, ere berean, eraikuntza kulturala eta bere erreferentziak indartuko ditu"* (NBGEKGK, 2014: 39 ¶107).

⁷⁷ Biktimen Atentzio Zerbitzu batean (Granadako BAZ) mota guztietako zigor-urraketen egileen alkoholismo datuen erregistroak, hiru urtez (2006, 2007, 2008), lege-hausleen alkohol abusuaren % 23-ko portzentajea ateratu zuen, eta "... alkoholaren gehiegizko kontsumoa ez bada ere jarrera bortitzaren kausa- kontrakoa pentsatzen dugu, hau da, neurri handi batean alkoholaren abusa hiltzaileak bere burua aguantatu ahal izateko anestesiatzeko duen beharraren ondorio dela-, bai sortarazten du gaitasungabetze handiagoa [delituaren] gauzatzea erraztuz" (Daza, 2015: 407-408).

Sistema penaleko babesa eta zigorra

18 sententzien ikerketa honetan ez dago, modu orokorrean, feminizidioen zigorgabetasunik. Sententzia guztiak dira kondenatzaileak. Delitu nagusiari dagokionez: 15 sententziek kondenatzen dituzte burututako 16 feminizidioak. Horietatik 15 kalifikatu dira hilketa gisa juridikoki; bat homizidio modura; bi lapurretatik; eta bat zuhurtziagabekeriazko homizidio gisa, izan ere, frogatutako gertakarien arabera, ez zen egon hiltzeko intentziorik.

Hilketa gisa zeharo egozgarriak diren erailketak, espetxeratzeekin zigortu dira, batez beste 19 urteko kondenarekin.

Hiru hiltzailek, borondate eta adimen gaitasuna asaldatzen zien irregulartasun psikiko larria zuten, eta Presondegiko Zentro psikiatriko itxian barneratzeko segurtasun neurria ezarri zitzaizen, 20 urtekoa biri eta hamabikoa beste bati.

Homizidioarensententzia zortzi urteko kartzelatzearekin zigortuda; eta zuhurtziagabekeriazko homizidioa hiru urte eta sei hilabeteko espetxeratzearekin.

Kasuen artean daude:

- Zortzi feminizidio intimo (1, 5, 6, 9, 10, 11, 14 eta 17 kasuak),
- Hiru familiarteko feminizidio – bi ama eta adineko amona baten erailketa (2, 3 eta 4 kasuak)
- Bi haur feminizidio- oso urte gutxiko neskatilak, biktima eta hiltzailearen urte bateko alaba (7. kasua), eta hiru urteko umea, emakumearen alaba (16. kasua)-,
- Bi prostituzio feminizidio- hiltzaile serial bat, predatzaile bat, oso krimen odoltsuak. Esklusiboki zigortu dira hilketak, oso larri bilakatzen dituzten zirkunstantziak eta loturazko delituak saihestuta (15. kasua)-,
- Bi feminizidio ez intimo, auzokide batek eta bizilagun batek burutuak, hurrenez hurren (12 eta 18 kasuak), eta
- Lapurreta eragindako bi hilketa (8 eta 13 kasuak).

Horien artean, gutxienez sei kasutan (3. kasua ama-hilketa da; eta 5, 6, 9, 10 eta 11 kasuak feminizidio intimoak) aurretiko erasoak agertzen dira sententzian. Beste bost krimenetan litekeena da aurrez erasoak egon izana, baina ez ziren ikertu (2, 4, 7, 12 eta 14 kasuak); eta beste erailketa batean (16. kasua) ez da daturik ageri, baina zaila da sinestea erasorik egon ez izana. Are gehiago, zortzi kasutan ohiko biolentziaren zantzua edo ziurtasuna dago (2, 5, 6, 7, 9, 10, 11 eta 14 kasuetan); kasu batzuetan aurretiko salaketa egon zen (5, 6, 7 eta 10); eta hirutan urrutze-agindua ezarria zegoen feminizidioa burutu zenean. Azken horietan sententziak kondena edo kautelazko neurrien urraketa delituagatik kondenatu zituen (5, 6 eta 10). Hortaz, argi dago babes-sistemak huts egiten duela.


Prozesuetako batean soilik -10. kasuan- ikertu, akusatu eta kondenatu zen ohiko biolentziaren delituagatik hiltzailea ZK-ko 173.2 artikulua baliatuta; lotura zuten beste delituengatik ere zigortua izan zen. Gainontzekoetan, babesean huts egiteaz gain, sistemak kale egin zuen

zigorrean; feminizidioan bukatu den ohiko indarkeriaren zigorgabetasuna baimenduta, beste biolentzia mota ikusgarriago batzuk barne, askatasun sexualen aurkako delituak kasu.

Emakumeen kontrako indarkeriaren ikuspuntua eta normalizazioa

Sistema penalak eskaintzen duen babesa, bere erregulazio penala, bitartekoak eta operadore zehatzak gora behera, ezin da ulertu gainontzeko sistema sozialetik aldentuta dagoen zerbaite bezala. Biolentziaren eta honen muturreko adierazpenen kausen inguruko kontzientzia sozialak, biktimak artatzeko erabiltzen diren irizpideak, zein prebentzioan inbertitzeko interes eta baliabideen neurriak sistema judizialaren funtzionamenduan eragiten du, eta era berean, sistema judizialak ere horietan guztietan eragina du. Justiziaren esparruan, guztion lana da egungo dinamika aldatzea indarrean dauden zigor-arauak behar bezala ezarri daitezen; atestatuak bideratzen dituzten poliziena, justizia administrazioko funtzionarioena, akusazioena zein autoritate judizialarena. Horrek eragina izango du halaber, zigor-sistemara iristen diren kausengan, bai eta sistemak hauek lantzeko erabiltzen duen moduan. Era berean, lehenago ohartarazten genuen bezala, guzti honetan eragina dute jendarteak erabiltzen dituen jarraibide eta bitarteko politikoei, hezkuntza sistemak, babes sozial eta sanitarioak...

Jarraian, *Genero arrazoiengatik gauzatutako emakumeen erailketa bortitzen (femizidio/ feminizidio) ikerketen Latinoamerikako Protokoloaren* 3. grafikoa jasotzen da. Honek argi erakusten du emakumeen kontrako indarkeriaren normalizazio kulturalaren eta zigorgabetasunaren arteko erlazioa (Villa Quintana, 40: 2014):



Mehatxuak

Hain zuzen ere, naturalizatu eta minimizatu egin dira emakumeen aurkako indarkeria egoerak; bereziki haien bizitza eta segurtasunari egindako mehatxuak, aste batetik besterako esperientziak seriooki hartu behar dela erakusten dute eta. Sistema

jurisdikzionalak (sozialak bezala), praktikoki, Zigor Kodearen 169. artikulua mehatxuak zigortuko ez balitu bezala jokatzeko du. Delitutzat jo eta zigortzen dira bertan gaizkia eragiten duten mehatxuak: *“homizidioa, lesioak, abortua, askatasunaren aurkako delituak, torturak, osotasun moralaren aurkakoak, sexu askatasuna, intimitatea, ohorearen kontrakoak [...] 1º. Beste edozein baldintza ezartzeko mehatxuak tartean badaude, nahiz eta legez kontrakoak ez izan, eta errudunak bere asmoa bete badu [...] kartzela zigorra urte bat eta bost artekoa da; eta 2º. “mehatxua baldintzazkoa ez denean, berriz, hilabete bat eta bi urte bitartekoa”*. Halaber, alboratu egiten dira 169 artikuluan jasotako banda antolatuek edo elementu terroristek egindako mehatxuak zigortzeko neurriak, mota ezberdinak zehaztuta badaude ere, larrigarriak eta espezifikoak kasu. Mehatxuaren biktimak emakumea denean ia beti minimizatzen dira: ez da kontutan hartzen aurrez jarritako salaketa, 10. edo 5. Kasuetan bezala; sistematikoki delitu edo huts egite arintzat hartzen dira. Emakumeak hiltzea ez al da homizidio delitua⁷⁸?, kolpatua izateak ez ditu lesionatzen? mehatxatzeak edo bortxatzeak ez du beraien askatasunaren kontra atentatzen?

Hain eztabaidatua den sexuaren arabera zigor bereizketak, bereziki abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoa onartu zenetik -Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integralerako Neurrien Lege Organikoa (GIBINLO)- *“orokorrean emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean zigor moten aplikazio ezak sortutako zigorgabetasun totala saihestea”* zuen helburu. Legeak ez ditu iraintzeari utzi parekidetasunez mozorrotutako sektore maskulinistak zein neomatxistak, gizonezkoen aurka daudela argudiatuta (Daza, 2015: 149). Sektore atzerakoï horiek ez dute nahi ezer aldatzerik; sistema patriarkatu, sexista, eta naturalizatutako menderatze matxistaren aurrean eroso baitaude, eta indarkerien aurkako borroka koherente batek errotik aldatzea eskatzen duelako. Legearen aurrean berdintasun formala eskatzen dute, errealitatea aztertzeko genero kategoria ukatzen dute, eta beraien diskurtsoak barneratuak dira. Egia da hilketa zigortzen dela, baina emakumeen, beraien bizitzaren eta euren esperientzien gutxieste egoerak jarraitu egiten du. Ondorioz, minimizatu egiten dira emakumeenganako mehatxuak, heriotza abisuak eta baldintzazkoak izanik ere, armekin egindakoak ere, aringarritzat jotzeko beti (11/2003 Lege Organikoa eta GIBINLO indarrean sartu arte sistematikoki faltak ziren beti). Biktimak emakumea izanagatik ez dira aplikatzen Kode Penaleko tipologia komunak; eta ZK-ko 173.2 artikuluko ohiko biolentziaren delituak alde batera uzten dira oraindik ere⁷⁹.

Ohiko biolentzia eta akusazio-printzipioa

Emakumeen aurkako indarkeriaren normalizazio-ikusezintasuna eta justiziaren esparruan duen zigorgabetasun espezifikoaren arazoaren alderdi batek zer ikusia du kudeatzen dutenen posizio ideologiko eta politikoarekin (zentzu zabalean, operadore guztiak kontuan hartuta) eta akusazio-printzipioarekin.

Emakumearen aurkako Indarkeriaren edo Instrukzio Epaitegiak ahozko epaiketa hasteko autoa diktatzen badu zehaztu gabe, laburtuta behintzat, zein gertakariak zabaltzen duten kasua -eta berauen kalifikazio juridikoa-; akusazioek oztupoak izango dituzte akusazio-printzipioan oinarrituta autoan sartzen ez diren delituen jarraipena egiteko. Biktimak bizirik dagoenean “tratu txarreatatik” abiatzen da auzia, eta hiltzaileak bere mehatxuak betetzen dituenean “hilketatatik”. Instrukzioan zehar datuekin ageri diren delitu guztiez

⁷⁸ Etimologikoki homizidio gizonak hiltzetik dator. RAE-ren arabera, genero maskulinoak emakumeak barnean hartzen ditu, eta terminoak pertsonen buruz hitz egiten du, baina kasu honetan ez dirudi horrela denik.

⁷⁹ *Ibidem*, gai hauei buruz: 146-152, 265-266, 294-318, 416-436 or.

akusatu ahal izateko, akusazioek helegitea jarri behar diote autoari, gertakari horiek eta beraien kalifikazio posibleak aintzat hartu daitezen.⁸⁰

5, 6 eta 10 kasuetan kondena urratzeagatik edo urruntze agindua hausteagatik zigortu da hiltzailea. Honek, genero indarkeriagatik aurrez jarritako salaketa du oinarri, 5 eta 10 kasuek bat egiten dute aurretiko prozesuetan ohiko tratu txar posiblea saihestean; burututako azken ekintza jorratu zen bereziki, berehalako salaketa eragin zuena, gai arintzat hartuz (6. kasua erabaki gabe zegoen).

Prozesu penalean, ahozko epaiketa abiatzeko autoak ez badie erreferentzia egiten auzitara eramaten diren delitu guztiei ez eta horien kalifikazioei, oztopatu egiten da autoak jasotzen ez dituen delituen zigorra, zigor gabe geratzeko probabilitatea handituz (ikus, adib.: urriaren 13ko 762/2016 AGS, Zigor Arloko Sala)⁸¹.

Hau da ohiko biolentziarekin eta harremana duten beste delitu batzuekin gertatzen dena, askatasun sexualaren aurkako delituen edo feminizidio kasuetan, adibidez. Sistema ez dago biktimak entzuteko prestatuta, esfortzu handia egin behar da hori prestatzeko. Estatu espainiarrak berretsitako Europako Kontseiluaren hitzarmenak, Lanzaroteakoak, 201, eta Istanbulakoak, 210; nola egin litekeenari buruzko pista batzuk ematen dituzte. Aurreneko akordioak haurren kontrako esplotazioa eta sexu abusuak ditu oinarri⁸², eta bigarrenak emakumeen aurkako indarkeriaren eta etxeko biolentziaren kontrako prebentzioa eta borroka⁸³. Baina lege erreformak baino zerbait gehiago falta da espediente eskubideekin hornitzeko, haren eraginkortasuna ez baita kasu guztietan bermatzen.

Gure zerrendatik, soilik kasu batean jazarri eta zigortu zen -hamargarrenean- (PA, Bizkaia, 34/2013 sententzia, ekainaren 7koa); kondena urratzeaz gainera, hiltzaileak bere emazte eta seme-alabei eragiten zien ohiko biolentzia, eta haren bi alabei buruturiko sexu abusua jarraituak.

Kendutako salaketak

9. kasuan, biktimak salaketa jarri zuen aurrez, baita “kendu” ere. Gainera, hiltzaileak aurrez tratu txar puntual bategatik ezarritako kondena zuen. Bikote harreman batean indarkeria matxista seriooki sartzen denean, jakinda kasu gehienetan, guztietan ez esateagatik, azkeneko gertaera puntuala salatzen dela segida gutxi gora behera luzea izanik ere. “Salaketa atzera botatzea” elkarrizketa bat egiteko aski arrazoi izan beharko litzake aurrez indarkeria aurrekariak daudenean, izan Emakumeenganako Indarkeriaren Fiskaltzaren aldetik edo Biktimen Arreta Bulego edo Zerbitzuaren partetik. Era berean, Emakumeen Zentroaren informazio eskaerara bideratu beharko litzateke, salaketa kentzearen arrazoiak ezagutzeko eta salaketaren egoera edo testuingurua ezagutzeko -prozesuak aurrera jarraitu beharko balu- arriskutsua izan litekeen ohiko tratu txarren egoerarik ote dagoen jakiteko, eta emakumea informatu zein orientatzeko.

80 Montserrat Linaren Lararen aipamena, Themiseko presidenteordea.

81 Id CENDOJ: 28079120012016100754.

82 Europako Kontseilua [2007]. Berrespena: https://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2010-17392

83 Europako Kontseilua [2011]. Berrespena: https://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2014-5947

Sexu-askatasunaren aurkako delituak: isilpeko estalkia

10. kasua oraindik ezohikoagoa da biolentzia sexuala azaltzen delako. Baina ez da ikertutako kasuen artean biolentzia sexuala eman zen bakarra. 15. kasuko bi feminizidioetan hiltzaileak harreman sexuala behartu zuen erail aurretik. Nafarroako 17/1 kasuan ere posiblea da aldika egon izana, adostasun truke konpondu zutena, auzipetuari sekulako faborea eginda. Hiru kasuetan, ordea, zeharo baztertu zen aukera hori, ez zen ezta zalantzan jarri biktimek agertu zuten onarpenaren baliotasuna. Besterik gabe onartu zen, Kode Zibilaren 1265. artikulua dioenari entzungor eginda: “*Baliogabea izango da huts egite, biolentzia, beldur edo iruzurrez emandako onarpena*”. 15. kasuan guztiz larria da hiltzailearen iruzurra eta biktimen ondorengo huts egitea, harreman sexuala baimendu zutela egia izatekotan. Onarpena baliogabea izaki, bi parteentz aldetik baimendu gabea izan beharko litzateke, sexu abusu delituei jarraipena eginez, gertaerei balioa emanez. Baina emakume hauen askatasun sexuala -beste gauza askoren artean: askatasun eskubidea, sufrimendu psikikoa...- ez zuen inork prozesuan hartu kontuan, delitu hauek ez ziren eztabaidagai izan, zigortu gabe geratu ziren. Prostituzioan aritzen diren emakumeak ez dira dagozkien eskubideen jabe izateko gizakiak edo? Ez al ditu Zuzenbide penalak babesten?

Arazo juridikoak

Zinpekoen Epaimahaiaren eskumena: Feminizidio intimoetan eta familiarteko feminizidio kasuetan, aurrez ohiko biolentzia gailentzen den egoeraren bat dagoenean, bi prozesu desberdin jarraitzen dira. Lehenengoa, behin-behineko salaketa dela medio, hau da, ikerketan zehar argitara ateratako ohiko indarkeriagatik. Bigarrenak, berriz, feminizidioa du ardatz, eta prozesuan ekonomiaren aurka egitearekin batera bigarren maila batean kokatzen ditu biktima zuzenak eta senideak. Delitua prozesu batean ere ez jarraitzea ohiko tratatu txarrei zigorgabetasuna ematea da, gure araudian delitu gisa sailkatua dago, kasuen artean larrienak dira, gainera.

Baina gure legeek ez dute egoera hau aurreikusi, ez da sartzen Zinpeko Epaimahaiaren Lege organikoari lotutako delituen definizioan (ZELO, 5.2 artikulua). Gaur egun, 17.3 artikulua (PKL), oraintsu berritutako urriaren 5eko 41/2015 Legearen bidez, baimendu egiten da metaketa konexiorik exijitu gabe baldin eta organo judizial beraren kompetentzia badira; baina ez da kasua, izan ere Zinpeko Epaimahaiaren eskumenak murriztuak eta oso mugatuak dira. ZE-k homizidio eta hilketen delituak ezagutu ditzake, baina ezin du epaitu auzipetuak ohiko indarkeriarekin lotura; adibidez, sexu-askatasun eta sexu-ukigabetasunaren aurkako delituarekin. Auzitegi Gorenak arau batzuk erabaki zituen Zinpeko Epaimahaiaren kompetentzia argitzeko: ustezko konexio delituen ardura eman zion, oraingo egoeraren kompetentzia Epaitegi Penalaren edo Auzitegi Probintzialaren esku geratu zen, ez ZE-ren pean (ZE, 2010 a eta 2010 b).

Estatu espainiarrean Epaitegien erakundetzea berandu ezarri zen, Zuzenbide sistema komunean ez bezala, sakon aztertu eta errotu gabe; beste tokietan bikoteen auzitegiak dira prestatuen daudenak edonoren ekintzen kalteak epaitzeko, herritarren parte hartze parekidea eta demokratikoaren printzipioan oinarrituta. Guzti horrek estatu espainiarreko garapena oraindik nahikoa ez dela pentsatzera garamatza. Guzti horrek epai prozesuetan ondorio zentzugabeak ekarri ditu, Zinpeko Epaimahaia izatea homizidio eta erailketa guztiak epaitzearen arduradun kasu; eta ez gizon asko hilketara bultzatzen dituen aurretiko biktimizazio egoera, epaitua izan behar dena; baina feminizidioa sustatzen duen ohiko indarkeria epaitzeko ZE-k ez du eskumenik. *Lege ferenda* proposamen gisa, zuzendu beharreko egoera da, ZE-ren eskumenak handitu behar dira legeak aintzat hartu ez duen konexio mota hau onartzeko.

Ankerkeriaren kontzeptua: Aztertutako 18 kasuetan emandako hiru sententzietan ankerkeria antzeman da [5, 11 eta 14 kasuetan]. Hala ere, ez zen ankerkeria baloratu hiltzaileak sekulako biolentzia erabili zuen kasu batzuetan [3, 12 eta 15]. Jendartearentzako pentsaezina da.

Jurisprudentziak ankerkeriaren inguruan interpretatzen duena zaharkitua dago. 139.3 artikuluaaren arabera, *“mindutakoaren mina krudeltasunez edo hala erabakita”* areagotzean datza”.

Ikusi bezala, sententzia batzuetan bereziki hartzen da kontuan hiltzailearen intentzioa (elementu subjektiboa) eta beste batzuetan biktimari eragindako kalteak (elementu objektiboa). Horrela bilatzen dituzte soluzioak, kasuak kontrastatzean inkongruenteak badira ere. Gipuzkoako PASn 319/2012 [3.kasuan], ez da ankerkeria begiztatzen 52 sastakadaz gauzatutako erailketa batean, biktima azkar hil zela argudiatuta, hots, zeharkako biktimen mina gutxietsi egiten da. Ildo beretik, Bizkaiko PASn, 7/2014 [12. kasua], ez da baloratzen 52 sastakadaren bidez gauzatutako beste erailketa bat, berandu hil zela iritzita, azken sastakadek eragindako lesioengatik. Hots, zuzeneko biktimaren mina gutxietsi egiten da, hiltzailearen intentzioa hiltzea baino ez zen eta.

Kode Zibileko 3.1 artikuluari dagokionez: *“Arauak haien hitzen zentzu propioari, testuinguruarekiko erlazioari helduz interpretatuko dira; aurrekari historiko eta legegileen baitan, aplikatuak izan behar diren garaiko errealtate sozialari egokituta, horien izpiritu eta helburuei arreta jarritz”*. Geroz eta dibergentzia handiagoa dago larrigarri espezifikoa helburuaren eta bere interpretazio jurisprudentzialaren artean. Gure gizarte errealtatea aldatu egin da, biktima jada ez da duela denbora askoz izan zen pertsona ahaztua. Delituak ez ditu soilik biktima zuzenak mintzen, benetako mina eragiten die zeharkako biktimei, eta sufrimendu psikologikoa ere kontutan hartu behar da.

Akats logiko bat dago akats espezifikoa zirkunstantziaren zehazpenean, ikusi den bezala, oztopatu egiten da aintzakotzat hartzea sufrimendu izugarria sortzen duten jarrera bereziki bortitzak, bai hain azkar hil ez ziren zuzeneko biktimei, eta baita zeharkako biktimei ere; beti. Gizarteari ere eragiten dio, ezin direlako interpretazio tekniko-juridikoa eta jurisprudentziala ulertu objektiboki larriak diren kasuetan, alarma sozial izugarriak sortzen dituzten auzietan, 15 kasuan bezala. Izan ere, zigortzerako orduan ez da hiltzailearen jarrera larritzat jotzen, nahiz eta logikatik asko aldentzen diren argumentuak agertu, gizarteak bere osotasunean ankerkeriaren inguruan duen ikuskerari dagokionez. Ulerkera hori hiltzaileak egindako ekintzatik eta jarduerak sortzen duen kaltetik eratorria da. Modu honetako jokabideek ez dutenean neurriko zigorra jasotzen hiltzailearen ekintza eta intentzioagatik entitateen aldetik; barkamena eskatu eta objektiboki direna bezain larritzat jotzen ez direnean, sekulako kaltea eragiten diote jendarte *osoari*.

Aringarriak: Defentsa batzuek aringarritz eta salbueslez beteriko kalifikazio juridikoak egiten dituzte, eta delituaren larritasunarekin proportzio minimorik ez duten zigorrak eskaintzen dituzte. Bere lana hori bada ere, kasuren batean biktimen bizitzaren errespetua galtzera ere heltzen dira. Ikertutako kasuen artean deigarriena 2. da: defentsak absoltzioa edo hiru urteko kartzela zigorra eskatu zituen hainbat zirkunstantzia salbuesle alternatibo alegatuta, horietako bat osatu gabe gainera, aringarri analogikoekin; konfesio, haserrealdi edo itsualdiaren aringarria erantsita. Zigorra 16 urtekoa izan zen, aitorpena eta mozkorkeriaren analogikoa aintzat hartuta.

Aztertutako kasu guztien artetik, sei kasutan eskatu zuen defentsak aitorpenaren aringarria kontuan hartzeko, eta horietako bitan hartu zen aintzat (2 eta 14 kasuetan).

Aitorpenaren aringarriak “delituaren ikerketa errazten duen horrenganako trataerari mesede egitea du helburu”, eta “kasu gehienetan egileak ekintzak egin izana aitortzen duen momentuan edo iraunkorki aplikatzen da, instrukzioa sinplifikatuz”. Etxeko eta genero indarkeriaren aditu taldeak heriotzan bukatzen den genero indarkeria delituen ezabapena edo birplanteatzea ikertzea komeni dela dio, gertaeraren gauzatzea edo inguratzen duten zirkunstantziek bikote sentimentalaren baitako gizonezkoari egiletza leporatzeko zailtasun eza ahalbidetzen baitiote; ondorioz gabe utziz justifikatzen duen motibazioa, izaeraren osotasunean, ordaina” (BJKN, 2016a: 17, 2016b: 35).

Mozkorkeria edo alkohol-dun edarien kontsumoen zirkunstantzia aringarri gisa kontsideratu zen hiru kasutan (2, 17 eta 18 kasuetan). Azken bi kasuak Nafarroakoak dira, eta adostasuna lortzearen bidez lortu zuten zigorra gutxienekora jaitea. Kasuetako batean (Nafarroako 1/17), argiago ezin geratu zen alkohol-dun edarien kontsumoaren aringarri analogikoaren aplikazio desegokia.

Hiru sententzia hauek aldendu egiten dira kontsiderazio irizpidetik *“alkoholaren [edota drogen] menpekotasunak modu esanguratsu batean murrizten edo deuseztatzen du auzipetuaren bereizkuntza gaitasuna”* ez kontsideratzearen irizpidetik urruntzen dira. (BJKN, 2016a: 20; 2016b: 128). Hiltzaileek alkohola edota bestelako sustantzia toxikoak erabiltzen dituzte emozionalki desinhibitu edota anestesiatzeko, baina ez dira feminizidioen kausa. Bada, aldiz, hiltzaileek “emakumearen gaineko jabetza maskulinoaren ideia barneratzea, emakumeari gizatasunaren kentzea eta objektu gisa kodetzea” (NBGEKGK, 2014: 41), emakumeekiko “botere eta kontrolaren gogoia” izatea. (BJKN, 2016a: 20).

Erantzukizun zibila

Erreferentzia puntu gisa kalte-ordain kopurua zehazteko sententziek erabilitako irizpide orokorra, orientatiboki eta minimoen adierazgarri gisa, auto istripuetako kalte ordainak finkatzean baliatzen den baremoa da. Engainuz, nahita eta esparru horretatik kanpo dauden delituek sortutako kalteak izanda, eremutik kanpokoa, mintzeko intentzioa izateak erantzukizun handiagoa izan behar du, eta ondorioz, kalte ordaina ere. Akusazioek eskatu eta kaltea frogatu behar dute, baita kuantifikazioa zein adierazletan oinarritu duten azaldu ere.

Ikertutako kasuek duten harremanari erreparatuz, kalte ordainen tarteak 30.000 eurotik 922.000 eurorako izan zen. Gutxieneko kopurua 13. kasuan ebatzi zen, lapurretatik eragindako emakume edadetuaren erailketan (15.000 € eman zizkioten seme-alaba bakoitzari). Kalte ordain gehien, aldiz, 8. kasuan banatu zen, 922.000€; lapurretak eragindako beste hilketan. Kasu honetan, biktimak “idealitate eta konbentzionalismo biktimalaren” parametroei erantzuten die -espainiarra zen, heldu gaztea, *“ohiko, eguneroko eta legítimoak diren zereginetan lanpetuta zegoen”* ama arduratsua, hiltzailearekin izandako erlazioan ahula, erasotzailearekin erlazioan ez zena... (Christie, 1986; Herrera Moreno, 2009: 78-79; Daza, 2015: 97-98), *“emakumea izatearen rol normatiboetan orientatua [...] ondare indarkeriatatik hildakoa”* (NBGEKGK 2014: 43). Kasu horretan, galereetatik jasotako kalte ordaina bikoitza baino gehiagokoa da, beste guztien maximoarekin alderatuta. Era berean, haren senarrari emandako kalte ordaina zeharkako biktimen artean adostutako altuena da.

Sententziek akusazio partikularrek eskatutako kalte ordainak finkatu dituzte, edo, prozesuan parte hartu ez duten kasuetan, Fiskalarenak (12 kasuan izan ezik, bien arteko erdibideko kopurua aukeratzen baita).

Erantzukizun zibilagatik izandako kalte ordainak azpimarratzeko orduan, feminizidio eta hilketekin batera kontuan hartu behar dira akusazioek pilatutako delituak; batez ere, erasotik bizirik atera diren zeharkako edo zuzeneko biktimen kaltea larriagotzea zehazten denean, eta efektu bera sortu dezaketen beste elementu batzuk daudenean ere bai - adibidez, aita feminizida batek bere seme-alabei kalte ordainak ordaintzea planteatzean aintzat hartu behar da bere ekintzarekin ama eta aita gabe utzi dituela, umezurtz-.

Garrantzitsua da, halaber, sententzian onartutako kalte ordaina, kasu horretan, askatasun sexualaren kontrako erasoentzat eta delitu bortitzen biktimentzat laguntza publikoen araudiak ematen duen kopuru maximoa dela (Abenduaren 11n onartutako 35/1995 Legea, eta bere Araudia, maiatzaren 23an 738/1997 Errege Dekretuaren bidez onartua).

ABREVIATURAS

PA	Probintzia Auzitegia
EAZ/EIZ	Emakumeen Arreta Zentroa / Emakumeen Informazio Zentroa
ZK	Zigor Kodea
ZO / OJ	Zuzenbide Oinarria /Oinarri Juridikoa
EIE	Emakumeen aurkako Indarkeria Epaitegia
PKL.	Prozedura Kriminalaren Legea
GIBINLO	Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integralerako Neurriei buruzko 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa.
ZELO	Zinpeko Epaimahaiaren 5/1995 Lege Organikoa, maiatzaren 22koa.
F	Fiskaltza
NBGEEGKB	Nazio Batuek Giza Eskubideetarako duten Ertamerikako goi-komisarioaren bulegoa.
BAZ	Biktimen Asistentzia edo Arreta Zerbitzua/Bulegoa
ZE	Zinpekoen Epaimahaia
AG	Auzitegi Gorena

SENTENTZIEN ANALISIAREN BIBLIOGRAFIA

ALEMANY ROJO, ÁNGELA (2015): "La Justicia frente a la violencia de género.". *Lefrebre* - *El Derecho.com*. http://www.elderecho.com/tribuna/penal/Justicia-frente-violencia-genero_11_816430002.html.

ATENCIO, GRACIELA (2015): "Feminicidio en España: #YoVoy7N porque no las olvidamos", *Feminicidio.net*. <http://www.feminicidio.net/articulo/feminicidio-espana-yovoy7n-porque-no-las-olvidamos>

ATENCIO, Graciela (Ed.) (2015): *Feminicidio. De la categoría político-jurídica a la Justicia universal*. Madril: Los libros de la Catarata

AUZITEGI GORENA (2010a): 2010eko urtarrilaren 20an Auzitegi Goreneko Bigarren Aretoko Bilkurak egokitutako akordioa. <http://bit.ly/2eQZBN2>

- (2010b): 2010eko otsailaren 23ko Bilkura ez Jurisdikzionalak onartutako akordioa <http://bit.ly/2enuTKV>

BJKN, ETXE ETA GENERO INDARKERIAN ADITU TALDEA (2016a): *Bikotekideek edo bikotekide ohiek gauzatutako erailketa edo eta homizidioei buruz Zinpekoen Epaimahaiek eta Probintzia Auzitegiek 2013an eman zituzten sententzien analisia. Ondorioak*: <http://bit.ly/2eaBive>

BJKN (2016b): *Bikotekideek edo bikotekide ohiek, eta euren gurasoek adingabekoekiko gauzatutako erailketa edo eta homizidioei buruz Zinpekoen Epaimahaiek eta Probintzia Auzitegiek 2014an eman zituzten sententzien analisia*. <http://bit.ly/2elyFBI>

CEDAW (2014): 47/2012 Komunikazio zenbakia, Batzordeak moldatutako txostena 58. saioan [2014ko ekainaren 30etik uztailaren 18ra] CEDAW/C/58/D/47/2012 <http://bit.ly/YBLnGb>

DAZA BONACHELA, M. M. (2015a): *Escuchar a las víctimas*. Tirant lo Blanch, Valentzia.

- (2015b): "Victimología Hoy, Derecho Victimal europeo y español y Atención a las Víctimas de Delitos en España. Presentación y Metodología.". *Eguzkilo, Kriminologia Euskal Institutuaren Koaderno* 29(12):243-274 or. <http://www.ehu.es/documents/1736829/5274977/12+Daza>

EUROPAKO KONTSEILUA (2007): Haurrak esplotazio eta sexu-gehiegikerietatik babesteko 201 hitzarmena, Lanzarote, 2007/10/25. https://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2010-17392.

- (2011): Emakumeen aurkako biolentziaren eta etxeke biolentziaren kontrako borroka eta prebentziorako 210 hitzarmena, Istanbul, 2011/05/12 https://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2014-5947

HERRERA MORENO, MYRIAM (2012): "Humanización social y luz victimológica". *Eguzkilo, Kriminologia Euskal Institutuaren Koaderno* 26 :73-85,82.or. <http://www.ehu.es/documents/1736829/2177136/Herrera+Eguzkilo+26-11.pdf>

JIMÉNEZ, PATRICIA, RONDEROS, KATHERINE ETA MAXCARELL VILAR, CARLOS (2013): *Feminicidio: Un Fenómeno Global de Madrid a Santiago*. Brusela. <http://servicios.uimunicipalistas.net/biblioteca/data/redes/redgenero/1365496348616.pdf>

NBE-GEK (2012): Emakumeen aurkako indarkeriaren, arrazoien eta ondorioen Kontalari Bereziaren Informea Rashida MANJOO. *Genero arrazoiengatik eraildako emakumeen erailketei buruz aditu Taldeak egindako bileraren informe laburtua*. NBE-ko Asanblada Orokorra <http://www.ohchr.org/Documents/HRBodies/HRCouncil/RegularSession/Session20/A.HRC.20.16.ADD4.SPA.pdf>.

OACNUDH, VILLA QUINTANA, CARMEN ROSA (ZUZ.), BERNAL SARMIENTO, CAMILO, LORENTE ACOSTA, MIGUEL, ROTH, FRANÇOISE ETA ZAMBRANO, MARGARITA (2014): *Modelo de protocolo latinoamericano de investigación de las muertes violentas de mujeres por razones de género (femicidio/feminicidio)*, NBE Emakumeak-NBGEEGKB. <http://bit.ly/1Je3y6g>

YOUNG, I. M. (2011): *Responsabilidad por la justicia*. Paideia Galiza Fundazioa- Morata Edizioak, Madril.

ZUAZO, JOSÉ IGNACIO (1987): "Asistencia domiciliaria en salud mental. Aspectos Socioasistenciales y Sanitarios", *Zerbitzuan: Gizarte zerbitzuetarako aldizkaria - Revista de servicios sociales*, 3.zenbakia, <https://dialnet.unirioja.es/descarga/articulo/2700251.pdf>

ONDORIOAK



17. ONDORIOAK

Lan honetan ikusi dugun bezala, feminizidioa kontzeptu bat izateaz gainera, kategoria bat ere bada. Kontzeptu izaera horrek indarkeria patriarkalaren adierazpen muturrekoena dena definitu eta ulertzeko interpretazio-tresnak ematen dizkigu: emakume izate hutsagatik ematen diren emakumeen erailketak definitu eta ulertzeko tresnak hain zuzen ere. Kontzeptuak teoria feministara gerturatzeko tresna ere eskaintzen digu. Era berean, soziologia, zuzenbidea, antropologia, kriminologia zein kazetaritza bezalako esparru eta diziiplina ezberdinetan kontzeptuaz egiten den erabilpenaren eta ematen zaion esanahiaren irismenaren eztabaidara hurbiltzen gaitu. Kategoriak, bestalde, feminizidio motak sailkatzeko aukera ematen digu, feminizidio bakoitzaren ñabardurak, berezitasunak eta desberdintasunak kontuan hartzeko aukera emanez.

Ikerketa honetan, estatistika ofizialetan eta komunikabideetan ikusezin bihurtu dituzten kontzeptualizazio eta kategorizazioari dagozkion hiru nahitaezko elementu hartu dira kontuan: lehena, hiltzailearen eta biktimaren arteko harremana. Bigarrena, gizonak gauzatutako emakumeen erailketa eta feminizidio motak -hala genero arrazoiengatik gertatutakoak, nola beste arrazoiengatik emandakoak-. Eta azkenik, kriminologia feministaren ikuspuntutik egindako kasuen azterketa, arreta batez ere jarritz maskulinitate hegemonikoak feminizidioaren egile diren hiltzaileengan jokatzen duen rolean, eta euren indarkeria ekintzen ondorioz eraildako emakumeen gorpuengan uzten duten karga sinbolikoan. Kasu gehienetan, feminizidioen autoreek, emakumeen aurkako euren gerra propioaren guda-zelai bihurtzen dituzte gorpu femeninoak.

Beste alde batetik, nabarmen geratu da, komunikabideek feminizidioez eta indarkeria matxistei buruz duten sentsibilizazioa hutsaren hurrengo dela. Hori dela eta, kasuen gaineko estaldura informatiboa krimenaren lekuan gizonak emakumeen aurka gauzatutako indarkeria ekintzen kontakizunera mugatzen da. Emakumeak biktima bezala erakustearen eraikuntza soziala gailentzen da oraindik ere komunikabideetan, eta aldi berean, biktima hauen kontakizunek ez dute beste indarkeria batzuetako biktimenak duten aitorrtza publiko berdina.

Indarkerian eta menderakuntza maskulinoaren kulturaren oinarritzetik tratatu otean eta berdintasunean oinarritutako jendarte batera pasatzeko, ezinbestekoa da paradigma eta pentsamendu sozialaren aldaketa ematea. Horretarako emakumei buruzko kontakizun eta imaginario berriak sortu behar dira, gauza edo biktima bezala identifikatzen dituztenetatik urrunduz.

Era berean, hainbat hobekuntza egiteko behar larria erakusten du ikerketak: aldeztu aurretik erasotu edo mehatxatutako emakumeen babesari lotutako hainbat alderdi hobetzeko, erailak izateko arriskua handitzen duten faktore guztiez arduratzeko, erailketaren aurretik ematen diren eraso eta ohiko indarkeria ekintzak ikertu eta zigortzeko beharra, eta biktimen erreparazio eskubideari dagokion guztia berrikusi eta erregulatzeko. Biktimizatuak izan diren emakumeenganako arreta sistemak eta justizia sistemak, ikuspegi feminista batetik egin behar den berrikuspen sakona behar dute.

Azkenik, txosten honen bidez, 2010 eta 2015 urteen artean Euskadin eta Nafarroan feminizidioen biktima izan diren emakumeen memoria historikoaren eraikuntzan ekarpen bat egin nahi izan dugu. Orrialde hauen itxieran nabarmendu nahiko genukeen helburua da mota honetako ikerketa eta lanen bidez pertsonak, Estatuko instituzioak, gizarte zibileko instituzioak eta komunikabideak ekitera bultzatu behar ditugula, indarkeria patriarkala eta feminizidioak errotik desagertzeko borroka kolektibo honetan euren esku dagoen guztia egitera.


1. eranskina. 2010-2015 arteko Euskadiko eta Nafarroako feminizidioen eta beste erailketen datuen laburpena



FEMINIZIDIOAK ETA EMAKUMEEN BESTE ERAILKETAK

Euskadi+Nafarroa: 2010-2015 datuen laburpena

Feminizidio motak probintziak



Euskadi + Nafarroa: 2010-2015 kasu kopurua

Urtea	Feminizidioak	Erailketak	Guztira	Prebalentzia / feminizidioak	Prebalentzia / kasu guztira	Feminizidio intimoak	Zifra ofizialak	Zifra ofizialen % guztira
2015	3		3	2,07	2,07	3	3	% 100
2014	5		5	3,46	3,46	3	3	% 60
2013	7	1	8	4,84	5,53	2	1	% 13
2012	3	1	4	2,07	2,77	2	2	% 50
2011	5	1	6	3,46	4,15	4	3	% 50
2010	7		7	4,84	4,84	3	2	% 29
Guztira	30	3	33	3,46	3,80	17	14	% 42

Emakume kopurua	EUSKADI + NAFARROA	ESPAINIAR ESTATUA	%
(2015eko INEren datuak)	1.445.923	23.733.999	% 6

Espainiar Estatua: 2010-2015 kasu kopurua

Urtea	Feminizidioak	Erailketak	Guztira	Prebalentzia / feminizidioak	Prebalentzia / kasu guztira	Feminizidio intimoak	Zifra ofizialak	Zifra ofizialen % guztira
2015	97	15	112	4,09	4,72	63	60	% 54
2014	85	19	104	3,58	4,38	59	54	% 52
2013	95	19	114	4,00	4,80	57	54	% 47
2012	90	20	110	3,79	4,63	60	52	% 47
2011	103	12	115	4,34	4,85	72	61	% 53
2010	116	10	126	4,89	5,31	79	73	% 58
Guztira	586	95	681	4,12	4,78	390	354	% 52

2010-2015 feminizidio motak Euskadin, Nafarroan eta Espainiar Estatuan

	Euskadi	Nafarroa	Hego Euskal Herria	Espainiar Estatua	Espainiar Estatuko %
Feminizidio intimoak	16	1	17	390	% 4
Familiarteko feminizidioak	6		6	90	% 7
Feminizidio ez intimoak	1	1	2	51	% 4
Haur feminizidioak	2	1	3	31	% 10
Datu gutxidun feminizidioak /erailketak				22	% 0
Prostituzio feminizidioak	2		2	21	% 9
Feminizidio transfobikoak				1	% 0
Emakumeek eragindako feminizidioak (patriarkatuaren agente gisa)				1	% 0
Lapurretak eragindako emakumeen erailketak	3		3	51	% 6
Indarkeria komunitarioak eragindako emakumeen erailketak				16	% 0
Narkotrafikoak eta krimen antolatuak eragindako emakumeen erailketak				3	% 0
Gazteen indarkeriak eragindako emakumeen erailketak				1	% 0
Biolentzia ekonomikoak eragindako emakumeen erailketak				1	% 0
Kasu dudagarriak, informazio nahikorik gabeak				2	% 0
Guztira	30	3	33	681	

Prebalentzia tasa urteka eta probintziak 2010-2015

	Emakume kopurua	2015	2014	2013	2012	2011	2010	Urteko batez bestekoa
Araba	163.354	6,12	6,12	12,24	6,12	0,00	6,12	6,12
Bizkaia	593.943	3,37	6,73	6,73	1,68	5,05	5,05	4,77
Gipuzkoa	366.035	0,00	0,00	0,00	5,46	5,46	8,20	3,19
Euskadi	1.123.332	2,67	4,45	5,34	3,56	4,45	6,23	4,45
Nafarroa	322.591	0,00	0,00	6,20	0,00	3,10	0,00	1,55
Espainiar Estatuan guztira	23.733.999	4,72	4,38	4,76	4,63	4,85	5,31	4,78


Iturria: Geofeminizidio datu basetik eta Biztanleria INE 2015etik abiatutako sorkuntza propioa



FEMINIZIDIOAK ETA EMAKUMEEN BESTE ERAILKETAK

Euskadi+Nafarroa: 2010-2015 datuen laburpena

Kasu kopurua probintziak eta prebalentzia 2010-2015



Feminizidioak/erailketak izan dituzten Euskadiko eta Nafarroako udalerriak

Autonomia Erkidegoa	Probintzia	Udalerrria	Feminizidioak/erailketak
Euskadi	Bizkaia	Bilbo	7
Euskadi	Bizkaia	Barakaldo	4
Euskadi	Araba	Vitoria-Gasteiz	3
Euskadi	Bizkaia	Abadiño	2
Euskadi	Gipuzkoa	Tolosa	2
Euskadi	Araba	Asparrena	1
Euskadi	Araba	Laudio	1
Euskadi	Araba	Agurain	1
Euskadi	Bizkaia	Durango	1
Euskadi	Bizkaia	Erandio	1
Euskadi	Bizkaia	Mungia	1
Euskadi	Bizkaia	Portugalete	1
Euskadi	Gipuzkoa	Azpeitia	1
Euskadi	Gipuzkoa	Donostia	1
Euskadi	Gipuzkoa	Hernani	1
Euskadi	Gipuzkoa	Lasarte-Oria	1
Euskadi	Gipuzkoa	Zarautz	1
Nafarroa	Nafarroa	Antsoain	1
Nafarroa	Nafarroa	Burlada	1
Nafarroa	Nafarroa	Cáteda	1


Zifra ofizial gisa aitortu gabeko feminizidio intimoak

ID	Izena	Abizena	Adina	Erailketa data	Udalerrria	Probintzia	Autonomia	Feminizidio mota
505	María Elena	Cal Troncoso	45	2010/01/18	Tolosa	Gipuzkoa	Euskadi	Feminizidio intimoa
691	Jone	Ezezaguna	31	2011/06/16	Durango	Bizkaia	Euskadi	Feminizidio intimoa
1022	M ^a Ángeles	M	53	2013/04/18	Vitoria-Gasteiz	Araba	Euskadi	Feminizidio intimoa

Feminizidioak eta erailketak hilabeteka 2010-2015


Guztira: 33

Euskadi + Nafarroa



Espainiar Estatura

Guztira: 681






FEMINIZIDIOAK ETA EMAKUMEEN BESTE ERAILKETAK

Euskadi+Nafarroa: 2010-2015 datuen laburpena

Feminizidio motak eta emakumeen bestelako erailketak



Biktima


Guztira: 33

EUSKADI + NAFARROA
Batez besteko adina: 44 urte



ESPAINIAR ESTATUA
Batez besteko adina: 46 urte

Guztira: 681



Hiltzailea


Guztira: 33

EUSKADI + NAFARROA
Batez besteko adina: 39 urte



ESPAINIAR ESTATUA
Batez besteko adina: 44 urte


Guztira: 681



Biktimaren adina


Euskadi + Nafarroa

Guztira: 33




Espainiar Estatua

Guztira: 681




Hiltzailearen adina

Euskadi + Nafarroa



Espainiar Estatua






FEMINIZIDIOAK ETA EMAKUMEEN BESTE ERAILKETAK

Euskadi+Nafarroa: 2010-2015 datuen laburpena

Biktimaren langintza


Quetxe: **33**



Hiltzaileen langintza



Feminizidioaren/Erailketaren agertokia



Indarkeria ekintza nagusia






FEMINIZIDIOAK ETA EMAKUMEEN BESTE ERAILKETAK


Euskadi+Nafarroa: 2010-2015 datuen laburpena

Armak

Guztira:
33



Hiltzailearen motiboak eta egoerak






FEMINIZIDIOAK ETA EMAKUMEEN BESTE ERAILKETAK


Euskadi+Nafarroa: 2010-2015 datuen laburpena

Hiltzaile eta biktimaren arteko erlazioa

Guztira:
33



Hiltzailearen suizidioa




Feminizidioak


eta emakumeen bestelako erailketak

Espainiar Estatuko txostena 2010-2015


Prebalentzia autonomia erkidegoka 2010-2015




Biktimaren jatorria




Biktimaren adina



Hiltzailearen jatorria



Hiltzailearen adina




Feminizidioak

eta emakumeen bestelako erailketak

Espainiar Estatuko txostena 2010-2015

Feminizidioak eta emakumeen bestelako erailketak

Guztira:
681
Kasu



BIBLIOGRAFIA

BODELÓN, E. (2012): *Violencia de género y las respuestas de los sistemas penales*, DIDOT, Buenos Aires, Argentina.

CARCEDO, A., (Koord.) (2010): *No olvidamos ni aceptamos: Femicidio en Centroamérica*, CEFEMINA, San José, Costa Rica.

CARCEDO, A., SAGOT, M., (Coord.) (2000): *Femicidio en Costa Rica, 1990-1999* Panamerikako Osasun Erakundea; Emakume, Osasun eta Garapen Programa; San José, Costa Rica.

CERVERA, L. (2010): "Sistema de Información Geográfica para el Femicidio [SIGFEM]", en MONÁRREZ, J., et al., (Koord.), *Violencia contra las mujeres e inseguridad ciudadana en Ciudad Juárez*, Frontera Norte ikastetxea eta Miguel Ángel Porrúa, Mexiko.

FREGOSO, R., BEJARANO, C. (2010): "Introduction: A Cartography of Femicide in the Americas", en FREGOSO, R., BEJARANO, C., (Ed.), *Terrorizing women: Femicide in the Americas*, Duke University Press, EEBB.

LAGARDE, M. (2008): "Antropología, feminismo y política: violencia feminicida y derechos humanos de las mujeres", en BULLEN, M., DÍEZ MINTEGUI, C., (Koord.), *Retos teóricos y nuevas prácticas*, Ankulegi Antropologia Elkartea, Espainia.

MONÁRREZ, J. (2005): "Elementos de análisis del feminicidio sexual sistémico en Ciudad Juárez para su viabilidad jurídica", Unión Kongresuan, *Feminicidio, Derecho y Justicia*, Editoreak, Mexiko.

- (2010): "Las diversas representaciones del feminicidio y los asesinatos de mujeres en Ciudad Juárez: 1993-2005", en MONÁRREZ, J., CERVERA, L., FLORES, C., RUBIO, R., *Violencia contra las mujeres e inseguridad ciudadana en Ciudad Juárez*, Frontera Norte Ikastetxea - Miguel Ángel Porrúa, Editoreak, Mexiko.

- (2009): *Trama de una injusticia. Feminicidio sexual sistémico en Ciudad Juárez*, Frontera Norte Ikastetxea, Mexiko.

- (2001): "Defining Femicide and Related Concepts", RUSSELL, D., HARMES, R., (Comp.), *Femicide in global perspective*, Athene Series, Teachers College Press, New York.

- (2005): "Definición de feminicidio y conceptos relacionados", *Feminicidio, justicia y derecho*, "Mexikar Errepublikan eta Mexikoko Justizia Prokurazioaren baitan Feminizidioekin Erlazionatutako Ikerketak Ezagutu eta Jarraipena egiteko Batzorde Berezia", Mexiko.

RADFORD, J., RUSSELL, D., (Ed.), *The Politics of Woman Killing*, Twayne Publishers, Nueva York.

SEGATO, R.L. (2006): *Qué es un feminicidio. Notas para un debate emergente*, Antropologia seriea, Brasil.

Femi-geno-cidio como crimen en el fuero internacional de los Derechos Humanos: el derecho a nombrar el sufrimiento en el derecho, 1.or. Hemen eskura: <http://bit.ly/2eSb1yR>

- (2006): *La escritura en el cuerpo de las mujeres asesinadas en Ciudad Juárez*, Claustro de Sor Juana Unibertsitatea, Mexiko D.F. Hemen eskura: <http://bit.ly/13gbwxo>

TOLEDO, P. (2009): *Feminicidio*, Giza Eskubideetarako Mexiko Goienako Nazio Batuen Ordezkaritza Bulegoan, Mexiko.

NAZIOARTEKO ETA LURRALDEKO ARAUDIA ETA JURISPRUDENTZIA

AMNISTÍA INTERNACIONAL (2012): *Qué justicia especializada. A siete años de la Ley Integral contra la Violencia de Género. Obstáculos al acceso y obtención a la justicia*, Espainiako sekzioa. Hemen eskura: <http://bit.ly/2fxSJo1>

BJKN: (2009): *Informes sobre víctimas mortales de la violencia de género y de la violencia doméstica en el ámbito de la pareja o ex pareja*. Hemen eskura: <http://bit.ly/2eSjTEt>

- (2010): *Informes sobre víctimas mortales de la violencia de género y de la violencia doméstica en el ámbito de la pareja o ex pareja*. Hemen eskura: <http://bit.ly/2fR6nUj>

- (2011): *Informes sobre víctimas mortales de la violencia de género y de la violencia doméstica en el ámbito de la pareja o ex pareja*. Hemen eskura: <http://bit.ly/1FTKB8W>

- (2012): *Datos estadísticos judiciales en aplicación de la Ley 1.2004*. Hemen eskura: <http://bit.ly/2fQvgBs>

- (2012): *Informes sobre víctimas mortales de la violencia de género y de la violencia doméstica en el ámbito de la pareja o ex pareja*. Hemen eskura: <http://bit.ly/2g9pKdF>

- (2013): *Informes sobre víctimas mortales de la violencia de género y de la violencia doméstica en el ámbito de la pareja o ex pareja*. Hemen eskura: <http://bit.ly/1PZpyUw>

- (2014): *Informes sobre víctimas mortales de la violencia de género y de la violencia doméstica en el ámbito de la pareja o ex pareja*. Hemen eskura: <http://bit.ly/2fOPVSW>

- (2014): *Análisis de las sentencias dictadas por los tribunales del jurado y por las audiencias provinciales en el año 2014, relativas a homicidios y/o asesinatos consumados entre os miembros de la pareja o expareja y de menores a manos de sus progenitores*. Hemen eskura: <http://bit.ly/2elyFBI>

- (2016): *Guía práctica de la Ley Orgánica 1/2004, de 28 de diciembre, de Medidas de Protección Integral contra la Violencia de Género*. Hemen eskura: <http://bit.ly/2f7QOWx>

CEDAW SOMBRA ESPAÑA PLATAFORMA: *Informe sombra 2008-2013 sobre la aplicación en España de la Convención para la Eliminación de toda forma de discriminación para las mujeres*. Hemen eskura: <http://bit.ly/1vPp4WB>

EUROPAKO PARLAMENTUA (2007): *Informe del Parlamento Europeo sobre los asesinatos de mujeres (feminicidios) en América Central y en México y el papel de la Unión Europea en la lucha contra este fenómeno*, 2007/2025. Hemen eskura: <http://bit.ly/2ewzYob>

EUROPAKO PARLAMENTUA (2009-2014): *Informe del Parlamento Europeo con recomendaciones destinadas a la Comisión sobre la lucha contra la violencia ejercida sobre las mujeres*, 2013/2004. Hemen eskura: <http://bit.ly/2fOPVSW>

EUROPEAN UNION AGENCY FOR FUNDAMENTAL RIGHTS (2014): *Violence against women. An EU wide survey. Main results*, Publication Office of the European Union, Belgium. Hemen eskura: <http://bit.ly/2eWzOVF>

FEMINICIDIO.NET (2012): *Radiografía del feminicidio en México*. Hemen eskura: <http://bit.ly/2g9oS8S>

- (2012): *Violencia contra las mujeres en México. Las cifras de la vergüenza y la impunidad*. Hemen eskura: <http://bit.ly/2ewxgir>

GENERO INDARKERIAREN BEHATOKIA (2013): *Balance de los siete años de la creación de los Juzgados de violencia sobre la mujer*. Hemen eskura: <http://bit.ly/2ewxrKz>

MANJOO, R., (2012): *Informe de la Relatora Especial de Naciones Unidas sobre la Violencia contra la Mujer, sus causas y consecuencias*. Hemen eskura: <http://bit.ly/2eSbEby>

NBE (2007): *Estudio a fondo sobre todas las formas de violencia contra la mujer*, Nazio Batuen Idazkaritza Orokorraren Txostena, A/61/122/Add.1. Hemen eskura: <http://bit.ly/2fR9qfi>

NBE EMAKUMEAK (2012): *Violencia feminicida en México. Características, tendencias y nuevas expresiones en las entidades federativas, 1985-2010*, Mexiko. Hemen eskura: <http://bit.ly/1tu32PZ>

REINA SOFIA ZENTROA (2010): *III Informe Internacional Violencia contra la mujer en las relaciones de pareja*, Nazioarteko Valentziako Unibertsitatea, Valentzia. Hemen eskura: <http://bit.ly/2eWri9l>

UNITED NATIONS OFFICE ON DRUGS AND CRIME (2013): *Global study on homicide*, United Nations Publication, Viena. Hemen eskura: <http://bit.ly/1lTWEvh>

GENERO INDARKERIAREN ADIERAZLEAK ETA ALDAGAIAK

EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN ESTATUKO BEHATOKIA. LAN ETA GIZARTE GAETAKO MINISTERIOA (2007): *Sistema de Indicadores y Variables sobre violencia de género sobre el que construir la base de datos del Observatorio Estatal de Violencia sobre la Mujer*. 1. eranskina. Genero indarkeriaren kontrako bilduma. Dokumentuak. Madril, Espainia. Hemen eskura: <http://bit.ly/2fpZCu3>

FERNÁNDEZ LÓPEZ, M., GONZÁLEZ DE CHAVES, I., (Koord. Red2Red Consultores S.L.) (2010): *Sistema Estatal de Indicadores de Género*. Emakumearen Institutua, Osasun, Gizarte politika eta Berdintasun Ministerioa, Madril, Espainia. Hemen eskura: <http://bit.ly/2fM46cJ>

FEMINIZIDIOEN INGURUKO INFORMAZIOA ETA ESPAINIAR ESTATUKO KASUEN DOKUMENTAZIOA

BANATUTAKO ETA DIBORTZIATUTAKO EMAKUME ELKARTEEN FEDERAZIOA: *Genero arrazoiengatik eraildako emakumeen estatistika*. Hemen eskura: <http://bit.ly/2eSbFMN>

CIUDAD DE LAS MUJERES: Hemen eskura: <http://bit.ly/2fM3S52>

EMAKUMEENGANAKO TRATU TXARREN IKERKETARAKO BATZORDEA: *Feminizidioen erregistroa*. Hemen eskura: <http://bit.ly/2ewwIZT>

ESTATISTIKEN INSTITUTU NAZIONALA: *Biztanleriaren estatistikak autonomia erkidegoka, herrialdeka eta udalerrika, sexuaren arabera bananduta; atzerriko biztanleriarena autonomia erkidegoka, sexuen arabera bananduta; heriotza-kausena, sexuen arabera bananduta; giltzapetutako biztanleriarena, sexuaren arabera bananduta*. Hemen eskura: <http://bit.ly/197AaIM>

FEMINICIDIO.NET: Feminizidioan eta genero indarkerian espezializatutako ataria. Hemen eskura: <http://bit.ly/1T19ZRY>

GENERANDO RED CONTRA LAS VIOLENCIAS MACHISTAS (2015): *Informe Sombra sobre la Ley de Violencia de Género de la Comunidad de Madrid 2005-2015*. Hemen eskura: <http://bit.ly/2lRCecr>

GENERO INDARKERIARAKO GOBERNUAREN ORDEZKARITZA (2012-2014): Estatistika ataria. Hemen eskura: <http://bit.ly/17JTeWU>

GEOFEMINICIDIO: Feminizidioak dokumentatzeko onlineko aplikazioa. Feminizidioa Espainian 2010-2014 datu-basea. Hemen eskura: <http://bit.ly/1jotP96>

IBASQUE: *Indarkeria matxistak Espainian eraildako emakumeak*. Hemen eskura: <http://bit.ly/14bfjMs>

RED FEMINISTA: Heriotza eragin duten genero indarkeria kasuen kontaketa. Hemen eskura: <http://bit.ly/1Gk8czo>

Indarkeria matxisten continuum-aren formarik muturrenekoa da Femizidioa. Irismen globala duen emakumeen giza-eskubideen urraketa hori gure inguru hurbilean ere ematen da. 2010 eta 2015 urteen artean, emakume izateagatik 33 neskatila eta emakume erail zituzten Euskadin eta Nafarroan. Argitalpen honetan feminizidio horiek jaso, komunikabideek kasuei emandako tratamendua analizatu eta justiziak zein erantzun eman zien aztertu da. Era berean, hobekuntza proposamenak egiten dira, hala komunikabideei begirakoak, nola justiziarekikoak.

Lan honekin Mugarik Gabek ekarpen bat egin nahi du, indarkeria matxistak instituzioen agenda politikoetan, beste elkarteenetan zein oro har jendartean lehentasunezko gai izan daitezen. Era berean, lan honek orrialde hauetan jasotzen diren emakume guztien memoria historikoa eraikitzeko tresna izan nahi du.



MUGARIK GABE

Organización No Gubernamental de Cooperación
para un Desarrollo Humano, Equitativo y Sostenible

